

loiolarik ez balitz

iñigo aranbarri
jose luis otamendi

uztarria



AZPEITIKO KULTUR KOORDINADORA



Iñigo Aranbarri

1963an jaio zen Azkoitian, eta lanbidez irakasle da. Poesia (*Jonas Poisson*, *Dordokak eta elurrak*, *Harrien lauhazka*), nobela (*Emon biar yako*), kronika (*Zapataren oihana*, *Gure mendea*), biografia (*Sakabi*) eta saioa (*Gerraurreko literatur kritika*, Koldo Izagirrerekin batera, eta *Hitzak eta giltzak*) landu ditu. *Berria* egunkariko kolaboratzaile da.

Jose Luis Otamendi

1959an jaio zen Azpeitian, lanbidez irakasle da. *Egunsenti biluzia*, *Azken undinaren kaira*, *Zainetan murrailak*, *Poza eta gero*, *Lur bat zure minari*, eta *Bakarrik bahago neguan* poesia liburuak eta *Euri kontuak* ipuin bilduma idatzi ditu. Euskal ipuinen antologia bat ere apailatu du, *Desde aquí*.

loiolarik ez balitz

iñigo aranbarri
jose luis otamendi

uztarria



AZPEITIKO KULTUR KOORDINADORA

© **Egileak.** Iñigo Aranbarri eta Jose Luis Otamendi

© **Uztarría Kultur Koordinadora**

2005eko ekaina

Azala. Xabier Gantzarain

Diseinua eta maketazioa. Hitzeko Euskara eta Komunikazio Zerbitzuak (Azpeitia)

I.S.B.N. 84-609-5344-0

Lege gordailua. SS-631/05

Inprimaketa. Leitzaran Grafikak (Andoain)

Uztarría Kultur Koordinadora.

Helbidea. Julian Elorza Hiribidea 4, behe eskubia. Azpeitia (Gipuzkoa), 20730

Posta kutxa. 227, Azpeitia

Telefono zenbakia: 943 15 03 58

Fax zenbakia: 943 15 03 58

Posta elektronikoa: uztarria@topagunea.com

web orria: www.uztarria.com

Aurkibidea

| | |
|---|-----|
| Maitatu nahi, baina ezin | 13 |
| Puerto Lapicera bidean | 19 |
| Idazlea mediku | 25 |
| Erraldoi bat Loiolan | 31 |
| Eliteak euskaraz | 41 |
| Isil-harria | 51 |
| 1801eko udaberrian Euskal Herrian barrena egindako bidaia bateko oharpenak | 59 |
| Idazten ikasi zuen emakumea | 63 |
| Maite kanturik ederrena | 69 |
| “... ez gaitzke Loiolan deskantsuban bizi” | 77 |
| Maitagarriak gara ba... | 85 |
| K jauna | 91 |
| Propagandaren habian | 97 |
| Inazio gure patroia handia | 103 |
| Inazio bizkarroia | 115 |
| Postal exotiko bat | 123 |
| Urruti nere menditik | 131 |
| Euskal festak | 139 |
| Urkamendikoak | 149 |
| Sarkina | 159 |
| Harriak negarrez | 165 |
| Erregeari euskaraz | 173 |
| Euskararen medikuak | 177 |
| Bidaiari sentimentala | 183 |
| Euskal akademia bat | 189 |
| Biltoki berri bat | 195 |
| Kabernikolak | 201 |

(aurkibidea)

| | |
|--------------------------------------|-----|
| Aingeruak armetan | 209 |
| Gerra gurean | 215 |
| Argirik ez gau luzean | 223 |
| Indianoaren semea | 229 |
| Hiztegi bat, istorio polit eta guzti | 235 |
| Zauri baten hegian | 241 |
| Inorakoak | 249 |
| Poliedroa | 257 |
| Aizpurutxoko apaiz kantaria | 263 |
| Arestiren leihoa | 267 |

*...leihotik
ikusten dudan
herriarekin
egiten naiz
geratu.*

Gabriel Aresti

Atarian

LOIOLARIK EZ BALITZ aspaldiko asmo bati lotzea izan da. Badira urte batzuk elkarri burua berotzen hasi gintzaizkiola. Eta baietz-ezezka ekinaz, kemen han-dirik gabeko akordaldiekin joan zaigu denbora, jario bizian, ohartu gabe ia. Halako batean, iazko udaberrian honetaz eta hartaz ari ginela, eta aukera hura azkena izan zitekeela iritzita, edo ohi baino odol-berritze indartsuagoa egokitu zitzaigulako akaso, heldu genion, eta halaxe hasi, tirriki-tarraka, ordura arteko apunte, ohar eta txatalei itxura ematen.

Loiolarik ez balitz hasieran beste zerbait zen, Azkoitian eta Azpeitian izan diren idazleen katalogo moduko bat, sotila, dibulгатiboa izan nahi zuena batez ere, erakusle, gure artean izan duguna amnesia kolektiboan gal ez zekigun. Burubide horrekin abiatu ginen, askorik ez geneukalakoan. Bagenituen, gogoa pizteko laineko arrasto batzuk, hari irakurritakotik eta honi entzundakotik. Gerora, ibili eta ibili hasi garenean, berehala konturatu gara, bat, gaia bazela nahikoa hartu genuen asmoa betetzeko, eta bi, zenbat den urteen alper harripean gorde, isildu eta ezkutatu zaiguna. Gaia dagoenean lana ateratzea ez da zaila ere, ezkutukoa azalera ekartzea gehiago kostatu ohi da beti. Esan diren batzuk, esan direnean erdizka baino ez direlako esan, beste asko isil-gordean propio eduki direlako, edota inon egon bai, baina aurkitzen oso zailak ziren tokietan utzi dizkigutelako, ilunen mende. Eta hala, batean bilatu, bestean miatu, urre gorri txikia franko atera zaigu bidera. Harria altxa hemen, eta ona. Bestea jaso harantzago, eta hosto beltza. Datu baliagarriren bat, ñabardura gutxi entzuna, alderdi nahikoa ezezaguna. Lastoaren aldean garia bildu dugu asko. Suerteko ibili gara, biltzea ez zen nahikoa hala ere. Irakurri beharra zegoen esku artean genuen hura.

Etxeko literaturaren oinatzak bildu nahi genituen. Berehala ohartu ginen ordea, huts-hutsean baino, behar zutela idazle eta liburu haiek guztiek inguru

bat, non idazten zuten bai, baina azaldu beharra zegoela era berean nola, zergatik, zerk eta nork bultzatuta. Hemen idatzi dena, hemengoek idatzi dutena edo hemengoez idatzi direnak bai, baina bere giroak, bere garaiak ezarritako orbanak agerian jarritz ahal genuen neurrian. Literaturaren historia soziala? Akaso asko esatea da, baina badu hortik. Eman nahi genion jantzi bat hemen egin denari, jantzi kritikoa.

Oharkabea, Loiolak jarri digu bidea. Loiola izan da Azkoitia eta Azpeitia elkarren ondora ekarri eta lotzeko giltzarria. Loiolak badu munduan entzutea eta oihartzuna, han-hemenka piztu ditu jakinmina, gorrotoa eta mirespena. Nabarmena da, bai Azkoitiak eta bai Azpeitiak izan duten bere historia eta bilakabidea, inolaz ere ulertzerik ez daudenak Loiolari begiratu gabe. Izan ere, hainbestekotxea izan da Loiolaren eragina, baita literaturan ere. Eta hortik nahi guk.

Euskal Herriko kulturaren eta ideologiaren produkzio eta hedapenean gako izan diren gunetako batean gaude. Beharrezkoa zen batzen genuen bitartean zergatia azaltzea, mito errazei itzuri eginez, oraindik ere askotan nagusitzen ikusten dugun txokokeria baztertuz. Literaturak, alde honetatik, aparteko materiala eskaintzen du gizartea ulertzeko.

Gero, bildutakoa irakurtzen hasi, eta nabarmena dena azalean: Loiola zer izan den galdetuz gero, biko erantzuna eman behar. Loiola zama izan da, eta hala izan den neurrian, baita akuilu ere. Garbi ikusten den zerbait da, egunero bizimodua ez ezik kultura ere goitik behera baldintzatu duen erraldoiaren itxuran ageri da kupula harro hori, itzal beltzeko irentzaile orain, horrexegatik ernegarri hurrengoan. Izan ere, jesuitak gabe, han-hemenka ezagutu ditugun apaiz, fraile eta mojak gabe, nola azaldu bailara honen izatea bera? Ezta, ordea, ez dago Loiola erakusterik oso antzean, bere maitasunak, ametsak eta nahiga-beak eder adierazteko irrikaz bizi diren Azkoitia eta Azpeitia gabe, Euskal Herria eta bere zertzeladak gabe. Horra gu, hemengo eta edonongo.

Trento ondorengo giro hertsia itotako bailara izan da gurea. Jauntxoen aristokrazia trinko batek luzaroan albain motxean lotuta izan duen ingurua, larderiaz gerizatu dituen bere pribilegioak. Eta esan gabe doa, gizarte patriarkalean txertatua zeharo. Nolabaiteko isolamendu geografikoarekin batera, Euskal Herriko integrismo katolikoren bihotz izateak markatu du erabat hemengo literatura. Ezaguna da zer izan garen. Egunero gogorarazten digute, oraindik ere, beste bazterretako adiskideek.

Eta hori onartuta ere, ezin esan genezake ez denik hemen literatur altxor oparoa mamitu. Munduko izan gara, asmatu du munduak Izarraizpeko bideak topatu eta guregana heltzen. Hona ere iritsi dira batean eta bestean nagusi izan diren joerak eta pentsakerak. Iritsi dira eta bertako egin dira, maiz oso era *sui generisean*, Loiolak moldatuta ia beti. Hala etorri ziren ilustrazioa, karlismoa, sindikalgintza, nazionalismoa... askotan, hutsak ere, salatari datoz, ez gara ibili denean osatuak.

Eta honetan, Loiolak ukitu duen guztiari ezarri dio bere kutsua, nola ez, baita literaturari ere. Jaso ditugunak elkarren ondotik irakurri ditugunean ohartu gara. Ikusi egiten da ibilia. Galderak datozkigu. Historiaren dolarean, ez dira, azken beltzean, Loiola eta San Inazio karlismoaren eta nazionalismoaren arteko katebegi galduak?

Hori izan nahi du *Loiolarik ez balitz* honek: mendeetako kultur ahalegin baten kontakizuna. Ez dezagun, horregatik, proselitismo asmoz idatzitako literatura katolikoa soilik ikusi. Hemen bada idatzi egin duen jendartea. Asmatzeko, dantza eta jolas egiteko, kantatzeko eta amets egiteko grina izan duena, itzalak itzal, irri eta negar, idatzi egin duena. Bertsoak, poemak, kantuak, kronikak, alegiak, ipuinak, eleberriak bizitzeko idazten dituen, eta ez ezein eliza, ez ezein alderdi, ez ezein hizkuntza bizi dadin.

Loiolarik ez balitz nahi horren liburua da.

MAITATU NAHI, BAINA EZIN

GUTXI dira oso XVI. mendean euskaraz idatzi eta gureganaino heldu diren dokumentuak. Liburu izatera iristen ez diren lerro eta orri solteak dira gehienetan, gutunak, elegiak, edota elizako gora-beheraren bat dela tarteko —ezteiak maizenik—, ezkongaien elkarri egindako fede aitortzak-eta. Gauza gutxi inondik ere, literaturatik baino balio filologikotik gehiago dutenak beti.

Hauen guztien artean, Nafarroakoak dira gehienak (Iruñea, Uterga, Olazti, Bakedano, Espartza-Galar...), eta Iruñeko Elizabarrutiaren Artxiboan gorde izan dira. Han aurkitu zuen Jose Mari Satrustegik hona ekarri den hau ere, eta Jose Inazio Telletxea Idigorasi egindako omenaldian eman ezagutaraztera 1982an. Harrezkero, *Azkoitiko gutuna* bezala ezagutzen da, nahiz eta, ez egilea azkoitia-rra izan, ez Azkoitian bertan idatzi.

Azkoitia-rra gertaerako pertsonaia nagusietako bat da, Pedro Idiakez. Iruñeko artxiboan dagoen “Informe sobre el matrimonio de D. Pedro de Idiaquez con doña Isabel de Lobiano, en 1596” horretan kontatzen denez, aita hil zitzaio-anean sartu zuen amak Isabel Lobiano Ibissate Mutrikuko Santa Katalina komentuan. Han lau urte zeramatzala, ezkontzaz elkartzeko asmoa jakinarazi omen zion Idiakezek Isabelen amari. Mutila ez zen, itxura guztien arabera, ama-aren gustukoa, eta Debako Juan Urrutiak eta lekai-eme etxean zegoen honen alaba Anak egin behar izan omen zuten bi maiteminduen arteko bitartekari lana. Egunak pasatuko ziren, harik eta halako batean, abisua heldu zen arte barrutik, “josirik zegoela oihala eta ostegunean joateko biltzera”. Ihesa prest zegoen.

Bazkalondo batean atera omen zen Isabel komentutik, giltza ate sarrailan zegoela aprobeztatuta. Mutila zuen zain kanpoan, eta nola bestela, zaldi gaine-an. Mojak ihesaz ohartu zirenean, Mutrikura jo bide zuten, laguntza eske, eta halaxe atera omen ziren hainbat herritar bi maiteminduen atzetik. Jazarpenari harriak ezarriko zizkion istripua ere gertatu zen, ordea. Deba ibaia zeharkatzen

ari zela, meza emateko zegoen zestoar apaizgai bat ito zen. Gau hartan, Zestoako Lili etxean afaldu ostean, Azkoitian, Zabala jaunaren etxean eman omen zuen gaua andregaiak. Hurrengo egunean izan zuen Idiakezko semeak neska etxeratzeko bidea: Landakarandako bere baratzean adiskideen agurra jasotzen zuen bitartean, herriko apaizaren aurrean eskutik hartuta Pedrok, eta Isabelek ezkonfedea eman zioten elkarri.

Trentoko biltzarraz geroztik era honetako ezkontzak baliogabeak eta zigorgarriak baziren ere, Idiakez gaztea libre atera zen edozein kargutatik. Ez alferrik zen herrian lur sail asko zituen familia aberats bateko seme. Estuago hartu zuten bikoteari ihesean lagundu zion Ana Urrutia debarra. Salatua, ikertua, miaketan ari zitzaizkiola, amaiturik gabe zuen gutun baten zirriborroa aurkitu zioten gelan, Iruñean dagoen txosteneko auzi paperetan erantsia datorrena. Errepikapenez josia, gorputz hartzen ez duten esaldiz egina, ez dago ondo idatzia. Irakurtzeko zaila da, iluna zaio oso 1596ko gutun hau gaur egungo irakurleari.

Bi bertsio ematen ditugu hemen. Ezkerrean, Urrutiak idatzita utzi zuen bezalaxe, eta Satrustegiren arabera gaurkotua eskubian:

*Curemesedeoriec bida(l)du cjdan cartaren
herrepustaric heliyeun ecjegina(ga)tj
bida(l)duhotjigot curemesede oregana
daducan ob(l)igacjoagatj
ta heginten det nergar
dan guctja daquidala
herregelaen contra eginten dena
baja ectygot ecjco argatjc
curemesedeori serujceary betjco
segituac ar(r)ya conujrtjtu liquiala
daducat esper(n)cea yca(n)go dala
curemesedeorj sup(l)icacen djgot
cergatjc ecary deuan gactjgatu begit
gaquj bei ece gurie
negocjoac guera d(a)dyana daduca one
mesedeonec guc(i)cac*

Zure Mesede horrek bidaldu zidan kartaren
errepustarik herenegun ezin eginagatik
bidalduko digot Zure Mesede horrengana
dadukan obligazioagatik,
ta egiten det negar
dan guztia dakidala
herregelaen kontra egiten dena.
Baia eztigot etsiko hargatik
zure mesede horri serbitzeari betiko.
Segituak harria konbertitu likiala
dadukat esperantza izango dala.
Zure Mesede horri suplikatzen digot
zergatik ekarri deban gaztigatu begit.
Jakin bei eze gure
negozioak gera dadina daduka ona
Mesede honek guzizak.

Ez da guregana heldu den garai honetako gutun bakarra. 1622koak dira ondorengoak, Azpeitiko abadesa batek bere iloba Marianari idatziak. Aingeru Irigaraik eman zituen ezagutzera 1955ean. Gutun hauek ere Iruñeko Elizbarrutiko Artxiboan gorde dira, eta Errezilgo Mariana Arzallus eta Tolosan mediku zegoen Hernando Lortia iruinsemearen arteko harremanen ingurukoak dira. Azkoitikoan bezala, badugu maitasun istorioa eta badugu hau begi onez ikusten ez duen guraso bat. Dirudienez, Marianaren aitak ez zuen gogoko bi gazteen artekoa, eta honen arreba mojari egokitu zitzaion, antza, aita hori gozatzeko lana.

Mariana komenturen bateko zeldan daukate, seguruenik aita petralak sartuta. Aita-alaben arteko harremana, oso ozpinduta dago. Gauza bakarrak salba lezake, dirudienez, bi maitaleen arteko harremana: Hernandoren hidalgia agiriak (*yraguia*, *iralgria* dakar gutunetan). Sasoi hartan askotan egin ohi zenez, mutila “odol garbikoa” dela, hots, familian ez judu ez moriskorik ez duela izan frogatzen duenean emango zaio bikoteari elkartzeko aukera, ez bestela.

Gutunak berez puntuazio ikurrik eta letra larririk gabe daude. Dena den, ikusiko den bezala, argiagoak eta landuagoak dira *Azkoitiko gutuna* deritzana baino.

Jesus Ma(ria)

*dirala guerequin. Amen. Çure bentura
bada mendicuaquin ezcoçea ygraçria
ecarri beça leen; guero gucioc ayta orri
eraguingo diogu, Antonio ta don Martin
eta or perdicacen deban e[rr]jetoreac.
Monja da estadu andiena; nay bade-
çu nic eztiçut eragocico. Çuk vste de-
çu monjac debela contentu gucia; aen
artean ere bada çerbayt. Çeurc çeu-
re ayta ory ondoena beratuco deçu.
Ondo esan eguioçu beti. Nic yraglia
dacar<r>enean eraguingo diot bada-
car. Bitartean aytaor<r>en esanac sofri yça-
çu pacienciarequin, Jaungoicoaren
amoreç. Yraguia datorrenean estuco*

*degu aytaory. Badaquiçu çer esaten
dan gure artean; lennena bada
guiçon ondradua, bigarrena odol gar-
bia. Au danean ezta bear<r>ic.
Egun osteguna. Çure Maria de Jesus.*

*Jesus M.^a
dala gurequin. Nic, vste deçu, lecu
dedala escribicecoç. Argatic yceç
esanion Madalenchori eman.
Mesede eguin digue ygaroçen
dotoreac ta aytac ta ar<r>ebac, guci-
ac modu onecoac. Ostegunean
emetic ygaroco dira Tolosara.
Dotoreac esan dit escribi de-
guiçudala, çuri. Ala au egui-
ten det. Çure carta rrecibidu
çebala; ez nabrabendasunic
yçateagatic eztebala erançun.
Au da ondo pensatu, guichitan
bitartecoac adicea. Orayn pa-
cienciarequin ygaro yçaçu
aurqui carçela o<r>retatic atera-
co çera. Egun astelena. Çurea
Mari(a) de Jesus.*

*Jesus M.^a
dirala gurequin. Amen. Carta bidaldu niçun-
nean esaten niçun ayta jaun orrec çer
esan cidan. Emen asco ygaro degu.
Nic esan diot çuc monja nay deçula
gaztigatu didaçula. Esan dit çatoçela
egun baçuetan egotera. Nic erançun
diot baçatoç ona ezcerala esse onetatic*

ceure bician ateraco. Au esan diodanean aserratu da. Ea ynor daducan çuc bayce besteric. Nic esan diot iralgria ondo probatua ecarrico debala dotoreac. Au esan diodanean asi da gayzqui esaten. Nic esan dio<t> eztebala dotoreac culparic erregen alaba albaleu adoçeynec nay leuqueala. Esan dit çuc deçula be- raç culpa. Bayeç esan diot. Esan dit pagua eman dioçu. Esan diot ezta- la orregati pagu gayztoric, beguietaco sua gayzto dala amodia ychua dala. Esan dit gaztiga deguiçudala nayz- tebala monja çeran, bera orayn ser- bi deçaçula. Ta yceguioçu, ezçaytu jo- co, onegui deriçu. Antonioc diona ba- da estuco da. Çuc barriz euci ecynda baletor, orducoç yralgria nay neuque. Çuc ezconduta berori juango liçay<o>- te. Gure jaunac animaoi confri da- naç probey gayzçala. Aguindo serbicen bioz osoaç eguingo det. Egun ostiralea. Çure Maria de Jesus.

Hauek dira gure aurreneko testuak. Pedro eta Isabelenak, Mariana eta Hernandorenak, *beguietako sua gayzto dala*, bi maitasun istoriook ematen diote hasiera gure literaturari.

Ezta zer zetorkigun bageneki ere. Maitatu nahi, baina Eliza ohea zaintzen.

Bibliografia:

SATRUSTEGI, Jose Mari: *Euskal testu zaharrak*, Euskaltzaindia, Iruñea, 1987.

SARASOLA, Ibon: "Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos", *ASJU* XVII, 1983.

PUERTO LAPICERA BIDEAN

DON QUIJOTE DE LA MANCHA eta Cervantes aipatzeko bi aitzakia aski izango al dira. Alde batetik, Don Kijoteren VIII eta IX. ataletan horrenbesteko indarra hartuko duen Sancho de Azpeitiak Azpeitikoa behar zuela, esan gabe doa; bestetik, Azkoitiko Madariagan apaiz egon zen Pedro Berrondo oiartzuarra izan zela Cervantesen lanik gorena euskaraz eman zuena 1976an.

Ba zeuden bada bi burrukalariak, kementsuak eta aserretuak biok, ezpata zorrotzak gora jasota; ba zirudian, zeruari, lurrari ta lurpeari desafioka ari zirala, alakoxe aserre-itxura bizia zeukaten. Eta euskaldun sutua izan zen lenbiziko kolpea eman zuana; eta alako eriosuan ta indarrez, ezpata arunzkoan baztertu ez balitzaio, kolpetzar ura aski izango zan borroka zital ura bere artan amaitzeko; eta baita gure zaldu-naren burrukaizun guziak ere; baiña on-beharrak, zenbait eginkizun aundiagotarako gordeta zeukanak, bestalderatu zuan etsaiaren ezpata, eta onela, ezkerreko lepa-gaiñean jo zuan bai, baiña alde ura guzia eten'azi beste kalterik ez zion egin, belarri-erdia ta zelatarik geiena eramanaz beerakoan; lurrera erori zan ura guzia, arrigarrizko jaurtutuan erabat ondatu-ta utzirik. Jainkoa lagun! gure Mantxako'aren biotzean sartu zan aserrearen bizia, bere burua era artan ikusi zuanean; zein izango ote, berri ori eman aalgo duana? Onela bada, ta besteak beste, igo zan berriro estribo-gaiñera, eta bi eskuekin estuago elduaz ezpatari, eman zion euskaldunari goitik-bera aserre bizian, eta buru-gaiñean, burukian, jo zuan pare-parean; babesgarri ona zan bai, baiña mendiren bat gaiñera etorri balitzaio bezela, odola zariola asi zan, sudurretik, aotik eta belarrietatik; eta mando-gaiñetik beera erorka antzean, ta eroriko zan dudarik gabe lepotik besarkatuaz eldu ez balio; baiña, alaz ta guzi, oiñak beren lokera-xokotik atera zituan, eta besoak zabaldu; eta mandoa, alako kolpetzar aretaz izutu-ta, landan barrena abiatu zen korrika, eta ipur-jauzka gutxitan lurrera bota zuan bere jabea. Begira zegokion Don Kijote lasai-aski; eta erori zala ikusi zuanean, bere zalditik jaitxi-

ta arin-ariñ urbildu zitzaion, eta ezpataren punta begi-gaiñean ipiñiaz, errenditzeko agindu zion, edo-ta bestela lepoa moztuko ziola. Izu-izu egiña zegon euskalduna, itzik erantzuteko gauza ez zala; eta gaizki ibilli bearke zuan, aintxen itsutua bait-zegon Don Kijote, baldin-ta karroxako andere aiek, an zegon tokira joan ez balira; eta arren ta arren eskatu ez baliote, faborez mesede orixen egiteko, beren ezkutariari bizia barkatzeko alegia.

Ciudad Realgo Puerto Lapicera bidean, Don Kijotek eta Santxo Panzak, haize errotekin izandako borrokaldi entzutetsua amaitu berritan, *vizcaino* (euskaldun) talde batekin egingo dute topo besteak beste. Emakume bat zihoan karroxan Sevillara segizioarekin, andrazko zerbitzari bat, lau-bost gizaseme zaldizko eta oinezko bi mutil. Haiek agertu aurretxoan ere, liskar batean ibili zen Don Kijote. Hala ere, bere barne sumina eta zuzentasun gosea errenditu ezinean, euskaldunei bidea ixten ziela, aurrera pasatzen utzi nahi ezta jarri zitzaien, etorritako bidetik bueltatu behar zutela aginduz. Nola ez, laster sortu zen sesioa, berriz.

Munduan beste asko bezala —guztiak ez berdintzearren—, Espainiako Urre Aroko literaturan ere maiz ageri dira barregarri itxura fisiko xeble, jatorri susmagarriko edo mintzo traketseko pertsonaiak: beltzak, juduak, musulmanak edo euskaldunak. Han bezala hemen, ia denean, beti txarrak besteak dira. Halaxe ageri da euskalduna Don Kijoteri aurpegi ematen, “en mala lengua castellana y peor vizcaína” erasoko diola.

—Anda, caballero que mal andes; por el Dios que crióme, que, si no dejás coche, así te matas como estás ahí vizcaíno.

Zalantza gutxi dago. Cervantesek (1605ekoa da *Don Quijote de la Mancha*-ren I partearen aurreneko edizioa), garaiko literaturan nahiko ohikoa zenez, gaztelaniaz mintzo direnean euskaldun ez ikasiek (gaztelania ikasi gabeek, noski) darabilten sintaxi modua nahi izan zuela aldatu, pasadizoari komikotasuna areagotzeko.

Bada oraindik, ordea, kontu jakingarriago bat Cervantesen eleberri handi horretan erakargarri egiten duena. Madariagako apaiz ohiak euskaratutako liburuan, IX. atalburuko sarreran topatuko ditugu hitzok:

*Lenengo paper-sortan, Don Kijote'k euskaldunaren aurka egindako borroka zeto-
rren, beren bere-artan marratua; kondairak dion bezalako eran jarriak biok, ezpatak
gorajasoak, rodelaz babestua bata, ta burukiaz bestea, eta ain bere-berean euskaldu-
naren mandoa, urrutitik (ballesta-tiroarenatik) ezagun zitzaion alkilerrekoa zana.
Onoko titulu au zeukan euskaldunak, bere oinpean idatzirik: "Azpeitia'ko Don
Santxo"; dudarik gabe, orixe zan nonbait bere izena; eta Rozinanteren oinpean beste
au, "Don Kijote" ziona.*

Antza, edizio zaharrenetan "Don Sancho de Azpetia" (sic) moduan ageri den arren, bistakoa da *Azpeitia* dela Miguel de Cervantesek adierazi nahi duena. Eta bazituen nonbait euskaldun guztien artean Don Kijoterekin aurrez aurre borrokan jartzeko euskaldun jakin eta zehatz batekin gogoratzeko adina motibo.

Zergatik aukeratu ote zuen azpeitiar bat, arlote eran bada ere, galtzaile fanfarroi eta gizajo samar baten eran bada ere, literatura unibertsalaren orrietan betikotzeko?

Azpeitiko Don Santxo hori izatez Juan Perez Alzega zen, handikia eta Felipe II.aren gortean karguduna. Perez Alzega jaun hori loiolatarren eta bikuñatarren leinukoa da, Leopoldo Etxeberria ikerlari urrestildarrak berri ematen duenez.

Cervantesek izango zuen, Juan Perez Alzegaren ezagupidea, eta horren karietara bihurtuko du gizona bere eleberriko Azpeitiko Santxo. Izan ere, asma-menaren erresuma oparoko gudu zelaian elkartu aurretik, cervantestarrek eta Azpeitiko zaldunak izan zuten bestelako tirabirarik auzitegietako areto larderia-tsuetan. Tartean ohorea eta dirua izan zirela, gauza garbia ematen du. Maitasun kontuetan nahastuta ibili bide ziren Magdalena Pimentel, Miguel de Cervantesen arreba, eta azpeitiar jauntxoa Valladolid aldean. Grinaren suak, ordea, beroarena kenduta itzaltzen hasi eta zauri biziak laga zituen gordin antzean.

Magdalena Pimentelek 1581 inguruan epai bidean jarri zuen Perez Alzega, emandako ezkontzeko hitza bete zezala eskatuz. Auziak dena den ez zuen aurrera egin, alde biek konponketa adostu zutelako. Badakigu diruarekin, garai-ko hirurehun dukaten aldera berdindu zituztela Cervantesen arreba eta Perez Alzegak euren arteko malkarrak.

Lehen aipatu bezala, aurrena izan ez bazen ere, Azpeitiko Santxoren kontu-

ra Cervantesek ezarri zuen euskaldunaren estereotipoa da, guztien artean, arraskatarik handiena izango duena, *vizcaíno*-aren topikoari egundo ez bezalako indarra eman ziona.

Baina *Don Kijote Mantxa'ko* euskaraz irakurtzeko moduan bagara, Pedro Berrondo apaiz oiartzuarrak euskaratu eta 1976an argitaratu zuelako da. Ez zuen Pedro Berrondok Urola bailaran itzuli liburua. Baina izan zuen ez ahazteko moduko hartu-emana inguru hauekin, Azkoitiko Madariagako apaiz lanetan jardun baitzuen gazte denboran. Gerora ere, ez ditu izango saltzeko Izarraizpeko herriak. Hizpide izan dugun euskaldunaren topikoaren osagarri, horrela mintzo zen Berrondo jauna 1980an emandako elkarrizketa batean:

Euskal Herriko bihotza duk Urola eta gainera Izarraizko harriak badik, badik halako dohain bat. Esan ezak gero Cervantesek ez zekiela ezer euskal gauzetan, el caballero vizcaíno Sancho de Azpeitia, jarri zin harek. Apustu zaleak, emakume zaleak ere bai, eta halaberean elizkoiak. Dohain berezia dik Izarraizko harriak.

Noski, topikoak ez dira ernetzen etxetik kanpora bakarrik, azkenean guk geuk gustuko duguna erraz sinesteko joera daukagu, edozer gauza ulertzen da errazago norbere gogoaren neurriko galgan lotuz gero.

Kaikuaren eta arlotearen figura euskaldunok puztua da, XIX. mende hondarrean eta XX.aren lehen erdian, *arlotadena* literatur azpigenero bihurtzeraino. Erdal literaturaren eskutik askotan (gaztelaniaz zein frantsesez emandakoan) baina baita XIX. mende amaierako Donostiako euskal antzerkiaren pizkundearen eskutik ere (Soroa, Alzaga, Baroja...), irrigai izan da erdaraz gaizki egiten zuen euskalduna. Herritar euskaldun apala, ia beti baserri girokoa, irrigarri jarzte horrek modatik baino areago izango du ondo *gaztelaniatuaren* edo *frantsestua-ren* homologatu beharretik eta labela erakutsi beharretik, etengabe barbaro edo arrotz izan ginen garai basati haiek atzean utziak garela frogatu beharra balego bezala.

Gisa honetan amaitu zituen gure bailarakidearekikoak Cervantesek edo Don Kijotek, karroxako andere euskaldunak, erruki eske, *vizcaíno*-aren bizia barkatzeko arrenka hurbildu zitzaizkionean.

Don Kijote'k aundiki-antzean, astiro, erantzun:

—Ara bai, andere ederrok, benetan gogo onez egingo dut eskatzen didazutena; baiña ordain-kondizio bat bearco da, auxe: zaldun onek, Toboso aldera joango dala agindu bear dit, eta paregabeko Dulzinea'rengana aurkeztuko dala; arek onekin, gogoa ematen diona egin dezan.

Andere gaixo aiek, dardaraz ta negarrez, Don Kijote'k eskatu ziena ikuskatu gabe ta Dulzinea zeñ ote zan galde-egiteke, baietz esan zioten, ezkutariak egingo zuala ark agindutako guzia.

—Itz orreri sinetsiaz, bada, ez diot kalte geiagorik egingo; ongi aski merezia zuan baiña.

Hortik atzerakorik ez dakigu, eta bakoitzaren baitarako geratuko da lana. Auskalo Azpeitiko Santxok euskaldun andereek emandako hitza betetzeko lana hartuko zuen, batek daki Dulzinea ederretsiarenganainoko bidea egin bazuen zer apeta edo aldarte izango zuen, zer aginduko zizkion edo zer ez zizkion aginduko Don Kijote bihotz zabala kupitu zitzaion azpeitiarrari.

Apunte gertuagoko bat amaitu aurretik, Jesus Guridik 1915ean “Una aventura de Don Quijote” hamabi minutuko poema sinfonikoa idatzi zuen. Madrilgo Price Zirkoaren Antzokian estreinatu zen 1916ko azaroaren 17an. Madrilgo Orkestra Sinfonikoak eman zuen Bartolome Perez Casasen zuzendaritzapean. Musikariak Don Kijoteren eta Azpeitiko Santxoren arteko borrokaldian hartu zuen oinarri lan hori burutzeko.

Bibliografia:

CERVANTES, Miguel: *Don Kijote Mancha'ko*, (Pedro Berrondoren itzulpena) Itxaropena, Zarautz, 1976.

ETXAGÜE BURGOS, Jorge: “De los vizcaínos a los arlotes. Sobre el empleo humorístico del español hablado por los vascos”, *Cuadernos Cervantes* 43. zenbakia, 2004 (www.cuadernoscervantes.com).

ETXEBERRIA, Leopoldo: “Juan Perez de Alcega, Don Quijotek barkatu dion Santxo Azpeitiarra”, *Azpeitiko San Inazio festetako Udalaren egitaraua*, Azpeitia, 1978.

“Solasean: Aita Berrondo”, *Oh! Euzkadi* 2. zenbakia, 1980 ekaina.

IDAZLEA MEDIKU

IZENeko medikua zen Juan Bautista Ibaseta XVIII. mende hasiera hartako Azkoitian. Fede handia zitzaion herrian, antza, hainbestekoa non ez zen nahi edonork bete zezan hark utzi zuen lanpostua. Ibaseta hil ondoren, zeruak eta lurak astindu zituzten udal agintariek maila emango zuen ordezkoa aurkitzeko. Ezarian-ezarian, Hondarribian topatuko zuten azkenik gustukoa. 1725ko abenduaren 25eko batzarrean erabaki zuen Azkoitiko Udalak Joannes Etxeberri Azkoitira ekartzea.

Heltzerako, bide luzea zuen egina. Saratarra sortzez, Pauen ikasia zen, jesuitetan. Frantzian hartua zuen medikuntzaren antzea. Maria Issargarate-rekin ezkondua, Saran bertan ekin zion sendagiletzari. Laster egin zuen mugaz hegoaldera. 1716an Beran baitzen, eta 1722an, Hondarribian.

Julio Urkijok eta Imanol Eliasek Azkoitiko udal artxiboetan egindako lanari esker, gaur egun xehetasun asko dakizkigu Etxeberri medikuaz. Egindako lanetatik zer kobratzen zuen, esate baterako:

...las visitas de la población, por real de vellón cada una; en saliendo de la población, hasta media legua, por dos reales: en pasando de ella hasta una legua y media, seis reales; y pasando más adelante, v.g. a las Aguinagas, un real de a ocho.

Aginetaraino. Oraindik ere, esaten dutenez, laino itsu eta euri langar egunetan ikusi egin daiteke Lapurdi argitik heldutako mediku zaharra zaldi gainean Zumarraga bidean, mendi artean barrena, atekaz ateka, ibai bazterretik gora, baso ilunak eta itzal ilunagoak lagun dituela, basetxe urrun bateraino heltzen.

Urkijo izan zen Etxeberriren Azkoitiko urteak sakon aztertzen aurrena. Udal artxiboan aurkitutako dokumentuen artean, badira 1739tik atzera herritarrek

Etxeberriren kontra jarritako demandak eta kexuak, ustez lana ondo betetzen ez zuelako, ez zela deitutako tokietara heltzen eta halako.

Berritu egingo zitzaion eskritura Etxeberria jaunari beste urte batzuetarako aurrekoa bete ondoren, baina alkateak adieraziko zuen 1739ko apirilean 26an, kexak zirela herriko baserritarren aldetik, dirutza handia jasotzen zuenez. Horrela erabakiko zuten komisario bat izendatzea baserrietara ziren bideen berri jakin eta ordainketaren berri aztertu zezaten, aginduz baita ere sendagileari zaldieria bat prest izateko etxean beraren beharra izaten zuen unerako.

Bi urte geroago ere Etxeberria jauna zaldieri gabe zegoen, agintarien aldetik herri-tarren kexak jasotzen zirela.

Ikusten denez, arazoaren sorburua ez dago medikuaren utzikieran, udaletxeak zuen ordaindu ezinean baizik. Ordaintzen ez zitzaiolako ez zuen zaldia mantentzerik Etxeberrik.

Considerando la estrechez de medios en que se halla esta villa y que la de Azpeitia y otras de esta provincia que tienen mucho mayores no se extienden a asalar a al médico ni aún con 400 ducados, reconocieron dichos señores la imposibilidad de poder continuar al presente don Juan de Echeverria con el señalamiento que hasta ahora a gozado de 550 ducados y determinaron conformes se le rebajen 100 ducados, quedando su salario en 450, y esto en atención a los años que ha servido en esta villa...

1748an, baserrietara heldu ezinean zebilen gure idazle medikua. Urte hone-tan bertan erabaki zuten herriko agintariek erretiroa ematea. Hondarribitik heldu eta jubilazioa hartu artean, hogeita hiru urte egin zituen mediku Joannes Etxeberri Sarakoak Azkoitian. Ez zuen asko gozatzerik izan, baina, hurrengo urtean hil baitzen, pentsatzekoa da Azkoitian bertan, heriotze agiria inon ager-tzen ez den arren. Laurogeita bat urte zituen.

Ez dago oso azkarra izan beharrik: laurogei urte zituela utzi zion medikun-tzari. Aipatu kexak gizona oso zaharra zelarik eginak dira, hirurogeita hamar urte zituenekoak. Asko garai hartarako. Eta zaldi gainean joatea eskatzen zitzaion...

Honainokoa medikuaz hitz egin dugu; idazleak hartu beharko liguke gogo

ordea, Etxeberriren tristura zaldiaz haragokoa baita. Berebiziko idazlea izan zen Etxeberri, Lazarraga eta Oihenartez geroztik, elizgizon izan ez zen bakarra. Ez da bere lana erlijiosoa, hizkuntzarekin eta gazteriarekin kezkatuta ageri den pedagogo batena baizik, kultura noranahira eramanez nahi duena. Hizkera dotore eta ederreko, Axular izan zuen eredu, eta halaxe, harexeri jarraitzen dio idazteko moldean. Baina duen balioa hainbestekoa den arren, gordean izan zen luzaroan, harik eta XX. mendearen hasieran Julio Urkijok Zarauzko frantziskotarren komentuan eskuizkribuak aurkitu eta argitara eman zituen arte.

Bizi zela, liburuxka bat bakarrik argitaratu ahal izan zuen, *Lau-urdira gomen-diozko karta edo guthuna*. Beran zegoela idatzia, Baionako Mateo Roquemaurelen etxean inprimatua, 1718an Uztaritzeko Biltzarrari zuzendutako gutuna da, diru laguntza eskatuz idatzirik zituen gramatika eta hiztegia argitara eman ahal zitzan. Agintarien axolagabekeria ez da oraingoa, Lapurdiko Biltzarrak atzera bota baitzuen Agustin semearen bitartez aurkeztu zuen egitasmoa. Itxura guztien arabera, ale bakarra gorde izan da, Harriet-ek Larresoroko seminarioan utzi zuena.

Tamalez, esan den bezala, argitara eman gabe gelditu ziren Etxeberriren obra nagusienak. Dena (ez bazuen behintzat hiztegia Azkoitian zegoela gizen-du), Urola aldera heldu aurretikoa du.

Laburdira escuararen hatsapenac (1712).

Hau da, dudarik gabe, Etxeberriren lanik interesgarriena, batez ere gazteriarri zuzendutako atala. Idazle klasiko askoren aipuak erabiliz (Sokrates, Platon, Virgilio, Horazio, Seneka, Ovidio, Estrabon, Plinio, Martzial...), euskal hizkuntzaren apologia egitea du helburu nagusi. Euskaraz zein latinez idatzita dago, eta euskararen gutxieste historikoari aurre egin nahian, hizkuntza goresteari buruzko gogoeta ez ezik, historiari buruzko saioa ere bada. Oihenartek egin zuen bezala, gerora abertzaletasunak sarri askotan aldarrikatu izan duenaren erroa bertan aurki dezakegu, alegia, Nafarroako erresuma dela benetako Euskal Herriaren ardatza eta Iruñea bere hiriburua. Logika honi jarraituz, hala, Etxeberriren aburuz, bai Espainia eta bai Frantzia hemendik sorturiko senideak lirajteke. Nafarra zen Frantziako errege Henri IV.a eta nafarrak odolez honen ondorengoak ere, tartean borboitarrak Espainiako kortean sartu zituen Luis XIV.a.

Europar estatu-hizkuntzak sendotzen ari ziren garaian idatzia, euskararentzat haien mailako balioa eskatzera dator Etxeberri. Ez zen izan gaiari heldu zion orduko idazle bakarra, hari beretik tiraka ibiliko dira Larramendi, Etxabe, Poza eta enparauak. Aldea argia da. Haiek hizkuntzaren loriak gazteleraz idatzi zituzten bitartean, euskararen apologia euskaraz eman zuen bakarra izan zen Sarako medikuarena.

Escual-Herriari eta escualdun guztiei escuarazko hatsapenac latin ikhasteco (1712).

Izenburuak dioen bezala, latina ikasteko metodoa da, euskaraz idatzia. Deklinabideak eta aditzen konjugazioak ematen ditu, denak bere aurretiko idazleentzat hartuak, hau da, Axular, Oihenart, Pouvreau eta Ziburuko Etxeberri-rengandik.

Hiztegia, lau eletan.

Autoritate hiztegia da, nolabait esateko, aitzinagoko idazleen obretatik hartutako hitzez osatua. Euskarazkoei latinezko, frantseseko eta gaztelerazko ordainak ezartzen zaizkie ondoan. Jakin badakigu, Larramendik bere hiztegiari eginiko sarreran dioenagatik, honek izan zuela esku artean zenbait egunez Etxeberriren hiztegi hau. Harrezkero zer gertatu den, ez dakigu, aita hil ondoren Etxeberriren seme Agustinek Zarauzko frantziskotarren etxean utzitako liburuen artean, hiztegi hau falta baita. Sbarbi jaunaren esku artean izan zen eta gerora Paura eraman zen hiztegia Etxeberrirena den, ezin ziurta daiteke. Zalantza horrekin hil zen Urkijo bera.

Izarraitz hegoalde honek, badu, ikusten denez, istorio tristerik gordetzeko bere magalpean. Nolakoa zatekeen ezagutzen dugun euskal literatura Etxeberri bere obra argitaratzea lortu izan balu, ez dugu inoiz jakingo. Baina zilegi bekigu amets egitea...

Bitartean, bego Joannes Etxeberrirena lotsakizun publiko baten adierazgarri. Ez apaiz ez fraile ez zen idazle bakarrenetarikoa izan, obra handia idatzi, zibila, hezkuntzara bideratua, eta agintarien laguntza faltan, argitara eman gabe galdu dena historiaren zuloan.

Bibliografia:

ELIAS, Imanol: *Azkoitia historian zehar*, Azkoitiko Udala, Azkoitia, 1999.

URQUIJO, Julio: *Obras vascongadas del doctor labortano Joannes d'Etcheberri*, Paul Geuthner, Paris, 1907.

ERRALDOI BAT LOIOLAN

MATXINADAREN urtea izatekoa zen 1766koa. Urtarrilak 29 egun zituen Manuel Larramendik, hirurogeita hamabost urteko, azken hatsa Loiolako gelan eman zuenean. Ondoan zituen Agustin Kardaberaz eta Loiolako erretore zen Jose Joakin Mendizabal.

Mendizabalek baina, Larramendiri hiltzen laguntzeaz gainera bazuen beste egiteko bat, denborarik galdu gabe bete beharrekoa. Inoren ezkutuan, gela hartan ziren eskuizkribuak bahitu eta Valladolidera igorri behar zituen berehala, Idiakez probintzialaren aginduz.

Idiakezek aitortua zion ondo zekiela josulagun zendu berriaren idatziek gortean, estatu idazkaritzan, hizbidea jarria zutela, handia zela asaldura Madrilen. Ez ziren politikoki zuzenak nonbait Manuel Larramendiren idatzieta-ko zenbait arrazoi.

Aztoramena sortu zutenen artean, 1757an idatzitako *Sobre los fueros de Guipúzcoa* liburua osatzen zutenak zeuden. Telletxea Idigorasek eman zituen ezagutzera 1983an. Esan daiteke Larramendiren ideario politikoaren funtsa biltzen dela hor.

Giro politikoa oso zen jesuiten kontrakoa Carlos III.aren gortean ordurako. Erregeak, diotenez Arandak eta beste ministro batzuk mixionatuta, zeharo galdu zuen jesuitenganako begikotasuna. Ez zetozkion garai gozoak lagundiari. Madrilen “Motín de Esquilache” izenarekin ezagutzen den matxinada piztu zen 1766ko martxoan. Jesuitak egin zituzten giroa gaiztotzearen arduradun.

Matxinada haren atzean erregea bera hiltzeko asmoa zegoela eta Ricci jesuiten jenerala konplot horretan sartzen zuen gutun bat ere zabaldu zen. Jesuitek Ameriketara, Paraguai aldean, errepublika bat eratu nahi omen zuteneko asmo ezkutua ere, haiekiko etsaigoa areagotu besterik ez zuen egingo. Dena osatzeko, Azkoitiko eta Azpeitiko apirileko matxinada ez zitzairen aldeztuko, noski.

Portugaldik (1759), eta Frantziako erresumatik (1762) lehenago egina zuten bezala, Espainiatik eta Napolitik 1767an bota zituzten. Borboiek artean ez zituzten pareko. European indar hartu zuten iritzi antijesuitikoek eta joera horren gailurra erakusten du 1773. urtean Clemente XIV.a aitasantuak Ordena deuseztatu izanak.

Egin dezagun aurreko garaietara baina, Manuel Garagorri Larramendik nolatan egin ote zuen Loiolan laketzeko hautua. Salamancan filosofiako eta teologiako irakasle ospe handia beretu ondoren, horretarako jaiera berezirik ez bazuen ere, misioak ematen ere ibili zen Palentzian-eta.

Gero, hiru urtez Neoburgeko Mariana erregina zaharraren, Carlos II.a izandakoaren alargunaren konfessore jarri zen Baionan. Lapurdiko hiriburuan zeukaten deportatua erregina eta han gertatutako jazoerek erabat baldintzatu zuten, antza, Larramendiren bizitza.

Telletxea Idigorasek diosku, Baionako esamesak eta kontu itsusiak haizatu zirenean hartu zuela Larramendik erabakia Loiolan *gordeta* bizitzekoa. Hala, hogeita hamabi urteko erretiroa egin zuen Loiolan. Emaizari begiratuta, joria gertatu zena, bestalde.

Eskandalu batek ekarri zuen Larramendi. Antonio de Hoces y Cordoba zegoen erreginaren maiordomo Baionan, berari esker jarri zen konfessore andoaindarra, elkarren oso hartuak baitziren. Baina bien arteko zerak aldi txartu eta gizon horixe izan zen erreginaren eta konfessorearen kontura berri laidogarriak lau haizetara zabaldu zituena, sexu grina ere tartean izango zutenak seguruago.

Felipe V.aren Sevillako gortera jo behar izan zuen Larramendik erreginaren ohorea eta bere izena garbituko bazituen. Lortu omen zuen helburua, baina ez zauri sakon saminak nozitu gabe. Erregina alargunak propio hala eskatu zuelako, Salamancan gorako bidea jarraitu behar zuen irakasleak, bizitza guztirako Loiolan bizitzeko baimena lortu eta hobetsi zuen. Historia eder eta triste bat ikusi nahi duenarentzat, bada hor nahikoa gai.

1734an Loiolan dago. Fitaren lumatik dakigu, hona baino lehen argitaratuak zituela *De la antigüedad y universalidad del vascuence en España: de sus perfecciones y ventajas sobre otras muchas lenguas. Demostración previa al Arte que dará á luz desta lengua*, 1728an eta *El imposible vencido. Arte de la lengua vascongada*, 1729n, Salamancan biak ere.

Larramendi, ezagutu zuen giro intelektualean, eztabaida askotan zaildua

zegoen, unibertsitate mailan, lagundian bertan, jansenismoaren eta galikanismoaren kontrako borroka teologikoan.

Espainiako eta Euskal Herriko plaza intelektualean euskararen eta euskaldunaren handitasuna erakusten lehiatu zen, gudari suhar baten kemenaz. Mariana historiagile espainiar “ofiziala” isildu nahi izan zuen *El imposible vencido*-rekin, hark esana baitzen, euskara “rudem et barbaram linguam, cultum abhorrentem” zela, hizkuntza barbaroa eta kultura lanetarako gaitu gabea.

Larramendi polemistak bere lanekin erantzuten die Mayansen, Armestoren, Islaren eta enparauen iritziei, baina bide batez ordura arte gure herriak ez zituen bezalako gramatika eta hiztegiak ondu zituen.

Madriren, 1736an atera zuen *Discurso histórico sobre la antigua famosa Cantabria*, hurrena berriz, 1745ean Donostian argitaratu zuen sona handiko *Diccionario trilingüe del castellano, vascuence y latín*. Bederatzi urte geroago, 1754an idatzi zuen *Corografía o descripción general de la Muy Noble y Muy Leal Provincia de Guipúzcoa* bere probintzia kuttunaren deskribapen etnografiko ederretsi eta aberatsa.

Hor ageri da lehenbizikoz gipuzkoarrok “odol kastatik noble” garelako mitoa. Inongo desmasiarik ahaztu nahi izan gabe, Koldo Mitxelenaren iritziz, hain da liburu horren prosa txairoa eta bizia, hain oparoa eta mamitsua ematen duen informazioa, ongi merezia lukeela horrenbestez XVIII. mendeko Espainiako literaturan leku gailen bat.

Egia da, Larramendiren handitasuna euskararen alde erdaraz idatzitakotik datorrela batez ere, bere gramatikari eta hiztegiari esker gehien bat. Aurrekari handirik ez zegoenez, lanok hutsune larria betetzera heldu ziren.

Jesuitek, Trentoko arnasa bere eginez, XVI. mendearen hondarrerako euskaraz predikatzeke kezka hartua zuten. Izan zen Bernardo Recio zeritzan jesuita euskaldun berria, Oñatin latina irakatsi bitartean, Larramendiren hiztegia eta gramatikaren laguntzaz hiru hilabetetan euskaraz dotrina erakusteko adina ikasi zuena. Dena den, hizkuntza kontuetan jaioa izango zen Recio hori, Felipe V.aren hiletarako poema bat itxuratu baitzuen euskaraz. Aurrerago kitxua ikasi eta dotrina erakusten ibili zen Ameriketean.

Giroak zer indar duen. Konpainia lehenengoz bidali aurreko urte haietan munduan zen euskal liburuen gordailu oparoena Loiolan egon behar zuen. Motiboak ere bai, Kardaberaz zegoen Larramendiren aldameneko gelan, eta aurreko biak ez ezik, Ezterripa, Zubimendi eta Mendizabal josulagunek ere eus-

kal liburu altxor ederrak zituzten. Atera kontuak, 1767an, koroak jesuitak bota eta Loiolako liburutegia inbentariatu zutenean 18.200 liburu eta dokumentu fitxatu zituzten. Erraz esaten da.

Larramendi autoritate handia zen zerabiltzan gai guztietan. Hamaika auzi erlijioso eta zibiletan jo zen haren aholkua, kritika, zentsura edo laguntasunaren eske. Jakituria, zorrotzasun eta larderiazko erraldoi nekazezina begitantzen da askotan. Hala, euskarazko literaturaren eragile, euskararen apologista izatea onartu, denek onartzen diote, baina euskarazko lanari eman dion tarte txikia kritikatu izan zaio beti. Bien bitartean bera jotzen da, aldez edo moldez, Hego Euskal Herriko inoiz ez bezalako literatur loraldiaren sustatzaile. Kardaberazek, Mendiburuk, Ubillosek berotasun horren oldean eman zituzten bereak.

Telletxea Idigoras urrun doa euskarazko literaturaren ernatze horretaz hausnartzean. Larramendik, Kardaberazek eta Mendiburuk euskal literaturaren piztu aldian izan zuten protagonismoaren funtsezko arrazoia proselitismoa izan zela dio. Euskaldungoa kristautzea, eta areago, katolikotzea izan zuten xede. Abagune hartan euskara loratu bazen, ez Loiolan bakarrik, Elizaren aintzarako loratu zela uste du:

Hubo un punto privilegiado de contacto entre nuestros tres hombres: el despertar del cultivo del euskera. El impulsor y el maestro indiscutible era Larramendi. A él dedica su primera obra euskérica Mendiburu; a él someterá Cardaveraz el manuscrito de un pequeño libro de devoción. Larramendi se siente gozosamente el padre de aquél despertar, que, no hay que olvidarlo, fue impulsado por graves razones pastorales. Cuando Cardaveraz escribe aquella frase profética, diciendo que Dios quiere que el euskera levante su cabeza, piensa primordialmente, como Larramendi y Mendiburu, en salvar almas, en cristianizar una lengua para que sirva de vehículo apropiado y usula del mensaje de Cristo a los hombres y de la respuesta de los euskaldunes a Dios; para predicar y para rezar. El euskera floreció e inició su primer renacimiento a la sombra y al servicio de la Iglesia.

Sebastian Mendiburuk Loiolan idatzi zuen oso-osorik bere lehen liburu hori, 1747an eman zena argitara: *Jesusen Bihotzaren Devocioa*. Laudoriozko gutuna idatzi zion Larramendik Mendibururi zorionak emateko, eta liburuaren hitzaurrerako jarri zuten.

Ezin, ordea, inondik ere atzendu zentsore eta kritiko alderdia ere. Edukia eta forma albain motzez ibiliko ditu inoren lanak aztertu eta epaitzerakoan. Ohar emateko modukoa ere bada Larramendi zentsore lanetan ikustea, 1748a baino lehenago eliza galikanoaren gaineko idatzi bat jesuiten barne zentsurak kalera-tzea galarazi ziola jakinik. Gerora izan ziren zapuztutako idatzi gehiago. *Belchen* konpainiaren logika ulertzea erraztu dezaketen alderdiak dira, guztiak ere etxe barruko trapaak. Eta zentsura beti dago zentsoreen gainetik.

Hala, Gandarari idatzitako gutun gogoangarrian, argitaratzeko baimenik ez zuten euskarazko testuak bazituela aitortzen zion.

Ni hiruroguei ta amairugarren urtean sartua nabil, zartu naiz, ez ordea oraindican elzartu (chochotu, caduco): burua daucat soilla, baña fresco ta sendo, aurpeguia cimurric bague, aoa ortz [guciarequin] ederraquin, colorea zurigorri ederrarequin (ala esan oi didee nacustenak); escribitzen aztu etzait, eta ardoric iñoiz ez, beti ura edaten deda-la. Orra, pintatu nai banazu, nire antza. Aspaldico urteetan equin diot nire eusqueraren bear, ta lan oni; eta cerbait arguitara ezpadet, gure Belchoc aimbeste etsaiez icaraturic, bidea ichi didate; idiqui dediñean, botaco ditugu calera. Hau nai dezu, eta hau esaten didazu. Nai daquizula bada beste edocein gaucetan agure oni cerchoren aguin-duzea, icusi dezazun ez agura modrolloaren guisa, bai zaldun gazte baten leguez obedituco deusudala. Orra, bucatu dot gutun necagarri hau zeuven escaraco verbeagaz. Escara gustioc dodaz maite, ta gozo!

Baina, momentu batez bere lanak alde batera utzita, ikusten da gogotsu aritu zela besterenak epaitzen. Kritika gogorra eman zion Mendiburuk egindako Asteteren itzulpenari, bai hizkuntzaren eta itzulpenaren egokitasun ezaren aldetik, eta baita teologiaren aldetiko flakeziengatik ere. Hurrena, Kardaberazen *Eusqueraren berri onac* helduko da Larramendiren eskuetara. Epelak bota zizkion hari ere, arinkeriaz jokatzeari egotzi zion hernaniarrari, erreferentzia historikoei dagokienean batez ere. Kardaberazi, jakina, nekagarria gertatu zitzaion zentsoreak ezarritako zuzenketak burutzeko lan hura. Nabari du ezten ironikoa erantzunean:

Pido perdón y tengo voluntad de enmendarme. Mas no prometo el acierto, por falta de conocimiento práctico (...). Son muy pocos los que con rigor saben el bascuen-

ce según toda su extensión en nombres, verbos y la rarísima armonía de sus conjugaciones; ni soy de estos pocos y acaso será V. Rev. sólo y no hay más. Si con reñirme más y más de gana pudiera V. Rev. infundirme o meterme en esta mala y dolorida cabeza parte de su noticia y conocimiento de todo el bascuence, me haría un favor inestimable.(...) V. Rev. que ha escrito a la maravilla y tantos libros sobre el bascuence y del bascuence, ni uno ha escrito en bascuence. ¡Ojala hubiera escrito muchos y muchos sermones y aun más doctrina! Nos hubiera hecho a todos otro favor mayor y nos hubiera enseñado prácticamente a hablar, escribir, etc.

Ez zuen txantxetan hartu ohi lana. Zarata handiagoa sortu zuten Mendibururekin, dantzengana erakutsi zuen jarrera zela eta, ibili zituen gorabehera bihurriek. Misioetan erasiaka ekiten zion Mendiburuk makurra eta galbidea besterik bilatzen ez zien garaiko dantzen kontra. Larramendik, aldiz, bestera joz, bai bere *Corografía*-n eta bai zentsore ari denean, herri dantzak ontzat hartzen ditu. *Christau Dotrin edo Catecismo* luzea da eztabaidaren muinean den liburua, Sebastian Mendiburuk 1764ean idatzi eta jesuiten joan-etorrietan galdua dagoena. Ikusten denez, Larramendi ez dago Mendiburuk dantzei buruz egiten duen juzku gaitzesgarria erraz irensteko:

Oiartzuar hisiti, buru gogorra...setoso charra...inoiz ere baño sutuagoa ta amorratuagoa zaudena...zentza zaitez bada.

Dantzen kontrako itsumen hori Mendibururen amorratioaren fruitu jotzen du andoaindarrak. Mendiburu, berriz, Larramendiren argudioak funtsean bere kontrakoak direlakoan dago. Auzia zuzendu guran, probintzialak ere parte hartu zuen, bakea egite aldera. Azkenean kontu hori konpontzerako, biak joanak ziren mundu honetatik.

Kontraesan handi baten paradigma moduan aurkeztu izan da luzaroan Larramendi, euskaltzale izan den hainbatean euskaraz idazteko kapaz izan ez den sortzailea. Haren lana aztertu dutenek euskaraz emandako hamaika urre txiki eta pasarte gogoangarri bildu dituzte haatik. Idazle sena eta zaina zuen euskaraz, latinez edo gaztelaniaz idatzi. Goi mailako prosagilea ageri da bildu diren euskarazko testu bakanetan: direla sermoiak, direla gutunak, direla apologietako adibideak eta laginak. Poeta txartzat daukate adituek aho batez.

Hona eskuragarrien dauden euskal testuak: *El imposible vencido*-n txertatuta-ko sei poema; *Hiztegia*-n sartu zituen euskarazko zatiak; *Corografía*-ko euskaraz emandako atal eta adibideak; *Sobre los fueros de Guipúzcoa*-tik erauzitako euskarazko testuak; *Mendibururi idatzitako gutuna* (1747); *Gandarari gutuna* (1763); *Otoitz biren itzulpenak*; *Azkoitiko sermoia* (1737); *San Agustín eguneko sermoia*, *Andoaingo sermoia*, (1763) eta *Burgosko Kristau Ikasbidea* (1747). Patxi Altunak 1990ean beste bost sermoiren zantzua igarria zuela esan zuen arren, ez diegu arrastoa jarraitu ahal izan. Mitxelenaren iritziz euskal prosaren antologian ego-
tea mereziko lukete bere hainbat testuk.

Zergatik ez zuen euskaraz gehiago idatzi? Akaso bidegile lanari eder-iriziko zion, hazia erein eta uzta oparo baten amets gozotan bizitzeari. Beharbada, bere euskara idatziaren tamainako euskaldunik ez zela pentsatuko zuen. Prosa jori hori oso-osoan gozatuko zuen irakurlegorik ez zela juzkua eginda egongo zen. Beste garai bati idazten zion aierua izango zuen ausaz.

Denboraren joan-etorrian galdutakoari bere bidesaria aitortuta ere, askietsi ezinik dago Larramendiren euskal irakurlea, gose eta ase gabe. Ez dakigu zerk elkortu eta lehortuko zion euskarazko emana, hala ere, idazlearen pilpira bizia sumatuko dio egungo irakurleak.

Mendibururen *Jesusen Bihotzaren Devocío*-ko hitzaurrean kexu da apaiz batzueganako, pulpitutik euskarari erakusten dioten ardura eskasagatik:

Gáyak berác ezta du, ta alderdi gucietatic ezta dário; eta arrezáz hitzeguiteco ezta munduan gure Eusquéra bézaiñ hizcúntza itsáscorrágo, eztiágo, gozoágoric: ta eguia onén icusbidea zure libru hau izango da.(...)

...eztá lotsagarri hitzeguin bear digutela Euscáldunac Euscalerrietan, ez guzioc daquigun hizcúnzan, ez gure erricó, gure gurásoen hizcunzan, ez bularraréquin batean edósqui guenduen ta lembicico guinequién hizcúnzan, báicican Gaztelauen hizcúnza arrotzeán? Siñis nazazu, ereille gaistóetan dago azaró chárra, eta gueró uztá soillá ta utsa. Alabañan guchic daqui bere jayeterrico Eusqueraren erdiá, eta alpérrac diradén bézala, éztute icasi nai gueiágo, ta éztie nai béren burúai atsecabéric emán. Baña onetatic cer guertatzen dá? Daquiten pisca arequin, hitz molcho, escúmen baten diña ez tán arequin nola eciñ adierázo dituztén beren esacariac, badarasáte púlpituan hitzera naasi bat, beñ Eusquéra, beñ Erdéra, beñ Latiñera, guciá lendatuá, ciquindúá, baraustuá: ceñean dirudién, igo diralá gaiñ artará enzúle gucien burlá eguitera: ta

arritú oi naz, nolá ascó ta ascó, búlzaca ordú gaistoán áyentzat, bótatzen eztituztén andicán berá. Are gogaicarriena da, charlari óyek icústea ta aditzea, nolá daudén isecáz ta misinca Eusquéraz ederqui daquiénen jolasari, beñ Nafarroaco “mintzoa” dela, gueró Bizcaico “verbá dongueá”, batean “ausaz ere” Goyerricó hizqueta dezulá, béstean “noasquiro” Beterricoa; achurlárien ta necazarien hitzera dála hura, basérritarra dirudizúla, ta millá onelacó astaqueria. Eztute izen obeágoric mereci. Ayenatú bear guñituque guré hizcúntza ederrá gáltzen digúten hizjario motél charr óyec. Oraindik eztazáute, Euscáldunac Eusquéra duelá gauzaric ónena ta honragarriena; bada ari dichecalá, beti aguertúco du beré burua, den bézala, España uts utsá, anciñacoen ta are lembicicoen etórquia ta ondocoá, ta beragátic nastebáguea, garbiena, fiñena ta nobleena: daquiela, nondic ta noizdanic datorrén: ceña dan Euscaldun-ézac, itsuca baizic eztaquitena, ez eta jaquingo ere.

Bibliografia:

- ALTUNA, Patxi: "Mendiburu (1708-1782). Euskalduna, Jesuita, Idazlea" (hitzaurrea), *Mendibururen idazlan argitaragabeak* (Patxi Altunak paratutako edizio kritikoa), Euskaltzaindia, Bilbo, 1982.
- ALTUNA, Patxi: "La auténtica biblioteca del P. Larramendi", *Muga*, 28 zenbakia, 1984.
- ARRIAGA, Jose Luis: "M. Larramendi, El Hombre", *Muga*, 28 zenbakia, 1984.
- FITA COLOME, Fidel: *Galería de jesuitas ilustres*. Madril, 1880.
- LARRAMENDI, Manuel: *Sobre los Fueros de Guipúzcoa* (Jose Ignacio Tellechea Idigorasen edizioa), CAM, Donostia, 1983.
- LARRAMENDI, Manuel: *Manuel Larramendi. Euskal Testuak* (prestatzaileak, Patxi Altuna eta Joseba Andoni Lakarra), Andoaingo Udala, Andoain, 1990.
- MITXELENA, Koldo: "Mendiburu eta Larramendi", *Euskera* XXVIII, 1983.
- TELLECHEA IDIGORAS, Jose Ignacio: "El jesuita Manuel de Larramendi", *BRSVAP*, Donostia, 1966.
- TELLECHEA IDIGORAS, Jose Ignacio: *Escritos breves (Obras del Padre Larramendi, IV)*, Kutxa, Donostia, 1990.

ELITEAK EUSKARAZ

XABIER MARIA MUNIBE Peñafloidako kondeak dohain franko zuen bere garairako. Jaio zen ohean jaiotzea izan zen, jakina, berebizikoena. Markina ondoko Etxebarritik helduak ziren munibetarrak ez ziren, ez zirenez, edonor. Aita Real Compañía Guipuzcoana de Caracas merkataritza elkartearen fundatzailea zuen. 1729an sortua, Okzitaniako Tolosako jesuetan formatua, hogeitaurterako Azkoitiko alkate izan zen Xabier Maria, eta hogeita bat zituen Gipuzkoak sasoi hartan izan ohi zituen lau diputatuetatik bat izatea lortu zuenean. Hogeita hamar betetzerako, legebiltzarkide zen Espainiako Gorteetan. Etxe eta baserri askoren jabeak ziren Peñafloidako kondeak, eta zituzten errentenatik, herrian kargu publikoak betetzeko eskatzen ziren baldintza ekonomikoak bete zitzaizketen bakarrenetakoak.

Dohain horiek gabe, nahiak nahi, ezin Real Sociedad Bascongada de Amigos del País, gerora euskaraz Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte deitu izan dena sortu. Lan horretarako lagunak herrian bertan aurkituta, Inazio Manuel Altuna Portu eta Joakin Egia, Narrosko markesarekin batera, hirurek osatuko dute “Azkoitiko Zalduntxoan” muina eta arima. Ondorengo urteetan asmatuko dute garaiko beste zenbait erreformazale ere biltzen hasierako asmoetara: Olabide, Samaniego, Foronda, Villahermosa, Menendez Valdes...

Intxausti jauregiko batzarrek beste batzuei zabaldu zieten bidea. Hala, 1763an aurkeztu ziren Elkartearen egitasmoak eta hurrengo hilabeetan mamitu hauek Bergaran. Ondoren Azkoitian, Gasteizen eta Markinan eraturiko Batzar Orokorrek sendotuta osatu zen sorrera saioa 1765ean.

“Izurac bat”, hots, Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba borboitarren modernitatean bidean jartzeko, lau izan ziren Elkartetik bereziki bultzatu nahi izan ziren arloak: Nekazaritza; Zientziak eta Arte Praktikoak; Industria eta Merkataritza; eta azkenik, Politika eta Letra Ederrak.

Ilustrazioaren bidean ibiliatik, ez ziren, ordea, inondik ere antiklerikalak. Ezin aipatu gabe utzi Menendez y Pelayoren *Historia de los heterodoxos españoles* (1880-1882) liburuaren argitalpena zela-eta, eta Santanderko ikerlariak beste zenbait gauzen artean Azkoitiko zalduntxoak “voltairzale” zirela zioen salaketaren aurrean, nola atera zen hauen defentsan nor eta Julio Urkijo bera. *Un juicio sujeto a revisión. Menéndez y Pelayo y los Caballeritos de Azcoitia* (1925) lanean ohiko zuen estiloan argitzen ditu Urkijok ordura arteko gaizki esanak, txorakeriarik gabe, zehatz, indartsu, aurrerantzean ez dadin inor gehiago errazkerian erori. Gustuko lana izan zen, itxura, Azkoitiko indar tradizionalistentzat, handik urte batzuetara kale berri baten izena eskainiko baitzitzaion Deustuko bibliofi- loari.

Elkartea eratu zen garai horretakoak edota pixka bat lehenagokoak ditu Peñafloidak bere literatur lanak, bai euskarazkoak, baita gaztelerazkoak ere. Guztien artean Kondea izan zen, dudarik gabe, Elkartearen baitan letren inguru- ruko lan teoriko nagusia burutu zuena.

Hor ditugu, esate baterako, 1766an Elkartearen Batzarretan aurkeztu zuen hitzaldia, *El buen gusto en la literatura*, non besteak beste, Horazio, Zizeron, Montesquieu, Voltaire eta Luzan-en asmo estetikoak batzen dituen; Aita Islarekin izaniko hika-miken gora-beherak jasotzen dituen *Historia del famoso pre- dicador fray Gerundio de Campazas, alias Zotes: los aldeanos críticos o Cartas críticas sobre lo que se verá* saioa (1758), edota gaur egun galdutzat jotzen den *Observaciones sobre la poesía vascongada*.

Euskaraz, berriz, esan dezagun Elkartea osatu zenerako, Peñafloidak bazue- la aski eskarmenturik. 1762an Gabonetan kantatzeko bertso batzuk eman ziren argitara Azkoitiko Miserikordian: *Gavon Sariac edo aurtengo Gavonetan Azcoytico Eleiza Nagusian cantatuco diran Gavon-Cantaac edo Otsaldiac*. Luisa Misericordiacac sinaturik kaleratuagatik, ez zen ondorengo belaunaldietan jabetzaren inguruko interpretaziorik falta izan.

Jose Manterola izan zen Peñafloidako Kondearen izena ematen aurrena. Aita Aranak izen bereko moja bat zela esan zuen; Manuel Lekuonak Larramendiren itzala ikusi zuen ustez; Peñafloidaren alde egin zuten berriz Aizkibelek eta Mitxelenak... Nahaste handia 1966an Telletxea Idigorasek, Larramendiren beraren lekukotasuna aipatuta, Kondearen egiletza behin betiko finkatu zuen arte.

Bertsoak segidillak dira, ariak, koplak. Obrak Bibliaren eta Virgilioaren aipamenak dakartza, eta heltzear dagoen mundu zoragarri bat iragartzen du, borrokarik eta istilurik gabeko *locus amenus* eder, atsegin, bakeosoa, eta Kondearen kasuan katolikotasunari loturik agertzen den aurrerapenaren paradisia lurrean. Natura Ederrean —ezen ez Natura hutsean— idoro nahi duen halako utopia moderno bat, inondik ere. Alde honetatik, euskal literaturan Ilustrazioari hasiera ematen dion liburua da *Gavon Sariac*.

Essagun du Munduak

Jesus jaio dena;

ain dago mudatua,

ez dirudi lena:

Len gucia zan pena

negar, nai bagueac;

ta orain atzegin, gusto

Algara, farreac.

Gorroto, errierta,

auciac, ta guerrà,

gaitzac, gosse, guezur, ta

intencio oquerràc:

juanic: yaezdago

ecerren bildurric

ta à la dago Mundua

Ceru bat eguiñic.

Abogadu, Escribau,

eta Merioac,

Medicu, Barberò, ta

Boticarioac,

ez dira bear; ta argatic

izango da sarri

*Hipocrates gajoa
sagûen janari.*

*Espatac, Lanzaac, eta
beste arma guciac
erossitzen dituste
Errementariac:
ta alferrican ez dedin
galdù burnia ura
empleatzera diaz
gure provechura.*

*Achur, Burdiñara, ta
golde biurturic,
Necazari languiñac
ongui guiaturic:
Emango ditu lurrac
Garia, ta Artoa;
gastaña, sagardoa
ta ardoa naicoa.*

*Garia, eta Artoa
merque ta ugariro
gastaña ta sagarra
berriz urte oro:
Ta Ardoac galdurican
lengo malicia
ez gaitu moscortuco,
edan cia, cia.*

*Ez da ones quero essango
guezurric batere,
egia essango dute
Dendariac ere:*

*Juanda emendic trampa
ta fede gaistoa,
ya ur bague saltzenda
Tabernan ardoa.*

*Bassa arteco Pistiac
malso, malso eguiñic
ez dute ya alcar jaten,
ta ain guichi guizonic:
Bat eguinic guciac
elcarren artean
vicidira etzai gabe
contentuz baquean.*

*Otssoa, eta ardia
Celai zabalean
sarri ecusten dira
biac jolassean:
Alberdanian chita
aizariarequin
Portuguesa lastanga
Gastelubarequin.*

*Aujen bai dala eguiaz
dembora urrescoa,
ta ez len Coplari zarrac
eraussitacoa:
Oraiñ aien amessac
egua sorturic
ecusten adiguera
pozaz zoraturic.*

*Baña canta berriau
gueicho luzatu da*

nere eztarri tristea
y à urratuda:
Nai agodet issildu
catarratu baño
Agur nere genteac
urrengo urteraño

Bada ondorengo urteetan Azkoitiko Miserikordiak Gabon inguruan argitara emandako antzeko liburuxka gehiago, Azkibelen arabera Peñafloidarenak direnak, baina aski estilo desberdinekoak eta nahiko azertu gabeak oraindik: *Jesusen jaiotzako bersuak* eta *Erregeen adorazioko bersuak Azkoitiko Santa Marian kantatuak*.

Baina ilustratuentzat teoria literarioa eta kantua beharrazkoa bada, are beharrezkoagoa da teoriaren aplikazioa eta kantua libertimendua uztartuko dituen generoa: antzerkia. Azken batean, antzerkiaren bidez irakatsiko da, denbora-pasean gainera. Kasik oharkabean, teatroak, teatro moralak aldatuko ditu ohitura zabarrak, hala bihurtuko astoak gizon, basoak hiri; Peñafloidaren beraren hitzak euskaratuta, “*antzerkia bertuteen eskola izan dadin, eta ez bizioena*”.

Antzerkizale amorratua, zuzendari, aktore, itzultzaile, idazle, gazteleraz emango du gehiena Kondeak. Euskaraz zarzuela erako komedia baten egile dugu. *El borracho burlado* 1764ko uztailaren hasieran antzeztu zen jende aurrean estreinakoz, Azkoitian bertan, Quetant-ek idatzi eta Peñafloidak itzulitako *El mariscal en su fragua* eta Narrosek gaztelerara eramandako *La clemencia de Tito*-rekin batera.

Ondo erakusten du emanaldiaren egitarau honek zein zen, hain zuzen, garai-ko moda: bertan sortutako ikuskizunak baino gehiago ziren Frantziatik ekarri eta itzulita ematen ziren antzezlanak.

El borracho burlado, oharrak barne, gazteleraz dago idatzia ia oso-osoan, euskara kantuetarako uzten dela. Zati hauek, gazteleraz ere ematen dira, “*hizkuntza hau ez dakitenek obra uler dezaten*”. 1764ko abuztu hartan Bergarako emanaldiaren karira argitara emandako liburuxkaren hitzaurrean, Peñafloidak aitortzen du bere asmoa obra osoa euskaraz ematea zela, baina Gipuzkoako azpieuskalki baten eta besteren arteko diferentziek eta honek aktoreengan sor zitzakeen buruhausteeek bota omen zuten errekarra hasierako asmo ona:

Digo, pues, que mi primera idea fue de que toda esta ópera fuese en vascuence; pero luego me saltó la dificultad del dialecto de que me había de servir en ella. Si me valia del de Azcoytia hubiera sido poco grato a todo el resto del País hasta la frontera de Francia, por la preocupación que tienen contra el vascuence o dialecto de Goi-erri, y si quería usar del dialecto de Tolosa, Hernani, San Sebastian, &c. Exponía a los actores a hacerse ridículos; pues sería difícil que todos pudiesen imitarle bien. Por esta razón, pues, me hube de contentar con reservar el vascuence para lo cantado, haciendo que todo lo representado fuese en castellano.

Kontua da, eman zen bezala eman zela azkenik, Azkoitiko euskaratik aski aldendurik, garai hartan Loiolan ziren Larramendiren eta Kardaberazen ereduari apur bat atxikiago, nola halako gipuzkera literario batean, herriko hizkeraz zikindurik, hala ere.

Hogeita hamabost eszenatan antolatutako jokaldi bakarrekoa, argumentua, oso garaikoa du. Bereak ditu antzerki molde barrokoaren ezaugarrietako asko. Hara kontatzen den istorioa: Txanton Garrote mozkor eta jokalaria ezaguna da. Emaztea, Maritxo, tabernaz taberna dabil, senarra aurkitu eta etxera erretiratzeko asmoz. Halako batean topatzen duenean, zemai egiten dio emazteak, nazkatuta dagoela eta agintarien aurrera eramango duela, zigor dezaten. Senarrak, hordi, burlaz eta barrez hartzen ditu emaztearen hitzak. Txanton Garroterentzat betirako eskarmentua izango dena nola egin pentsatzen hasten da Maritxo. Don Diego zalduntxoaren zerbitzariaren laguntzaz, dotore jantzi eta markes bat dela sinestarazten diote Txanton mozkorrari. Lurrunaren gozotan, horra non sartzen den Don Diego gelan. Honek, lapurtzat hartzen du gizon hordia, urkamendira eramango duela diotso. Txantoni, berehala pasatzen zaio mozkorra, ez duela berriz egingo zin egiten du, ez duela gehiago edango agintzen dio publikoari. Honela garbitzen du hordiak bere bekatua eta honela amaitzen da antzezlan. Julio Urkijok esatera, ikusleek txalo batean hartu omen zuen obra Intxaustiko jauregiko aretoan.

Ez da harritzekoa ere. Peñafloidaren antzerkia, Elkartek burutuko dituen obra guztiak bezala, ez zen herri xehearentzat egina. Ez dugu zalantza izpirik euskal elite hark algara batean hartuko zuela euren gisara jantzi eta nabarman-ki neurririk ematen ez zuen arlotearen figura hura. Algarak hemen, txistuak han, hanka hotsak eta oihuak edonon... exagerazioak nonahi. Fartsak, genero gisa,

badu hori. Krudeltasunik ere ikus dakioke obrari, ondorengo gertakariak aintzat hartzen baditugu behintzat. *El borracho burlado* antzeztu eta bi urtera, Azkoitia-Azpeitietako matxinada dugu ate joka. Kondea izango da jendetza gosetuaren errepresioan ardura izango duenetako bat.

Inoiz, historiak izua sortzerainoko gertaerak elkartzen ditu bere liburu handian. Antzerkiaren bidez ez bada bestela, masa ezjakinei erakusteko gertu beti elitea...

Bibliografia:

ALTZIBAR, Xabier: "Euskara Adiskideen Elkartean", Symbolae L. Mitxelena Septuagenio oblatae, J.L. Mena (ed.), Gasteiz, 1985.

ARETA, Luis Maria: *Obra literaria de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del Pais*, Caja de Ahorros de Vitoria, Gasteiz, 1976.

AREJITA, Adolfo: "Peñafloridaren literaturaz eta hizkera ekarriaz", *Euskera* XLIV, 1999.

MUNIBE, Xabier Maria: *Gabon Sariak/El Borracho burlado* (Xabier Altzibarren edizioa), Eusko Legebiltzarra, Gasteiz, 1991.

ZELAI: "Azkoiti'ko Zalduntxoak eta Pablo Olabide-Jauregi, Europako kultur-edatzalle", *Euzko-Gogoa* 34, 1959.

ISIL-HARRIA

IZEN hori har lezake Loiolako Santutegian erabilitako harriak, isil-harria. Bi mende oso beharko dira 1688ko martxoan lehen harria jarri zenetik, denbora eta hamaika neke eta gertaera lagun, lanak amaitutzat jo ziren arte, XIX. gizaldiaren hondarretan (1888-1889an bedeinkatu zituzten aldareak).

Harriaren lanketa zaratatsua da, bere kantua du. Gerora, harlanduak horma, kantoi edo giltzadura antzea hartzen duenean, zoru puska, kalostra edo jarleku bilakatzen dutenean hasten da lekuko isil bihurtzen, urteen joan-etorri kalapitatsu isiltasunean metatzen.

Loiola eraiki zuten harginak, igeltseroak, arotzak eta artisauak “Azpeitiko Matxinada” bezala ezaguna den gertaera asaldagarrien begi-begian ibili ziren. Bi aldiren arteko zubi jo daiteke garai hori: azkenetan zen aro zaharkitu baten aztarnak bistakoak dira batetik, eta aldi berean, erne nahian datorren mundu berri baten erdiminak antzematen dira bestetik.

Ez ahazteko moduko urtea gertatu zen 1766koa. Baina argitasun gutxi aurkituko luke Azpeitiko udaleko akta liburuetan matxinadako jazoera haiek garai-ko agiritan berri nahi lituzkeenak. Ildefonso Gurrutzagak hala diosku, esku batek baino gehiagok dituela bere lanak ederki eginak, errebolta hark ekarri zituen lorpenen berririk txikiena ere artxiboetatik zeharo ezabatzeke. Ahozko tradizioak, berriz, orduko kontuak ahaztuak ditu eta oihartzun oso lausoak besterik ez ditu gorde.

Eta dakigunaren iturburua berriro Loiolan dago. Hango txosten batean oinarritzen dira matxinadaren kontakizunari lotu nahi zaizkienak. Isiltasun osin horretan zerbait jakin nahi duenak jesuitek emandakotik jakin beharko du. Non aukeratu handirik ez da beraz.

Azpeitian, Azkoitian, Loiolan gertatukoak oihartzun zabala hartu zuen hemendik hara ere, eta 1767an, Carlos III.a, Espainiako erregeak bere jabetza-

peko lurretatik egotzi zituen lagundiko kideak, beste arrazoi batzuen osagarri Izarraizpeko matxinoak aitzaki hartuta.

Azkoitiko erretoreak, igandeko mezetan eskatu zien aleen jabe ziren eliztarrei, ez saltzeko herritik kanpora ez garirik eta ez artorik, premia handia zegoela bertan-eta. Biharamunean, apirilak 14 zituela, alea ateratzen ari ziren zamariak geldiarazi zituen buila batean Azkoitiko zapatagile eta perratzaile talde batek. Kanpai hotsean jendea erruz bildu zen, tartean zaldun jendea, eta alea bere jabe-ei itzulita eskatu zieten merkeago saltzeko handik atzera. Gariaren eta artoaren prezioa laurdena eta herena artean jaitsita denak etxera joan ziren bakean.

Azpeitira ere iritsi zen Azkoitiko berri. Jauntxoek, parekoak zituzten baserri-tarrak armatu, jaten eta edaten oparo eman, eta Azpeitia defenditzeko gertu egon zitezten agindu zieten zer gerta ere. Gainera, Loiolako langileak erabili nahi izan zituen Bizente Basazabal alkateak asmo berberarekin, baina haiek esan zioten alea merkatzea on zela eurentzat ere, eta ezetz. Gauzak onbideratuak zirela ikusita Azpeitiko agintariek etxera bidali nahi izan zituzten baserri-tarrak. Orduan, benetan zertara ekarri zituzten jakin nahi izan zuten, eta motiboa argitzearekin batera giroa berotu egin zen, herritar mordoa elkartu zitzaielarik. Kaleko herritarrak ziren, baserrietakoak eta Urrestillako matxinoak. Txistu eta danbolina aurretik zituztela jendetza handi harekin bat egin zuten Loiolako langileek eta ordurako bare zegoen Azkoitia atzera aztoratu zuten auzo herrietakoek eta bertakoek. Han ez zen xakela eta zapoa bereizten, gehiegikeriak kitatzeko borrokak senidetuak zituen *haxek* eta *hayek*.

Ilun zegoen denak Azpeitira itzuli zirenean, buruan, gogoz kontra, zaldun bat eta hiru apaiz zetozela, bandera bat eta lastargiak hartuta. Alondegia arpilatu zuten, okindegi eta ardandegi batzuetan sartu eta jan-edanean pasatu omen zuten gaua. Jauntxo eta zaldun batzuen etxeetan txikizioak burutu bide zituzten. Antonio Gorostizu zerga eta ale biltzailea nahikoa era txarrean erabiliko zuten onik irten zen arren. Beste hainbat handi jende ere mehatxatu eta izutuko zuten, noski. Denda eta aberatsen etxeetatik aleak neurtzeko erabiltzen ziren pisuak atera eta plazan apurtu zituzten, batzuk, txikiagoak, saltzekoak baitziren eta besteak, aldiz, karga handiagokoak, erostekoak.

Astearte goizean jendea lo handirik egin gabe zebilen, matxinoek iraultzaren ezpál sendoagoa ezarri nahi izan zioten bezperako oldarraldi beroari. Bezperan urratzen hasitako bidea sakonago egin nahiko zuten altxatuek, eta horrexek

atera zituen bere onetik Gipuzkoako eta inguruetako handikiak, hala zibilak nola elizakoak.

Udala elkarrarazi zuten matxinatuek “Azpeitiko Kapitulazioak” onar zitzan. Eragin handia izan zuten hango erabakiek, eredu moduan baliatu baitzituzten matxinatu ziren herri askok eta askok Gipuzkoa-Bizkaietan. Baina, tamalez, isil-harran idatzita behar dute haiek ere, eta ematen du suntsitu egin zirela betiko. Dena dela, badakigu bilera hartan gariaren eta artoaren salneurriak ia erdira jaitsi zirela agorrileko uzta heldu bitartean. Saltzeko eta erosteko neurri bera ezarri zen pisu guztietan. Horiez aparte hamarrena eta bestelako elizako zenbait negozio ere arautu zituzten.

Matxinatuek udal iraultzailea eratu eta 1766. urte hasieratik udalak txiroen kalterako hartutako zenbait akordio bertan behera utzi zituen: etxean abereak hazteko debekua, herri baratzen eta lurren errenta igotzea, mistela-eta libre saltzeko galerazpena...

Argiaren mendea esan izan zaio XVIII.ari, kulturak, pentsamenduak, edergintzak arrazoiaren argitasuna kausitu zuelakoan orduan. Euskal Herrian 1765ean abiatu zen, Xabier Munibe Peñafloidako kondea aurrelari zuela, Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen jendea sineskerien eta ezjakintasunaren ilunpetatik atera eta zientziari eta ekonomiari bultzada eman asmoz. Isla jesuitak isekaz asmatutako “Azkoitiko Zalduntxoak” taldeari aitortzen zaio euskal ilustrazio edo argiztapenaren aitzindaritzara. Europako erret gorteetan boladan zebilen erreformismoa hona txertatzen saiatu zirenak munibetarrak, egiatarrak, altuna-portutarrak izan ziren, pertsona ikasiak, edertzaleak, jakintsuak denak ere. Eta aristokrata aberats gose garaietan.

Ildefonso Gurrutxagari kasu egitekotan, XVIII. mendea izan zen ezagutu zen txarrena hemengo nekazaritzarentzat Erdi Aroaz geroztik, Espainiaren gainbehera orokorrak lagunduta, ekonomiaren krisiak sektore guztiei erasan baitzien. Berebiziko garrantzia zuten burdinolek gure bailaran eta behea jotzeko zorian ziren etengabeko gerrateek eta estatu askotan ezarri zen aduana-babes merkantilistak horretaratuta. Maizterrek gero eta gehiago ordaindu behar zuten generotan. Hori guztia nahikoa ez, eta udala txandan-txandan hogeitaka gizonek gobernatzen zuten urteak joan eta urteak etorri. Zaldunak ziren, edo “pelukak” jende xeheak erabiltzea nahiago zuen burla-izenez, ileordea ibiltzea gustuko baitzuten moda frantsesari jarraiki.

Europako haizeak askatasunaren aldeko aldarriak zekartzan, non eta ekonomian. Laboreen zirkulazio eta salneurri librea ezarri ziren legez 1765ean. Uzta txarreko aldiak ziren eta gariak berrogei erreal egiten zituen anegak eta hogeita hamar artoak, behargin soil batek egunean lauzpabost erreal besterik irabazten ez zituenean.

Jauntxoek, oro har, usteko zuten aurrerapenaren kalterako zirela merkatu libreari mugak edo trabak jartzen zizkieten legeak, eta horien artean foru sistemen hainbat alderdi. Horrek azaltzen du, neurri handi batean behintzat, zergatik jarriko diren foruen auzian mutur banatan agintari jendea eta herri xehea. Hain modu sinplean esplikatzerik ez dagoen arren, handizka esanda karlistadetan ere joko hori berritua ikusiko dugu funtsean gure inguruan, agintariak eta ondo-bizikiak liberalekin, eta herri xehea eta ezeukiak karlisten alde. Giro erori horretan eman zituen Loiolan Manuel Larramendik azken egunak *“tullido de piernas y con la proa de sus pensamientos vuelta acia la eternidad”*, Andoaingo idazlearen hitz ederrekin adierazteko.

1766ko hartan jesuiten probintzia buru Frantzisko Xabier Idiakez zegoen, jesuita sartu ez balitz Granadako kondea izango zatekeena premutza legez. Osaba Xabier, Peñafloredako kondea, jende seinalatuaren artean topatuko dugu 1764an, Sebastian Mendiburuk Azkoitian eman zituen misioetan, jarrera elizkoi beroa erakutsiz, ozen kantari.

Sermolari bikaina genuen oiartzuarra. Azpeitiko misioetan dabilela Loiolako erretoreari kexu ageri zaio jende nabarmena joaten zaiola (gutxien behar duena bestalde, Mendibururen ustez), baina jende xeheagoa bilatzen duela eskas, bereziki Loiola eraikitzen ari diren beharginen bezeria:

El vacío de los que han ido es muy pequeño en el auditorio y el de los oficiales y caseros muy notable; sería menor, si VR. (y esta es la especie) quisiese hacerme el favor de decir por medio de Ibero a los peones y oficiales, que mientras dure la misión trabajen solo hasta medio día por medio jornal.

Bistan da: orduan ere bazekiten langileei proposamen erakargarriak nola egin. Itzul gaitzen baina 1766ko apirileko egunetara. Patxi Altuna mintzo da:

Hilaren 24an horra non sartzten diren Azpeitian 300 soldadu eta mila edo Donostia

eta inguruetako herriko jende, denak armaz horniturik eta Manuel Arriola buru dutelarik. Matxinada haren kabia eta eragileak Loiola eta Loiolako langileak izan zirelakoan, hara doaz guztiak arratsaldeko 7etan, Azpeitiko korrejidorea gidari dutela. Langileak lanean aritzen ziren lekuetan sartu eta bana-bana guztiak hatzeman zituzten. Aita Ezterripa, ordea, han gertuan suertatu zen halabeharrez eta dena ikusi zuen; baita korrejidoreari kopeta eman eta eup egin ere. Langileak hatzeman zituzten tokiak sagaratuak zirela eta ez zirela, auzia sortu zen: Aita Ezterripa eta jesuitek baietz, hala zirela; Azpeitiko eta Azkoitiko jauntxo eta zaldunek, ezetz. Eta auzia Iruñera.

Bienbitartean jauntxo eta zaldunek ertsiki idatzi zioten Aita Idiakezi, Aita Ezterripa Loiolatik urrun igor zezan eskatuz, bakerik nahi bazuen. Mehatxuz eta zemaiez limurturik, Logroñora bidali zuen gainerako jesuiten onbeharrez (...). Hona nortzuk nabarmendu ziren gehien borroka hartan: Mendibururen misiora urte eta erdiz lehenago joan ziren jauntxoak: "D. Joaquin de Eguia Marques de Narros... Este Caballero y D. Xavier de Munive Conde de Peñafiorida y D. Joaquin de Emparan diputado fueron los maiores contrarios en la causa".

Manuel Arriola Donostiako alkatea zen handikien erantzunaren buru egin zuena. Donostiatik Andoainera, Asteasura eta Iturriozko bentatik zehar iritsi ziren indar armatuek lehen atxiloketak egin zituzten Azpeitian, Loiolan eta Azkoitian. Loiolako harginen artean 74 altxatu zituzten preso. Inguruko zaldunek begitan hartuak zituzten menera gaitzagoak zirelako besteak baino, asko ziren hauen artean kanpotarrak (galegoak erabat) eta lana aise aldatzen zutenak. Menpean hartzen zailak.

Maiatzean Azpeitiko eta Azkoitiko kartzeletatik Donostiara eraman zituzten 70 matxino, kliku, kliku, kliku apo edo xakel ziren inporta gabe. Berezko heriotzez hil omen zen bidean Azkoitiko zapatagile bat, beste bati, berriz, baioneta sastada txarra eman zioten ermita bateko sagaratuaren babesla lortzeko galdugordean zihoala.

Jende askori ezarri zitzaizkion isunak epaiketan. Erregearen galeretan bete zuen zigorra hainbatek, beste zenbait Zaragozara soldadu eraman zuten. Emakume batzuk Gipuzkoatik desterratu zituzten eta istiluen buru jo zituztenak Ceutako presondegira zigortu zituzten.

Udalek eta Diputazioak hartutako erabakien kontra hitz egitea galarazi zen. Gainera, bizi baldintzak lastu zitzaizkien herrian bizi ziren kanpotarrei. Erret

ebazpen batek apaizei elizetan herritarrengan erregeenganako, erret familia eta gobernuarenganako maitasuna sustatzeko agintzen zien.

Jesuitak 1767ko apirilaren 3an atera zituzten Loiolatik; Kardaberaz zen eurentako bat, soldadu artean Donostiara joaki. Handik itsasoz Italiarako bidean jarri zituzten. Ez ziren 1816ra arte itzuli. Erregearekin leial ez jokatzea egozten zieten, matxinadak sustatzea. Kardaberaz Toscanako herrixka batean hil zen, Castello San Giovanni-n; Mendiburu, berriz, Bolonian bertan.

Matxinadaren urtean ez zen saninaziotan zezenik izan. Eta ez 1766an, eta ez hurrengo urteetan ere ezin izan zen jendartean hitz egin gertatu zirenen gainean. Bat eta bi baino gehiago izan ziren horregatik auzipetuak.

Harrezkero isil-harri tonak eta tonak jarri dira bata bestearen gainean, azkoi-tiarrek eta azpeitiarrek elkar hartu zuteneko gertaera multzo hura Loiolako eraikin erraldoiaren azpian gera dadin atzendua, zapuztua betiko. Bere mamutzarean Loiolak lotzen ditu hainbeste oinazez eta elkertasunez etxe-zahar handi hori eraiki zutenak. Isil-harriari ahal bezala kopeta emanez kliku, kliku... xakel eta zapo.

Bibliografia:

ALTUNA, Patxi: "Mendiburu (1708-1782). Euskalduna, Jesuita, Idazlea" (hitzaurrea), *Mendibururen idazlan argitaragabeak* (Patxi Altunak paratutako edizio kritikoa), Euskaltzaindia, Bilbo, 1982.

GURRUTXAGA, Ildefonso: "Las Machinadas del año 1766 en Azpeitia (sus causas y desarrollo)", *Ildefonso Gurrutxaga: Aprendamos nuestra historia*, (Maria Luisa San Miguelek paratutako edizioa), Editorial Saturrarán S.L., Donostia, 2002.

LOYARTE, Adrian de: *Las grandes infamias. Los que han combatido a la Compañía de Jesús*, Donostia, 1956.

1801EKO UDABERRIAN EUSKAL HERRIAN BARRENA EGINDAKO BIDAIA BATEKO OHARPENAK

WILHELM FREICHER VON HUMBOLDT hizkuntzalari eta idazle prusiarrak bi bidaia egin zituen Euskal Herrira mende artean lauroinka: 1799an aurrena eta 1801ean bigarrena. Gurean izan zen hilabeteetan, euskal testuekiko arreta ez ezik biztanleenganakoa ere ez zuen nolana hikoia erakutsi, haren idatzietan ondo ikusten den bezala. Adiskide handiak egin zituen orduko idazle eta hizkuntzalarien artean, hala nola Mogel edo Astarloa, eta berea da halaber euskara izan zela Espainia guztiko antzinako hizkuntza dioen teoria, vascoiberismoa. Berlingo Unibertsitatearen sortzaile, hari zor diogu, neurri handi batean, euskarekiko eta euskaldunenganako interesa Europan barrena zabaldu izana XIX. mendean.

Ez da Loiolatik pasatu eta gogoetak idatzita utzi dituen lehen bidaiaria. Ez asko, baina badu aitzindaririk, Loiolako txokolatearen fama lau haizetara zabaldu nahi duen Saint Simongo dukea, esaterako. Ez da dudarik, ordea, zuten itzalagatik, Humboldtten idatziek beste bidaiari eta idazle asko jarri zituztela hona bidean, haien artean, Azkoitia-Azpeitietako jendearen orduko bizimoduaz datu politak ematen dituzten ibiltari erromantikoak.

Ondarroa ostetik berriz sartua nintzen Gipuzkoan, eta Elgoibartik Azkoitirako baso bidea gozoagoa da eta atseginagoa Bizkaia latzagoko paisaiak baino. Luzaroan zaldi gainean ibilita ezagutu nuen Izarraitz bakarrik da haitzezko labarra, aizkoraz bezala moztua, gorria eta garaia, marmolezko harrobiak nonahi, baina landarerik gabea alderik goitituenean. Azkoitia eta Azpeitia euskal ongizatearen irudirik biziena dira. Ordu laurden batek besterik ez ditu bereizten, eta biak batzeko Urola ibaiaren

ertzetik oinezkoentzat egindako harrizko espaloi luzea duela, esan liteke herri bakarra direla. Bakoitzak bere parrokia handia du, dotore eraikia, eta etxeen jiteak, kaleen garbitasunak, ongi kokatutako pasera tokiak, dena da bertako biztanleen bizi maila onaren erakusgarri. Hala ere, ez dira nekazarien bi herri txiki besterik, baina egia esan behar bada, Gipuzkoako lurrik emankorrenetan.

Hemen ere kexu dira batez ere basoentzat kaltegarri diren partzuergoak direla eta. Azkarregi saltzen da, batez ere udalerrientzat diru beharren bat sortzen denean, administrazioak behar den bezala zaindu ez, eta utzikieriaz jokatzegatik, galzorian eta lapurretarako moduan dira. Ez dira alorrek behar bezala zaintzen. Aberriaren aldeko asmoz, gizon batzuk ahalegindu dira gehiegikeria hauen kontra, baina gaur arte gauza handirik lortu gabe.

Azkoitia eta Azpeitia artean, Izarraitz aurrez aurre eta Urolako ibaiertz joria bertan duela, ordeka bat dago. Bertan dago Loiolako Inazioaren jesuiten lehengo eskola, duen dotoreziagatik Espainia guztian izena duen eraikina. Dotorezian, utzi egin behar zaio, baina maiteago izango du bidaiariak Izarraitztik ugariro ekarritako marmolen koloreen eman zoragarria. Eta era berean, faltan izango du gustu ona eta estilo noblezia. Proporzioek ez dute ezer sinpletik eta zoragarritik, kupula du beharbada onena, gertatzen dena da, beste guztia bezala, zirrimarra eta apainduraz beteegi dagoela. Gainera, asko falta du amaitzeko oraindik. Jesuitak bidali zituztenetik (berebiziko neurria eta garrantzia eman nahi izan zioten institutu honi, izan ere hona ekartzen zituzten adineko jesuitak hemen emateko amaiera euren bizialdiari), ez da ezertxo ere egin hemen, eta dena haiek utzi zuten bezalaxe dago. Azken gerran frantsesek euren etxetik bidali zituzten fraide premonstratense batzuei utzi die erregeak etxea orain. Santuaren zilarrezko irudia, berriz, Gaztelara eramanda salbatu da.

Ikusgarriena santuaren etxetik zutik gelditzen dena da, hor ikusten da kapera oraindik. Beronen aldamenean jaso da eraikin berriaren aurrealdea. Etxe garaia da, horiz margotua, leihatilekin eta apaingarri txertatuekin, leihoen azpian lerroz-lerro. Hemen bizi izan zen gizon harrigarri hau, bere garaiko zaldunen izaeraren abentura asmoak erlijio gorespenekin nahastu zituena, eta egundo ere asmatuko ez zukeena zenbaterainoko handitasunera eta burgoitasunera helduko zen eta zenbateraino itxuragabetuko berak sortutako ordena.

Azpeititik normalean kontrabandistek eta nekazariren batzuek baino erabiltzen ez duten inor gabeko bidezidor bat hartu nuen. Baso zarratuan barrera mendian gora zihoan bide gogorra, mendi errekek zaratatsu eteten zutena. Etxeetan, berriz, benta bat

edo beste baino ez. Goren dagoena Iturriozkoa da. Honen atzean herrialde guztia ikusten da, Orioko bokalea, Donostia eta itsasoa.

Bibliografia:

ABBE DE LAPORTE, *Le voyageur français*, Cellot, Paris, 1755.

ARTECHE ELEJALDE, Ignacio: *Historias de Azpeitia*, Azpeitiko Udala, Azpeitia, 1998.

AZORIN, *Los Pueblos*, 1905.

BAROJA, Pio: *El caballero de Erlaiz*, Caro Raggio, 1943.

El País Vasco, Destino, Bartzelona, 1953.

DE PAULA MADRAZO, Francisco: *Guipúzcoa en el verano de 1848*, Imprenta de don Gabriel Gil, Madril, 1849.

HUMBOLDT, Wilhelm: *Los Vascos. Apuntaciones sobre un viaje por el País Vasco en primavera del año 1801*, Auñamendi, Donostia, 1975.

LOUIS-LANDE L.: *Basques et Navarrais. Souvenirs d'un Voyage dans le Nord de l'Espagne par L. Louis-Lande*, Paris, 1878.

MAÑÉ I FLAQUER, Juan: *El Oasis. Viaje al país de los fueros*, Imprenta Jaime Jepús, Bartzelona, 1879.

MENASSADE, E.A.: *A travers le Guipuzcoa*, 1897.

MITXELENA, Eneko: *Viajeros extranjeros en Vasconia*, Ekin, Buenos Aires, 1942.

PEREZ GALDOS, Benito: *Episodios nacionales*, 1897.

PLANTE, Adrien: *San Sebastian, notes de voyage*, Ribaut, Pau, 1886.

IDAZTEN IKASI ZUEN EMAKUMEA

EUSKAL literaturan agertzen den lehen idazle emakumetzat jo izan da, oker, Bizenta Mogel, eta besterik agertu ezean hala da tamalez, Milia Lasturko, Santxa Otxoa eta Erdi Aroko beste eresigile batzuk aintzat hartzen ez baditugu. Eta galanta da.

Azkoitian jaio zen Bizenta Mogel, 1782an. Aita, Juan Inazio, Debatik ekarrazazi zuen udalbatzak aurreko urtean, mediku lanak bete zitzan herrian. Hala ere, Bizenta jaio eta urtebete baino lehen aita hil eta mogeldarren etxera, Markinara eramán zuten Juan Jose nebarekin batera. Han hazi zen Bizenta, osaba-izebek eskolaratuta.

Hemeretzigarren mendea hasi berria zen Bizenta Mogelek *Ipui Onac* liburua (1804) Donostiako Antonio Undiano liburugilearen etxean argitara eman zue-nean. Ipuinak alegiak ziren, hau da, giza tasunak eta keriak animalien bidez azaltzen zituzten fabulak, eta esan gabe doa, ageriko asmo jakinez idatziak. Azpítituluak berak, garbi dio: *Ipui Onac, ceintzuetan arquiteko dituzten euscaldun necazari, ta gazte guztiaz eracaste ederrac beren vizitza zuzentzeco*. Eta ipuinak, esan bezala, erakusteko dira, balio didaktikoa dute, moralaren bide dira. Alde hone-tatik, Muniberen ilustrazio katolikoaren beroan sortutako liburua da Mogelena. Neurri handi batean, Euskalerraren Adiskideen Elkartek emakumeen forma-zioan egindako ahalegina izan zuen babes idazleak, etxean *Peru Abarca*-ren egile izan zen osaba Joan Antoniok emandakoekin batera.

Ipui Onac-ek Esoporen berrogeita hamar alegia dakartza, mendebaldeko eus-karatik hurbil dagoen gipuzkeraz idatziak. Ondoren, bertsozko beste zortzi datoz, osabarenak. Alde honetatik, ez du Bizentak, liburuaren sorburua gorde-an edukitzeko inolako asmorik.

Naiz sinistu, naiz ez, esan bear det, gaztetxoa nintzala irakurri ta azaldu oi nituela

*Fedroren latiñezko ipuiak; artu oi nuela atsegin guztiz andia enzunaz txakur, otso, azeri, ollar,... abere, lauñoeko, eta egaztien itzketa alkarren artekoak. Zortzi urte nitue-
nean ekusirik nire neba edo anaia ikasten asi zala gure osabarekin latiñezko izkerea,
jarri zitzatan buruan ikasi bear nuela nik ere. Ala, buruari neke gogorrik eman gabe,
loari bere orduak emanda, ta zigor zaurigarriaren beldurrik ez nuela, jolasez bezela,
irten nuen nire asmoarekin Virgilioren itzneurtu, ta apinduetan gozatzen nintzala.
Edozeñek daki Esoporen ipui latiñez ta itz lotu gabeetan daudenak, errazagoak dira-
la aditzen, Fedro ta Virgilioren itz lotuak baño.*

Nahiko arrasto ematen du Bizentak nola hasi zen bera idazten, emakumea-
rentzat kulturaren ateak guztiz itxita zeuden garai hartan. Nebaren babesean,
osabarekin latina ikasiz... Izan ere, Santo Tomas Akinokoak erakutsitakoaren
bidea sendoa da, bertatik dabil Eliza Katolikoa luze-zabalean mendeetan heda-
tzen ari den sinesmena: emakumeak ez du gizonezkoaren adinako baliorik.
Askora jota, eginbehar zehatz batzuk dituen gizakia da.

Honetaz, Xabier Kaltzakortak erakutsi duenez, bada perla ederrik euskaraz-
ko testugintzan. Agirre Asteasukoak, gipuzkoar letren eskurik trebee-
nak, Bizenta Moglek liburua argitara eman eta bateratsu, garbi erakusten
digu:

*Nescachentzat ere chit gauza ona da escola, era bada, icasi deceen dotrina, goiz-
arratseco jayera, Sacramentuac ongui artzeco prestaera, Elizan modestiarequin ego-
tea, eta Meza entzuteco modua. Asco da au nescachentzat, bada escribitzen jaquitea,
batzuentzat ona izan arren, gueyenentzat caltetsu izan liteque.*

Esku artean liburua duen emakumea berebiziko arriskua da gizartearentzat.
Ia mende bete ondoren, XX.aren hasieran, honela gogorarazten digu Ruben
Vargas Ugarte historialari jesuitak:

*Niñas, si en el colegio se os ha despertado la afición a leer más que a trabajar, sois
desgraciadas. Porque ni filosofía, ni ascética, ni historia, ni ningún libro serio, no lee-
réis mucho: lo sé. No hareis otra cosa que leer novelas, como tantas otras jóvenes que
salen de los colegios incapaces de otra cosa ninguna. Cuanto valiera más que saliesen
sin saber leer.*

Garai bertsuan, Txomin Agirre ahalegintzen da, Mogelen liburuaren 1912ko berrargitalpenari eginiko sarreran, Agirre Asteasukoa eta Ugarte baino harantzago heltzen, beti bere aldera bada ere. Nola esango genuke, erabateko kartzela beharrean, hobe halako baldintzapeko askatasun moduko bat:

*Antziñetako auzia da etxeko arazoetan jardun bear duan, ala beste arlo astunago-
etarako almenik ote daukan.*

Ezetz ta baietz diote; ni baietzean nago. (...)

*Kalte egingo diola geiegi jakiteak? Oi! Eztaukagu geiegiaren bildurrik. Nork ikasi
du geiegi. Nork daki asko? Zeñek naikua? Ez, geiegiak ez kalte, gutxiegiak izatekotan,
gutxi jakinda erruz dakitelako usteak kalte, hamaika gizontxori gertatzen zaion irudi-
ra. Esanak esan, erruz ikasi dualako ezta iñoiz emakumea ondatu; gaizki azi dutela-
ko bai, txorakeriak erakutzi zaizkiolako bai, polita dala liraña dala ta galanta dala,
gezur-aizez arrotu degulako bai.*

*Ta berez bada gezatxoa ta buru ariña, txorakerietara berez badijoa ta beti amese-
tan badabill? Gatz pixka bat eman, txaldankeritik alderazi, amesetatik atera, zuzendu
garaian zuzendu.*

*Zeñek? Geuk, prakadunok; gurasoak, senarrak, anai nagusiak, dana dalakoak.
Ezkabiltz egunero emakumeak baño azkarrago gerala adierazten? Agertu dezagun
gure azkartasuna andre, arreba ta alabai gure argia emanaz, gure adore ta kemena
maitero eskeñiaz.*

Eta irakurriak irakurrita, gaude hortxe duela, hain zuen, Mogelen liburuak baliorik preziatuena, nahiz eta aurrez beste batzuek erdaretan emandakoen bidetik izan, nahiz eta itzulia izan. Liburu bat. Prosa zibilean idatzia. Balio moralak landu nahi dituen nola halako fikzioa euskaldunentzat, euskaraz.

Jolasean hasitako liburu hau, ondoren etorriko diren alegia liburu askoren aitzindari izan zen. Alegigile onak izan ziren Frai Mateo Zabala bizkaieraz, Agustin Pascual Iturriaga gipuzkeraz, Goietxe lapurteraz, *Marseillesa* ere itzuli zuen Arxu zubereraz... elizgizonak guztiak. Aitzakia, ona da. Abaderiak ez ditu alegiak hain begi txarrez ikusten ageriko funtzioa betetzen duten neurrian. Didaktismoa deitu izan den hori, eramangarri zaio.

Euskal ilustrazio txikiaren fruitu, Mogelen liburua sor zedin baldintza geografikoek eta sozialek izan zuten eragina, gaitza da. Nebaren eta osabaren artean

mamitutako formazio klasikoari munibetarren itzala gehitu behar zaio. Alde honetatik, Elizaren eta botere zibilaren arteko emaitza da Bizenta Mogelen lana.

Bitor Munibe Arangurengoari eskainia dator *Ipui Onac*. Munibetarrek jauregi ederra zuten Markin-Etxebarrian, eta handik etorriak ziren, itxura guztien araber, Azkoitira.

Nai banu agertu zure andikitasuna jatorriz, ta zure asaba jaunen argitasuna goi goi ipiñi, erraz izango nuke aitatzeaz bakarrik Munibeak, Idiakezak, Ugarteak, Aranzibiak, Sasiolak, Arizagak, Arangurenak, Alabak ta onelako beste izen eder azagutuak nonnai. Zure Asaben artean arkituko nituke Loiolakoak ere...

Hona boterearen perfekzioa: Inazio Loiolakoaren oinordeko den munibetar bat...

Ipui Onac-i, aitzindari bat topatzekotan, izenetik bertatik hasita, gogora datorenen aurreneko liburua Felix Maria Samaniegoren *Fábulas morales* da. Peñafloidako kondea zen Xabier Maria Muniberen iloba txikia, 1776an Bergarako Erret Seminarioan eskolak hasi behar zirela-eta, hark eskatuta ekin omen zion Samaniegok alegiak idazteari. Samaniego, Arabako Guardian jaioa, Tolosako alkate zen sasoi hartan. Eta hala burutu bide zen lana, Bergaran bildutakoei gustatu, eta idazten hasi. Arian-arian, bi alegia bilduma eman zituen, bost liburu aurrena, 1781ean, eta beste lau gehiago 1784an. Bertsoz daude bilduma biak, eta Esopo, Fedro, La Fontaine eta John Grayren ipuinen bertsioak dira guztiak. Bertsoz Samaniegok, hitz lauz Mogelek, bien arteko antzekotasunak, hala ere, handiak dira. Nola ez biak egile beren moldaketak izanda.

Prakadun gonaluze estuenen begietara gustu-gustukoa izango ez bazen ere, Mogelen liburuak izan zuen arrakastaren seinale dira ondorengo urteetan egin zitzaizkion edizioak. Alegietako batzuk *Euskal Erria* aldizkariak berrargitaratu zituen 1880 eta 1885 artean. Resurreccion Maria Azkueren *Euskalzale*-k ere, beste horrenbeste egin zuen 1899an. *Euskal Esnalea*-k, liburu moduan plazaratu zuen 1912an. Baita *Auspoa*-k ere 1968an...

Liburu-liburua, hauxe izan zen Bizenta Mogelek idatzi izan zuen bakarra, nahiz eta hor diren ere Abandoko frantziskotarrek sustatuta argitara emandako Gabon kanta anonimo batzuk, tartean 1819koak, *Gabonetaco cantia Vizcaitar* guz-

tientzat izenez eman zena eta “euskaldun emakume batek ateria” sinatuta kale-ratu zena. Toledoko Luis Borbon kardinalak idatzitako *Espainiako Gotzai-burua-ren Artzai-idazkia* ere itzuli zuen (1820).

Azkoitiarra jaiotzez baino ez zen azkoitiar idazlea 1854an hil zen, artean Bilbok bereganatu gabeko Abandon.

Bibliografia:

ALTZIBAR, Xabier: “Bizenta Antonia Mogel, biziaz eta lanaz zenbait argibide”,
Euskera XXVII, 1982.

AXMUTIL: “Euskal-esnale ta euskal-idazle”, *Olerti I-II*, 1962.

KALTZAKORTA, Xabier: *Bizenta Mogel*, Bidegileak, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1992.

MOGEL, Bizenta Antonia: *Ipui Onak*, (Maite Iribarren edizioa) Klasikoak, Euskal Editoreen Elkarte, Donostia, 1991.

VARGAS UGARTE, Rubén: *Curiosidades preguntadas por los lectores del Sagrado Corazón de Jesús*, Tomo III, Mensajero, Bilbo, 1906.

MAITE KANTURIK EDERRENA

MAITE bat maitatzen det maitagarria

Begi ederra du ta guztiz arguia;

Daucat urruti,

Bañan ezin quendu det buruti

Aren ichura;

Saldu albaliteque pisura,

Urrearen truque

Norc erosi faltaco ez luque.

Norc erosi, etc.

Zenbaitentzat, oraindik ere, euskaraz inoiz idatzi den maite kanturik ederrena da Euskal Herri erdialdean hainbestetan kantatu izan den *Kontxesi*.

Hasi berria zen mendea, 1802 hartako maiatzaren 11an Juan Inazio Iztueta preso ekarri zutenean Azpeitiko kartzelara. Ordizian eduki zuten lehenbizi; handik Tolosara eraman zuten; eta Tolosatik, Azpeitira. Kargua: Gaintzako eskribau zen Martin Antonio Aldasororen etxean lapurreta egin izana. Eta hala egon zen gatibu Azpeitiko kartzela zaharrea, egun Aitonena I dagoen etxean, harik eta 1805eko otsailaren 24an koinatu zuen Joseph Armendarizek bermea eman eta Iztueta, osasun aldetik gaixo, etxean hartzea lortu zuen arte. Armendariz Iztuetaren arreba batekin zegoen ezkondata, eta garaiko agiriek diotenez, Enparango errotaren ardura zeraman. Hala bada, gari, irin eta harriaren ibiliaren artean bete beharko zuen zigorra handik atzera Zaldibiko olerkariak.

Garai honetan ezagutu zuen Iztuetak Kontxesi. Maria Concepcion Bengoetxea donostiarra zen sortzez, eta hau ere Azpeitian zegoen gatibu “infanticidio” kasu bat zela-eta (abortua irakurri beharko genuke seguruenik),

garbi ez badago ere kartzelan bertan ala Iztueta bezala, bermepean zuen norbaitek hau ere etxean. Ez dute elkarrekin luzaro egoteko aukerarik izango, ordea. 1806ko apirilean, Logroñoko kartzelara, olerkiak berak dioen bezala, Azpeititik hogeita lau legoara daramate Iztueta.

*Ogueita lau leguaz nago aparte,
Bitartean ba dauzcat milloi bat ate,
Guztiac ichiric;
Nai arren ezin egon ixillic;
Beti negarrez,
Nere maite maitearen galdez:
Otedan bici,
Biotz-biotz nereco Contzeci,
Biotz-biotz nereco, etc.*

*Egunaz argui guchi, gauean illun,
Consueloric ez da neretzat iñun
Maitea gabe;
Eguin ote nadiñ aren jabe
Oroitutzean,
Zenbait pena nere biotzean
Ditut igaro:
Maite det eta ez da milagro,
Maite det eta, etc.*

Han, faltan du Azpeitian geratu den maitea. Maitasun olerkiaren generoaren barruan, badu Iztuetaren eskuak geroago Bilintxek landuko digun moldearen antzik. Erreparatzekoa da darabilen neurri berezia, eten eta guzti. Gozoegi askotan, egoeraren gordinak egiten du eder poema. Maitaleen bereizketa, trisuraren handia, dena da halako erromantizismo exajeratu bat:

*¡Ay au bacardadea eta tristura!
Nere biotz gaxoa ecin piztu da,
Ain dago illa;*

*Beti dabil consuelo billa,
Bere artean,
Banengo maitearen aldean,
Orducho bico,
Pena guztiac liraque ilco.
Pena guztiac liraque ilco, etc.*

*Nere maitea zuzaz ni oroitzen naiz
Egunaz ere baita gauetan chit maiz,
Lotan ere bay;
Zu icusitzera nic joan nai;
Libre banengo
Or nintzaque egun bigarrenge,
Naiz orduan ill,
Ez nuque izango batere miñ.
Ez nuque, etc.*

1806ko uztailaren 13an, gertaera batek aztoratuko du herria. Loiolako Aldekaitz baserrian, haur jaio berri bat aurkitu zen, bizirik, labe epelean norbaitetik utzia. Iztueta koinatuaren etxetik atera eta Logroñora aurretik etxean bermepean izan zuen Juan Inazio Iparragirre aguazila izan zuen haurrak aita ponteko. Inazia deitu zuten.

Badirudi, hasiera batean Kontxesik ezkutuan gorde nahi izan zuela amatasuna. Gauzak nola ziren: umearen bataio erregistroa ia mende erdi bat atzeratu zen. Agiria sinatzerako, amak hogeita hemezortzi urte zeramatzan hilik. Dirudenez, Donostiara eraman zuten Inazia haztera. Bitartean, aita presoak ama du izar Logroñoko kartzelako gau ilunetan:

*Leneco gau batean eguin det amets,
Bañan pentsamentuac beti al reves
Irteten dira;
Ustez nengoen zuri beguira,
Maite polita,
Cofrearen gañean jarrita,*

*Contu contari,
Nai nuen bañan ez nintzan ari.
Nai nuen bañan, etc.*

*Maite nerea daucat beti gogoan:
¡Ay orain banengo ni aren alboan
Iñoiz bezala!
Jaunac amets du cumpli dezala,
Balitz conbeni,
Consueloz ilco nintzaque ni
Nire ustean,
Maitechoren biotza icustean.
Maitechoren biotza, etc.*

*Nere maite polita ez da cer etsi,
Bigar ez pada ere or nazu etzi
Lengo lecuan,
Allegatutzen naizan orduan,
¡Ay ura poza
Nire maite maitecho biotza!
Zuri beguira,
Pena guztiac aztuco dira.
Pena guztiac, etc.*

Ez da, orain arte, arrazoia argituko lukeen dokumenturik agertu. Kontua da, sei urteko zigorra bete gabe, 1806an bertan, abenduan, Azpeitian bertan dela berriz Iztueta, itxuraz libre. Herrian elkarrekin biak, 1808an ezkondu ziren Jose Inazio Iztueta eta Kontxesi Azpeitiko parrokian. Otsailak bederatzi egun zituen.

Eta hemen galtzen zaigu zenbait urtez idazlearen arrastoa. Frantsesak Gipuzkoan sartu dira berriz ere. Gerra urteak dira. Jesus Elosegik datu interesgarria ematen digu:

Varios vecinos de Azpeitia, Iztueta entre otros, fueron mencionados y señalados... como individuos que en el año de la dominación francesa, 1809, mostraron la suficien-

te actividad como para merecer la nota de “afrancesados” que se les atribuía por parte de numerosos vecinos de la villa.

Ez dakigu herrian izan zuen presioarengatik izan zen, bai seguru, baina kontua da Azpeitiko Jose Domingo Vicuña idazkariak Iztuetaren aurkako prozesuan hartutako datuak egia izatera, 1810eko apirilean joan zela Donostiara bizitzera Kontxesi eta umeeekin. Han, denda baten jabe egiten da. Eta gutxira, Herio ate joka: 1815eko martxoaren 15ean hil zen Kontxesi. 39 urte zituen.

*Zure gauza polit oi det nerequin,
Izquidaturic dago letra birequin:*

C ta B dira,

Ascotan nago oei beguira;

¡Ain dira piñac!

Maitecho polita, zuc eguiñac

Sedaz ederqui;

Colcoan gorderic dauzcat beti.

Colcoan gorderic, etc.

Hortik atzerakoa, ez zaigu hain interesgarri. Alargunduta, hirugarrenez ezkonduko da. Kontxesirekin izaniko hiru seme-alabetatik bi, Habanara joango zaizkio bizitzera. Berak, berriz, hainbat lanbidetan probatuko du Gipuzkoako hiriburu berrian. Zerga biltzaile izango da, polizia, Donostiako kartzelako zuzendari, nor, eta euskal literaturako maitasun poemarik ederrena preso zegoela idatzi zuen gizona. 1845ean hil zen, Arrasateko bainuetxera etorrita zegoen erret familiaren aurrean aritzeko dantzariak trebatzen ari zela, sorterrian bertan, Zaldibian.

Esperantzetan bici, maite gozoa,

Noizbait cumplituco da gure plazoa;

Eta orduan,

Gauza charrik ez artu buruan;

Lengoai utzi,

*Ez degu pasatzen pena guchi;
Preso sei urtez
Onduco gaituzte nere ustez.
Onduco gaituzte nere ustez, etc.*

“Contzeciri” 1825ean eman zen argitara aurreneko aldiz, Londresen, Pablo Mendibil erbesteratuaren gestioak direla tarteko. Gaztelerazko itzulpena ere egin zion Iztuetak berak, eta halaxe eman zen argitara, ohar bitxi eta argigarri honekin:

El poeta vasco fue más feliz que el gallego, cuyos versos amorosos le acarrearón la muerte en la misma cárcel. Iztueta salió de ella e inmediatamente dió la mano de esposo a su esposa por quien tan apasionadamente suspiraba.

The End.

Bibliografia:

ELOSEGUI, Jesus: *Juan Ignacio de Iztueta Echeberria*, Auñamendi, Donostia, 1969.

GARMENDIA, Jose: *Iztueta'ren olerkiak*, Kardaberaz bilduma, Tolosa, 1978.

“...EZ GAITEZKE LOIOLAN DESKANTSUBAN BIZI”

ASKO dira batean eta bestean Loiolari, jesuitei eta San Inaziori eskaini zaizkien bertso sailak. Antonio Zabalak, *Frantzesteko Bertsoak* liburuan, bi sorta jasoak ditu San Inazioren zilarrezko irudiaren joan-etorrien eta ibileren gaia hartuta, bertsoen nondik norakoez ohar mamitsuak osagarri dituela.

Loiolak kare harrizko mamutzar astunaren itxura badu ere, ikus pasada arin batekin eman lezakeena baino nabariago nozitu ditu historiaren zafraldiak. Zilarrezko estatua eta josulagunen ordena bera behin eta berriz hara eta hona, galdu-gordean ibili beharrean suertatu dira unean uneko egoera politikoak eta sozialak horretaratuta. Erraldoiaren orekak hauskorrak izan ditu maiz oinak. Ezer ez da betiko.

Hizpide dugun hogeita zazpi bertsoko sortaren bost bat argitalpen bildu ditu Zabalak, horietako pare bat Bonaparte printzearen paperen artean Chicagoko New Libraryn, Azpeitiko Pablo Martinezen moldiztegian jaulkitakoak. Txabalategi bertsolari hernaniarrak jarri bide zituen, 1818an.

Egun Loiolako basilikako aldare nagusian ageri den Loiolako Inazioren irudi dirdaitsua Real Compañía Guipuzcoana de Caracas-ek opari emana da 1758an. Erroman egin eta urte bereko Santo Tomas egunez iritsi zen Loiolara.

Historian zehar irudiaren ibilerak eta jesuitenak pare samarreko gertatuko diren arren, labur bada ere, komeni da adieraztea batak nola besteek izan dituzten gorabehera nagusienak.

Jesuitek, lege aginduak tarteko, zortzi bider hustu behar izan dute Loiola. Hona kanporaketan egutegi urgente bat:

—1767. Espainiako Carlos III.aren aginduz jesuitak *bota* egin zituzten, erregearen aurkako konspirazio batean zerikusia zutela argudiatuta. Aitasantuak

Konpainia desegin zuen 1773an, eta hurrena, berriz, Pio VII.ak jarri zuen indarrean 1814an. Josulagunak 1816an bueltatu ziren Loiolara, ia berrogeita hamar urteko erbestealdia jiratuta.

—1820an, Madrilgo gorte liberalek ordena desegin zuten eta jesuitak *sakabanatu*. Loiolatik kanpora ibiliko dira 1823an itzuli arte.

—1835ean, Espainiako gobernuak jesuitak *disolbatu* zituen, baina Loiola karlisten eremuan zegoenez, bertan jarraitu zuten harik eta Carlos V.aren aldekoek gerra galduta, 1840an, euren jabetzez gabetuta, alde egin behar izan zuten arte. Loiola Azpeitiko erretorearen kargu geratu zen. 1852an Loiolan dira atzera berriz jesuitak, misiolari kolegio baten ardura hartuta.

—1854an, laugarren kanporaketa gertatu zen, “biurteko progresista”-ren garaian. Jesuita pare bat gelditu omen zen kapilau lanetan. 1856an bueltatu ziren, gobernu moderatua jarri zenean agintzen.

—1868an, Isabel II.a bota zuen iraultzaren aldian, jesuitak *desegin* egin zituzten, hala ere, Loiolako kolegioak martxan segi zuen. Loiola beste etxe askotatik botatako jesuiten aterpe izan zen.

—1870ean, Gipuzkoako Diputatu Nagusiaren erabakiz, berriz *bidali* zituzten, Agustin Jauregi apaiza buru izan zuen Azkoiti-Azpeitiko altxamendu saio karlista zapuztuari laguntzeagatik, zigor gisa. 1873tik atzera, gerra betean, Loiola Gipuzkoako karlismoaren bihotz eta erromesen bilgune bihurtu zen. Lizarraga jeneralak, 1873ko abuztuan, Loiolako giltzak bueltatu zizkien jesuitei.

—1876an, Canovas del Castilloren gobernuak zazpigarrenez *bota* zituen jesuitak Loiolatik, azken karlistaldian Carlos VII.a aldeztu zutelako nabarmen. 1877ko udaberrian etorri ziren bueltan batzuk, eta 1880an gainerakoak.

—1932an, II. Errepublikak *deuseztu* zuen Konpainia azkenekoz. Josulagunek duten aitasantuari obeditzeko botoa, atzerriko potentzia batenganako mendekotasuna zela arrazoituta hartu zuen erabaki hori Espainiako gobernuak. Hurrengo urtean hauteskundeak eskuinak irabazi zituen. 1937an, gerra garaian, jarri ziren Loiolan bizitzen Azkoitian eta Azpeitian sakabanatuta zeuden jesuitak. Francok ezarri zuen berriro ere Konpainia lege barruan 1938an, dekretuz.

Datu eta urte dantza zorabiagarri hau gutxi ez dela, San Inazioaren zilarrezko estatuaren ibilerak ere jakingarri dira. Denboraren orratzek markatzen dutena

bazterrera utzi gabe, irudi preziatuak egindako txangoen krokis halako bat on litzateke bidez bide ez galtzeko. Kanporatzeak eta irudia hortxe-hortxe ibiliko dira, jo goiak eta jo beheak, elkarri eskua emanda bezala. Baina Jose Joakin Erroizenea *Txabalategi*-k zilarrezko santuaren atzera-aurrerak herdoil handirik gabe kontatu zituen bertsoan.

1794an Loiolaz jabetu ziren soldadu frantsesak —tartean, noski, izango zen euskaldun bat baino gehiago, Harispe *marexal* baigorriarraren *chasseurs basques* haiek ez ziren urruti ibiliko— Konbentzioko gerra ekintzen barruan. Han altxor ederrik bazelako juzkua eginda, Gipuzkoako Diputazioak Elgoibarko Pedro Larrunbideri agindu zion *komando* eraso antolatzeke eta, berrehunen bat bolondresen laguntzaz, balioko ahalik eta gauza gehienak *aska* zitzala Loiolatik. Hamabi kutxa erreskatatu omen zituzten, haietako batean eraman zuten santu despiezatua Elgoibarra aurrena eta Madrilera gero.

Hor dator berriz, 1797an Inazio aldarean leku eske, Frantziak eta Espainiak bakea egin eta bi urtera. Barealdiaren ostean, hala ere, laster makurtuko da egoera. 1808an *frantsesteke gerra* hasi eta Loiolako zaintzaile zegoen Miguel Pizarrok, bere semeen eta bertako ostatuko nagusiaren-eta laguntzaz, pareta batean gorde zituzten pitxirik kuttunenak.

*Santu glorioso hau
pareten artean
kolejiyoan gorde
zuten presentean.
Gero pentsatu zuten,
andik irtetean,
para obeko zela
kajatxo batean,
bestela gaur Frantzia'n
egon zitekean.*

Hainbeste estimatzen diren ondasunak galtzeko beldurrak zauri gaizto samarra behar du, eta segurantziarik ematen ez duena. Hala, handik puska batera horma hartatik atera eta balioko trepeta guztiok Loiolako baratzean landatu zituzten. Baina lau mila frantses soldadu sartu ziren Azpeitian 1812ko

abuztuaren bian. Biharamunean baratza ederki aitzurtuko zuten gudari-nekazariek, eta ia-ian ibili ere bai.

*Aguztuko egunean
illaren iruan
parisiyua franko
badu inguruan.
Ustez egonagatik
toki seguruan,
ez geiegi fiatu
oraingo munduan,
galdutzeko lau beatz
falta etzenduan.*

Gordetakoan artean erlikia berezi bat ere bazen. Zer izango, eta San Inazioaren lau ez, baina behatz bat bai, perlaz-eta apainduta, balio erantsi eta guzti. Hori Pizarrok ez zuen bere eskutik joaten utzi. 1812. urte hartantxe frantsesen kontrako gerrillak indarraldia hartu zuen Urola bailara inguru hauetan. Pizarrok hitz egin du Gipuzkoako Diputazioarekin Azkoitian, eta gauzak dauden bezala, Loiola segurua ez dela ebatzi.

*Aita San Inazio,
guazen igesi,
ez gaitzke Loiola'n
deskantsuban bizi.
Sinplemente galtzia
ez luke merezi,
badaki dirala orain
frantzesak nagusi,
etsaien eskuetan
bere burua utzi.*

Mendizabal jeneralak Diputazioari galdatu zion gipuzkoar batailoien zaindari bat izenda zezala. Militarrak San Inazio hobetsi zuenez, aurrerantzean zila-

rrezko irudi horrek iristen den toki guztietan kapitan jeneralaren ohoreak jasoko ditu.

Hurrengo urtean, 1813an hasi ziren *santu alderraiaren* peskizan frantsesak berriro, baina ordurako dezente ibilia zen baratzetik hara. Aurrena Azkoitira atera zuten, handik Mutrikura, Lekeitiora ondoren, Bilbora eta Santanderra gero. Santandertik Coruñara, handik, berriz, Cadizera, frantsesek sekula beretu ez zuten Espainiako hiri bakarretakora. Hiru hilabete egin omen zituen itsasoa. Haranzkoan eta honunzkoan, putzu gainetik joatea ere egokitu zitzaion.

*Azpeiti'ko seme bat
badator ontziyan,
alako mariñelik
ezta probintziyan.
Errezibituko da
jaun au Donostiya'n
engañatzen ezpanaiz
nire iritziyan,
baña eskatzen dute
joan zan tokiyan.*

Cadiztik Donostiara 1815ean iritsi zen, han harrera egundokoa egingo zioten, pasatzen zen herri guztietan bezala. Azkenean Azpeitia jo zuen irudiak 1816ko ekainean, eta Loiolan alditxo bateko denkantsua hartu ere bai. Ez luzerako hala ere. Ordukoxea da Txabalategiren sorta hau. Bertsolariak behin behinako *happy end* honekin eman zion errematea.

*Agur, Loiola'kuak,
biba Azpeitiya,
santuak arkitu du
leneko tokiya
Etzuen biaje au
agitz egokiya,
desluzitua dakar
berniza guztiya,*

*ezta gustora ibilli
beron nagusiya.*

Zilarrezko figurak, ordea, ez zituen amaitu horrenbestez bere garraioak. Gorago esan bezala, 1820an gobernuak jesuitak bota eta haien ondasun guztiekin geratu baitzen. Estatu hori Gasteizera eraman eta salgai jarri zutenean Azpeitiko udalak kosta ahala kosta erostea erabaki zuen. Azpeitiko herria da beraz, ordutik irudiaren jabe, horren aldera gurutze bat eta kustodia bat eman baitzituen. 1823ra arte, hots, jesuitak berriz loiolaratu bitartean, Azpeitiko parrokiari, Soledadeko kapera eman zuten.

Azpeitia eta Loiola artean joan eta etorri ibili da irudia ia XIX. mende osoan, noiz joan noiz etorri, noizean behin, historiaren konpasean paseatzeko gogoaz egingo balitzai bezala. Azpeitiko parrokiara eraman zuten 1841ean, atzera Loiolara 1852an, 1855ean Azpeitira doa, 1856an Loiolara dator, 1868an Azpeitira dator... Doa eta dator, dator eta doa, 1880an asentatu zen orain duen egoitzan, gaur artekoan behintzat. Geroztik konpontzeko bakarrik mugitu dute.

Txabalategiren bertso hauen argitalpenak bat baino gehiago izan dira Zabalak dioskunez. Garai jakingarrian emanak batzuk, gainera. Ezagutzen ditugun azkenak 1877koak dira. Horren balizko zergatia ere biltzaileak berak damaigu.

Jesuitak España'tik erbestera joan bearra daukate 1868'an. Baiña 1872'an karlisten gerratea asten da, eta karlistak Loiola'ko ateak zabaltzen dizkiete. Loiola gerra-ospitala biurtzen da, eta berak ango kapellautza egiten dute. Gerra bukatzen danean, ordea, 1876'an, karlistak galdu baitute, jesuitak berriz ere Loiola'tik kanpora.

Urrengo urtean, 1877'an, Madrid'ko gobernuak Gasteiz'ko gotzaiari ematen dio Loiola'ko ardura, eta onek bi jesuita izendatzen ditu ango kapellau izateko (...).

Jesuitak Loiola'ra etortzeko irrikitzen egongo zirela esan bearrik ez dago. Aal zituzten artu-emanak ere erabiliko zituzten, ori lortzarren. Eta, bearbada, bertso auek ere berak berriro argitara araziko zituzten, eta bein baiño geiagotan gaiñera, erriaren gogoaz berotzeko. Au dana gure susmo bat besterik ez da noski.

Baiña 1879'an, Elgoibar'en eman zituzten mixioetan, azken sermoian eskaera au egin zioten jesuitak jendeari:

*Jesusi egiteko
guziyok erregu,
Konpañikoak ditzan
Loiola'ra bildu.*

Andik urtebetera lortu zuten ori, 1880'garren urteko garagarrillean.

Venezuelako merkatal monopolioaren irabazien kontura egindako estatua eta jesuiten ordena gisa horretan ibili dira. Bien bitartean arrastoa galdu zaien erlikiak ere izan dira baina. Esate baterako, santuaren atzamar perlatuaren paraderorik ez dago inon, ez hitz lauz eta ez bertsoetan.

Dagoen tokian dagoela, zer edo nora seinalatzen ote du?

Bibliografia:

CABASES, Felix Juan: *Cronología del solar y familia de Oñaz y Loyola. De Iñigo/Ignacio de Loyola y del Santuario y Colegio de Loyola en su contexto histórico eclesial, jesuítico, nacional y mundial*, Loiola-Erroma, 1999.

ZAVALA, Antonio: *Frantzeteko bertsoak*, Auspoa, Tolosa, 1991.

MAITAGARRIAK GARA BA...

IZTUETAREN Kontxesi poeta erromantikoak maitatutako emakumearen paradigma bihurtu bada, ez dauka saltzeko Bilintxek ere berea. Kasualitatea ere bada, baina ageri da azken honen bertso bilduman beste *Contzeci* bat, Iztuetaren bera ez dena, noski, eta dirudienez, Azpeitian bizi izan zenak bezalaxe, munduan diren eta ez diren edertasun guztiak berarekin zituena:

*Oincho politic, guerra mea,
Gracia milla pechuan,
Lepo biribil dirudiena
Eguin berria tornuan:
Pare gabeco begui argiac,
Ille ederra buruan
Zu baño aingueru politagoric
Ez da izango Ceruan.*

Nor den Contzeci hau, ez dakigu. 1858an idatzia, Iztuetarena bezain ezagun egin eta asko kantatzen omen zen garai hartan Gipuzkoa osoan. Hartu zuen indarraren erakusgarri da handik oso gutxira J.J. Santestebanek ere jaso zuela 1864an Donostian argitara eman zen *Colección de aires vascongados para canto y piano* liburuan.

Denborak ez du etenik, ordea. Urte batzuk geroago, Contzeciren ordez, emaztea hartuko baitu Bilintxek kantagai. Hura ederra bazen olerkariaren begietan, are ederragoa da hau. Nikolasa Erkizia azpeitiarrarekin ezkondu zen Bilintx Donostiako Santa Maria parrokian, Antzoki Zaharreko zaintzaile zela. Han hazi zuten familia, eta bertan biziko da Nikolasa alargundu eta gero ere.

Petrarcak Laura eta Dantek Beatrice nola, Nikolasa emaztea egin zuen Bilintzek bere maitasun olerkietako dama. Teknika, ondo menperatzen zuen ordurako. Konparazioek natura betearen indarra hartzen dute, eta zer egokiago emaztea izango denari neurrigabeko amodioa erakusteko. Ezkondu baino hilabete batzuk lehenago, 1868ko abenduan eman zituen Bilintzek bertsook moldiztegira:

BETI ZUTZAZ PENTZATZEN

*Dama gazte bat esagutzen det
diruriyena izarra,
eguzquiyari copetetican
saltatutaco chingarra;
biyotz nerian ala piztu du
amoriyozco su-garra,
nola mendiyan piztu lezaquen
chimistac arbol igarra.*

*Beti goguan zauzcatan dama
izarra dirurizuna,
eguzquiyaren biarric gabe
argui eguiten dezuna,
berdin gabeco amoriyua
senti-arazten nazuna,
aditzera ecin eman liteque
dizutan maitetasuna.*

*Nere beguiyac beren aurrian
icusten ez bazaituzte,
guisharashuac eta biyotza
egoten dira chit triste;
shinista zazu mundu guztiyan
ez dala inor ni beste,
zu maitatzeco capaz danican
mereci dezun aimbeste.*

*Gau eder alai ayetaco bat
guertatutzen dan orduban,
izarrac dizdiz eguiten dute
ceruco urdiñ puruban;
diferentzirik batere gabe
zuc nere pentsamentuban,
dizdiz alashen eguiten dezu
nola izarrac ceruban.*

*¿Hia gozua izango aldan
enamaturic dana,
ama on batec aur maitiari
ematen diyon laztana?
alare bada beste gauza bat
azcoz gozuago dana,
zureganaco amoriyua
nere biyotzac daucana.*

*¿Norc iruquico zaitu nic beciñ
ishtimaciyo aundiyan,
animatican maite bazaitut
erotutceco zoriyan?
amoriyozco naitasunaquiñ
gorderic erdi-erdiyan,
biyotz nerian ala zaucazquit
nola niniya beguiyan.*

*Bost urte diran ez daquit baño
beñepeñ badirare lau,
faltatu gabe nere oroitzan
zaudela egun eta gau;
zu ichumenez maitatutzeco
cerubac siñalatu nau,*

alic lenena premiya zazu

Eguiyazco naitasun au.

Maitagarriak garela, badakigu. Izarraizko harriak berezi egiten dituela haren magalpean bizi direnak, Pedro Berrondok esanda dakigu berriz. Ez zen Bilintx izan baina, gure bailarako jendearen aurrean liluratu zen aurreneko idazlea. Bada beste adibide bat, beste era bateko maitasunaren erakusgarri. Utz diezaigun kontatzen, ordea, Jean Jacques Rousseau suitzar filosofoari berari:

Venezian euskaldun bat ezagutu nuen, Carrion nire adiskidearen laguna, eta ongi-zon guztiena izateko modukoa. Gazte atsegin hau, trebetasun eta bertute guztietarako jaioa zena, Arte Ederretan zaletzeko ibilaldia egin berri zuen Italian barrena. Ezer gehiago iristeko asmorik gabe, zuzen-zuzen etxera itzultzekotan zebilen. Esan nion arteak atsedenleku baino ez zirela bera bezala, zientziak ikasteko egindako buru argientzat, eta plazer har zezan, Parisen sei hilabeteko egonaldia aholkatu nion. Nire esanari kasu egin eta Parisera jo zuen. Han zegoen nire zain heldu nintzenez. Handiegia zitzaion etxea, eta erdia eskaini zidan, bertan bizi nendin. Baietz esan nion. Ikaskizun sakonetan sarturik aurkitu nuen. Ez zegoen ezer ezin iritsi zezakeenik; dena irensten zuen eta hala bere egiten azkartasun ikaragarritz. Nola eskertu zidan, hain zegoen jakin beharrak mindurik, haren espirituari jaki hura eman izana! Zer argi eta ondamu ez nuen nik aurkitu gogo sendo hartan! Hura zela behar nuen adiskidea sentitu nuen: lagun min egin ginen. Gure gurariak ez ziren berdinak, beti eztabaidan ari ginen. Setatiak biok, egundo ere ez ginen ezertan ados jartzen. Hala ere, elkar bereizi ezinak ginen biok, eta etengabean gibelka ari izanik ere, bata ez zukeen nahiko beste besteetariko izaterik.

Espainiak soilik sortzen dituen gizon bakan horietarik zen Ignatio Emanuel Altuna, eta gehiago beharko lituzke haren loria handiagoa izan dadin. Hark ez zuen haren herrian hain zabaldua dagoen barne pasio oldarkorretik. Mendekuaren asmoa ez zitekeen haren gogoan sar, ez eta irrika haren bihotzean. Harroegia zen ezer eskatzeko, eta maiz entzun izan nion hotz-hotzean hau esaten, haren arima ez zezakeela inongo amaren semerik mindu. Gizatsu zen, bigun izateke. Emakumeekin, hauek haurrak balira bezala jolasten zuen. Adiskideen maitaleekin atseginez ari izaten zen, halakorik, ordea, ez nion inoiz ezagutu, izateko irrikarik ere ez. Haren bihotza erretzen zuten on-

nahi garrek ez zieten zentzumenetakoei sortzen uzten. Azaletik, espainiar bat bezain jainkozalea zen; barrutik, ordea, aingeruaren pietatea zuen.

Lerroz lerro biluzten du Rousseauk *Aitorpenak*-etako zazpigarren liburuan (1741-1747) Inazio Manuel Altuna zalduntxoaren izaera. Jakintsua, langilea, zuzena... Mira handia zion, bistan da. Maite zuen Altuna Genevako filosofoak.

Ez zen espainiar ez azal mintzean, ezta egonarrarian ere. Azalez, zuria zen, masail gorriak zituen, eta ilea, gaztaintara, ia horail. Luzea eta ondo egina zen. Bere arima sartu ahal izateko zuen egina gorputza.

Handia zen Altunak Roussearengan piztu zuen lilura. Parisko egunek jarraipena merezi dute.

*Hain ondo moldatzen ginen, egunak elkarrekin pasatzeko proiektua egin genuen. Zenbait urteren buruan, Azkoitira joatekoa nintzen, haren herrian berarekin bizitzeko. Hura itzuli bezperan konpondu genituen asmo honen xehetasun guztiak. Ongien antolatutako proiektuetan gizakien gain ez dagoena bakarrik falta zen. Ondorengo gertae-
rek, nire hondamendiek, haren ezkontzak, haren heriotzak banandu gintuzten, azkenik, betirako.*

Bata dela eta bestea dela, Rousseauk kontatuta bezalaxe desegin zen, antza denez, gaztain hostoa neguaren gordinean bezala, bi adiskideak Azkoitian elkarrekin bizitzeko aukera. Portuneko etxean, garai batean, ba omen zen liburu bat, erdiz erdi irekia, Rousseuren aitorpen hau erakusten zuena.

Bibliografia:

ASKOREN ARTEAN: *A cien años de su muerte, Bilintx*, Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián, Donostia, 1978.

ROUSSEAU, Jean Jacques: *Les Confessions (Livres VII à XII)*, Librairie Général Française, Paris, 1998.

UDALAIZPE: "Rousseau, Ion Iakue", *Euzko-Gogoa* 11-12, 1954.

ZAVALA, Antonio: *Bilintx, bizitza eta bertsoak*, Donosti Aurrezki Kutxa, Donostia, 1978.

K JAUNA

JOSE FRANTZISKO AIZKIBEL jaio zenerako, Argiaren Mendea amaitu hurren zen. Munibek, Egiak, Altunak eta gainerako zalduntxoek zabaldua zuten euren egitasmoa; literaturan, Bizenta Mogel Esoporen alegiak irakurtzen eta moldatzen ikusi dugu; erlijioan eta politikan, frantses-haizearen beldur, Eliza Katolikoa Ilustraziotik etor litekeen liberalismo usain guztien kontra borroka egiteko gerturik da...

Gazterik partitu zen Aizkibel Azkoititik Erromara, apaiz baten zerbitzuan aritzeko. Gero, Granada de Egako dukearen idazkari ere ibili zen European barrera. Azkenik, Toledon aurkitu zuen bizitokia, Munarriz jauregian, milaka liburuaren artean eta emakume zahar bat zuela zerbitzari.

Aizkibelek berak esanda dakigu gaztelera baino lehenago ikasi zuela latina. Eta sinesten diogu. Sorterritik gazterik irtenda, kultura zabalaren jabe izateko parada izan baitzuen Erroman. Aditua zen landare eta meatze kontuan, eta dirudienez, gai teknologikoetan Espainian zen liburutegi onena, berarena zen.

Hala ere, teknika bezainbeste maite zuen hizkuntzekin zerikusirik zuen edozer. Erroman zela, hogeita hiru urterekin, Ramon Diosdado jesuita ohiak erakutsi zizkion euskararen gramatikaren barne-bideak. Hantxe ekin zion hiztegiari.

Nola bizi izan zuen hura guztia, zein zen euskararen gainean zituen iritziak, lehen eskutik dakigu. Oraindik ere, informazio iturri oparo eta bestela ere testu eder izaten segitzen du *Euskeratik Erdarara biurtzeko itz-tegia*-ri ezarritako hitzaurre bikoitzak, bai “Prólogo”-ak (gaztelera) eta bai “Euskaldunei” (euskaraz).

Gaztelerazkoan, Larremendirengana doakio gogo. Hiztegia burutu ahal izateko, hark Loiolan obratu zuena erabili duela aitortzen du, eta Andoaingo jesuitaren lana handia izanagatik, euskara-gaztelera-koaren hutsa sumatzen du:

Desgracia es sin duda ninguna la de la nación Euskalduna, que desde remotos

tiempos no ha podido conseguir se imprima un diccionario bascongado, cuando por otra parte se está haciendo los mayores esfuerzos para conservar sus antiguos fueros y libertades, usos y costumbres; cuya antigüedad es inmemorial, como la de la lengua Euskara.

Ikusten denez, politikan foruen defentsan jartzen den ahalegina nahi du euskararentzat ere. Arazoa, bistan da, ez da oraingoa. Eta maldizioa berriro beteko da, Aizkibelen hiztegia bera hil ondoren emango baita argitara, berandu oso, Tolosan, 1883tik atzera.

Hiztegirako, agudo hasi zen material biltzen. Parisko Biblioteka Inperialean, Silvain Pouvreau-ren eskuizkribuak kopiatu zituen, eskuz. Oihenarten atsotitzak ezagutu zituen, Axular, Leizarraga, Etxeberri Ziburukoa... bazuen ordura arteko hiztegi gehienen berri, baita zeharka ere, esku artean izan ez zituenena ere. Joaten zen lekura joaten zela, liburu zaharrak erosten ahalegintzen omen zen. Ezaguna da Abandoko Jose Pablo Ulibarri errementari eta euskaltzalearekin gertatu zitzaiona.

Jakinik Aizkibel liburu bila dabilela hiztegia egiteko, hor datorkio egun batean Ulibarri adiskidea, otarra bete libururekin. Aizkibel ez dago lasai ordea, behar du ordaina hainbesteko borondateak. Trukean, bi mila erreal urre eman nahi izan dizkio.

—Logrerua ez naz ni iñoz —erantzun omen zion Ulibarrik—, eta emoten dauzkat verbategija eguiteagatic.

Hala ekin zion lan handi hari. Baina hasi eta batera, lehenengo kezka. Esku artean dauzkan liburu guztiak, bakoitza ahal den moduan idatzita dago, ez dago inongo batasun ortografikorik. Axularrek bere garaian bezala, euskalki batetik bestera dauden aldeez jabetzen da. Beharra, nabaria da. Ortografia batzetik hasita. Aizkibelek erabakia hartzeko garaia dela sentitzen du:

Yo uso de la k en ka, ke, ki, ko, ku, porque esta letra por sí sólo llena mis necesidades, desterrando la c y la q, que tienen usos diferentes. En cuanto á la g dándole el valor del gamma griego satisface enteramente su cometido...

Alde honetatik, egun hain normalak zaizkigun hainbat moldek Aizkibel izan zuten aita ponteko. Egia esan, ideia ez da bere-berea ere. *Guizon-ek gizon* behar duela aurretik plazaratutako asmoa zen, Lapurdin beti. Aizkibelek Darrigol aipatzen badu ere, Larresoroko seminariko zuzendari zen Martin Duhalde izan zen kasu guztietarako *g* hizkia ez ezik, *v*-ren ordez *b* idaztea ere proposatzen aurrena 1809an Baionan argitara emandako *Meditacioneac gei premiatsuenen gainean* lan mardulean. Baina dudarik gabe, Aizkibel eta honen hiztegia izan ziren, batez ere Hegoaldean, erreforma ortografikoaren zutabe nagusi. Euskaldun guztiontzat baliagarria litzatekeen ortografia batuaren beharraz Erroman jabetu zen, antza, Ramon Diosdadorekin izaniko solasaldi luze haietako batean.

Ez zen hau izan mundura zabalik nahi zuen euskararentzat aurreikusi zuen puntu bakarra. Hizkuntzaren akademia baten beharraz ere hitz egiten digu Toledotik, noiz eta 1856an, Euskaltzaindia sortu baino hirurogeita hamahiru urte lehenago:

Con buenos elementos gramaticales y lexicógrafos, ¿cuánto no se adelantaría en nuestra lengua? Pero para esto se necesita trabajar para la unidad ortográfica por medio de una gramática general razonada de la Euskara, aprobada y autorizada por una Academia compuesta de hombres competentes en la materia. Si en el día no se pudiera hallar tan inteligentes por falta de estudios preliminares con este estímulo se formarían dentro de algunos años.

Bibliofilo, hiztegegile, sustatzaile... latina, grekoa, hebraiera, frantsesa, italierra, ingelesa, gaztelera eta euskara zekizkien. Bazuen, alde honetatik, euskararentzat, Azkoitiko Zalduntxoek erakutsi ez zuten bestelako dohainik ohe pobre batean jaio zen hark. Eta harrigarria izan arren, gerora Pedro Irizarrek bezalaxe, herritik kanpo ia beti. Politikoki interesgarria da oso, gaur egunetik begirata ere. Karlismoa entziklopedismoarekin uztartzen saiatu zen *rara avis* horietakoa izan zen, moderno inondik ere, aurrerazalea.

Badu Iparragirrek munta handirik gabeko bertso sail bat Aizkibeli eskainia. Aurrenekoa baino ez dugu emango, adierazgarri delakoan:

Españian () da gizon bat
bear deguna maita,*

*Frantzizko Aizkibel jauna
euskaldunen aita;
txit da gizon prestua
eta jakintsua,
errespeta dezagun
gure maisua.*

() Aizkibelen omenez, Azkoitian jarritako oroitarrian, metamorfosi bitxi bat izan du bertsoak:
'Azkoitian da gizon bat'...*

Larramendik-eta bezala, pena bat: euskaraz idatzi zuena oso du urri. Hiztegiari ezarri zion hitzaurretik hartuko dugu atal bat, aho gozagarri, Aizkibelen euskara nolakoa zen jakiteko behintzat. Esan beharrik ez dago, esku dotorea zuen honetan ere. Aukeratu dugun zatia, aski argigarria da gehiago jakiteko orduko giro eta kezkez:

Zuen artean askok uste dute ezé batere baliorik ez duala Euskerak, eta Probintzia oietan ere chit asko, zergatik orain jende guztiak dakian Gaztelaniaz itz-egiten. Uste onetan okerrenak dira aberatsenak, eta gichien izan bear lukeenak, baldin baztertzen badira anchinako echadizar batzuek, zeñak onore anditzat dauken, arrazoi andiarekin, euskaldunak izatia, eta beren echadi artean beti Euskeraz itz-egiten dute. Orain esango dizutet zein garrantzi edo importantzia andikoa dan guretzako euskera, eta euskaldunen aztarna ondo gordetzea. Odol oneko arrazak, ez gizonetan bakarrik, baita ere abereetan, chit onesbedatuak edo estimatuak izan oi dira, zergatik odol aren egokiak osoro zaitirautzen dira beste arrazekin nasten ez diranian. Asiako eta Afrikako Arabarrak eren zaldi ospetsuen sorterroak liburu ederretan arreta andiarekin itz-kiribatua gordetzen dituzte, lau, bost, eta seigarren oñeraño ondo argituak; eta auben asabac izan badira gduetan eta apuestetan famatsuak, azaña guztiak ipiniak izango dira sorterroko liburu barruan.

Hiztegiari dagokionez, hark ez zuen egileak nahi izan zuen adinako biderik egin. Lanak zor handiegia zuen Larramendirenarekiko, eta honena bazterrean gelditu bazen bertan ageri zen hitz asko Andoaingo jesuitak berak asmatuak izateagatik, hala hondoratu zen Aizkibelena ere.

Bibliografia:

AIZKIBEL, Jose Francisco: *Diccionario Basco-Español titulado Euskeratik Erderara biurtzeko Itztegia*, Eusebio Lopez, Tolosa, 1883-1887.

PROPAGANDAREN HABIAN

1838-AN jaiok ziren biak, Azkoitiko Baroikue etxean Jose Inazio Arana jesuita eta Donostiako Irisarri edo Iriberrri baserrian, Aieten, Agustin Jauregi, Azpeitiko apaiz gerrillaria.

Kanpoan ibiliagatik Arana, donostiarra izanagatik Jauregi, bazuten elkarren ezagutza. Itzal handiko gizon, XIX. mendearen hondarretan Azkoiti-Azpeitietan bizi izan zen eliza giro itogarriaren adierazle ditugu biak.

Jose Inazio Aranak batetik besterako ibilian eman zuen haurtzaroa, harik eta 1854an Loiolan jesuita sartu zen arte. Ez zituen hamabost egun egin. Konpainiak erbesteko bidea hartu behar izan zuen. Josulagunekin, Hagetmaura jo zuen aurrena. Ondorengo urteetan Tormes ondoan aurkituko dugu, Salamancan, Carrionen... azkenik baita Loiolan bertan ere berriz, konpainiara-ko lanean beti. Ez da zaila egiten Aranaren nondik norakoak jakitea, dena utzi baitzuen idatzirik, euskaraz, 1.300 orrialdeko eguneroko batean.

Badakigu Frantzian izan zela 1868ko kanporaketaren ondoren, eta 1872koak dituela lehen euskal liburuak, *Ama Virgîña guciz garbi Concepcioaren ofizio laburra* eta *San Ignacio Loyolacoaren bicitza laburtua euskaraz eta gaztelaniaz*. Asko idatziko du urte hauetan, tartean baita gutun mordoska ere euskara aztertzen ari zen Louis Lucien Bonaparte printzeari. Gazteleraz ere bai, literatura teoriaz, *Arte métrica bascongada* (1872). Urduñako jesuiten kolegioan beste Arana baten irakasle izan zen, Sabinorena. Honek azkoitiarraren figuraz egindako ohar zorrotzik ere aurkitzen da *Lecciones de Ortografía del euskera bizkaino* liburuan:

El P. Arana sobresalta más por su imaginación que por la profundidad de inteligencia: era más literato que lingüista.

Literatura idazleago hizkuntzalari baino...

Bietatik, literaturatik eta hizkuntzaren inguruko gogoetatik artikulua eta sormen lan ugari aurki daiteke Manterolaren *Euskal Erria* aldizkaria pixka bat astinduz gero. Baditu saioak historiaz, “Granada kristau-gudariz inguratua” (1884); literaturaz, “El Doctor Etcheberry y sus obras” (1880), “El amalauco y el ama-seico, o sobre el sonetillo y sonetos euskaros propios e impropios” (1883), “Teatro bascongado” (1883); etnografiaz, “Euskal Erriko erromeriyac” (1881); etimologiaz, zenbait euskal abizenaz, esate baterako; literatur lanen itzulpenak, Calderon (1881) eta Camõesena, “Kamoens-en adiachoak Barbara zeritzan katibu-bati” (1894)...

Sormenari dagokionez, bi ditu motibo nagusiak; okasiozkoak, esan nahi da heriotza, urteurren edo omenaldiren bat dela-eta gogoratuaren ohorez propio eginiko laudorio olerkiak; eta erlijio gaien inguruan moldatuak. Aurrenekoetan daude, besteak beste, “On Jose Manterolari” (1884), “Astarloa jakindunari kantateria” (1886), “Iparragirre-ri” (1881); “Uriarte euskerazalearen eriotzan” (1889)... eta bigarrengoa, “Oi Jesus-biyotza” (1886), “Belen-go izartxo” (1888), “Jesus-en pistuera” (1889), “Ontzi salbatzallea” (1888), elizak himno bihurtu zuen “Arantzazuko”... eta nola ez, San Inazioaren figura goratzen argitaratutako emandako hamaika lan. Baina batez ere, Sarda i Salvani-ren itzulpena den *Bai, pekatu da liberalqueriya* da (Baiona, 1888), oker seguru asko, Aranaren lanik ezagunena.

Jon Bilbaoren *Eusko Bibliographia* eta Arana hil eta gutxira 1897an Azkueren *Euskalzale* aldizkarian Felipe Zugazagak argitaratutako “Jesusen Lagundiko Aita Aranatar Jose Iñigo euskalzale argiaren bizibani laburra” artikuluari esker dugu Aranaren ekoizpen ikaragarriaren berri. Bere bizitzaz, berriz, berak utzitako *Egunekoa*-ren bitartez dakigu dakiguna.

Hizkuntzalaria, historiagilea, bibliografoa, olerkaria... XIX. mendeko euskalaririk handienetakoa dugu Arana. Gazteleraz ere idatzi zuen, eta harreman estua izan zuen garaiko idazle eta sustatzaile askorekin: Duvoisin, Bonaparte, Intxauspe, Lardizabal, Agirre, Urruzuno, Arzak, Campion, Soroa, Arrese, Manterola, Sabino Arana eta abarrekin... baina batez ere Antoine Abadiarekin, Loiolan bertan atsedean hartzen zegoela ezagutu zuena 1868ko irailean, mezenasa hara joana zelarik baratze aldean neurketa magnetiko batzuk egitera.

Eta Jauregi?

Azpeitian, beste altxamendu karlista bat zetorren ustean, Izarraitzera jo zuen herriko gazte askok 1870eko abuztuaren 29an. Guztien buru, azken hamabost hilabeteetan herriko erretore zen Agustin Jauregi. Armak “La Azpeitiana”, edo herriko jendeak *Fabrika Zaharra* deitu izan duen arma fabrikatik atera eta gorde izan zituen honek koro atzean, Abalia sakristauaren laguntzarekin. Ez zen altxamendurik izan, ordea. Saran zen Diaz de Rada jeneralak eta Escoda karabine-roen koronelak ez zuten elkar hartu eta zeuden tokietan jarraitu zuten. Azpeitiko matxinatuak salduta gelditu ziren. Luze gabe, atxilo hartu zituzten. Gerra Kontseilua eratuta, erretorea epaitu eta Donostiako Urgull mendiko gazteluan sartu zuten morroilope.

Idazle moduan, estilista fina izan zen Jauregi, esandakoari kasu egitera. Duvoisinek zorion beroak ematen dizkio *Euskal Erria* aldizkarian irakurri berri duen *Albiste on bat urteoro berritzen dana... Barau Vigilia eta Bulda santuaren gañean* (1885) idatziarengatik, 1878an Madrilen argitara emandako artikulua berrargitalpena berau.

Ez du lan bakarra. 1868 eta 1870 artean, sinatu gabeko zazpi folleto eman ziren argitara Baionan, honako izenekin: *Pachicu eta Mañubel, Herejien eta beste gauza batzuben gañean, Pachicuren eta Mañubelen bigarren berriquetta, Teresharen zualdea, Bi ganbarac, Joshé Miguelen ganbara eta Erligio eguiazcoaren siñaleac*. Vinsonek esatera, Bermingham jaunak bultzatuta kaleratu ziren, 1868ko iraileko iraultzaren ostean “kultu askatasunaren kontra” hartutako neurriei eta teoria liberalei aurre egiteko asmoz. Lino Akesolo izan zen Baionako liburuxkak eta *Albiste on bat* elkarren artean alderatu eta estilo zuten antzaz ohartzen aurrena. Hau horrela bada, Azpeitiko erretorearenak, Agustin Jauregiarenak lirateke zazpi folleto antiliberalak.

Arana eta Jauregi zerk batzen zituen, badakigu. Euskarazko heziketa katolikoak zituen kezkatzen biak. 1875ean, Okzitaniako Poyanne-tik idazten dio Aranak Jauregiri, esanez prest dagoela euskal gramatika bat idazteko. Irazustaren *Dotrina* eskoletatik kentzeko ere eskatzen dio, honek darabilen euskara txarrarengatik. Ondorengo gutunetan eskoletan erabiltzeko libururik egokienak zein diren ere gomendatzen dio.

Ez dira bien arteko lotura bakarrak. Propaganda katolikoaren saio gogorrak dira hauek. 1872an, lan bitxia eman zen argitara Azpeitiko Martinez irarkolan, “San Ignacio-ren martxa berria, Jose Ignacio Aldalur apaiz jaunak soinu ipinia”.

Aldalur apaiza oso ezaguna da Azpeitian. Azkoitiko semea, Azpeitiko organista eta Jauregiren laguntzailerik handiena izan zen 1870eko matxinada hartan. 1886an berriro egingo dute lan elkarrekin Aranak eta Aldalurrek. Zortzi zortziko txikitan, lehena koruarentzat eta beste zazpiak ahots bakarrarentzat, aire berri bat ondu zuten, “S. Inazioaren martxa berriya”, hau ere Martinezenean inprimitu zena. Doinurik gabe, beste bi kantu gehiago ere egin zituen Aranak San Inazioaren ohorez, “Erregu-Kantak San Ignazio Loyolakoari” (1886) eta “Aita San Inaziori Erreguzko kantak” (1884).

Garai honetakoa da Krispin Beobide azpeitiarraren obra nagusia ere. Hiru anaia ziren etxean, eta hirurek Donapaleun egin zituzten ikasketak, frantzisko-tarrenean. Zarautzen bizi izan zen Beobide. 1885ekoak ditu *Asisko loria*, *Asisko San Frantziskoren bizitza*, eta *Jesus aurraren bederatziruena*.

80ko hamarkada honetan Azpeitiko Pablo Martinezen moldiztegian bertan eman ziren argitara orduko eliza liburu asko, tartean hainbeste zabaldu ziren Gregorio Arrueren itzulpen bat baino gehiago.

Giro honetanxe egosten zen herria. Eta igarri egiten da. Beude ondorengo bertsoak esandakoaren argigarri. Jose Maria Segurola *Uztarri* bertsolariak 1868ko jesuiten kanporaketa dela-eta, ezin du barruan daraman pena gorde:

*Begiratu Loiolari
triste dagola dirudi;
beti limosnak eiten ai ziran,
ezer ez kendu iñori;
sermoi ederrak ugari
eiten zizkiguten guri;
orain ez dira ageri!*

*Zarrastrakuak lenbizi
agintzen zaizkigu asi;
len bere buruan jabe etzana
orain guztion nagusi;
ameika kontu itxusi
biar genduen ikusi;
ez gera gustora bizi!*

Bibliografia:

- ALTUNA, Patxi: "Jose Inazio Arana jesuitaren bizitza (1838-1896)", *Euskera* XLII, 1997.
- ARANA, Jose Ignacio: *Egunaria*, Euskaltzaindia, Bilbo, 2000 (Patxi Altunaren edizioa).
- ARANA, Jose Ignacio: "Bai, pekatu da liberalqueriya", ASJU-2, 1989 (Joseba A. Lakarraren edizioa).
- ARANA, Sabino: *Lecciones de ortografía del euskera bizkaino*, Bilbo, 1896.
- ARANA MARTIJA, Jose Antonio: "Jose Ignacio Arana, bibliografoa", *Euskera* XLII, 1997.
- ARTECHE, Jose de: *El gran asombro*, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, S.A., Donostia, 1971.
- BEOBIDE, Crispin: *Asis-co loria edo Francisco santu aundiyaren eta pobrien Aita-lenaren bicitza*, Francisco Mugertzaren moldiztegia, Tolosa, 1885.
- ELIAS, Imanol: *Guía histórica y taurina de Azpeitia*, Azpeitiko Udala, Azpeitia, 1986.
- ZAVALA, Antonio: *Azkoitia'ko zenbait bertsolari*, Auspoa, Tolosa, 1970.

INAZIO GURE PATROI HANDIA

ESAN liteke jesuitak Loiolara bildu arte ez dela San Inazio Loiolakoaren inguruko libururik egiteko erabakirik hartzen. Haren heriotza gertatu eta berrehun urtera ezagutuko den loraldia da hau.

Bi dira, liburuez ari garelarik, jesuiten izen ona zabaltzearren hauek aukeratutako bide nagusiak: bata, santuaren biografia ezagutaraztea, eta bestea, gogojardunen edizioa, euskal fededunentzat. 1736tik Loiolan bizi zen Agustin Kardaberaz hernaniarra dugu aitzindari bietan. Bereak dira bai *Azpeitico erri chitez noblearen gloria paregabeac* edo *Aita San Ignacioren bicitza laburra* (Loiolan zela idatzia baina 1901 arte argitara emango ez dena) eta bai *Aita San Ignacio Loyolacoaren Egercicioac, beren consideracio ta afectoaquin* (Iruña, 1761).

Gerora, mende beteko isilune handia beharko da berriro ere antzeko liburuak indartsu ikusten heltzeko. Bi karlistaldien artean, Duvoisin kapitainak *Liburu Ederra* eman zuen argitara Baionan 1856an, Kardaberazen aipatutako liburuaren itzulpen moldatua lapurtar irakurleentzat.

Hegoaldean, Jauregirekin ikusi dugun bezala, karlismoa beste matxinada baterako prestatzen ari da. Elizetan, proselitismo handia egiten da Don Carlosen kausaren alde, batez ere kongregazioetako gazteen artean. Azpeitian, Agustin Jauregi erretoreak 162 gizoneko taldea osatu zuen Izarraitz mendian. Ez da bakarra, izango da Elizatik bultzatutako altxamendu karlista gehiago. Borborrean zegoen giro horretan, Gregorio Arruek itzulitako hagiografia izan zen inguruetan gehien irakurtzen zen liburuetako bat, *San Ignacioren vicitza* (1866). Hala ere, La Plata ibaiaren bi aldeetan ibili zen Frantzisko Lapitzek idatzia da, ordea, balio literario handiena duena: *Bi saindu heuskaldunen bizia: San Inazio Loiolacoarena eta San Frantzisko Zabiercoarena* (1867). Era berean, oso ezaguna egin zen bere garaian arestian aipaturiko Jose Inazio Arana jesuitaren *San Ignacio Loyolacoaren bicitza laburtua euskaraz eta gaztelaniaz* (1872).

1873an, gerra betean, karlismoaren hautagai zen Carlos VII.ak bisita jendetsua egin zuen Azkoitia, Azpeitia eta Loiolara. Orduko *Diario de San Sebastián*-ek esatera 200 apaiz eta 18 jesuita bildu ziren erregearen etorrerarako, nahiz eta azken hauek Loiolatik kanporatuak zeuden berez. Zortzi mila lagunek komulgatu omen zuten Loiolan irailaren zortziko hartan.

Gerra galduagatik, giro horrek bizi-bizirik jarraituko du, hala ere, gure bi herriotan. 1887an, Azpeitiko udalak herriak beti Erdi Kale deitu izan dion kaleari “calle San Ignacio” deitzea erabaki zuen. Bada liburu gehiago ere. Aipatzekoak dira karlismoaren habi-habian, Tolosako Frantzisko Mugertzaren moldiztegian atera zirenak: *Aita San Inazio Loyola-coaren bizitza* (1885), Pedro de Ribaneyraren liburuaz Jose Goenaga tolosar jesuitak egina; J.L.A.A.-ren *San Inazio eta bere Eche Santuba, edo Loyola-co berri onac eta cantaldi ederrac, ango seme Done ta Aitalen andiaren jayotzatic laugarren euntean* (1891) eta *Aita San Inacioren ur bedeincatua ta bere eracarrir miragarriac*, Luis Ignacio Fiter jesuitak gazteleraz idatzi eta “apaiz euscaldun batec eusquerara itzulia”, 1903koa.

Mende berriarekin, inprentek ez dute atsedetik hartuko, *Ad Maiorem Dei Gloriam*. San Inazioren gogojardunak dira, zenbaiten iritziz, Bibliaren ostean mendebalde katolikoan edizio gehien izan dituen liburua. Euskaraz, Kandido Basabe lekeitiar jesuita dugu, duda izpirik gabe, oparoetan oparoena. Moldaketak, aldaketak, edizio berrituak, askotan eraman zuen moldiztegiara liburu bera. Hauek ditu edizio nagusiak: *San Inazioaren Ejertziuak* (1910), *San Inazio'ren ejertzijuetako gogartiak* (1912), *San Inazioaren ejertzioetako gogarteak* (1926), *Inaki deunaren gogo-inarkunak* (1932), eta azkenik Jaime Kerexetak zuzendu eta atondu zion *San Inazio'ren gogo-jardunetarako gogarteak* (1963). Zerrenda honi erantsi beharrekoa da Aita Olabideren *Loyolatar Eneko Deunaren Gogo-Inarkunak* (1914) ere.

San Inazioren bizitzaz, aldiz, ezin aipatu gabe utzi Loiolan urteak egin zituen Prantzisko Apalategi donostiar historiagile eta idazlearen *Loyolatar Inigo Deunaren bizitza* (1928), Errementeriatar S.-ren irarkolan argitara emandako *Loyola'tar Inaki Deuna* (1929), eta oso gerora, Inazio Maria Manzisidor azkoitiarraren *Gure Patroi Aundia* (1956). Lirikan, ostera, atal bat eskaini zion *Arantzazu, euskal poema* sinbolikoan Salvatore Mitxelenak 1949an.

Biografiaz ari garelarik, ordura arteko onentzat zuen Andima Ibinagabeitiak Manzisidorrena. Hona haren hitzak, 1957ko orril-garagarriko *Euzko-Gogoa*-n:

Zurea bezalakorik ez dut irakurri. Zure liburutxoan beste guztietan baiño askoz ere gehiago ikasi dut Iñaki deunari buruz, gaiñera, santu andi au, beste liburuetan baiño ortzargi, eskurakoi ta adiskideago agertu zait. Euskeraz idatzita dagolako bear bada? Baliteke.

Denborak aurrera egin arren, fundatzaileak segitzen du etorria ematen. Hainbeste ez dela, Loiolan bertan bizi den Iñaki Goikoetxea Zeanuriko jesuitak *Iñigo Loiolakoa* (1991) eta *Loiolako semea* (2001) eman ditu argitara. Eta amaitzeko, ezin aipatu gabe utzi Patxi Altunak euskaraturiko *Loiolako Ignazioren gogojardunak* (2003).

Baina beharbada San Inazioren bizitzaren eta gogojardunen gaineko liburuak baino, San Inazioren martxa izan da *Armada Beltza*-ren izena mundu guztian zabaltzen gehien lagundu duena.

Martxa, urteetan Azpeitian preso izaniko Juan Inazio Iztueta idazle eta folkloristaren liburu batean eman zen, dirudienez, estreinakoz. *Guipuzcoaco dantza gogoangarrien condaira edo istoria beren soñu zar eta itz-neurtu edo versoaquin 1824an kaleratu zen, Donostiako Ignacio Ramon Barojaren modiztegian. Bi urte geroago, aurreneko edizioan sartu gabeko hainbat kantu inprimatu ziren, tartean San Inazioren martxa. Letra Iztuetaren lagun min izan zen Agustin Pascual Iturriagarena da. Iturriaga, apaiz izanagatik, Iztueta bezalaxe frantsestu izatearen salaketapean bizi behar izan zuen. Ilustraziozale, euskara eskolan sartzearen aldeko, pedagogia modernoaren aldeko langile, erbestea ere ezagutu zuen arrazoi honengatik.*

Doinuaz, bada kontatzeko moduko istorio bat. 1930ean gaude. Aita Donostia *Marches et Ouvertures* izeneko bilduma kontsultatzen ari da Parisko Biblioteque Nationalean. Horretan dabilela, armada martxa bati ematen dio begia. Nota bat edo besteren gorabeheran, San Inazioren martxa bera da. *Marche de la Marine* hau XVIII. mendekoa da. Datu honi esker dakigu Iztuetak herritik jaso zuen doinua frantses aire bat zela, bere lagun Iturriagak letraz, eta nolako letraz, sendo jantzia. Gregorio Mujikak esatera, letrarik gabe edo guregana heldu ez den letra batez kantatzen zen San Inazioren martxa hasiera batean, baina beti ere, kanonizazioaren ondoren, alegia, 1622az geroztik. Ikusten denez, bada oraindik guztiz itxi gabeko leihorik.

Bitxia ere bada. Frantsesen lagun zelako salatua bata, Ilustrazioren aldeko

izateagatik erbesteratua bestea, Iztuetari eta Iturriagari esker, belaunaldiz belaunaldi, martxa militar frantses baten doinuan kantatu izan dio Azpeitiak ez ezik mundu guztian sakabanatutako Euskal Herriak bere santurik ezagunenari. Transmititu nahi dena, garbi erakusten du Iturriagak. Jesuitak soldaduak dira, Jainkoaren soldaduak, beren txispa, bandera eta guzti, etsaiari aurre egiteko gertu daudenak.

Honetan ere, bada leihorik. Felix Zabala Arana jesuitaren irudiko, kantatzen diren bertsoak ez dira oso egokiak, ez dute inondik ere santuaren neurria ematen, “karikaturizatu” agertzen omen da hau, hain militar eta gerrazale. Esan gabe doa, Iturriagaren letra du gogoan Zabala Aranak.

Ez du arrazoi faltarik. Ironiaren muga ere, irakur liteke. Afrantsesatua, pedagogoa... Martxa, saski-naski batean ageri da. Kantsultatu ahal izan dugun *Fábulas y otras composiciones en verso bascongado* eskuizkribuan, alegiak ageri dira, artzain koplak, gazteei eskainitako bertsoak (“*Neri euskal errico/gazteri ederra/ez det uste dedala/eguin lan alferra...*”)... Ondoren, ezpata-dantza jostari bat dator: “*Gaur/Batista Biribill/Dantzan ongui abill/Ez dec ezpataric/Ire parecoric*”. Eta honen aurretik, San Inazioaren martxa. Zer egiten du letra horrek hor? Hain nabarmen, hain deskriptibo, hain epiko.

Iturriagak berak aldaera bat baino gehiago egin zizkion hasierako letrari. Hona letra osoa, haren eskuizkributik transkribitua:

SAN YNACIOREN MARCHA

*Ynacio gure patroia andia
Jesusen compañia
Fundatu, eta dezu armatu,
Ez da ez etsairic
Jarrico zaizunic,
Yñolaz aurean
Gaurco egunean,
Naiz betor Lucifer deavrua (*)
Utciric infernua.
Zure soldaduac
Dira aingeruac,*

*Zure guidaria
Da Jesus andia,
Garaitu ditu zure compa^ñiac
Etsaiac;
Ez dauca fedeac,
Ez cristau nereac,
Ez dauca beldurric
Yñongo aldetic,
Ynacio or dago,
Beti ernai dago,
Armetan jarria
Dauca compa^ñia,
Chispaz armaturic,
Banderac zabalic,
Gau, eta egun,
Guc guztioac paquea degun,
Beti gau eta egun.*

(*) Aurreneko idazkeran, ezabaturik, "aingerua" irakur daiteke eskuizkribuan.

*Bildu dezu Ynacio munduan,
Arritceco moduan,
Gendea
Fede biciz betea,
Gende jaquintsua,
Eta indartsua,
Beti dabillena
Guerretan aurrena,
Dira Ynacio zure anaⁱac
Chit mari^ñel andiac,
Arraunac
Bogatcen daquitenac;*

*Pedroren ontcia
Badago ertsia
Arroca tartean
Egunen batean,
Bertatic botean dira sartcen,
Eta argana joaten;
Socaquin loturic
Arroquen artetic,
Baldin badu etsairic
Oiec garaituric,
An daramate ontcia cayera
Leorrera;
Naiz izan ecaitza
Bogatceco gaitza,
Eta baguen goiac
Naiz busti odoiac;
Arraunac arturic,
Botean sarturic,
Elizaren etsaiac billatcen,
Topatu ta garaitcen;
Dituzu anaiac
Guerra eguin naiac,
Da oien leguea
Etsai garaitcea,
Oiec ditu bere defensoreac
Fedeac;
Dirade esagun,
Dabiltza gautegun
European, Asian,
Afric-American,
Ydorrez, itsasoz
Dijoaz, ta datoz,
Dabiltza nequean
Yndio tartean,*

*Edo naiz cortean
Manera berean
Beti pelean
Bicitzac dirauen artean,
Beti beti pelean.*

Herriak martxaren lehen partea baino ez du kantatzen. Gizarteratua, onartua, ritualizatua, Gorosabelek martxaren funtzio sozialaz ohartarazten digu:

Los zortzicos del Corpus Christi, San Juan Bautista, la marcha de San Ignacio, etc... tenían así mismo su objeto propio para tocarlas en estas fiestas particulares, como la tienen aún ahora sin que apenas se toquen fuera de los días de su celebración.

Ez da Iztuetak ematen diguna San Inazioaren martxaren bertsio bakarra. Badira gehiago, euskaraz zein gazteleraz, garaietara moldatuak beti ere. XIX. mendearen hondarretan arestian hizpidera ekarri den Jose Inazio Aldalur organojoleak ondu zuen beste martxa bat, “Nueva Marcha de San Ignacio” bezala ezagutzen dena eta orkestra handi batek jotzeko gaitu zuena. Letra Aita Ramon Garciarena da, eta euskarazko moldaketa, Aita Aranarena, *Euskal Erria* aldizkarian 1882an eman zuena, “San Ignacio-ren martxa berria”. Zergatik aldaketa? Frantses airea izan zezakeen edozeren kontrako amorratuak ziren bai Aldalur eta bai Arana. Zerbait susmatuta ote?

Handik urte gutxira, frantses armadaren jatorrizko doinua errespetatuta, Sabino Aranak ere egin zion bertsiorik, Pascual Iturriagarenari “ahultxo” eta abertzaleek gartsuki abesteko desegoki iritzita. Bi egin zituen, bata gizpuzkeraz eta bestea bizkaieraz, berak ohi zuen maneran, herriko moldetik urruti.

*OÑATZ-LOYOLA ETA LIKONATAR IÑAKI
BIZKAYAREN ZAINDARI DEUNARI BIZKAITARRAK*

*Iñaki,
Jaunguak bidalduba
Ludijan ixatera*

*Josu'ren
Gudarijen Buruba!*

*Batzarrak
Autu zindun
Bizkatarren
Zain Deuntzat:
Zeu zara
Zaindari ta
Jaun onena
Geurentzat.
Iñaki,
Entzun, arren, eiguzu
Ta geure opea artu!*

*Bijotza
Bizkatarrak
Jayotzetik
Damotzu:
Zeuria da
Beria...
Baso, mendi, ibai, arru.
Zeru-gotik,
Deun-Iñaki,
Jagon, ba,
Bizkaya!*

*Jago-ixu
Jaun-Goikua,
Jago-ixu
Lagi-Zarra:
Areyo-
Aurrian Zeuk
Agindu*

Bizkatarra...
Gudean sarturik,
Ezpatea artuta
Bizkatarren aldez
Donge ta areyua
Indar zerutarraz
Zatitu osoro ta...
Zori-ontsuba
Bizkaya beti ixango da,
Zeuk, Iñaki zainduta!

Bertsio hau 1895eko uztailaren 10ean kantatu zen lehen bider jende aurrean. Bilboko Begoñako basilikan izan zen, *Euzkeldun Batzokija*-ren aurreneko urteurrenean. Aranaren martxak agudo zeharkatu zuen Atlantikoa, eta hala zabaldu zen Hego Ameriketako euskal-etxeetara. San Inazio Gipuzkoa eta Bizkaiko zaindari izanik, berandu gabe hartu zuen uztailaren 31k Aberri Egunaren adinako gradoa. Horrela bihurtu zen nazionalisten abesti berez saildu gerlariaren omenezkoa zen martxa militarra.

Bertsio modernoago batean, Iturriagaren letra *abertzaletuta* ageri da. Terminologia, ikusten denez, aukeratua eta aukerakoa da.

Garaitu ditu
Zure Lagundiak
Etsayak
Ez dauka Eleizak,
Ez Euskal-erriak,
Ez dauke bildurrik
Iñungo aldetik,
Iñazio or dago,
Beti indartsuago,
Dauka Lagundia
Su-garrez betia.
Guda guda nairik
Ikurriña zabalik,

*Gaut'egun guk
Guziok pakea dezagun
Beti gau eta egun.*

Euskal-erria, ikurriña zabalik... eraldaketa, lortu da. San Inazio, lehen karlistena bezala, jeltzaleena da orain. Nolanahi ere, batzuen edo besteena, herria eta katolikotasuna lotzen dituen ikono izaten segitzen du.

Bibliografia:

- ANSORENA, Jose Luis: "Procedencia de algunas melodías populares", *Txistulari* 164. zenbakia, 1995.
- BELAUSTEGUI, Juan Jose: "La marcha de San Ignacio", *Euskal-Erria*, 1903.
- DONOSTIA, Jose Antonio de: "La marcha de San Ignacio", *Vida Vasca*, 1931.
- DONOSTIA, Jose Antonio de: "Más sobre la marcha de San Ignacio", *RIEV*, 1935.
- GOROSABEL: *Noticias de las cosas memorables de Guipuzcoa*, libro II, sección III, Tolosa, 1869.
- IBINAGABEITIA, Andima: "Idazti berriak: I.M. Manzidor, Gure Patroi aundia", *Euzko-Gogoa* 36, 1957.
- ITURRIAGA, Pascual: *Fábulas y otras composiciones en verso vascongado*, Ramon Baroja, Donostia, 1842.
- LECUONA, Manuel: "La marcha de San Ignacio: sus textos", *RIEV*, 1931.
- ONAINDIA, Santi: *Arana Goiri'tar Sabin olerkari*, Igarri irarkola, Bilbo, 1982.
- ZABALA, Felix: *Música ignaciana*, Comisión Loiola 91, Azpeitia, 1991.

INAZIO BIZKARROIA

GIRO honetan, ulertzekoa da ez aurkitzea euskal literaturan San Inazioaren figura zalantzan jartzen duen lanik. Horregatik hartzen du bere sotlean indar xelebrea Jean Etxepare medikuak *Beribilez* bidaia-liburuan (1931) dakarren gertaerak.

Heldu dira Etxepare eta bere lagunak Loiolara, eta basilikaren eta etxe santuaren barrunbeetan ikusmiran dabiltzalarik, idazlea bakarrik gelditzen da. Luze gabe, horra non agertzen zaion ilunpetatik sakristian, misteriotso, mamu baten irudiko, izenik gabeko jesuita bat:

Hain xuxen, farrasta bat hauteimaten dut ene sahetsean, eta huna non ikhusten dutan —nundik jina othe?— uste gabetarik oixtian itzalia zitzaitan ene apez laguna. Ez daut orai behatzen ere. So gelditurik erretaulako izkirioneari, erhia xut adierazten daut idorki:

—Inazio etzen jakintsua. Nekez mintzo zen, hurriki zitzaion ateratzen elhea; haren idatzietan, halaber, ez da ezagun idazlearen antzerik.

Aleak botatzen ditu, etxean: hitz egiteko arazoak, idazle txarra, jakintsua ere ez... adimenean motz agertzen zaigu San Inazio. Zeinek eta jesuita batek esanda gainera. Zalantzarik gabe, balio handia hartzen du, figura literario legez nahi bada ere, idazle liluratuaren kontrapuntu gisa agertzen den jesuita isilak. Jesuita hori ez zitziola benetan agertu eta haren kezkak Etxeparerenak berarenak direla? Oso litekeena da. Ez da hori, hain zuzen, idazlearen lana?

Baina dudarik gabe, galegoz azaltzen da, guk dakigunez, San Inazioaren kontra inoiz idatzi den testurik gogorrena. Bigarren karlistaldia amaitu eta gutxira, 1880an argitaratu zuen Manuel Curros Enríquez-ek *Aires da miña terra* olerki bilduma, Rosalia de Castroren *Follas Novas*-en urte berean. Atera eta batera,

Ourenseko apezpikuak berehala kaleratu zuen ediktoa liburuaren kontra, bertan ageri zen zenbait poema heretiko, blasfemo eta iraingarri zelakoan. Epaitegira jo zen, liburuak bahitu zizkioten, moldeak apurtu... Ourenseko auzitegian bi urteko kartzela zigorra ere eman zioten olerkariari. Gora jo, eta Coruña-koan errugabe atera zen. Ogasun Ministerioan zuen lana galdu eta Madrilera joan zen, *El Porvenir* egunkari errepublikarrera lanera. Habanan hil zen, 1908an.

Hainbesteko zigorra zerk eragin zuen ezagutzea merezi duelakoan, hona Currosen sonettoa galegoz.

DIANTE UNHA IMAXE DE ÍÑIGO DE LOYOLA

*A mística alegría no sembrante,
no peito a ira, o sono na mirada,
ben te conezo, Euménide sagrada,
trenca virtú, católico bergante.*

*Treidora do Evanxelio á lei amante,
a Esposa dos Cantares, desleigada,
tivo tratos co demo, e desta allada
naciches ti, ¡parásito trunfante!*

*Mais ¿que fas nese altar roubando preces,
xenio da intolerancia soberano,
ti, que tan solo maldiciós mereces?*

*¿Ti, que trocache a Cristo nun tirano,
os saíos i os verdugos en xueces,
i en fouce a Dios do pensamento humano?*

Honela genuke euskaraz:

LOIOLAKO INAZIOREN IRUDI BATEN AURREAN

*Poztasun mistikoa aurpegian,
bihotzean herra, behakoan ametsa,
ongi ezagutzen haut, Eumenide sagaratu,
bertutez herren, katoliko doilor.*

*Kantuetako emazteak, alderrai,
tratu izan zuen deabruarekin,
eta amarru horretatik jaio hintzen hi, bizkarroi halakoa,
Ebanjelioaren aurkako legearen maitale!*

*Baina zer egiten duk aldare horretan otoitz-ebasle,
intolerantziaren buruzagi nagusi,
hik, madarikazioa baino merezi ez duan horrek?*

*Hik, Kristo tirano bilakatu huen horrek,
sikarioak eta borreroak epaile,
Jainkoa giza-pentsamenduaren igitai!*

Ez diote, itxura, maitasun handirik galiziar idazleek Loiolari. Honetan, bada alderik euskaldunekin. Distantziak ematen duena beharbada. Bigarren Errepublikaren garaian, Alvaro das Casas hizlari, kazetari, antzerkigile eta poeta Euskal Herrian zen, euskaldun, katalan eta galiziar abertzaleen arteko Galeuzca topaketetan. Bilbon izan zen lehenbizi, San Inazio egunean San Mamesen egin zen ekitaldi politikoan. Emozioak lotzen du idazlea Athleticceko atezaina ikurri-
na jokalaria belaunikatuen buru gainean dantzatzen ari dela, gorak eta irrintziak entzuten dituenean. Ikusi egiten dugu, harmailetan, galiziar bandera eskuetan. Ordukoan lagun, Emakumeen Batzako mitinlari ezagunenetakoa zen Julene Urzelai azkoitiarra zuen. Hurrengo egunean, Donostiara joan ziren. Eta bide erdian, kera Espainiako Bigarren Errepublikak jesuitarik gabe utzitako Loiolan:

1933. Abuztuak 1.

Leher eginda esnatu naiz. Bederatzietan atera naiz Donostiarantz kotxe baten

Urzelai, Isusi eta Rezolarekin, nire Euzkadiko hiru lagunik onenekin. Une batez Zestoan gelditu gara, eta gero Loiolan, non, egia esan, ez didan ezerk arreta hartzen, non eta ez diren euskaraz idatzitako marmorezko harri batzuk. Jesuitek nazionalismoaren aurrean etsi egin zutela esan nahi du honek? Zintzotasun keinu bat da, hemen, euren sorterrian, non kanpotarren aurrean makurtu eta sentipenak agertzeko beharrik ez dagoen tokian? Osterantzekoak, zer ardura dit? Ez kaperak, ez jesuiten etxeak, ez Etxe Santuak, ezerk ere ez. Jesuiten jauregietako giro izoztua, sentipen artistikorik gabeko aberastasun hutsa eta emozio erlijiosorik gabeko turismo elizkoiaren kea.

Azpeitia, non paisaia, beti atsegin, heze, musker, gozoago —askoz ere gozoago— Bizkaiko mendietan baino dotoretasun doi eta harroagoko eraikinez janzten den (...).

Aurrekari hauekin, bistan da berebiziko balioa hartzen duela, bere sotlean, Koldo Izagirrek soinu txikiarekin jotzeko egindako porrusaldak. Inazioren figura historikoarena ez ezik, berak fundaturiko konpainiarena ere bada errepasoa. Denetako arrastoak aurki daitezke bertan, gaztetako ibili aldrebesetatik hasi eta jesuitek munduan barrena ibili duten politikaraino, Gaztelako errege-erreginen alde Iruñean zauritu zuten soldadua ahaztu gabe. Umorez eta zorrotzasunez idatzitako testua da *Loiolako porrusalda* hau, Joseba Tapiak kantatzen duena:

LOIOLAKO PORRUSALDA

Azpeitiko mutila

Inazio donea

Zenbait atso gazteri

Jasoa gonea

Ai zer gonorra

Inazio donea.

Herriaren lepotik

Mila marabedi

Loiolatarren kasta

Madarika bedi

Besteren izerdi

Mila marabedi

Oiñaztarren mutila
Han aurrean doa
Gaztelaren pausoan
Oina ta zangoa
Ederra zapoa
Han aurrean doa

Iruñan hartu zuen
Zangoko herrena
Nafarroa salduta
Etsaia barrena
Ez du okerrena
Zangoko herrena

Begira nola doan
Aldarera herren
Apostoluetatik
Jarria da hurren
Ifernuko Txerren
Aldarera herren

Orduan sortu zuen
Jaunaren armada
Munduko gerra zikin
Guztien ama da
Inon beltzik bada
Jaunaren armada

Jainkoaren aldeko
Beso armatua
Dolarrak aspaldian
Ongi xarmatua
Ustel xamartua
Beso armatua

*Loiolan ageri da
Eder basilika
Zeruko zergazainek
Sakela kilika
Kristo zintzilika
Eder basilika*

*Hizketa leuna du
Kristoren morroiak
Sotana beltza baina
Zuriak sermoiak
Loiolan zer lohiak
Kristoren morroiak*

*Urolako lohietan
Kli-klu kli-klu kli-klu
Horra santu batenak
Gaur zenbait meritu
Inaziok baditu
Beste hainbat kli-klu*

Bibliografia:

CURROS ENRIQUEZ, Manuel. *Aires da Miña Terra e outros poemas*, Galaxia, Vigo, 1985.

DAS CASAS, Alvaro: "Diario de una viaxe de nazionalistas", *A Fouce*, 1933.

ETXEPARE, Jean: *Beribirez* (Maria Jose Kerejetaren edizioa) EEE, Donostia, 1987.

TAPIA, Joseba eta IZAGIRRE, Koldo: *Apoaren edertasuna*, Gaztelupeko hotsak, Soraluze, 1999 (disko-liburua).

POSTAL EXOTIKO BAT

BI egunetarako heldu zen Pierre Loti Loiolara. Hendaian zegoen orduan, *Le Javelot* kanoiontziko komandante. Frantziar itsas armadako agintari, munduko bazter askotan ibilia zen aurretik, eta halaxe bihurtu zuen bere bizitza liburuetara. Turkian, maitemindu egin zen; Vietnamen Hue hiri inperiala bonbardatu zuen; Marokon, argiak liluratu zuen; Senegalen, koloreak; Palestinan... Guztiotan ikusi zuen exotismoa aurkitu nahi izan zuen Euskal Herrian ere, eta aurkitu, aurkitu zuen, Loiolan izan eta urte batzuetara argitara eman zuen *Ramuntcho* eleberrian ikusten denez. Emile Zola eta Anatole France-ren naturalismoaren aurrean, bereiztasuna. Gordintasunaren aurrean, postala. Erroman-tikoen zordun, hona Lotiren begiek ehizatu zuten Euskal Herriaren txatal bat, Izarraizpekoa.

1892ko urriaren 25a, asteazkena

Arratsaldean, eguzkia etzan delarik, Zumarraga izeneko herri batean utzi gaitu Donostiatik Madrilerako espresoak nire lagun euskalduna eta biok. Ordubete egon beharra dugu, San Inazioen herrira eramango gaituen zalgurdiaren zain.

Hego lurretako udazken giroa, hosto gorrien malenkonia nonahi dela. Ezinbestean, tristea da, urriko ilunabarra etzatean, harat-honat ibiltzea herri ezezagun, bakartu, zahar batean, non hizkuntza ulergaitz bat mintzo den, mendi garaiez inguratua...

Noraezean gabiltza. Leiho batean, estrata estu beltz batean, Brasilgo papagaio gaixo bat bakarrik ari da:

—Egingo nuke hori ere euskaraz mintzo dela —diotsot bidaideari.

—Baliteke —erantzun dit. Eta belarria zorroztu du:

—Hala da —dio barrez—. “Jaquo ederra!” esaten entzun diot.

(...)

Bostetan heldu da gure zalgurdia, gertu: kapota txarolezkoa duen cabriolet moduko bat, aurretik bi zaldi gezi eran lotuak, lepabueltan hamaika kanpantxila dituztela.

Handik gutxira gara soro artean, eta berehala, gau beltza, epela, udan bageunde bezala. Ordu eta erdiko ibilbidea, drote onean ibarretan zehar, arroil makurretan barrena, ikusi ez, baina kanpantxilen dantza handia izanagatik entzuten ditugun erre-kastoak aldamenean ditugula. Hegoaize gozo batek, etengabe, orbela dakarkigu alde-ra.

Azkenik, ostatu handi baten atarian gelditu gara. Heldu gara. Bidearen bestaldean, San Inazioaren komentu ikaragarria ageri da, halako orban iluna iluntasunean. Bestelako etxerik ez inguruetan; ostatua eta komentua, Loiolan ez da besterik.

Ostatua zaharra da oso, burdinazko maila eta barandarekin, jauregi batean bezala. Espainiako ostatu guztietan bezalaxe, sarretatik bertatik aditzen da olio eta lapikokoen usaina. Jendeak ez du ez frantsesa ez gaztelera ulertzen, aberriko hizkuntza baino ez, euskara. Mahaian, gure ondoan apaiz zahar bat bakarrik dago; baina azkenaldian, dirudienez, jesuiten jeneral berria hautatzen ibili direlarik, jendez mukuru egon dira gela guztiak. Mundu guztitik heldutako bidaiariak zeuden, baita Polonia barreretik eta Errusiatik etorritakoak ere.

Ostatua toki santua da ia; irudi jainkotiarrek daude hormetan esekita, eta eskailetan, gora doanari "Jainkoaz alatzea edota biraoka aritzea" galarazten dioten karteltxoak.

Urriaren 26a, osteguna

(...)

Eguzki betean zabaldu ditut leihoak. Hego urri bateko goiz zoragarria da. Arboletako orbain gorri eta urre kolorekorik gabe, belar gaineko hosto lehorrik gabe, agorrik betean geundela esango genuke. Ingurua oso da berezia, ikusgarriro hautatua: ordeka zabal txiki bat, Euskal Herriko parte nahasi honen inguruan aurki daitekeen bakarra; lorategi bat bezain oparoa den lautada bat, erreka fresko batek zeharkatua, eta itzalkiro hesitua; mundutik bereizten duten mendi garaiez ia menperatua. Errekak hots doia dakarkio inguruaren isiltasunari, eta artzain giroko lasaitasuna da nagusi paraje zoragari honetan.

Hala ere, aurre-aurrean dut San Inazioaren komentua, jesuiten habia, errege bat bezain nagusi, ikaragarri eta harro bakardade honetan. Itzalezko mukulua osatzen du, grisa eta tristea, oso itxura berezikoa, handitasun harrigarrikoa, hain galdurik

dagoen, hain apal eta lehengo izaten jarraitzen duen herri honen erdi-erdian. Kapera fatxada handiaren erdian dago, albo bietara bi hegale ilun dituela. Kupula basilikaren neurri gaitzetan gora harrotzen da, peristiloak itzulinguru dotorean egiten du aurrera, oro marmolezko, atariak eta zutabeak marmol beltzekoak, marmol zurizko armarriz. Bertaraino daraman mailadia berebizikoa da, zaila, lehoiz eta irudiz dotoretua. Eta aurrean, krisantemo parterreak besterik ez, behialako eskeraz osatutako bidexkak; eta gauza bitxia, harresirik ez, ezta itxitura bat ere. Hortik aurrera, nekazariak dabilzan soroak, zelaiak.

Jatorrizko frantses testutik ari gara euskaratzen, gaztelerazko itzulpen bat ere aurrean dugula. Bartzelonako Editorial Cervantesen argitaratutako liburua da *Figuras y cosas que pasaron* hau, itzultzailearen izenik ez dakarrena. Aurrera jarraitzen dugu, baina bi testuak ez datoz bat. Espainiar itzultzaileak Lotiren egunerokotik zatiak zentsuratzea erabaki du:

Gogoeta ilunak datozkizu jesuitakeriaren eta Inkisizioaren habia honetan; izenak berak itogarritik zerbait duen Loiolako komentu honi begira zaudela, ezin burutik kendu hainbeste gauza krudel eta gogor, garai batean ahopean horma hauen bestaldean aginduak eta gero gertu edo urrun, beti ezkutuan eta errukirik gabe betearaziak.

Agi danez, itzultzaileak ez ditu gustuko Lotik jesuitei buruz eginiko gogoetak, eta Loiolaz ari denean zaio interesgarri soilik militar idazlea. Eta egurra gozotzeko nola, paper latza pasatuz beti ere. Lerro batzuk gehiago baino ez ditugu irakurri:

Eraikin gaitz eta aberats honek, bere arkitektura astun, bere aire menperatzaile honekin, mendi artean gordea, Jesuiteria handiari komeni zaion itxura du.

Humboldték mende hasieran bezalaxe, jesuitek artean izan duten eragin kaltegarriaz ohartarazi nahi gaitu Lotik. Bada horretan guregana heldu ez den iritzirik, Frantziar aise ibili dena. Loti bera baino gogorrago mintzo da L. Louis-Lande *Basques et navarrais. Souvenirs d'un voyage dans le Nord de l'Espagne* liburuan:

Literaturaz, nahiago dut ezer ez esan; baina arteetan, eskulturan, arkitekturan, gus-

turik faltsu eta negargarriena ekarri zuten; batez ere Espainian, non izaera nazionalak handikeria eta gehiegikeriara makurrarazi zuen, joera are gehiago larriagotuz. Zein, jesuitak berak ez eta izan dira estilo endekatu hau zabaldu dutenak, bere osoan zaharminaren eta gotiko argiaren xehetasunetan imitatua, harroa, dena itxura, eta hain juxtu horrexegatik jesuita estiloa deitu izan dena?

Ezagutzen zuen Lotik Landeren lana? Ez dakigu, baina pentsatzekoa da Frantzian Landerenez gain, izango zela antzeko iritzi gehiago jesuitek artearen munduan bultzatu zuten estiloaz. Gaztelerazko testuan, “*Jesuiteria handiari komeni zaion itxura du*” beharrean “*komeni den itxura du*” dio itzultzaileak, gainontzekoa ezabatuta. Nahita herrendutako testua da. Itzultzaileak, bistan da, nahiago du loreen askatasuna, jardinen ederra. Hor ez dago arriskurik:

Hala ere, hain inguru lasaiak, mundu guztira zabaldutako lorategiak, itxitura txiki batek ere babesten ez dituen loreak, aurrez ikusten ez den itxura abegikorra ematen diote inguruari.

Lotik kontrastea lortu nahi du, ordea, lorategien perfekzioari Loiolak zatarretik duena kontrajarri nahi dio. Jarraian datozen lerroak, desagertu egiten dira, berriro ere, gaztelerazko testuan:

Orden honen erregela, dudarik gabe, inoren burutik sortu den kristautasunaren deformaziorik handiena da, eta gozotasuna, Jesusen izenak inguruan duen gozotasuna zenbat eta handiagoa izan, orduan eta beldurgarri, glaziar eta gogorragoa da izen beretik datorren Jesuita hitza.

Halako aitortzaren ondoren, dena da gozoagoa itzultzailearentzat ere. Victor Hugo liluratu zuen Euskal Herria du aurrean Lotik, idi eta gurdi, lanean eta kantuan bizi diren herritarrak:

Hesien arteko bidexketan aurrera, etxekotasunez dabilta nekazariak. Idi gurdiak ere igarotzen dira, zeinen erromatarren erako gurpil sendoek Euskal Herri osoan entzuten den karranka ateratzen duten; sagardo sagarrez gainezka, gorriak eta urre kolorekoak, airean parfumeen usaina uzten dutenak; edozein nekazarik daramatza, leiho

handien azpitik, bestelako kezkarik gabe, garai zaharretako kantu alaiak hortz artean. Egiatan, jesuiten inguruan denak du halako atsegin giroa, denak du ugaritasun zera bat, bakearena, segurtasun sakonarena.

Ostatutik basilikako labirintoan dabilela (zenbat gogorazten digun handik urte batzuetara Jean Etxepare medikuak egingo duen ibilaldia!), etxe barnea erakutsiko dien jesuita bat aurkituko dute hauek ere:

Frantsesak garen galdetu digu. Nire bidaideak, bere arrazako gizona topatu duen ustean, euskaraz erantzun dio:

—A, noski! —erantzun du fraileak. Frantsesak zarete, frantses-eskualdunak!

Ulertzen dela uste dut: “Beraz, zuek ez zarete hain frantsesak! Herri bereko semeak gara!”. Eta are abegikorragoa egin zaigu.

Komentuan sartu da, basilikan, oñaztarren dorre-etxean... Deskripzioak, aberatsak dira, xehetasuna du dohain. Ikusi egiten dugu etxe barrua. Baina itzultze-ko garaia heldu da.

Elkarren ondoan diren bi herrixka euskaldunen artean dago Loiola, Azpeitia eta Azkoitia, biak tipikoak, dudarik gabe, aspaldidanik geldirik, euren burdina forjatzuko etxe ilunekin, euren denda txikiekin, euren lanbidetxoekin. Biek dituzte elizak, Loiola bezala San Inazioaren lur gaineko ibiliak santifikatuak, eta Espainian, ez ohiko apainketa aberatsa dutenak. Azpeitian, aldare nagusiaren atzean, harlauzetatik bobedaraino, dena dago urre hostoz jantzia, egur-egurrean txinoen egonarriz sartuta.

Bi herri hauetan —udazkeneko eguzki astuna dir-dirka gaur gainean— dagoen lantegirik handiena abarketak egitea da, eta abarkak (ahari larruz eginiko oinetakoak, lehengo eran, zangoan gora lokarriz lotzen direnak).

Batez ere Azkoitian, barregarri gertatzen da: kaleetan barrena, abarketari ilara amaigabe bat, jo eta ke lanean. Esan liteke mundu guztia dagoela oinutsik, abarketa eskaera handi bat noiz amaituko zain amorratzen. Gizon-emakume hauek josi, gogoz jotzen dute, eta trentzazko zolak txortan pilatzen zaizkie alboetan.

Atzo ekarri gintuen zalgurdi berak eramango gaitu gaur Zumarragara, ilunpean, eguzki eder eta beroaren azpian. Idi gurdi handiak datozkigu aurrez, usain gozoko

sagarrez beteta direla, eta astiro doazenak, gurpil sendoak txirrika. Gure zaldiak, kanpantxilez betea, amaierarik gabeko hosto lehorren gainetik doaz lauhazka haran zoragarrietan zehar, aurrez gauez entzun baino ez genituen egin erreka feskoren aldamenetik.

Hendaian bertan hil zen Pierre Loti, 1923an, Bakhar-Etchea zeritzan bere etxean. Jesuitek, ez zioten barkatuko. Liburu honetan esaten dituenengatik baino, haren eleberrietako giroagatik: “Sinesgabea, bihozgabea, inmorala”, hala agertuko da Pablo Ladrón de Guevara-ren *Novelistas buenos y malos* indizean, beste hainbatekin batera.

Orain, sagar gorritz betetako idi gurdi haiek ikusten eman daiteke arratsaldea, haien usaina hartzen, eta itzultzaile espainola madarikatzen. Izan ere, susmoak gaitu harrapatzen, zer irakurtzen dugun itzulpenetan, zer adar inausten dizkion itzultzaileak idazleari pentsakerak horretara moldatua, zer den inguru hauetan dena ideologia nagusi bat, boterearen mintzoa sendotzea besterik.

Bibliografia:

LADRON DE GUEVARA, Pablo: *Novelistas buenos y malos*, Mensajero, Bilbo, 1910.

LOTI, Pierre: *Figures et choses qui passaient*, Paris, 1894.

LOTI, Pierre: *Figuras y cosas que pasaron*, Cervantes, Bartzelona, 1924.

LOUIS-LANDE, L.: *Basques et navarrais. Souvenirs d'un voyage dans le Nord de l'Espagne*, Paris, 1878.

URRUTI NERE MENDITIK

ETXEGARAI munduratu aurretik, lauso ta triste omen zegoen euskal egoera: edestiarren otsa ixillik, zerraldoan otz eta geldi. Goiz batean, baiña, K. Etxegarai jalgi zan, eguzki bezela, gure gauza zarren iraultzaille.

Gisa honetako berotasunez egiten dio harrera bere literaturaren historian Santiago Onaindiak Karmelo Etxegarairi.

Hala azaldu izan zaigu Etxegarairen figura, bera jartzen ziguten beti gurean historiaren zaletasunaren ernamuina aldatuko zuen aurreneko izen handiarena jokutzen. Gerokoak hor dira: Ildefonso Gurrutxaga, Trino Uria, Jose Artetxe, Juan Inazio Uria, Leopoldo Etxeberria, Imanol Elias eta enparauak.

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako probintzietako kronista izan zen 1896az gero, hemen historia edo edestia ezagutzeak garrantzi behinena hartu zuen garai batean.

Bizkaiko diputazioaren ahalegin bereziari esker izendatu zuten hiru probintzietako kronista. Foruak galduak ziren eta foruzaletasunak argudiatzeko indarra iragan historikoaren azterketan bilatu beste erremediorik ez du ikusiko. Milaka ikerketa eta lan burutu zituen Etxegaraik Gipuzkoako aldundiko artxibok miatzen aurrena, ondoren Diputazioaren aginduz Madrilgo Liburutegi Nazionalean eta Historia Akademiako liburutegian bildutakoekin. Entzutea eman zioten bi lan *Investigaciones históricas referentes a Guipúzcoa* (1893) eta *Las Provincias Vascongadas a fines de la Edad Media* (1895) dira.

Liburuokin erdietsitako ospea lagungarri izan zuen oso kronista ofizialetarako har zezaten. Espainian ere izan zituen hartu-eman joriak. Tartean Marcelino Menendez y Pelayo ezagutu eta hilburukoan azken nahiaren jagole izendatu zuen Karmelo beste batzuekin batera. Eta kronista lanetan jartzen hasita Gernikan izan zuen egoitza nagusia; non bestela?

Euskal Pizkundearen garaiko fruitu dugu Etxegarai. Foruak galdu eta foruen aldeko bulkada gora datorren kultur eta politika giroan biziko da, tximinietako keak Gipuzkoa-Bizkaietan zirimarra mardulak egiten hasiak diren aldian. Eta sutegi berriei eragiten dieten esku belztu asko eta asko foruei eta iragan ederretsiari baino, beste mundu bati begira datozela ematen du.

Historia ikertu eta ezagutu egin behar da, geure-geurea dugun izaeraren aiurriaren nondik norakoak zehaztu ahal izateko, mundu ikuskera, jaiarak, dohai-nak, tradizioak. Jaungoikoa, herria, etxea, familia... zein etorkitatik jasoak dituen jakitera jarri zen euskaldun mordoa, foruak galdu eta nazionalismoa indartu zen bitarte horretan.

Zein asmorekin, ez dago erraza jakiten. Akaso, halako batean galdu genuen bakea eta oreka zoragarri hura bere onera ekartzeko argudio sendorik ez zeki-gun sekula falta? Edestia zientzia bai, baina mitoak sortzeko esku trebe arina duen literatur generoa ere badela begitandu zaigu maiz. Astia eman behar zaio, ordea, denborari.

Karmelo Etxegaraik hamabost urte zituela Zumaiako portuan lanean ari zen aita galdu zuen. Zerua goian eta lurra behean geratu ziren ama, izeba bat, bi urteko anaia txikia eta laurak. Osaba batek jaso zuen Karmelo eta ikasketak eman nahi izan zizkion Santanderren. Hara joan eta hiru urtera osaba hil eta Karmelok Zumaiarako bidea hartu zuen berriro, ikasketak erdizka buruturik. Euskal Lore Jokoen bulegoan hartu zuten, eta Luis Eleizalderi esker Diputazioan hasi zen artxibozain. Diotenez, berak egiterik izan ez zituen ikasketak anaia Boniri eman ahal izan zizkion.

Gerra aurreko urte haietan euskal literaturan eta kultur jardunean izena da Bonifazio Etxegarairena. Poesia, historia lanak, legeen azterketak, soziolinguistika eta bestelako hainbat jorratu zituen. Karmeloren anaia zumaiarra izan zen 1932ko Euskal Autonomia Estatutuaren egitasmoa erredaktatzeko ardura hartu zuenetako bat. Karmelo zendu zenean Boni jarri zen Euskaltzaindian hark utzi zuen aulkian. Boniren ahotsa Euzkadi Irratiko mikrofonotik ozen zabaldu zen Gernikako sarraskia salatzen. Santi Onaindiaren *Milla euskal olerki eder-en* bere alea badu. Eta bazuen nondik.

Karmelo zuen anaia. Espainiako Historiako Erret Akademiako kide autodidakta zorrotzaren baitan literato bat ere bizi zen. Eta literatura esatea asmatzea da, sormena da, libertatea. Izan ere, den-dena errotik kendu nahi dioten herri

bat, asmamenetik eta mitoen isuri oparotik ia-ia historiaren kanil estutik bezainbatean da edateko premian.

Hala, ez da hutsa izango elezahar edo leienden lanketari Karmelo Etxegaraik eskainiko dion ahalegina. Antonio Arzak, Arturo Campion, Lopez Alen, Txomin Agirre, Gilbeau, Frantziska Inazia Arrue eta beste asko izan ziren literatur genero horri heldu ziotenak urte haietako kultur kinka aldian.

Iragan berrasmatu eta apainagoa eskaini nahiko zitzaion oraina horren aldatokorra eta segurtasun gutxikoa ikusten zuen euskaldun zapuztuari.

Helburu horri buruz on dira poesia eta itzulpengintza, beharrezko dira azterketa historikoak eta biografia. Leiendek baina, badute bide zabal eta nasaia bizikera eta tradizio jatorraren ustezko ezaugarriak ikur balioraino altzarazteko. Baserria eta mendia ohiko familiaren, erlijioaren, euskararen eta arraza garbitasunaren berme eran aurkeztea, horra bideetako bat. Ez bakarria haatik.

Gainera zetorkien sasoi nahasi eta nahasgarriaren aitzinean gizarte eta ekonomia eredu sendo errotuak eskaintzeko ordua zen, bai poesian eta hitz lauz ere bai. *Euskal festak* suertatu ziren plaza egoki horri begira, kulturaren beste hainbat adieraz modurentzat bezalaxe. Horiek gabe agian leiendek halako piztaldirik ez zuketean izango inoiz.

1879an, Donostian lehenengoz ospatu ziren *Euskal-izkribatzalleen indar-neurtzeak*, eta lehia horren aterpean hurrengo hamabost urteetan izan zuen narrazio mota horrek ezagutu zuen loraldi mugatua. Lanik aurkeztu ez zelako utzi zitzaion sarietarako deia egiteari 1894tik atzera.

Euskal kondagintza eta eleberria orduko saio haiei zordun zaie. Nahita edo nahigabe ohitura-literaturaren mintegi bihurtu ziren.

Etxegarai literatur giro hartan izan zen baten bat, bere iritziek izan zuten inorako indarra eta geriza. *Auñemendiko Lorea*, Txomin Agirrerren eleberri fundazionalari, eta Gregorio Mujikaren *Pernando amezketarra* ospetsuari berak paratu zizkien hitzaurreak.

Garaiko euskaldungoak jakin zituen goian aipatutako ezaugarriok Etxegarairen literatur lanetan bilatzen, txalotzen eta saritzen. Literaturak izan behar zituen doaiak bere eskuz mamitzen ere jakin zuen. *Malco bedekatuak* (1898); *Antxiñako gertaerak* (1898); *Gurasoen zigorra* (1899); *Aitor-en etorrera edo Euskalnerriaren asiera* (1899) dira azpeitiar idazleari argitaratu zizkieten batzuk.

Azken leienda horretan, geroztik nahiko topikoa den euskal genealogia miti-

koa ageri da. Aitor, euskaldunon aitelehena, aspaldi, Noeren ontziak lehorra jo eta gutxira, abiatu omen zen segizio eta guzti Ararat mendiaren maldetatik sortaldera. Kaukasoraino heldu ziren bertan laketzeko asmoz baina, handik berriro mendebaldera jo beharko dute aitortarrek bakeagatik, eta leinu jator hori zeltekin borrokan ez akitzeagatik. Auñamendiko gailur distiratsuek liluratu zuten Aitor aitasoa Akitania aldean ikusitako pagausoei segika, eta *bertan goxo* egiteko tenorea heldua zela deliberatu zuen.

Zazpi esparru bereiztu zituen euskal askazi bakoitzak izan zezan non hazi eta pausa. Berez izan badira lur hau baino aberatsago egin gaitzaketenak, emankorragoak, baina inon ez da euskotarra izango mendi arte honetan bezain libre. Aitorrek aurkitu zuen munduan bere hezurrei atsedena emateko leku on bat.

Agosti Xahok 1845ean sortu zuenetik euskal mitoetan hedatuenetakoa da Aitorrena, Campionek gaztelaniaz ezagutzera eman zuen. Etxegarai, berriz, euskaldunon jatorri erromantikoari hegoak jartzen saiatu zen euskaraz.

Hala ere, literaturan aurreneko bristada, bristada itsugarriena poesian egin zuen Etxegaraik. 1882an, hamazazpi urteko zela, bidali zuen lehenbiziko poema Lore Jokoetara eta bi aipamen berezi jaso. Hurrengo urtean sariak lortu zituen Iruñean, Donostian eta Markinan. Markinako Euskal Jaietan Abadiaren eskutik hartu zuen ontzako urrea.

Ez zuen ez azken saria eta ez azken poema izan. Sariak hitz neurtuetan eta hitz lauan dozenatik gora irabazi zituen beste horrenbeste Lore Joko, Euskal Jai eta Euskal Festetan. Berrehun baino poema gehiago argitaratu zituen euskaraz, guztiak ere 1882 eta 1894 urteen bitartean osatuak.

Arrese Beitiaren tankera zuen idazteko trazan. Dena dela, hark baino emanago zuen luma loreak, mendiak eta paisaia modu aski xaloan erakustera, erromantikoen handitasun puztuari ihes eginez propio. Erlijioa, euskal pertsonaiak, euskara eta ohiturak gai larrienetakoak ditu. Poema mordoa dira une jakineko bulkadari erantzuten diotenak, poema eskainiak, urteurrenei eta ospakizunekin lotutakoak. Olerkiaren lanketari aurki utzi zion, haren lekuan edestiak, historiak, ikerketak jan zioten astia.

Nikolas Ormaetxea *Orixe*-k, kronistaren poeta alderdiari iritzi zion arretagarriri 1927an, hura hil eta bi urtera.

Markiña'ko euskal-jaietan oraino ume zelarik sariztatu zutenean, itxaropen zuten euskal poeta bikaina aterako zela Etxegarai. Gaiekoa zen poesirako, bere gainerako idaztietan noizpenka nabari denaz. Gaia egokitzen ba zekien, izkuntza berez etorrtsua zizun, esaera txukuna, neurtitza erreza eta ongi ebakia. Zergatik utzi zion poesi egiteari? Eztakigu. Mingarri da bere bizieran geiago ez ari izaitea.

Neurtizlari eta poesian ari dela ere galtzear den mundu baten isla bistakoa da. Arrese Beitia izendatu berri dugu, baina hor dira Grazien Adema *Zaldubi* edo Elizanburu, baserriari, euskal xoko jatorrari, euskarari, fede zintzoari eta mendi goi garbiari beti kantari. Giro eta garai bertsuan, antzeko airetan ondu zen, egin zen Etxegarai poeta. Baina nola esan? Idazleok tradizioaren maitale sutsu izanagatik eta katolikotasun hertsu bateko parte sentitu arren, literatura *zibil* bihur zedin urratsak eman zituzten idazle ere badira.

Azkenera jo aurretik alderdi esanguratsu bat bada oraindik. Azpeitiko kalean jaio eta herririk herri eta hiririk hiri bizi izandako gizona, noiznahi Santander, Donostia, Madriletan dabilen kale-ume ikasiaren testurik ezagunena, zein bihurtuko eta, Sakabi eta Egañazpiren hauspo-larruek *hit* bilakatu zuten bertso sorta. Joandako egunen minez, eta, seguru asko, gizartean, politikan, ekonomian, kulturen datozkeen aldaketen aurrean kezka lauso batek hartutako hitzak. 1886an *Euskal-Erria*-n argitaratu zenerako urrutikoa zen postal bat.

MENDITAR BATEN KANTUA

Urruti nere menditik

Joan nintzan dirutu nairik:

Urrutiyetan laster biotza

Naigabez erdibiturik,

Gelditu nintzan tristerik,

Pake santua galdurik.

Nere biotza zegoen

Euskal-erriyan pensatzen,

Egun guztiyan, gaubaz oro-bat

Beti zitzaidan oroitzen,

*Zer gozo nintzan bizitzen
Aurcho nintzanean emen.*

*Gogoan nuen echea,
Gaztañ-artean gordea:
Mendiska baten agertutzen zan
Eleiza chukun maitea,
Bertako-ezkill dorrea,
Ainbat oroitzez betea.*

*Arkitzen nuen guztiya,
Zan neretzat mingarriya:
Denak gogora ekartzen zidan
Mendiyan nuen biziya,
Ango pake naigarriya,
Ango zorion eztiya.*

*O mendi biyotzekoa!
O nere kabichuloa!
Zugan neretzat diz-diz egiñik
Dago izate gozoa,
Ala nola intz-tantoa,
Apaindurikan ostoa.*

*Chori bat bere kabiyan,
Dago pozez lertu naiyan:
Ala ni ere arkitutzen naiz
Nagoenean mendiyen,
Gaztaña zarren azpiyan,
Aitonen jayo-tokiyan.*

*Emen igande goizean,
Mezara ezkillak deitzean,
Zenbat oroitza gozagarritzko*

*Senti ditut biotzean!
A zer poza barreanean
Eleizarako bidean!*

*Orduan egun-sentiyak
Argi-zituen mendiyak:
Ezkill-soñuaz batera zuten
Gogoz kantatzen choriyak;
Loreak, intzez bustiyak,
Zabaltzen zeuden orriyak.*

*Dena zegoen ederrik,
Guztiya pozez beterik:
Intza, loreak, choriyak, dena
Zoriona kantaturik,
Baña guztiyen gañetik,
Ni negoen atsegiñik.*

*Ez naiz, ez, Jauna, geiago
Nere menditik joango:
Aitzurrak nere lagun dirala
Baserriyan naiz biziko,
Zuri eskerrak emango,
Pakez bete nazulako.*

Bibliografia:

ETXENAGUSIA, Karmelo: *Euskal Idazleen Lorategia*, Cinsa, Bilbo, 1969.

ONAINDIA, Santi: *Euskal Literatura III*, Etor, Donostia 1974.

ORIXE: "Euskal literatura'ren atze edo edesti laburra", *Euskal Esnalea*, Donostia, 1927.

SAN MARTIN, Juan: *Gogoz. Gure herriko gauzak. Cosas de nuestro país*, Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, Donostia, 1978.

URKIZU, Patri; XARRITON, Piarres: *Anton Abbadiaren koplarien guduak*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1997.

EUSKAL FESTAK

ARTETXERENeko ostatua Azpeitian gaua eman duten bisitarien aspaldiko aterpe izan da. Edward Spencer Dogsonek gela hartua zuen 1893ko irailaren 6an. Hizkuntzalari euskaltzale ingelesak bi egun bazeramatzan bertan. Aita Aranari gaztigatzen dio Antoine Abadia hilaren 9an dela iristekoa, Euskal Festak hasi bezperan, eta Resurreccion Maria Azkue Loiolan izango dela gogojardunak egiten irailaren 8tik. Zetozen egunetan ez zen aspertzeko beta handirik izango.

Antoine Thompson Abadia iragarritako egunean heldu zen, eta egundo ez bezalakoa egin zioten ongi etorria. Festa giro ederra zegoen kaleetan, afalondon Artetxereneko atarira bildu zena mundu txiki bat izan zela ikusten da Joanito Dorronsoro bertso ikerlariari irakurrita.

Bostehun gazteren bueltan ba omen ziren “Biba Don Antoine Abadia”-ka errenditu ezinean. Soinujoleek “La Azpeitiana” izeneko bals doinuak jo bide zituzten eta gaua lehertu zutenak nonbait “Gernikako Arbolaren” aireak eta eztarri malkotu haien burrundara izan ziren. Han gertatutako askok ezingo zuen bihotz hondotik gau hartako ajea zotin pare batekin uxatu.

Irlandar euskaldun aberatsa izan zen Abadia (1810-1897), aita zuberotarra eta ama irlandarra zituen euskal Lore Jokoen mezenas eta gurasoak. Urterortero bere poltsikotik jarri ohi zituen diruak 1851an hasita hil zen arte, jaietako pilotari, bertsolari eta bertso-idazleak saritzeko.

Abadiaren itzala, ordea, ez da euskal kulturaren izararen lau belarrien artean kabitzen ahal. Etxe aberatseko semea, aurki erakutsi zuen trebetasuna frango zientziaren, etnografiaren eta hizkuntzalaritzaren plaza gorenetan.

Euskal Jaien eta Lore Jokoen aitajaunak, euskal kulturaren eta literaturaren pizkundearen sustatzaile gertatu zen hark, bere bizitzan izan zuen, euskara maiteaz beste, nori zerbitzatua.

Esploratzaile ospe handikoa ere izan zen, Europako kolonialismoaren hiztegiarentzat, ofizio hori espioitzaren eufemismotzat hartzea gehiegikeria ez zen giro geopolitikoan. Hamaika bazter eta jende ezagutu zuen ibilera haietan: Brasil, Etiopia, Norvegia, Haiti, Espainia...

Eñaut anaiak eta biek Frantziako bandera ezarri zuten Nilo Zuriaren iturburu jo izan zuten tokian. Gisako nekeak hartuta ordainak ere iritsi zitzaizkion. Frantziako Ohorezko Lejioaren domina jaso zuen 1850. urtean. Azpeitira heldu aurretxoan, berriz, 1892an, Frantziako Zientzien Akademiako buru izendatu zuten.

Beste jakingarri bat: 1892ko urte berean, Donibane Lohizuneko Lore Jokoetan jarri zen “Zazpiak bat” lema aurrenekoz. Bustinzuriko plazako gazte haiek nola ez zioten ba abestuko eztarria urratu beharrean!

Baina 1893ko jaiei izenik handiena ez zien Abadiak eman. Irailaren 10 hartako bazkalondoan jendearen gutizia piztua zuten lehien artean, bertsolarien arteko saioa ez zen azkena izango.

Saritarako jarri ziren 100 libera urre gorrizkoek ere ekarri behar zuten soka. Bost mila entzule ba omen ziren plazan bertso saioari begira. Epaimahaiko zein izango eta, R. M. Azkue, Txomin Agirre eta Felipe Arrese Beitia. Hiru txorten eder piku-sasoi aurreratatu hartako baratzerako. Eta pikua diogu, arratsalde hartako epaiak eta ondorenak txortena ez ezik makina bat adar eta arantza zorrotz ere sortu zuelako.

Jendea bezala bertsolari batzuk ere agertu ziren bazkal ondoan udaletxeko balkoitik kantatzeko. Laster, baina, Jose Bernardo Otañok —Pedro Mari Otañoren iloba—, Juan Jose Alkain *Udarregi*-k, eta Pedro Elizegik *Pello Errota*-k egin zuten aurrera gainerakoak bidean lagata.

Gogor ekin omen zioten elkarri puska batean, batez ere bi nekazariiek euren arrazoiekin errotaria nondik eraitsiko. Gai asko dantzatu zituzten, eta amaieran Euskal Herriari eta euskaldunen batasunari kantatu zioten.

Itxura denez, jendea Pello Errotaren alde hasi zen oihuka, eta juezek bat egin zuten eztarri olde harekin. Hala jaso zuen saria eta honek Jose Bernardorekin partitu zuen, antza, aurrez hala hitz eginda zeudelako, Udarregi ezer gabe utzita. Batzuek diote saria hiruren artean banatzeko kontua saio aurretik bertsolariiek adostu nahi izan zutela, eta Udarregi ez zela konformatu. Beste batzuek, aldiz, alkateak dirua hiru zati egiteko baldintza aginduta amaitu zela saioa.

Udarregik beste bien arteko konponketaren berria izan eta Pello Errotak Usurbilen hurrena ikusi zuen batean adarra jo ziola ez ziola, bertsoak jarri zizkion Pellori. Sail ederra etorri zen aurreneko haien ondotik.

Bertso jartzaile askok hartu zuten parte egundaino ezagutu den bertsolarien arteko haserre sonatuena izan zen, eta bederatzi puntuko bertsoen sailik bikainenena eragin zuen hartan. Euskal Herriko bazter askotan irrikaz jarraitu ziren bertso eman haren entregak, noiznahi eta nonahi kantatzen zirela.

Gaurdaino heldu diren orduko oihartzunak ez dira bertsolarien xextra sonatuekin amaitu, hala ere. Esan bezala Euskal Jaieen egitarauan kirolak, folkloreak, ikuskizunak tartea izaten zuen eta jai zabal horien barruan maiz Lore Jokoak ere jokatzeko ziren, hots, bertso, literatur eta pilota lehiak nagusi zituzten kultur kutsuko festak.

Bertso idatzi eta poema ederrenarentzat urte edo zilarrezko kirtendun makila eta ontzako urrea jarri zituen Abadiak Azpeitirako. Emakumezkoen lasterka apustua ere izan zen zolki-ittulak buru gainean hartuta. Sariak honela banatu ziren: lehen saria, Francisco Lopez Alenen *Ama baten otsa seaskaren ondoan*; bigarren sariak, bata Felipe Casal Otegiren *Ama euskera eta bere umiak*, eta bestea Gracien Adema Zaldubi-ren *Gauden Eskualdun* lanari.

Zaldubik etorri oparoa izan zuen, estilo erraz eta dotorean euskara eta erlijio gaiak erabili zituen, poemetan gehien bat. Apezgintzan kargu asko bete zituen eta Errepublikaren kontrako militante zorrotz moduan dantzatu zuen luma sarri-sarri. Azpeitiko Euskal Jaiek omenaldi berezia ere eskaini zioten 1890eko hamarkada hasieran.

Lore Jokoetan krisiaren zantzuak sumatzen hasi ziren 1874koetan, irabaztun "Bizkaitar bat"-en *Jaungoicoa eta Erriya* poema, eta Ademaren *Betirisanz* ironikoa suertatu zirenean. Euskaldunon egoera salatu nahi zuten testuek nolabait, eta izan zen ondo hartu ez zuenik Iparraldeko egoera egonkor eta barexeagoa Hegoalderako hobeto zeuden eskabide gatazkatsuekin kutsatu behar hori.

Bigarren karlistaldi betean honela idatzi zuen anonimo batek *L'Avenir des Pyrénées et des Landes* aldizkarian Patxi Salaberrik jasoa duenez:

Nous préférons la tranquillité des champs au cliquetis des armes et au sang fratricide qui se verse de l'autre côté des Pyrénées. Nous préférons la paix de nos montagnes au gri sauvage de guerre qui est, à notre point de vue, une insulte à la divinité et à la patrie.

Berriro polemika sortu zen 1876an, Ademaren *Biba Errepublika* famatuak lehen saria irabazteko egokiena zirudienean. Saririk gabe utzi zen lehiaketa, ordea, Errepublikako gobernuarekin sor zitzakeen arazoak jarrita aitzaki.

Tirabira ideologikoak zirela-eta, 1879tik atzera Lore Jokoez muga pasatu eta Bidasoaz hegora egin zuten, Iparraldekoek hartua zuten tekuarekin askietsi ezinik edo. Abadiaren ekimenari Donostiako udalarena erantsi beharko zaio gero-ra, Manterola sustatzaile zela. Laster beste udal batzuk eta diputazioek ere lagunduko zituzten jaiok. Perretxikoak bezala ugaldut ziren.

Bitxi samarra da orain ikusita: alde batekoan Errepublikaren baloreak eta pertsonaiak goratzen dira, bestean, aldiz, euskara, foruak, askatasuna edo Errepublika zitalak martiri egindako Maddalen Larralde bezalakoak.

Zaldubik idatzitako *Zazpi Euskalherriek, Agur eta ohore Euskal Herriari* edo *Gauden Eskualdun* testuak, poema beraren aldaerak dira. Badirudi *Zazpi Euskalherriek* hori, Donibane Lohizuneko euskal jaietan abestu zela lehen aldiz 1882an, baina handik hamaika urtera Azpeitian saritu egin zuten, senperetarren testu ezagunena bihurtu eta herriak beretzat hartu zuena.

Euskarari eta euskaldunen batasunari abesti suharra ere badena, bestelako osagaiz ere hornitua dator. Idazle horrek hainbat ahapalditan, berriketa handirik gabe jarri zituen agerian orduko euskaltasun molde baten alderdi aski esanguratsuak.

GAUDEN GU ESKUALDUN

(Euskaldun besta eta biltzarretako kanta)

(Errepika)

Zazpi Euskalherriek

Bat egin dezagun

Guztiak bethi, bethi

Gauden gu Euskaldun.

Agur eta ohore

Euskalherriari

Lapurdi, Basa-Nabar

Zibero gainari;

*Bizkai, Nabar, Gipuzko
Eta Alabari
Zazpiak bat besarka
Lot beitez elgarri.*

*Haritz eder bat bada
Gure mendietan
Zazpi adarrez dena
Zabaltzen airetan,
Frantzian, Espainian
Bi alderdietan
Hemen hiru'ta han lau,
Bat da zazpietan.*

Beharbada, Urkoren abestiari esker belaunaldi batentzat nahiko etxeko diren aurreko bertso hauen ondoan badira beste batzuk.

*(...)
Gu gare, Eskualdunak,
berexiak beraz
gure ethorkiz eta
mintzaira eskuaraz.
Nihongo arrotzekin
Ez dadien nahas,
arrotzek gur'eskuara
ez dirote ikhas.*

*(...)
Ez behaiz, Eskualduna,
lehen bezein handi,
aphaldu gabe zutik
bederen egoadi,
odolez eta fedez
bethi berdin garbi,*

bethi tink'atxikia

hire Eskuarari.

Zaldubik tolesik gabe adierazten du: azken beltzean nahiago da euskara galteza arrotzek ikasita euskaldunon leinua betiko lohitzea baino. Honetan, Sabino Aranari urte batzuen aldea atera zion. Hain maite izanagatik axalekoago jotzen dena gabe (hizkuntza) hobeto izango gara, mamikoena eta izatea bera (arraza) usteltzen utzita baino. Eta, noski, lur emankorra topatuko zuten mezuok bailara honetan.

Baina ez ziren Euskal Jai guztietan mezu berdinak zabaldu ohi. Azkoiti-Azpeitietan ospatu ziren euskal kutsuko festa gehiago hurrengo hogeitertietan. Diputazioak eta udalak deitutako Euskal Festetan, bai Azpeitiko 1901ekoetan, bai 1910ean Azkoitian obratu zirenetan, kirola, bertsolaritza, musika sorkuntza, literatur lehiaketak eta eskolako haurrak euskaraz idatzi eta egoki irakurtzeagatik sariak jasotzen ikus daitezke. Hitzaldiak ere eman ziren bietan. Ez zen falta izan ume gehieneko familiei esker ordaina ematea ere.

Azkoitian 1910ekoan, *izkribatzalleen indar neurtzean* sarituta Juan Manuel Lertxundi, Abelino Barriola eta Bitoriano Iraola ageri dira. Euskara, herriko historia, antzerkia, bertako pertsonaien gorazarreak dira sarigarrien artean.

Euskararen geroa, euskal kulturaren iraupena, horra hor mende berriak zaharrari hartutako kezka eta eztabaida larrienen gaiak. Hegoaldeko Euskal Jaietan ere kontraesanen arrakalak durduzamuendua eragiten hasi ziren. Dagoeneko ez dago *Arkadia* hesiturik, konfliktorik gabeko ez baratza ez mendirik.

1901.eko abuztuaren 26an hautsak harrotu behar zituen hitzaldia egin zuen Bilboko Arriagan, Lore Jokoen barruan, Miguel Unamunok.

El vascuence se extingue, sin que haya fuerza humana que pueda impedir su extinción; muere por ley de vida.

(...) ...y yo estoy convencido de que la principal causa es de origen intrínseco, y se basa en la inaptitud del eusquera para convertirse en lengua culta.

(...) En el milenario eusquera no cabe el pensamiento moderno; Bilbao hablando vascuence, es un contrasentido. (...)

(...) Enterrémosle santamente, con dignos funerales, embalsamado en ciencia; leguemos a los estudiosos tan entrañable reliquia (...)

(...) Porque el vascuence tiene que desaparecer por ser impropio de los actuales tiempos y recordar una época de barbarie, ignorancia y fanatismo...

Lehendik ere asko ziren (Humboldt, Arrese Beitia, Campion...) ama euskararen hilaginekoak abestu zituztenak, baina gogo ernegarri eta antidoto moduan, lo zirenak iratzartzeko xedez.

Unamunoren hitzek sua zabaldu zuten eta 1901eko irailaren hondarretan, Azeptiko Euskal Festak hasi zirenean artean bizi-bizi eta harro zeuden garren mihiak elekari. Unamunok ere, Zaldubik bezala, esentziak, modernotasuna, lehenago jarri zituen mundu berrira egokitzeko elbarri ikusten zuen euskara baino.

Arturo Campion iruindar euskaldun berriari jarri zioten festa haietako hitzaldia emateko ardura hilaren 30arekin. Beharrik, Unamunok aurrena, eta haren berotan Barojak, Maeztuk eta beste zenbait intelektualek euskarari emandako iragarpen beltzak izan zituen hizpide udal areto nagusian.

Puntu batzuetan, arima etnikoaren eta historiaren hainbat aiputan bereziki, zahar usaina darion arren, euskararen egoerari aurre egiteko jarraibide mami-suak eta gogoeta aberatsak eskaintzen ditu.

Hizkuntzak ez dira berez hiltzen, heriotza egiten zaie eragin. Glotozidioaren teoria iradokitzen du Campionek, eta hizkuntza borrokena. Eta bistakoa dena, hiztunen jarrera erabakigarria da kontu hauekin ezertan hasterako.

Para que un pueblo pierda su lengua es preciso que, en mayor o menor grado, comience por despreciarse a sí propio.

(...) Los baskongados, en relación a la supervivencia de su idioma, se dividen en tres grupos: los entusiastas, los indiferentes y los enemigos. El primero y el tercer grupo —selecto aquél, degenerado éste— constituyen minoría; el predominante es el segundo. Compónese de personas que hablan el euskara porque lo aprendieron en la cuna, y aún de hecho lo prefieren para las conversaciones familiares a cualquier otro que posean. No les pidáis más, su mentalidad es incapaz de acoger la idea de que la pérdida del lenguaje es hecho de trascendencia suma en la vida del pueblo que le habla. (...) Con fría insensibilidad presencian la instalación en sus hogares de generaciones que les son absolutamente extrañas por su modo de hablar... (...) ...Los abuelos hablan exclusivamente el baskuenze, los hijos mal el baskuenze y el castellano, los nietos exclusivamente el castellano.

Euskaldunak dauka Campionentzat hil kanpaiari kontra egiteko giltza. Nahiz iragana idealizatzeko joera izan literatur lanetan, eta pentsakeraz antiliberala eta foruzale agertu, berritu beharrean dakuski irtenbidea, modernotzean. Hizkuntzak eguneko premiei erantzun behar die eta noranahiko bihurtu, euskaldun guztien arteko komunikazio gailu izan eta, garbizalekerien arriskuaren gainetik eginda, bizi den garaian zikindu.

La lengua euskara es una lengua exclusivamente popular. Fáltale, por tanto el vocabulario técnico de las artes y las ciencias. Pero si en vez de menospreciarla se usara de ella para fines artísticos y científicos, nacería el vocabulario que hoy falta: se le proporcionarían el neologismo y la metáfora, aparte del préstamo directo, que no le había de estar vedado al euskera como no le está a ningún otro idioma. Si le cerrais la importación extranjera, singularmente la griega, “ipso facto” quedará equiparado al del bascuense el vocabulario técnico castellano.

(...) La lengua euskara es hoy una lengua relativamente inculta... (...); mas siendo capaz de cultura por contar con recursos gramaticales propios de que muchas otras lenguas carecen además de los comunes y ordinarios, se impone conclusión muy distinta de la que los intelectuales patrocinan. La conclusión de la lógica y del patriotismo es ésta: en vez de arrinconar y dejar que se muera el euskara, es preciso cultivarle filial y piadosamente.

Campionek jakintsu usteko askoren saldukeria laineztu izana leporatzen dio Unamunori, eta hitzaldiaren azken buruan entzuten daudenei eskatzen die baskongado kaxkarren kontrako desadostasun publikoa adieraz deza-tela.

Ez zeukaten azpeitiarrek adar hura bi aldiz entzun beharrik. Handik zortzi egunera Juan Clemente herritarraren eskariz udalbatzak aho batez hartutako erabakia adierazgarria da.

...que ya que tan brillantes habían resultado las Fiestas Eúskaras, (...) para digno remate de las mismas, debía el ayuntamiento demostrar su amor a la Lengua Euskara protestando contra los conceptos vertidos por don Miguel de Unamuno en su discurso de los Juegos Florales de Bilbao, y que se remitiera copia del acuerdo a los periódicos de la provincia.

Artetxereneko ostatua itxita dago joan den aspaldian, zaharkitua eta narriatua eskaintzen zaio egungo begiari, dena baino ederragoa irudika litekeen baratzaz zoragarri bat duela harrizko hesiaren bizkarrean. Euskal Jai haien lurrinak kale zokoetatik, behebarru eta karrera bazterretatik ezkutatua behar duela ematen du, baina badira gabiltzan tokian, han-hemen bildu egiten gaituzten sikofofonia moduko doinu eta oihartzun iradokorrak.

Herriak, sasoiak, eztabaidak eta borrokak aldatu dira. Aldika geure pentsamenduan ostatu hartzen dugu oraindik eta jende askorekin egiten dugu topogure oldozmenaren geletan, korridoretan, sukaldean. Garenaz, izan nahi dugunaz egiten dugu gogoeta.

Bibliografia:

- BERNAUDOU, Charles: *Azpeitia, Les fêtes euskariennes de Septembre 1893*, Baiona, 1894.
- CAMPION, Arturo: *Obras completas-XIII*. ("Discurso en las Fiestas Euskaras de Azpeitia el día 30 de septiembre de 1901"), Mintzoa, Iruñea, 1985.
- DORRONSORO, Joanito: *Bertsotan (1789-1936)*, GIE, Donostia, 1981.
- ETXEZARRETA, Jesus Mari: *Bertsolarien desafioak, guduak eta txapelketak*, Sendoa, Oiartzun, 1993.
- SALABERRI, Patxi: *Iraupena eta lekukotasuna*, Elkar, Donostia, 2002.
- ZAVALA, Antonio: *Azpeitiko premiyoaren bertsoak (1893-1895)*, Auspoa, Tolosa, 1963.

URKAMENDIKOAK

BERTSO paperek, gerora herritargo zabalaren artean nagusi jarriko den prentsa idatziaren aitzindaritzatza lana bete zuten neurri batean. Garaiko kronistak dira bertso jartzaileak, gertaera gogoangarrienak jaso eta modu artistikoan, kantatzeko eran, paperean ematen zituztenak. Baina ez dira hori bakarrik.

Funtzio sozial garrantzitsua ere bete zuten bertso berriek, estimazioa halakoxea izaten zuten gero. Jendearen sentierarekin bat egiten zutenean bertsoak erruz saltzen ziren, harrapazka. Eguneroko prentsak ezin zion, ezta hurrik eman ere, bertsoek adina adierazkortasun eta indar eskaini orduko euskaldunari.

Bertsoak kronika soziala izateaz gainera, iritziaren plaza ere baziren, eztaba da leku, trama biziak, eleberrien antzeko, eta gertatutakoan oinarri hartzen zutenak. Irakaspen nabarmena ekarri ohi zuten askotan, noski, hezigarri nahi zuten izan. Kantuz gogoan gorde zitezkeen, eta kantatuz nahi beste aldiz berri.

Urkamendiko literaturak, berez, azpigenero bat osatzen duela esan daiteke. Ohikoa zen kondenatua hil behar zenean zeremonia eskarmentagarria antolatzeara. Erritualak zehaztuta zituen xehetasunik txikiak: non behar zuen urkamendiak, nolako neurriak, zein apaingarri, kondenatuak nola behar zuen jantzita, zer jarreratan agertu, nola hil... Botere publikoek, agintariek idazle goraiatuak kontratatzen zituzten ikusitakoaren berri zehatza ahalik eta sentimendurik handienaz eman zezaten ondoren.

Eskolako haurrak exekuzioa ikustera derrigorrez eramaten zituzten. Borreroak, berriz, inork atsegin ez zuen langintza batean ziharduten “tekniko kualifikatu” haiek, hiltzeko tresneriarekin nahiko urrunetik iristen ziren. Aginteak gauzen ordena zuzenari eusteko sustatutako nolabaiteko “festa zibi-

koa” zen jendaurreko exekuzioa. Ilustrazioko garaiak ekarri zuen ikuspegi “pedagogikoarekin” bat zetorren sakrifizioa.

Gurean urkamendiko bertsoek saila osatzen dute (*Hamalau heriotzena, Estudiante kondenatua, Jose de Larrinaga...*), eta konstanteak dira lehen pertsonan kontatuak izatea, gertaeren deskribapena egitea, egindakoagatik damua erakustea, eta, azken buruan, Jainkoari, Ama Birjinari kupitu dakigula eskatzea, edo otoitz baten eskea gaizkilearen arimaren alde. Azpigenero horren tasunik markatuenak dira.

Bertsoek larderiez juzgatzen dute zigortua beti, eredugarri behar du izan kastinguak jendartearentzat probetxukoa gertatuko bada. Inor ez dago barkatzeko mundu honetan, ez dira gai, zeruetako indarrei eskatzen zaie arima salba diezaiotela, ez dago gorputza galdu gabe libratzerik. *Zor nauzu eta paga nauzu.* Ez dago besterik.

Guzti-guztiena, hala ere, ez zen horren juzku gordina izan. Hizpidera dakar gun kasuan, esaterako, Azpeitiko udalak, Gipuzkoako diputazioak hala aholkatuta, batzar berezian bildu eta Espainiako Maria Cristina erreginari indultoia eskatu zion Muatzeko Tejeriarentzat.

Krimenak jendearen grina ezkutuenak agerian jartzen ditu, ondorioak tragi-koak izaten ditu eta harrien arreta ere piztuko luke. Biktimarekin identifikatzea ez da zaila, eta gizarteak kondenatua ere biktima bilakatzen du. Ezin da ukatu, morbo berezia sortzen du oinazeak.

Joanito Dorronsorok, *Bertsotan* bilduman kontatzen du Etxeberritxok idatzitako sail honen motiboa. 1900eko urtarrilaren 16ko goiz euritsu hartan, zortzietarako mundua bildu zen Azpeitiko urkamendi inguruetan. Bezperatik denak emanda omen zegoen herria, hainbeste zen eta bertara hurbildutako jendetza. Ostatu guztiak eta hamaika etxe bete zituen ikusgarria euren begiz ikustera etorritako olde hark.

Jose Frantzisko Tejeria zeritzan garrotea emanda exekutatu zuten mutilari. Gipuzkoan horrela hil zuten azkena izan zen. Urte eta erdi lehenago Aiako Muatz (Mugaz) baserrian aita tiroz hil zuen Josek. Donostiara alde egin koartada bilatzeko ustean eta han Guardia Zibilak atxilotu eta Azpeitiko espetxera bidali preso.

Jateko artean lima sartu zioten etxeok ihes egiten saiatzeko. Ia-ian ibili omen zen, baina kartzelako giltzeroa akordatu eta aukera zapuztu zion. Gero

Donostiara eramán zuten eta garrotearekin lepaezurra bihurrituta jendaurrean hiltzeko zigorra irakurri zioten.

Erromeri giro betean murgilduta ilundu zuen urtarrilaren 15a. Tabernak ez zituzten itxi gau osoan. Orduko prentsak dio biharamunean sei bat mila pertsona bildu zirela kartzela aurrean. Jende modu guztietakoak gerturatu ziren heriotza haren txistu hotsera. Haurrik ez zen faltako, helburua didaktikoa ere bai baita, ikasbide garrantzitsu bat, eskarmentu hartzea besteren akatsen kontura.

Hala, Agustín Jauregi idazle eta sermoilari ospetsuak zorrotz gaztigatu zituen herriko gurasoak igandeko meza nagusian, eramateko eta eramateko umeak hura ikustera, zigorraren legea zer den kolpetik ikasiko zutela-eta.

Lekukoen artean zen Juan Mari Zubizarreta, Azkoitiko Etxeberritxo base-rrian jaiotako bertsolaria. Beste bazter askotan bezalaxe, pentsa daiteke gurean ere idazleak, bertsolariak kontratatuko zituztela, jazoera larriak egoki konta zitzaten. Beharbada Etxeberritxo ez zen kapritxoz joango Azpeitiko urkamendi aurre hartara. Baliteke agintariek eskatuta, aurrez hitz eginda, lan arrazoiengatik gertatzea bertso paratzailea urtarrileko goiz busti hartan Perdillegiko inguruetan. Bertan ikusitakoa paperera hitz neurtuetan ekarri eta hurrengo azoka egunean Azpeitiko kaleetan zen bi semerekin bertso haien kantari. Eskuetatik kendu omen zizkieten atera zituzten milaka aleak. Best sellerra.

Harrezkero, oraindik bertso horiek berritzen dira aldika, jendeak noizbait kantuan hartzen dituenean, Jose Tejeriaren suertearen zertzeladak, heriotzaren korridore hartakoak akordura ekarriz.

Bertso hauek esaten ez badute ere, litekeena da, borrero etorri zena, Anatole Mayoral zeritzan Burgosko zigorkaria izatea, urtetsu horretan Gaztelako hiriko kargu hori betetzen ageri baita. Espainia osorako hiru bat zeuden izendatuta, batera eta bestera ibiltzen zirenak euren egiteko ilunari laguntzen.

Urkamenditik bertatik hitzaldia egin omen zuen aita Aizpuru jesuitak, erabat ezeztatuz Tejeriaren balizko zuribideak, aita zena errainarekin konpontzen zelako kontu hura eta. Ondoren, beste apaiz bat kredoa esaten hasi eta estutu zioten lepoko burdin uztaiá Aiako parrizidari, begira-begira zuen mundu haren guztiaren aurrean.

Ahozko transmisioak eta irudimen kolektiboak, belaunez belaun guganaino gorde ditu gertaeren txatal batzuk. Zenbait etxetan esaten da, Jose Frantzisko Tejeria hil ostean, gorputza kartzela aurrean jarrita eduki zutela, herriko sarre-

ran, handik pasatu behar zuten inguruetako eskola umeen eta herritarren bel-
durgarri.

BERTSO BERRIAK AZPEITI'KO URKAMENDIAREN GAINEAN JARRIAK

*Jose Tejeria da
au nere grazia,
Gipuzkoa'ko Aia'n
jaio ta azia;
tiroz aita ill nuan,
orra desgrazia,
publikatzera nua
asunto guzia.*

*Deabrubak animua
eman biotzera,
tiroz atrebituba
nire aita iltzera;
Donostia'ra gero
zerbait ekartzera,
egin nuen okerra
desemulatzera.*

*Gizonak altxa zuten
aita bizirikan,
"O, semiak galdu nau!"
berak esanikan;
gurasubak etzuban
esan gezurrikan,
gorputza ill da anima
juan mundutikan.*

*Paperian jarrita
alde aurretikan,*

aitari zenbat eman
señalaturikan;
eske ari zan beti
aldamenetikan,
gure enredo danak
sortubak ortikan.

Aitak eskatzen ziran
legez eta bidez,
egiten niona da
agindu ta eman ez;
buru dana betia
pentsamendu txarrez,
tirua eman nion
diruaren orde.

Soldadu arma-dunak
lotu kurioso,
baita eraman ere
Azpeiti'ra preso;
deklarazio txarrak
egiña ni oso,
libratutzeko bear
gezurra preziso.

Aurrena egon nintzan
uka fuertian,
salatzallia pranko
bazan bitartian;
gero aitortu nuen
egunen batian,
gezur guztiak ziran
neretzat kaltian.

*Azpeitia'tik juan
Donosti aldera,
Gipuzkoa'ko buru
dan tribunalera;
akusatuba nintzan
Judasen legera,
gezurrak balio ez,
neretzat galera.*

*Andriak eta biyok
emandako itzak,
konprenditzeko ere
oso dira gaitzak;
oiek guziak ziran
gezurrezko saltsak,
aitari ezarriaz
etzituben mantxak.*

*Gaizki egin nuala
ondo damutzen zat,
au eskarmenturako
beste guzientzat;
munduban ez da izan
oraindikan behintzat
ume bat txarragorik
gurasubarentzat.*

*Donostia'n artuba
nintzan albistia
posible etzala neri
bizirik uztia;
ai ura orduko
lastima tristia!*

*Etzan alegratuko
nere emaztia!*

*Donostia'tik giñan
Azpeitia'ra etorri,
bost guardiarekin
kotxian ekarri;
kartzelan sartu eta
an nenguan larri,
sententzia tristia
zuten irakurri.*

*Zuzen da garbi egin
dute justizia,
badakit nuela nik
ondo merezia;
illbeltzan amaseirako
nere sententzia,
goizeko zortziretan
kentzeko bizia.*

*Gaiztua izan banaiz
orra sujetatu,
sententzia orrek ziran
biotza erdiratu;
Aita Aizpuru'rekin
gogoz konfesatu,
egindako okerrak
danak akusatu.*

*Pauso bat eziñ eman
nuan ezergatik,
bi lagun banituben
beso banatatik;*

*urkamendira juan
giñan kartzelatik,
borrerua begira
zeguan atzetik.*

*Urkamendian nintzan
eserita jarri,
nire entrañak zeuden
estu eta larri;
bizia eman bear
oso lotsagarri,
au beste guzientzat
eskarmentagarri.*

*Barkaziua nuan
azkena eskatu,
zergatik egiñ nuen
lenago pekatu;
orreatatik bear det
orain nik urkatu,
Jaungoikuari arren
nitzaz erregutu!*

Bibliografia:

ARTECHE, Jose de: *El gran asombro*, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, S.A., Donostia, 1971.

DORRONSORO, Joanito: *Bertsotan (1789-1936)*, GIE, Donostia, 1981.

ITURRIOZ, Joxin: *Urolaldea bertsolari*, Ikasberri Azpeitiko Ikastola, Azpeitia, 2001.

ELIAS, Imanol: *Azpeitiko efemerideak. Herria historian zehar*, Uztarria Kultur Koordinadora, Azpeitia, 2003.

ELIAS, Imanol: *Azpeitia historian zehar*, Azpeitiko Udala, Azpeitia, 1997.

ESLAVA, Juan: *Verdugos y torturadores*, Temas de Hoy, Madril, 1991.

LAKARRA, Joseba; BIGURI, Koldo; URGELL, Blanka: *Euskal baladak. Antologia eta azterketa*, Hordago, Donostia, 1983.

ZAVALA, Antonio: *Azkoitia'ko zenbait bertsolari*, Auspoa, Tolosa, 1970.

SARKINA

EL INTRUSO eleberria 1904ean eman zuen argitara Vicente Blasco Ibañez valentziar idazleak. Mugimendu errealistako kide jotzen da, eta lan horretan Bilbo inguruko giroa eta Bizkaiko Ezkerraldeko meatzarien bizimodua hartu zuen kontagai. Meatzeetako burgesia eta langile klasea eratzen ari den aldi horretako tentsioak gordin islatzen ditu. Auzi sozialak oparo erabili zituen urte haietako liburuetan, eta egilearen ideologia errepublikazale eta antiklerikala erakutsi zuen eleberri horrek ere. Gizarte mailako bidegabekeriaren eta ilunkeriaren salaketa zertzeko tresna ere izango du literatura. 1903ko urriaren 11ko Bilboko gertaera larriekin amaitzen da nobela. Borrokaldi eta istilu gorriak izan ziren Bilboko kaleetan katoliko eta antiklerikalen artean. Makilekin eta tiroka eraso zioten elkarri, hildako bat eta zauritu asko izan ziren. Urte bereko urriaren 17 eta 18an hasi zen, bestalde, meatzarien greba orokor luze eta gogorra.

Baina horraino iritsi baino lehen, eta gertuagora begira jarrita, Blasco Ibañezen lan entzutetsu honetan bada atal bat ia oso-osorik gure bailaran gertatzen dena. Euskal Jaien aitzakian, eta Zierbenako Txikito eta Azpeitiko harri-zulatzaile baten arteko apustua dela-eta, Azpeitira ekarriko du egileak Luis Aresti bilbotar doktorea, nobelako pertsonaia nagusia, eta bere begiz inguruotako orduko jendea ikusteko parada izango du, eta bailarako biztanleez, mundu ikuskeraz, Loiolaz eta San Inazioz gogoeta mamiak isuriko ditu.

Azpeitia ikusten zuen aurreneko aldia zen, trenbideak urrunetik ukitzen zuen euskal lurraldeetako txokor eder hura, arrazaren izpiritua eta tradizioak bertan aterpe hartua zutela zirudiena. Hura zen San Inazioren herria. Handik minutu gutxitara, bailararen erdi-erdian, Loiola zegoen, komentu gaitzarekin, etxetzar-jauregi haren zatartasunak doktorearen jakin-mina zirikatzen zuela. Ordenako Jeneral berria hautatu behar zenean, munduko bazter guztietatik etorritako jesuitismoaren ordezkariak biltzen zituen

Egoitza amaren, kuartel tankerako eraikin haren itzalak bailara eta mendiak hartzen zituela ematen zuen, bertako biztanleak bere tankeran eratur.

Arestik jendetzaren artean San Inazioaren azpegia gogoratzen zioten bisaia asko ikusi zituen. Begitarte gogor, soraio, izotzezko tinkotasuneko haiek, ospe handiko nor-tasun bakun baten ezaugarri jotzen ziren haiek, arraza oso bati ere bazegozkion.

Balkoietakoa emakumeei ere erreparatu zien sendagileak. Eme bizkaitarrek baino itxura nabarmenagoa zuten, halako lizun eta biguntasun ukitu batekin, Gipuzkoari askok egotzen zioten "Euskal Andalusia" titulua gogora ekartzen zuena, baina bazen haien begiradan ar espresio indartsu bat, Vendée-ko heroisa fanatikoak gogora zekar-tzana. "Giri"-arenganako ezinikusia, legezko erregea botatzeko auskalo nongo probin-tzietatik etorritako espainiar galtza gorridunenganako gorrotoa, belaunaldiz belaunal-di gordetzen zen oinordetzan bezala. Plazan ziren gizonezko nagusi guztiek inoiz jant-zia behar zuten, seguru asko, Gipuzkoako tertzioetako kapa eta gogoan izango zuten mendietako erregea, bizar beltz handiarekin eta begien gainean txapel zuria jantzia zuela.

Eibar, bere arma fabriketako behargin jendetzekin, liberala eta ez oso erlijioari emana, gertu zegoen, baina munduaren beste muturrean zela zirudien, bi herriak bereizten dituzten mendiak gaindi ezinak balira bezala.

Azpeitiko etxeek ate guztietan ageri zituzten Jesusen Bihotzaren plaka handiak. Horixe zen kanpotik nabari zen erlijiotasun ezaugarri bakarra: ez fede erronkarik eta ez berotasun zirikatzailerik. Gauza horiek debozio epeleko eta Jainkoaren egiak etsaiak dituzten herrietan behar dituzte. Bailara osoan, erlijio giro lasai eta fidakorra indarrean zen nonbait, Erdi Aroan bezala, fedeaz gutxien arduratu zen garaia hain zuzen, artean zalantza eta fedegabetasuna bururik altxatu gabeak baitziren. San Inazio dontsuak zapaldu zuen lur hartan errebeldiarako joerak sortzea hain zen buru-gabea, hain ezinezkoa, ezen pentsatze hutsak berak munduari ospe unibertsaleko san-tua eman izanaz harro zegoen jende uzkur hari barrea eragingo bailioke.

Eguerdi ostean idi demak amaitu ziren eta jendetza herrian sakabanatu zen.

Postal kostunbrista politak ematen ditu Blasco Ibañezek Aresti doktorearen bitartez. Bi mundu jarriko ditu aurrez aurre, Bizkaiko meatze alde maketotzen hasia, fedeari eta tradizioari hotzago zaiona, liberalagoa eta industrial batetik, eta bestetik Urolako jendarte atzerakoi eta foruzale itsua. Kolore biziz margo-tzen du bertsolarien jarduna eta apustuen giroa Azpeitian.

Nazioartean izena hartu zuen idazle horrek —Hollywoodek eta zineak abegi egin zieten bere lanei, bereziki *Los cuatro jinetes del Apocalipsis* (1914) eta *Sangre y Arena* (1908) eleberriei— deskribapen zehatzak eskaintzeaz batera bailara honen psikologiaren eta soziologiaren ikuspegia ere eman nahi izan zuen.

Blasco Ibañez, Parisen izan zen garaian Zolaren eragin nabarmena jaso arren, XIX. mendeko errealismoaren azken ordezkari nagusia da. Rodolfo Valentinoren mitoa jaso zuten filmeen artean goian aipatutako biak daude 1920ko hamarkadaren hasieran. Ondoren, haren nobeletan oinarritu pelikuletan ibili ziren artista ezagun askoak: Greta Garbo (*The Torrent*, 1926), Tirone Power (*Blood and sand*, 1941), Vincente Minnelli (*The 4 horsemen of the apocalypse*, 1962), Sharon Stone (*Blood and sand*, 1989).

Apustu eta trabes kontuak Azpeitian kitatu ostean, Aresti doktoreak ezin utziko du betiko Urola aldea biharamunean Loiolari bisitarik egin gabe.

Loiolako inguruak eta zoko-moko gehienak xehetasun handiz erakutsi nahi-ko ditu Blasco Ibañezen eskuak nobela errealistari dagokion legean. Eskale bat porteriaraino lagun duela, handik atzera Lotik eta Etxeparek bezala, beti bat bera dela irizten diogun jesuita izango du gidari Aresti doktoreak. Mirestu egingo du santutegiaren handitasuna, itsusia deritzon arren, kaserna baten itxura hartua baitzion aurrenetik. Etxe Santua, aldiz, bere apaltasunean neurrikoago zaio, ederragoa.

Halako batean konbertsioko gelara iritsi dira jesuita eta bisitaria, eseritako santu zaurituaren irudiaren aurrera.

Anaia hitz egiten ari zen bitartean, doktorea, gosna-aulkian etzandako argizarizko txankamaloari begira, gizon ilun hartaz pentsatzen jarri zen, mundua bere izenarekin bete zuen nortasun korapilatsuko euskaldunaz, haren bizitzako aldi bakoitza kontraesan bortitz bat izaki. Aurrena, soldadu harro eta dotorea, eder agertzearren eta bere herrikoen zakartasuna galtze aldera gorputza martirizatu eta elbarritu zuena. Ondoren, mundu honetako arrakastak amaitu zaizkiola ulertuta, gogo kementsu baten indar osoz sortzen den arrazaren fanatismoa... Orduan santutasunaren eromenak nahastuko du: apala eta hezikaitza da aldi berean, Amabirjinaren matoi bihurtu zen, haren kontra birao egin zuen morisko bati labankadaz eraso nahian, eta handik gutxira Salamancako ume zaharrek harrika eman zioten, zorotzat hartu zutelako, Asisko San Frantziskorenak egin nahian bere arlote irteera jainkozaleak ikusirik. Ordea

Unbriako bakartiaren gozotasun poetikoak, santutasun ameslari hark ez du tokirik euskaldun baten nortasun positibo eta praktikoan. Bere burua Jainkoari eskainia dionez, helburu lurtar eta bat batekoa behar du. Ondo dago santu izatea, baina horrek ikusi eta ukituko den zerbait lortzeko balio izan behar du. Borrokalari sena arrapiztu zitzaion. Protesta luterzaleak erasotako Elizak laguntasun bortitza behar duela ikusi eta erlijioa kanpamentuko larderiara darama, Ordena bat ez baizik eta Konpainia bat fundatuz, Aita Santuei eskaini zien armada beltza antolatuz, bere burdinazko borondatearen moldean heziz soldaduak, familiarenganako maitasunik gabe, nork bere irizirik gabe, automaten zurruntasunaz, garaiezin bihurtzen dituen soraiotasun horrekin. Aszeta gudalburu bihurtu zen, eta bere bizitzako hondarreko herenean, umeteriak harrikatutako arloteak aitasantu-orde airea hartu zuen, beretarrek jeneral esan behar zioten, Erroman bizi izan zen printze artean Europako intriga bihurrietan parte hartuz, eta hartu zuen indarraz eta herri latinoak bere abaroan gordeta, behin behinekoan katolikotasuna salbatu izanaz harro hil zen. (...)

Erljioaren merkataria miresgarria izan zen; kiebra jotzeko zorian zegoen Erromaren denda salbatzeko garaiz sortu zen talentu praktikoa, hango negozioak zuzendu zituen, norabidez aldatu eta, bere Konpainia, Jainkoaren aintzarako jendearen grinak eta ahultasunak baliatuta munduko bazter guztietan ibiltzen ziren katolikotasunaren komisionisten talde diziplinatu hura, fundatuz.

Jesuitak Loiolako txoko gehienak erakutsi zizkion Aresti doktoreari, baratza ere bai. Han topatu zuen gogo-jardunetara joandako lehengusu bilbotar aberats okitu bat.

Hurrengo kapituluan Portugaleteko trenean ikusten da sendagilea meatzari artean, baina ez dago Azpeitian aurkitu zuen bezalako trabes saltsarik, ez festa usainik. Mitin handia egin behar dute Bilbon, nagusi egoskorrei beren indararen neurria erakusteko.

Blasco Ibañezek Bilbo inguru industrialak 1903an bizi duen aldaketa giroa, gizarte gatazkak eta bi munduren arteko talka islatzen ahalegindu zen: betiko jendarte industria aurreko eta nekazaritzari emana, Bizkaia tradiziozale eta katolikoa batetik, eta gizarte berria, proletarizatua, ideologia berrien aldeko eta *maketoa* bestetik. Tradizioei lotutako euskal lurren lagina erakusteko garaian, ordea, bailara hau baino paradigma hoberik ez zitzaion bururatu.

Bibliografía:

BLASCO IBAÑEZ, Vicente: *El intruso*, Ediciones De Librería San Antonio, Barakaldo, 1999.

HARRIAK NEGARREZ

ABARKETA eginean ikusi zituen azkoitiarrak Lotik Zumarraga bidean pasatu zenean. Zola izan balitz, fabriketan sartuko zen, eta langileak, beste horrenbeste edo gehiago ikusiko zituzkeen, abarketa egiten batzuk, jutea prestatzen besteak, txapelgintzan harakoak.

Mendearen erdi aldetik atzera hasi ziren makinak sartzan herrian. Berria hasi zenerako, ehun langiletik gorako lau bat enpresa baziren, bertako nagusiak zituztenak denak. Txikiagoak ere, dezente. Langile asko da hori antolatu gabe edukitzeko.

Bilbo aldean sindikalismoa sozialismoaren bidetik sartu bazen ere, Azkoitian, Azpeitian eta Oñatin, esate baterako, sindikatu katolikoak izan ziren fabriketan nagusitu ziren bakarrak. Industrializazio prozesua poliki eman zen, ez zen kanpoko langilerik ia.

Orduko gizartearen osaketa ideologikoa zein zen ikusteko, nahikoa da 1911tik 1922ra bitarteko hauteskunde emaitzei erreparatzea. Tarte honetan, integristek zortzi-hamar zinegotzi izan zituzten udaletxean, jeltzaleek bi-lau, eta karlistek, bat edo bi. Herri tradiziozalea izan da Azkoitia, tradiziozalerik izan bada.

Elizaren eragina beharginen bizimoduan, erabatekoa zen. Herrian ziren bi sindikatu nagusiak, alegia, Sindicato Católico Obrero eta Sindicato Católico Libre dira horren adierazgarririk onena.

Lehena, Zirkulu Katolikoaren babesean hazia, Manzisidor enpresaburuak sortu zuen, eta Gurutz Garmendia historialariak esatera, Loiolako jesuiten babes osoa zuen. Honengatik guztiagatik, eta lan arazoetan sartzan ez zelako, “amarilluak” bezala ziren ezagunak Azkoitian sindikatu honetako partaideak.

Beste sindikatu nagusia, Librea, dominikoez bultzatua zen, Aita Gerard-ek eta Aita Garfo-k batez ere. Katolikoa izanagatik, borroka sindikal klasikoko ele-

mentuak bazituen. Besteak ez bezala, soldata duina eta orduen murrizketa eskatzen zuen, grebak antolatu zituen, eta hauetan irauteko, gero beste batzuk egingo duten bezala, erresistentzia kutxa ere bai. Jeltzaleei lotutako sindikatua izan zen herrian antolatzen azkena, Solidaridad de Obreros Vascos ez baitzen 1919ra arte eratu.

Lehen Mundu Gerrako oparoaldiaren ondoren, obrero kontzientzia eta katolikotasuna bat ziren antolaketa sozial honekin egin zion aurre Azkoitiko langile-riak Versaillesko Itunak Hego Euskal Herriari ekarri zion krisi latzari. Bizi baldintzen kaskartzeari greba gogorrekin erantzun zitzaion. 1918an bakarrik, hogeita hamasei antolatu ziren Bizkaian. Urte berean Azkoitian ere izan zen lanuzte gogorrik, azkenean herriko erretorearen bitartekaritza onartu behar izan zuena konpontzeko.

Baina dudarik gabe, 1920ko borroka izango dira zedarrri herriko langileen antolaketan. Esan den bezala, gerraosteko krisiak miseriarik dei egiten diolarik, grebarekin erantzuten dute langileek. Hala atera ziren Bergaran ehungintzan zihardutenak, hala Pasaia eta Errenteriako metaleko obreroak, hala Bilboko eraikuntzakoak. Azkoitian, abarketeroak dira urrian beharrera ez doazenak. Nagusiek *lock-out*-arekin, hots, fabriketako atea itxita erantzuten dute. Guardia Zibilak lantegi aurrean bildutakoen kontra tiro egin eta zazpi lagun zauritu ditu.

*Pobriakin oiek
Zer moduz dabiltzen,
Kristau maitiak, jarri
Zaitetze aditzen:
Gosiakin ez dute
Iñor errenditzen,
Asi zaizku plomozko
Konpitak partitzen.*

Bertso sail ederrak dira, oraindik ere Jose Manuel Lizarralde *Urkiolegi*-renak, bertsolariak baitira, besterik ezean, orduko gertaeren kronistikari bihozberenak. Urkiolegi Sindikatu Librekoa da, eta nahiago du bertso jarrien patxada bat-batean aritzea baino. Adibide polita da sindikalgintzan Elizaren alderdi batek zuen eragina ikusteko:

*Onla amenazoka
Jendia aspertu,
Txinako legerikan
Guk biar eztegu;
Ez gera salbajiak,
Kristauak gera gu,
Tokatzen dan moduan
Lana egingo degu.*

Ez dira Urkiogegiren bertsoak orduko gertakariez dugun literatura bakarra. Lanean ez dutela “ez zentimo bat merkiago, ez-da miñutu bat ere gehiago” jardungo abisatzen zuten hainbat agiri kaleratu zituen euskara hutsez garai hartan Makiñisten Anaitasunak, Sindicato Católico Libreko adarretako batek. Multzo hartatik, lau behintzat heldu dira gureganaino, obrero katolikoen prosaren erakusgarri. Hona hemen bat, Azpeitiko Bitor Arregiren inprentan egina, orduko garaien lekuko eta euskara eskaera sozialetarako ezinbestekoa zen seinale.

Panfletoak ondo eutsi dio denboraren ibaiari, egungo irakurlearengan zirra-ra lortzerainoko emozioa transmititzeko gai da, poliki, arrazoen eta sentimenduen bidetik, erdiz erdi zaramatza, zoragarria zaizu *tempoa*. Zaila, baina sinetsi nahiko genuke aita dominiko batek beharrean Azkoitiko langile batek idatzia izatea...

AZKOITIKO ERRIARI, LANGILLIEI BATEZ ERE

Etsaia zaituko bada, erne egon biar izaten da. Bere kontra egin nai baldin bada, ez lagatzeagatik geuri kalterik egiten, aurretik lana egin bear da; ondo neurriak artu bear dira gero borroka orretan eziñian ez arkitutzeko. Langilleak, eldu da denbora. Orain bear degu artu gerekin gere indar guztiya. Ordua da gere lo kaltegarri ontatik esnatutzeko. Zabaldu begiyak eta ikusi zazu zer burruka dabillen zure inguruan. Burruka txit gogorra, guretzat alderdi andiyan daukana. Lau urte burrukan pasatu ditugu zerbait gere bizitza lasaitzearren, gosiak or pasatu giñuzen amaika aste, or gere odola eman genduan gere alderdiya gordetzearren, eta gaur ez degu ezertxo ere egingo? Orren errez utziko ote ditugu orrenbeste saiatuta ekarritako ondasunak? Gogoratu ondo lenago zer giñan eta zer modutan lan egiten genduan, gure guraso zarrak nola

izan ziran, eta begiratu orain nola arkitzen zeran. Oraindik ondo izateko falta dezula esango dezu, aur asko badituzu: "Oraindik ez naiz osatzen, orlakoren eta orlakoren etxian zorrak pagatzeko, umiei oñetarakuak ekarri biar, beren eskola, etxe-errenta, pagatzeko...". Eta oraindikan, utzi ezker, errezu luzia egingo luke. Onek esan nai du zure bizimoduan ez dala lasaikeri aundirik, geiago irabazi arren ere ez litzakiala sobratuko.

Galdetu zeure buruari: Zer da nire eguneroko janaria? Zer deskantsu ematen diyot neure buruari? Nola bizi dira nire emazte ta umiak? Ondo galdera danai erantzun zaiozu, ikusiyaz ta aitortuaz garbi gertatzen zaizuna. Ez zaitez tristetu, langille giza-jua, ez; orain ez da tristetzeko denbora. Geure buruen alde lana egiteko ordua da. Tristatzeko arrazoi asko daukazu, zergatik ikusten dezun zere izate ona galtzen. Eguneke nekia ordaintzeko jan biar dezunik ez dezu, eta, au asko ez dala, oraindikan beste arantza batek miñ andiyagoa ematen dizu. Ainbeste maite dezun emaztea ikusten dezu tratu txarrarekin lengo antzik ez duala, kolore illarekin, osasun koskorrarekin bizi-eziñian, naigabez beteta bere aurtxuarentzat ezin inguraturik bear dutena. Zure umiak arpegi tristiarekin arkitzen dituzu, ez dutelako zerekin ixildu beren gosia, zerekin txukun estali beren gorputza. Besuak tolostatu eta egongo zera ezer egin gabe abek ikusita?

Kaleko arriak berak ere negar egingo luteke adituko balute zenbait langilleren etxian gertatutzen dana. Negarra ez da sendagaia. Malkua begiyetatik irtenarekin ez dezu arkituko zure zoriona. Beste zerbait egin bear degu. Non arkituko degu gure sendagaia? ALKARTIAN. Ezer egingo badegu alkartu egin bear degu langilleak alkarrekin, bañan egiyazko alkartietan. Alkarte-oietan ikusi ta ikasi bear degu non eta nola arkituko degun ondo izatea. Au langille guztiyak egin bear deguna da. Ez utzi bestientzat lan au, norberak egin bear du bere aldetik al duan alegin guztiya. Ikusi dituzu lenago zer gauzak naigabez betetzen duten zure bizitza. Baita ere erakutsi dizugu non dagoan zure sendagaia. Orain biotzik badezu, maitasunik badezu, odolik zañetan badaukazu, etorri alkartera. Zeiñ alkartetara?

Lau urte dira burrukan, alkartzen asi giñala. Lau urte pasa ditugu ezker-eskubira burrukan. Egiya ezagutu nai ez zuten asko ikusi ditugu. Langillien onik nai ez zutenak eta beren kontra egin dutenak ezagutzen ditugu, baita ere bera saldu dutenak azaldu giñuzen bere denboran, baita ere arpegi eman gure alkartia txartzat eta guk ixuritako odola infernuarentzat eta txarkerirako ixuri genduala esan zuanari. Ez degu gizon aben izenik azaldu nai, danok ondo ezagutzen dituzutelako. Berengatik egon giñan

batian jornal gutxiagorekin, bestian geren kontzientziya estu genduala. Bañan izan ditu Eleiza Ama Santak jakintsuak, erriaren aurrian ontzat eman dutenak Urrillaren seian egin genduana. Danak bizi dira egun triste artan zauritutakuak, Jaungoikoaren mirari batez, eta orain arroturik ikusten degu gure bandera len baño ere kolore biziya-goarekin. Egun orren gogoramenak indar berriya, indar biziya goa, ematen digu aurrera joateko. Ez du gizonak lotsarik izan biar egiyaren alde egiteko. Asko dira erri onetan egirik ezagutu, aditu nai ez dutenak, eta egiya azaltzen degulako gorrotoz beteta arkitzen diranak. Beren barruan, subeak egiten duten bezela, pozoi txarra gordetzen dute, gorrotoz beteta bizi dira. Gero esango dute fedea dutela, katolikotasuna gordetzen alegin egiten dutela. Ez al dakite zer erakusten duen gure siñismenak? Ez al dute beñere irakorri Ebanjeliyo santuan zer esaten duan gai onetan Jesusek? Berak esaten digu iñorentzat badegu gorrotorik, iñori gaitzik egin badiogu, sakrifiziyora juan baño lenago barkazioa eskatzeko. Eta egunero gorrotoz beteta ikusten ditugu mai santura joaten... Goguan iduki dezatela ez dala zeruan sartutako gorrotoan ill danik. Guk asitako huelga edo oporketaren ondorean jarri zuten loc-out arretan fabrikatik bialduta-ko bat, il zan beren barkazioa ikusi gabe. Ikusi zazu orain zer gizon diran abek. Ainbeste gizonen aurrean agindu zuten berriro artuko zituztela fabriketan, eta zer ikusten degu? Bat illa zan... Gu ta gure alkartia ondatu nai dituzte. Onen billa dabilta alderdi guztietatik. Zergatik? Berentzat ona ez dalako, oinpean langillea nai dutelako, gure eskubiderik ta libertaderik ezagutu nai ez dutelako, erri ontan alkarte onek baka-rrik ezeri beitu gabe arpegiya erakusten diyelako. Baditugu oraindik berakin kontuak arreglatutzeko, ez gaudez aztuta, geuriak goguan ditugu, egun egokiaren zai arkitzen gera. Alkarte au ondo ezagutzen degu, langillea. Alkarte onek beti arpegiya garbi erakutsi du. Gure batzar danetan atiak zabalik egon izan dira. Zertarako itzaldiya danian atiak itxi, egiyaz fede onez baldin bagabiltza? Egiyak lotsarik ez du. Badituzu beste alkarte bi ere. Bat da politikan sartzen dana, langillien alkarte egiyazkoa au ere ez, bere barruan ez ditulako danak ametitzen. Ez diogu langillien alkartietan begiratu bear nungua dan; danak alkar artu degu gere lana defenditzeko. Ez degu frontierarik ezagutzen alkartiarentzat; mundu guztiko langilleak anaitzat ezagutzen ditugu lan-kontuan. Azkoitian Solidaridad de Obreros Vascos orren lana danak dakizute. Lagundu izan digu, bañan karga ta arrixkoa guri gañera botata. Beste bat ere bada, bañan ez da alkarte au langilearen mesderako jarria. Danak dakizute nagusiyak jarri zutela gure alkarteak indarrak artu ez zezan. Alkarte ori gorrototik jaiua da; au gure apaizpiku (obispo) jaunak esana da. Balentin Alberdi jaunak Otaño'tarrentzako zuan

gorrotoagatik. Orduan aiek nai zutena ez gendualako, jarri zan amarilluen alkartia. Nagusiyen desiuu betetzearren. Au al da langille utsaren alkartea? Ordutik onera ez dute beste lanik egin: nagusiyen desiuak bete eta langillearen kontra egin. Alkarte artatik sortu dira esquirol guztiyak; lana orduetatik kanpora egiten dutenak an arkitzen dira. Alkarte orrek berak pagatu zituan gure huelga edo oporketako esquirol danak. Au da gezurrarekin bizi dan alkartea; ez alkarte ortara joan, ez orri indarrrik eman. Gaur bezela aurrera ere garbi itz egingo degu. Orain bi itz, bukatu baño len, makiñis-tari:

ANAIK: Elkar ondo ezagutzen degu eta orregatik itz egin dezagun gure lan-kontuan. Aspaldiyen ikusten degu nola egiten diguten nagusiyak alegiñ tokatzen diran orduak baño geiago sartzeko, extraordinariua pagatu nai ezik. Zortzi orduan osatuko ditugu gere nagusiyak, ez iduki kuidadorik. Dutenian izaten dira estu eta presa. Ez dutenian, egon biar izaten degu. Orregatik danak errespetatu zortzi orduak. Oietan egin zintzo lana, bañan miñutu bat geiago ez.

Pentsatu berriz gero zer daukagun. Ogei ta amar bat izatera eldutzen zeranean, geiago lan orretan egiteko gauza ez zeranean, zer egin bear dezu? Orain da orduba neurriak artzeko; ez gero damu izan. Aspertu gera danentzat bakarrik beti burrukan jarduten; min ematen digu geure kontra, gu nundik galduko dabiltzanak guk burrukan alkanzatutakua artzen; gaurtik aurrera beste gauzaren bat pensatu degu. Bestiak sufritzen dutena, bada, guk ere sufriko degu, baña gure bizkarretik iñork ez du farrerik egingo.

Danak egin bear degu lana, danak alkarri lagundu. Diruan orain dabill borroka ikaragarria lanarekin. Orain, ez gero, artu biar degu erabaki au.

Ez degu jardungo lanian, ez zentimo bat merkiago, ez-da miñutu bat ere geiago.

Au da gaur mundu guztiko langillien erabakia. Guk ere ala artu bear degu. Aurrera, langileak, ez atzera egin.

Makiñisten Anaitasuna

Bibliografia:

CASTELLS, Luis: "El desarrollo de la clase obrera en Azcoitia y el sindicalismo católico (1900-1923)", *Memoriae L. Mitxelena, Magistri Sacrum*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1991.

GARMENDIA, Gurutz: *Jasokunde Kooperatiba oroituz, Jasokunde kooperatiba*, Azcoitia, 2003.

ZAVALA, Antonio: *Azcoitia'ko zenbait bertsolari*, Auspoa, Tolosa, 1970.

ERREGIARI EUSKARAZ

1922-KO irailaren 10etik 16ra, Eusko Ikaskuntzak Gernikan antolatu zuen III. batzarra. Bi urte lehenago, Iruñean izan zen; aurrenekoa, berriz, Oñatin, 1918an. Lehen batzar hartan, Espaniako errege Alfonso XIII.a bertan zela erabaki zuten Nafarroako, Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako diputazioek, besteak beste, euskararen hizkuntza akademia, Euskaltzaindia sortzea.

Gernikan, Gipuzkoako diputatu nagusi zen Julian Elortza azpeitiarra izan zen, sarrera eta amaiera hitzaldiak egin zituen. Pentsakeraz karlista, euskaltzale eta foruzale handia zen Elortza. Diputatu izan zen 1911 eta 1919 bitartean, eta antzeman egingo da sorterrian. Jaioterrian, Azpeitian, ezaguna egingo den udal bandoa emango da argitara 1918an. Urte berean, abuztuaren 1ean, Azpeitian entzungo da, aurreneko bider, “Agur Jaunak” Gipuzkoako diputazioaren ereserki bihurtuta.

Elortza Diputazioko lehendakari izan zen 1919tik 1924ra, eta berari zor zaio, beste hainbat gauzaren artean, Urola tren egitearen gestioa. Garai honetakoa du Eusko Ikaskuntzaren sorreran egin izan zuen lana. 1931ko Euskal Autonomia Estatutuaren idazkeran ere parte hartu zuen.

1922ko III. batzar hartan hartutako erabaki nagusien artean, eskoletan euskaraz irakastearena zegoen, hala nola euskal unibertsitate bat sortzearena. Esan bezala, Julian Elortza izan zen, Euskal Herriaren eta Espainiaren onerako Alfonso XIII.ari ahal zuen neurrian lagun zezala eskatu ziona. Oso euskara argia darabil. Jeltzaleak Aranaren gramatika lanei jarraikiz erabiltzen hasiak ziren arauetatik libre, halako gipuzkera txukun bat. Merezki duelakoan, eta Elortzaren figura politikoa hobeto ezagutzeko baliagarri delakoan, hona osorik agur hitzaldi hura:

Euskalerrinari dagozkion gai batzuek ikasten, gogoz lanean zortzi egun igaro ditu-

gu Gernikan. Zortzi egun oiek ta gero, gure lanak bukatzean gure artera etorri zeralako, eskerrak eman nai dizkizut. Eta gure lanetan euskerari dagozkion gai asko erabilli ditugun ezker, esker oiek zuri euskeraz ematea, aukera-aukerako gauza iruditzen zait.

Nere erabaki au ez txartzat artu, jauna. Zerorrek Oñatiko Batzar eder artean esan ziguzun:

“Cultivad vuestra lengua, el milenario y venerable euskera, joya preciadísima del tesoro de la humanidad, que habeis recibido de vuestros padres y debeis legar incólume a vuestros hijos”.

Gure euskera zar eta goragarria gure semeai oso-osorik eta bizi-bizirik uzteko, zero-
rek esan ziguzun. Zuk esandakoa egiteko euskera alik eta geien erabilli bear degu. Gaur nik agur au euskeraz egitea, zure agindua betetzea bezelaxe da, bada, Jauna.

Irugarren aldiz gaur etorri zera gugana. Batzar oiek egiten diran ezkeroztik, lanaldiak asitzean gurekin izan zera, ta gure artean zu ikusteak atsegin eta indar aundia ematen digu. Eskerrak, bada, Jauna, esker bero-beroenak Eusko Ikaskuntzaren izenean.

Dakizun bezela, Jauna, lan oetan bi gai erabilli ditugu: euskerari dagozkionak eta erakusteari dagozkionak.

Euskerarekin zer-ikusia duten gaietan, erabaki sendo-sendo, indartsu bat artu degu: geroz eta geigo maite ta geroz eta geigo zabaltzea. Euskera, gure ustez, ez da etxebarruan bakarrik erabilli bear degun izkera; ez da senide artean bakarrik erdi-izkutuan itz-egitekoa. Zabalera, argitara, guzien begien aurrera atera nai degu. Euskera, gure mamia, gure odola, gure bizia bezelaxe da, ta ala dalako illunpe ta izkututik atera ta argiz beteta alde guztietan ikusi nai degu.

Ez gaitu gure maitetasunak itxutzen. Urrutitik, beste errietatik, etorri diran izkuntza-zale jakintsu oiek, erakuspen ederra eman digute. Ez dira euskaldunak, euskera ez dute beren gurasoen ezpañetatik entzun, eta ala ere euskera bene-benetan maite dute, gogogoz ikasi dute. Ta jakintsu arrotz oiek egiten dutena, guk, euskaldunak, ¿ez al degu egingo?

Erakusteari zer-ikusia duten gaietan ere, beste guzien gain, erabaki au artu degu: Euskalerriko ikastetxietan euskera besterik ez dakianari, izkuntz ortan erakusten zaio. Belgikan ala egiten da; Ingoterran ala egiten da. Ta urrutitik etorri diran jakintsu oiek, emen ere ala egin bear litzakela esan digute. Bide zuzenagorik ez dala.

Gure baserritarren artetik ez-jakitea kendu nai degu, baserritarrai erakutsi egin nai diegu, baña euskeraz erakusten ez badiegu, gure lanak alper-alperrikakoak izango dira.

Euskera, euskaldunen arterako bakarrik dala badakigu. Orregatik, guk ez degu erderarik ez erakusteko esaten. Ez: ikasteko esaten degu: gerok erakutsiko degu, erdaldunekin itzegiteko bear da-ta, baña bear bezela, poliki-poliki, ta euskeraren bidez erakutsiko degu.

Ta erakustearekin zer-ikusia duten gai oek aitatu ezkeru, gure beste nai bero ta sutsu bat ezin aitatu gabe utzi dezakegu. Iruñako Batzarrean ere aitatu genuen: Ikastola nagusi bat, Universidade bat nai genuke Euskalerrian.

Jauna: Euskalerra guzia Universidade orren zai ta eske daukagu. Euskaldunak ikasi egin nai degu, geroz ta geigo jakin, baña neke ta lan aundi gabe ezin ikasi degu, Universidadeak urruti dauzkagu-ta. Beste guziak daukatena ¿zer dala-ta guri ukatu? Jauna: gai ontan zerbait albadezakezu, luzatu zazu gure erri-aldera zure esku ongille ori. Euskalerrian Universidade ori len-bait-len irikitzeke alegin egin zazu. Oñatin esan ziguzun:

“Consagraos al estudio y fomento de cuanto pueda contribuir al adelanto y progreso del país... y para tan nobles fines contad con mi decidido apoyo”.

Zuk esandakoa egin nai degu, gure erriaren aurrerapenari dagokion guzia ikasi ta zabaldu nai degu, baña nun ikasirik ez daukagu. Zuk eskeiñitako laguntasuna eman zaiguzu bada; jaso dezagun Ikastola-nagusi ori, ta orduan bai, orduan zuk eskatu bezela, gure erriaren aurrerapenari dagokion guzia ikasi ta zabalduko degu. Orain ezin dezakegu, nun ikasirik ez daukagu-ta.

Oek dira gure naikunde bizienak, jauna. Batzar oetan agirien jarri diran naikundeak oek dira.

Geroz ta euskaldunago izan nai degu, jauna, antxiñako legeak geroz ta geigo maite ditugu. Euskalerra bizi-bizirik ikusi nai degu: geroz ta bizigo, geroz ta gorago, ez guregatik bakarrik, jauna, zuregatik ere bai. Gu zenbat eta gorago, Españaren izena ainbat eta gorago jarriko da. Guk, zure koroï eder orren argi eder eta argiena izan nai degu.

Hemeroteka:

“Gernikan”, *Euskal Esnalea* 225. zenbakia, 1922ko iraila.

EUSKARAREN MEDIKUAK

20-KO hamarkadak ezagutu zuen euskararen aldeko susperraldiaren beste adibide bat *Euskal Esnalea* aldizkariak eraturako hitzaldiak ditugu. 1918an ekin zitzaion hitzaldioi, Donostiako Novedades Antzokian, eta Iparraldeko Eskualtzaleen Biltzarrak antolaturikoen irudira, normalean euskaraz lantzen ez ziren gaiak izan ziren mintzagai. Hizkuntza, azken hamarkadetan jaso duen atzerakadaz arduratuta, modernitaterako gaitu nahi da, gerora Lizardik esango duen bezala, “noranahiko” bihurtu. Edozertarako nahi da euskara, bizitzaren asmo eta arlo guztietarako.

Iparraldean mende hasiera-hasieratik Jean Etxeparek medikuntzari buruzko gai asko eman bazuen ere *Eskualduna* eta *Eskualdun Ona* kazetetan, Bidasoaz hegoaldera ez dira ohiko medikuntzaz euskaraz egindako lanak. Inazio Artetxe (1892-1948) azpeitiarra izango da aitzindarietako bat, Larreko, Goti eta Hernandorenarekin batera. Badakigu eman zituela beste batzuk ere gazteago zela, Donostian, 1919an eta 1923an, baina 1926ko azaroaren 11an Novedades aretoan emandakoa da, hau da, “Sendagintza gizadiyetan zear” beharbada bere idazkeraren erakusgarrikeria ederrena. Hitzaldiaren mamia ez ezik, garrantzi handia ematen zion Zumarragako pediatrik hizkuntzari berari. Neologismoren bat gora-behera, gipuzkera sotil, dotorea darabil. Hona hemen hitzaldi haren aurreneko zatiaren durundioa:

Jaunak:

Gizonaren jakin-guria aundiya da. Badirudi, bere bukaera gabeko azterketan, bazter alderdi guztiyak, alaitasun ikusgarriya dutela gizonaren asmo zintzo orrentzaz; bañan ori ala bada ere, neonek uste det, bazter oyen artian badala bat, beste guztiak baño alaitsuagoa, atsegingarriagoa, onuratsuagoa. Au da edestiya. ¿Badakizute zergatik?

*Ez da zalla galdera onen erantzuer. Gizonak, gizona dan artian, edukiko du bere barruban, zirrikaka, gogo bat: bere asaben, gora bera, biziera, gudaldi, oiturak eta iza-
kera; gizalditik gizaldira, aitak semiari, semiak bere ondorenguari esan izan dizkiyon
ipuiñ, eta izanak, jayoterriyaren kondairak, gizon entzunaren bizierak, lanerako lana-
goko zarren oiturak, asaben siñismenak, erlijioaren zimendubak, jakintzaren berriyak,
guztiya. Itz batean esateko: edestiya.*

*Sendakintzak ere badu bere edestiya. Sendagilleak geran aldetik, ez det uste iñor-
txo ere, zuen artian egongo danik ikaratuta, gaur nik, nere itzaldiyaren gaitzat artu
dedalako nere eginkizun edo eginbearraren edestiya. Sendakintza, gañera, da, gizona-
ren eginkizunen artian, bat behintzat, bere gaiñ eta beragaz, farre ugari egiñ izandu
dan eginkizuna. Ez gera geyenok gizon jakintsuak, bañan jakintsuak ez izan arren, ez
da egongo igeltsero, errementari, nekazari, lege gizonik, sendakintza gayetan, bere
ustez, sendo eta astun ez dakiyenik. Au egiya dala, berialaxe agertuko dizutet ipuintxo
batekiñ.*

*Lenagoko denboretan, orain bezalaxe oi ziran bakaldun edo erregeak. Lan asko ez
dakit eduki oi zuten, bañan badakit euren inguruan ibilli oi zutela gizontxo bat, farre
egin-erazteko bakar-bakarrik. Ez diyote kondairak eta ez digu ardura, zein bakaldun
zan. Beñ galdera egiñ omen zion gizon farre-eragille orri bere nagusi, bakaldun orrek:*

*—Aizazu, ¿zeiñ eginkizunetara gaurko egunian juaten da notiñ edo jenterik geye-
na?*

*Galderak bazuen bere gogo edo intentzioa. Gizontxua etzan ikaratu, eta an dijoa
bizkor bere erantzuna:*

—Jauna. Gaur geyen-geyenak sendagilleak dira.

*—¿Nolatan da ori? —diyo bakaldunak—. ¿Ez aldakizu ez degula bat bada ere
sendagillerik billatzen?*

—Biyar emango diot agerpena, jauna —erantzun diyo berriz gizon orrek.

*Urrengo egunian jauregi barruban bazebillen, gogoz arpegia lotuta, aurreko egu-
nian ikusi degun gizon ori. Negarti dago, miñ samiñak dauzka iñolaz. Badator erre-
gea eta galdetzen diyo:*

—¿Zer dezu, aiskiria?

—Agiñeko miñ bizi eta aundiya det. Au geyegiya da.

*Eta orduan bakaldunak agintzen diyo, miña kentzeko, onelako edo alako senda-
gaia ipinteko, ura dala ona ta.*

Gizontxuak, zapiyak laister kendubaz, erantzuten diyo:

—Jauna: egiya da ikusten dubanez sendagillien ugaritasuna. Beori ere orain sendagillea da, neri sendagayak agintzen dizkidan ezkeru.

Ipuntxo au egi ala gezurra dan ez dakit. Bañan sakona da, egi aundiya agertzen digu. Sendakintza guztiok dakigun ezkeru, itzaldi onen gai bezela sendakintza artuz, jez al da egoki izango?

Baño aurrera guaz (...)

Oraindik ez da urte asko. Espainiyan gendukan sendagille bat: jauna. Beragatik esantzun bateron-batek "jakintzari edo filosofua zala sendagillien artian". Jaun orrek esantzuban sendagintzaren jatorriyari begiratuta, ezin izango zala errez sendagilleak arro azaltzia. Egiya da. Sendakintzaren jayotza guziz da txirotasun gogorrekua.

Ona emen. Gaixo batzuek etzan oi ziran eleiz baten atayan. Altzutenak bere oñez juaten ziran ara. Bestiak eraman egiten zituzten. Batzuk eta bestiak, etzanda, eguzkitako epeltasuna artubaz edo kerizpea billatuaz, itxoin oi zuten. ¿Zeñeri? Elizkizunetara ugari etorri oi zan notin edo jendia. Euren artian azaltzen zan bat edo beste itxura artako gaitzaren berri zekiyana, eta gaixo gisaiso ari esan oi ziyon sendagai onekin edo arekin sendatua izango zala. Au izan zan sendakintzaren jayotza. Amarik gabekoa, gurasorik gabeko umiaren jayotza bezelaxe. Sasikoa, eta sasikoaren abizena labur izan oi da.

*Euskera sencilloa idatziko zukeen Arestik, ahozkotik oso gertukoa, inondik ere. Pixka bat beranduagokoa da Abelino Barriolaren seme zen Inazio Maria Barriola donostiarra. Aintzat hartzekoa da honen "Erri sendagintza euskaldunen artean" (1931). Gero, gerrak medikuntza euskarara urreratzeko edozein ahalegin zapuztuko zuen. Gazteleraz emango ditu bere lanak Donostian bizi izan zen Manuel Zelaia azpeitiar medikuak: *Evolución de la higiene pública municipal en San Sebastián* (1969), *Los cementerios de San Sebastián: de San Bartolomé a Polloe* (1964), *Patrimonio municipal. Artikutza. La traída de aguas* (1964)... Higienegazteleraz, euskara literaturarako gorde zuen. Hala itzuli zuen *Apokalipsia* (1964) eta Pio Barojaren *La dama de Urtubi*, kaleratu gabe gelditu arren, nonbaiten hautsak biltzen.*

Hainbeste ez dela, Beasaingo anbulategian Osasun Mentaleko Psikiatra den Blas Erkizia Amilibia azpeitiarrak *Psikopatologia hiztegia* buruturik duela jakin dugu, "hiztegia baino gehiago entziklopedia izan nahi duen" lan mardula.

Gainera, azken urteotan, komunikadore sen handiko ahotsa ageri du Julian Bereziartua sendagileak, hizkera txairo eta adierazkorraz osasuna eta elikadura hizpide hartuta Euskadi Irratiko asteburuko tartean diharduenean, eta Uztarria herri aldizkariko hileroko zutabeen.

Hona lau azpeitiar mediku, euskarari kuku egin nahian...

Hemeroteka:

ARTETXE, Inazio: "Sendagintza gizadiyetan zear", *Euskalerraren Alde*, 1928.

BIDAIARI SENTIMENTALA

1927-AN gara. Agorrileko edozein goiz da, Kanbon, zazpi lagun elkartu direlarik —hiru gizon eta lau andre— bi autotan. Eguzki ederra da eta bidea luzea zazpiek buruan dutena egiteko: Loiola ezagutu.

Gerla aitzinean mugaz bestalde lauzpabost aldiz ibilia zelako, aurreko kotxean ezarrarazi dute Jean Etxepare mediku eta idazlea. Garazirantz hartu dute. Bidarra, Ortaize, Uharte, Lasa, Arnegi... Zortziak eta erdietarako, Luzaideko mugan dira. Baina burokrazia zer den, polizia espainola falta, artean lo, antza. Ordubete egiten dute zubi gainean, Nafarroa erdibitzen duen ibaiari begira, *errezibidorea* etxetik noiz jagiko.

Ibañeta, Orreaga, Agoitz, Iruñea... Ezin deskribapen luzerik egin, kotxean doaz eta Loiola lekutan dago oraindik. Geldialdia. Victor Hugok estetikoki gorrotagarri iritzi zion katedrala ikusi. Zaila zaio mediku gazteari bidaia hutsean laketzea, behar du lagunei erakutsi, historia apur bat.

1521-ean, Jean d'Albret kondeak, Biarnoan, Amikuzen eta Garazin-barna Iruñarat jo zuen bere soldadoekin, hiriaren Espainiari kentzeko xedetan; baina jimbidetik itzultzea behartu zion, ederki zafratua izanik.

Nabarreko erregeren alde gudukatu zen orduan Inazio Loyolakoa. Saki bat itsusia egin baitzioten belhaun batean biarnesek, zalditik alditxar erori zen aitzindari gaztea, eta eremen zuten ordu berean Gipuzkoako bere jauregira.

Bazkaltzeko tenorea heldu zaie. Oilasko errea, gazta, tuaxak, madariak. Beltzetik eta txakolinetik dastatzeko astia ere bada. Irurtzunen barrena, Gipuzkoako sargia. Beteluko erreka zuloan aurrera egingo du autoak abuztuko berotik babestu nahian. Tolosa.

Tolosatik aurrera, Bidania gaina hartu arte. Errezildik hartu du autoak,

ataka itzaltsuan behera. Laster dira Loiolan. Arratsaldea da, zerua gorri eder:

Iguzkia sartzerat abiatu baita, ez ditake erran bazter hunen ederra: mendien mazelak ez dira larrutuak nihun, nihun ez dira erreak; halako berde bat badute, begiarentzat ezin eztiagoa. Ordua osoa banagoke hemen gogotik, alfer, begiak bakarrik alha.

Gidaria beldur da, bost pinta gasolina besterik ez ditu Loiolara heltzeko. Landetara heldu aurretik, bide ertzeko baserri batean gelditzea erabaki dute.

—Etzinuke fortunaz ezantza-xorta bat?

—Ez —dio baserritarrak batera eta bestera begiratu ondoren. Ondo ordainduz gero...

Berriz ere alde guztietara begiratu, eta eskuaz keinu eginik, abiada bizian sartu da etxean, erregai bila edo. Berandu da ordea, eta Etxeparek, laguna besotik bildu eta gizonaren zain egon gabe, aldapa behera abiarazten du gidaria eta autoa.

Bospasei kilometrako bat egiten dukegunez, ez dakit, noiz eta patar xut kakola baten gainetik ikusten baitugu, mendi lerro andana gora batzuez inguratua, ametsetan baizik agertzen etzaizkizun zelai biribil pollit hetarik bat. Ez da zelaia ere: ibar bat, izaitekotz, urina bezain gixena.

Ibar hartan, mendixka apal baten gibeletik, begiak hetsidek artean itzali zait —ohartu othe zaizko berdin ene lagunak? Loyola-komentuko goipularria. Nere atsegin bethea! Harrotzen nu, Erromarat heltzean Michel-Angelen harrizko obrari ohartzen zaizkiotenek duketen atsegin berak. Bainan ixil-ixila nihaurentzat dadukat behin zikoizki.

Konparazioak behar ditu. Loiola Erroma bada, Landeta bidea frantziar pintore inpresionista guztiak zoratu zituen Provenza eguzkitsua bera baino ederra goa zaio. Koloreek mozkortzen dute, gasolina ahazteraino.

Aurkintze hau zinez xoragarria da. Beheiturik gordetzera doan iguzkiak urretazten du oraino zeru-xoko bat, garaitiko eremu guzia urdin-argi dagolarik, eta lurra

berotzen ezteki. Atsegin dute gure begiek, begien atseginaz alaitzen zaiku araberalat bihotza. Hemengoaren aldean, ikusi duten gutarik biek hitsa dela diote Provence eskualdeko zeru-gaina, iguzkiaren bero handixeagoak langar arin batez azpiltzen diolakotz bere kapa urdina; gordina aldiz, aditu dutenaren arabera, Greziakoa, hau argiarenarekin batean iguzkiaren saminak lanbro-lipits argalenetarik garbitzen omen duelakotz goien-goienean.

Bainan zonbat eta zonbat mendi-lerroek inguratzen duten jausten goazin ibarra! Hainbertze eta halako lur-mokorrek lotsa bat sortzen dauzute barnean.

Azpeitira heltzen ari dira.

Oixtiko ibarra zabaldu da bat-batean; zelai eder bilakatua, zelai gizen, dena pentze, dena artho-landa, daukute xoraturik ikusten begiek; bazter batean, eskuin, huna non zaikun agertzen Azpeitiako herri tarro polita, hainbertze pilotari aipatuen sorlekua.

Sartzean, bizpahiru etxeek beren leiho guzietarik agur egiten daukute lañoki, aireak idortzearekin xafla-xafla igitzen dituen xuriketez. Karrikako bertze etxeak ez ditugu haatik hoin abegiar: hotza-hotza daude beren pareta xuri eta harri pikatu beltzaan dorpeekin, leiho-hegalak elgarri hurrunduak, athe-aitzinean alhartzerik ere gabe. Gora dira gehienak, hiruna estaiekin bederen, lerro luze bedera egiten dutela bide galtzaratuaren bi sahetsetarik. Emazte bakar batzu gune batean, urgulu gutirekin jauntziak.

Karrikatik athera orduko eguerdi-alde, bidea zabaltzen zaiku handizki eta beltz-beltza leuntzen, xuen-xuena luzatuz urruneraino.

Loiolako egonaldiaren ondoren, etxerako bidea hartu behar berriro, hainbeste gozamina eman dion koadro inpresionista hartan barrena. Badu Etxeparek, lerrook irakurrita, 1922an Hegoaldetik Iparrera, Tolosatik Donapaleura Lizardik eginiko ibiliarekin antzik. Lizardi bezala, bidaiari sentimentala da Etxepare, paisaiari osoro lotua.

Biziki argi dago eguna. Uste ginuenetik haunitzez goizago dugu. Emeki, bagoazi, emeki, planaderan harat. Ezkerretarik, hunatekoan baino ederrago baizik etzaizkigu agertzen seroren bi komentuak. Nehor ez da leihoetarik ezagun. Gure aitzinean, elgarrekin elhe eta elhe badoazi oinez bi apez: bat adinetakoa, bertzea gazte hutsa, kasik

*haur bat bere lepo xuri luxe eta sorbalda hertsiekin. Urrats bakoitz, bere sotana handia-
ren hegialak zaflaka sartzan zaizko zangar meharren arterat. Jesuista-gei ixtudiant
zonbait? Behatu ere gabe aldaratzen zaizkigu biak, bethi beren solasari.*

*(...) Azpeitiko karrika iragan-eta, hartzen dugu ezker; bainan, herriko etxetarik
urrundu gabe, zubi baten ondoan horra non elgarrekin hitz harturik bezala gelditzen
zaizkigun bi otoak. Nor zen orhoit burdinazko zaldiek ere hatsa galtzen dutela azkene-
koz, doi zaldare ez bazaiote emaiten? Beharrik orhoit zituzten ba gidariak...*

*Ezantaz zurrustan bethetzen ari zaiolarik berea, ene laguna, biderat jautsia, egun-
daino ikusiak ez dituen bi azpeitiarrekin mintzo da karraskan eskuaraz. (...) Zelai her-
tsi, gixen batean sartuak gira. Bortz ehun metra zabal balin bada, gorenaz. Bazter-
aire, bere luzetasun guzian gure beribilek bezala ibaiño batek kurrutzen du, ura lodi eta
barna. Urola ere du bere izena. Han-hemenka, laborari etxe bakar batzu, baratze on
batzuekin aldean. Pentze zolak berde agertzen zaizkigu, artho alhorrak musker, belhar
ala landare guziak hezean ditazkelakotz alha. Zelaiaren bi sahetsetarik bizkitartean,
guziz eskuinetik, mendi-paretak larre, eta tokika harriraino larrutuak.*

*Zonbait minuturen buruko, erregebidearen ezkerretarik etxe-lerro bat, luzatuz
doana han-harat, urrunsko. Ez dugu galdegitearen beharrik non giren, afixa zozo
batzuek erakutsia baitaukute. Cestona-ko hiriñoan gaindi bagoazi, alde orotarar beha,
hanbatenaz begiak erneago non frantsesek toki hau irriz jokatzen ohi baitute, diotela-
rik: Cestona, le Vichy espagnol!*

Bibliografia:

ETXEPARE, Jean: *Beribilez*, (Maria Jose Kerejetaren edizioa) EEE, Donostia, 1987.

EUSKAL AKADEMIA BAT

LEHEN MUNDU GERRA amaitzearekin bat, Europako mapa guztiz eraldatu da. Han-hemen, inperio handien menpe bizi izan diren herriak atera dira azalera. Estatu berrien garaia da: Txekoslovakia, Hungaria, Finlandia... Kultura nazionalek, eta beraz, ordura arte bazter bizi izandako hizkuntzek damaiote tornuia mende berriari.

Piztualdi honetan, arestian esan bezala, Espainiako errege Alfonso XIII.a aurrean delarik, Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindia sortzea erabaki dute Hegoaldeko lau diputazioek Oñatin. Giro honetan hasi zen nolabait euskara lantzen luzaroan erdaletxe izan zen Loiolan.

Baldintzak, konpainia barruan, egokiagoak ere baziren. 1918an bertan, jesuiten probintzia bakarra osatzen zuten Gaztela eta Leon banantzearekin, bakoitzaren autonomia handitu egin zen. Jesuiten ikuskatzaile zen Aita Boettok hiru urte geroago Loiolara egindako bisitan euskara dela bertako hizkuntza eta zaindu beharra dagoela esatea ere, bultzada handia izan zen. Baina batez ere gizonak, jakineko jesuita batzuk izan ziren euskal letren aldeko giroa sortu zutenak.

Raimundo Olabide gasteiztarra bazen nor ordurako. Sortu berri zen Euskaltzaindiko kide, bazituen liburu batzuk idatziak, Kempisaren bertsio bat, *Kistoren antz-bidea* (1920), eta anatomiar buruzko lan didaktiko bat, *Giza-soiña* (1917), besteak beste. Izarraizpean Olabideren pasera-lagun zen Frantzisko Apalategi donostiar historialariak ere, bultzatu izan zituen jesuitagaiak euskaraz idaztera. Sasoi honetakoak dira josulagunen eskoletan sortu ziren lehen Euskal Akademiak.

1920an eratu zen lehena, Burgosko Oñan, eta 1907-1909 tartean Loiolan nobiziatua eta humanitateak ikasten izan zen Nikolas Ormaetxea *Orix*e zuen buru. 1922an antolatu zen Loiolakoa, eta aipatu berri dugun Apalategi izan zen bertako zuzendari urteetan. Akademian, euskal gramatikari buruzko eskolak

ematen ziren nagusiki. Ordukoa da Olabidek eginiko euskal aditzaren taula, gerora Frantzisko Korta azpeitiar jesuitak ondu eta moldiztegiara eramango duena. Literaturari dagokionez, berriz, sarritan, Ama Birjinaren egunak eta antzeko jaiak aprobetxatzen ziren ikasleei gai jakina zuten olerkiak idaztarazteko, ariketa gisa. Gero, nahi izatera, non argitaratu ere, bazuten. Hor zeuden, esate baterako *Aldizka* agerkaria, Loiolako gazteek argitaratzen zuten *Deya*, eta batez ere Bilbon kaleratzen zen *Jesusen Biotzaren Deya*.

Martxan zegoen eskolaren zuzendaritza hartu eta Europako literaturaren bidea erakustea izan zen Jose Maria Estefaniak hartu zuen eginbeharra 1924an Loiolara heldu zenean. Estefaniarekin, klasiko greziar eta latindarrez gain, alemaniar erromantikoen berri izateko aukera zuten ikasleek, hala ezagutu zituzten frantziar sinbolistak, Petofi hungariarraren poemak, Verdaguer eta Maragall katalanenak, Mistral proveltzalarena... Munduko literatura, Loiolan bildua.

Haize horrek bultzatuta hasi ziren jesuitagaiak euskaraz idazten. Tartean, gerora izen handiak izango direnak, Loiolan egin zuten elkarren ezagutza. Estefaniaren eskola honetakoak ziren Andima Ibinagabeitia, Jokin Zaitegi eta Estepan Urkiaga *Lauaxeta*.

Loiolak elkartu bazituen ere, ez ziren, horregatik, guztiak egoera berean heldu. Ibinagabeitia zen hiruetan euskaraz ondo moldatzen zen bakarra; Zaitegik eta Lauaxetak herdoilduago zuten etxeko hizkera. Loiolako Akademia, alde honetatik, pizgarri izan zitzaizen, loeroan zuten kontzientziaren suspertzaille bizkor. Jokin Zaitegiri emango diogu hitza, ordukoaz gogora dadin:

Baina gauzak nolabait behar eta Aita Apalategik zituen liburuak aztertzeke baime-na eman zigunez, egun batean "Ami Vasco" aurkitu genduen Andimak eta biok...

"Nire aita liburu hau dela-ta hil zen", "Ta, zertaz ari da, ba?" esan nion nik. "A, nik ez dakit"... Nik hartu nion liburua eta esan nion: "Seme batek jakin behar du zer dela-ta hil den bere aita".

Hartu genuen liburutxoia eta Loiola ostean dagoen Txalintxo erreka ertzera joan eta sasipean jarrita goitik behera irakurri genuen. Eta bukatu genuenean hala esan nion: "Gu euskaldunak gera eta euskara sakon ikasi behar dugu". Zabaldurik genuen liburutxoia gure artean eta denak erori! Salatari bat izan dugu tarteko. Deitu zidaten, eta berebizikoa! Halaxe ziren gauzak, orduan eta gerokoak... Begitan hartu gintuzten.

Gertaera, aski ezaguna da, eta oso esanguratsua. Zuzendaritza, literatura irakasle zuten Aita Errandonea beratarra-eta, Loiolako gazteen artean ernetzen hasia zen kontzientzia apaltzen ahalegindu zen, antza. Kontrapisua Loiolan bertan zegoen ordea, lehenengo aldiz Larramendiren garaitik. Gorago aipatutako irakasleen izenei Jorge Agirrerena erantsi behar zaie, Juan Jose eta Felipe Goikoetxea anaia zeanuriztarrena, Felix Areitioarena...

Ikasleak zein ziren gogoratzea merezi du, hainbatek gerora izango duten itzalarengatik euskal letretan. Talde hartan ziren arestian eman ditugun Andima Ibinagabeitia, Jokin Zaitegi eta Lauaxetaz gain, Plazido Mujika hiztegiilea; Raimundo Argarate urretxuarra, kantagile eta olerkaria, Asia ekialdera bidalia, txinera eta Filipinetako visaya ere ikasi zituen; Frantzisko Sarobe; Aizarnako Segundo Azkue; *Zorion bidea* (1980) liburuaren egile izango zen Migel Zubiaga segurarra, eta baita gerora bailaran sermoilari ezagunak izango diren Hilario Gaztelumendi eta Juan Goikoetxea ere...

Azkoiti-Azpeitietakoak, berriz, Korta anaia biak, azpeitiarrak, Frantzisko eta Felix; eta Azkoitiko Bittor Aginagalde eta Gillermo Larrañaga. Zerrendan, ezin aipatzeke utzi Loiolako Ormaetxe baserriko bi anaiak, *Argia* astekarian hainbat narrazio labur idatzi eta Lizardi beraren arreta bereganatu zuen Jose Goenaga eta honen anaia gaztea Iñaki, olerkari fina eta besteak beste Schiller-en *Wilhelm Tell* itzuli zuena (1934-1935) eta 2005.urtean berrargitaratu dena.

Loiolako Akademiako garai hartakoa du Iñaki Goenagak olerki hau, Aitzolek eskatu, orduan argitara eman eta gure artera Santi Onaindiari esker heldu dena:

NESKA ITXUA

*Begian pupua, begia itxua,
Argiaren billan urrun ba-nua.
Jun eta erori, or nazu, Ama!
Baña begi itxuak urrun narama.*

*Urrundik laisterka aldapa gora,
mendirik mendi goi-goiko basora;
Zugana, laister natorkizu...
Bai, Ama, or nijoakizu!*

*Begian pupua, begia itxua,
Argiaren billan urrun ba-nua.
Jun eta erori, or nazu, Ama!
Baña begi itxuak urrun narama.*

Akademiak 1932ko otsailean eman behar izan zion amaiera jesuiten barruan ezagutu izan den euskararen aldeko saiorik handienari, Espainiako Bigarren Errepublikak Konpainia kanporatzea erabaki zuenean. Gaztela probintziakoak Belgikarako bidea hartu zuten, eta hala, Marneffe-n babestu ziren Oñakoak eta Tournai-n Loiolakoak.

Aita Estefaniaren talde hartara biltzen azkena, Patxi Etxeberria andoaindarra izan zen. Apaiz izana Loiolara heldu aurretik, 1933an Urretxun ospatuko zen Olerti Eguneko garaile izango da hurrengo urtean, “Bost lore” poemarekin. Loiolan, ez zuen ezertarako astirik izan. Uztailean iritsi eta otsailean abiatu zen Belgikara, besteekin batera, kanporaketa zela-eta. Txinan ibili zen misiolari luzaroan, kontinentean aurrena, Maoren iraultzarekin Taiwanera aldatu zen arte. Gero, Filipinetara. 87 urte zituela, 1987ko abenduan itzuli zen erbestetik abiatutako tokira, Loiolara. Euskal Herria ez da inondik ere mende erdi lehenago utzi zuena:

Loiolara ekarri naute. Etortzerik ez nuen eskatu. Berrogeita hamalau urte handi erbestean eman ondoren... lehengoa ez da Euskadi. Gizartea erabat aldatu da. Hau ez da nik utzi nuen Euskal Herria, ez burubidez, ez hizkuntzaz.

Aitzolek meritu handiak ikusten zizkion olerkari hark, “*cuyo principal mérito ha sido el escribir una poesía culta con materiales y símiles populares, imprimiéndole un matiz primitivista encantador*”, olerkari izaten segitzen zuen. Ez zion sekula utzi izateari. Jar dezagun, baina, Elixabete Garmendia amaiera kontatzen:

1989ko azaroaren 16an, Ellakuria jesuslaguna eta beste zazpi lagun hil zituzteneko sarraskiaren berri jaso eta bertsotan goralduko ditu. Hamabost egunera, Tomas Garbizu musikagile lezotarraren heriotza izango du aitzakia gogoe-tarako:

*Eguna bezain laster
Urteak amaitu:
Zabalik ataria
Andik nai det sartu.
Goibelaldi txatxuak
Betiko baztatu...
Biotz barrengo labe
Ez det nai banatu.*

Papera idazmakinatik atera gabe zeukan artean, heriotzak lo harrapatu zuenean.

Bibliografia:

- AITZOL, J.: "Nuestros poetas. El actual florecer de la poesía euskaldun", *El Pueblo Vasco*, 1935-IV-21.
- ALTUNA, Patxi (editore): *Jose M^a Estefania Zabala, 'Maestro de vascos'*, Mensajero, Bilbo, 1990.
- ALTUNA, Patxi: "Jose Maria Estefania Zabala (1889-1942)", *Euskera XXXV*, 1990.
- ETXEBERRIA, Patxi: *Lan guztiak*, Hiria, Donostia, 2000.
- ONAINDIA, Santi: *Milla euskal-olerki eder*, Karmeldarrak, Amorebieta, 1957.
- SCHILLER, Friedrich: *Wilhem Tell*, EIZIE- Alberdania, Irun, 2005.
- Deia*, 1977-12-8.

BILTOKI BERRI BAT

ALAIGARRI izan oi zaio beti, asmoren bat bete edo elbururen batera iritxi naiean dabilienari, bere asmo edo elburu oietzek darabizkianaren berri izatea. Ainbat alaigarrigo, berez alaitasuna dariotenean.

Eta Azpeiti izan da igandean euskaltzaleontzat, poz izpiak banatu dituan illargi betea. Aspaldi ontan dirditsu dakusgun bazkun gaztearen argitasuna bildu, ta euskeraren gau illuna urratu du eranegun Azpeiti'k. Bejondeizutela, azpeitiarrak!, Aitzol'ek esan zizuten bezela.

Agerkaiak zioten garairako urbildu zan jendea Parrokiko Zine Aretora. Gu iritxi giñanerako Barrena jaunak itzaurrea bukatua zuan; eta Eizagirre, Madrid'en aldun izana, bere itzaldiari asteko gertu arkitu genun.

EIZAGIRRE

Entzuleak agurtu ondoren, "Azpeiti, Euskalerrriaren mami-mamia izanik, —dio— ¿zer dala ta gatoz onera euskeraren alde itz egitera? ¿Ez ote litzake egokiago erdel kutsuz jotako ainbeste erritara juatea?"

Gaurko galbidea, euskera bete-betean egiten zanean ereindako azitik datorrela adieraziaz, euskera erabiltzea ez dala naikoa, esaten die azpeitiarrai, zergatik egiten dan eta egiteak zer dakarren jakitea naitaezkoa izanik.

Euskera darabilgunak bi zatitan banatzen gaitu: besterik ez dakitenak eta besterik jakin arren euskeraz egin nai degunok. Aiek euskera noiz nai galdu lezateke, besteok ez degu beñere galduko. "Jakiteak (kulturak) gaizkatu bear du euskera".

Erri baten berextasunik egizkoena izkuntza izanik, izkuntza galtzen duan erriak, itxura, gogo ta izate osoa galtzen ditu.

Etzagun ordea uste euskerak etsairik gogorrenak erbestekoak dituanik. Gu, geroni gera euskera-erailleak, euskera gerok nai degulako ilko da.

Ta au aitortu erazten dio, bein Ernio'tik beruntz mendi-erritxo batean gertatu

zitzaionak. Aurtxo guziak ikastetxetik irten eta erdera gorrian ari zirala ikusi, ta mai-xuak orretara beartzen zituala entzun eta suturik maixuari bereak eta bost esateko asmoz zijuala, adiskide batekin topo egin omen zuan. "Motell, utzi akiok pakean maixuari —esan omen zion adiskide arek— maixuak berez ez likek eraztunik erabiliko. Gurasoak berak eskatu ziotek ori".

Ona zergatik etorri bear degun Euskaltzaleak euskal errietara. Ta gure itzak entzun arren, erdel zale jarraitu nai duanak, ez beza beñere esan euskalduna danik". (Txalo asko izan zan).

AITZOL

Agur-itzak izan dira aurrenekoak.

"Gudalburu batek burrukarako, ez ditu bear izaten, an aurrean, lenengo lerrotan su ta gar dabilzan gudamutillak bakarrik: atzea gordea ezpadauka, gudamugaz atzetik laguntzallerik ezpadu, larri arkitu bear du bere burua geienean. Araba, Naparroa'ko be alde, Bizkai sartaldea ez dira gaur zoritxarrez euskal mugak. Gipuzkoa'n ere gal-bidean gaude: Donosti'n ez da kalean euskerarik entzuten, Tolosa'n oso gutxi, Irun'en aspaldi galdu zan, Errenteri'n galtzen ari da. Azpeitiarrak, zuek laguntza bearrik ezpa-dezute beraz, zuen laguntza bearrean gaudela sinistu".

Sartzen da gero izlaria edesti landa zear, eta txekoen, errumanitarren, irlandarren izkerak il zorian egon ondoren gaur indartsu arkitzetik itxaro-txingarra piztuaz, guk guziak aiek izan zituen laguntza gabe, geron kemen utsez egin beariko degula, esan digu.

"Baña ez, gaizki diot, erantxi dio, Jaungoikoa lagun degu. Berak nai baitu euskerak burua jasotzea".

Euskera aula, motela iritxi zaigula... ¿Arritzekoa al da? —dio—. ¿Gerok ere erde-raz egiteko errextasun aundiago ez degu ba? ¿Nola nai dezute landu gabeko izkera, hainbeste urteren buruan besteen mallan arkitzea?

Mistral'en lan aipagarria, maitasun aundiz edestu digu gero. Ta onek bere lan nagusia sortzeko, aurretik eta alboan bear izan zituan olerkari ta bertsolariak aitatze-rakoan, eskutik bezela "Consistorio de Juegos Florales" eta "Euskal Esnalea" irasi ta eutsi zituztenak txalotzera ekarri gaitu. "Euskaltzaleak" erriragotu nai izan dute ta aien lanen jarraizalle ta indartzalle bezela dabizkigu.

Irakurri ta idazten ikasteko ikastolatxo baten bearra adierazi die gero azpeitiarrai, elebitza ikastetxe guzitan sartu arte atsedetik ez artzeko eskatuaz.

Aurtengo asmo artean, "Euskal Eguna" Azpeiti'n egitekotan gerala azalduaz amaitu zuan bere itzaldi apaña.

Txaloak kea zerioten.

ARRATSALDEAN

Lauterditarako Udalak, gañerako euskal Udal guziaz ikasbide egoki askoa emanik, "Euskaltzaleak" bazkunari eskeñi dion areto argi, alai, zabal egokia gañezka zegon. Eguartean baño jende gehiago batu zan (len esan dedan bezela goizetik asko zalarik); gazte jendea batez ere entzun naiaz, ikasi naiaz, txalo egiteko gogo biziz nabaitzen genun.

Eta izlariak ere elurra bezin txuria zan areto artako beroak sututa, len baño ere gartsuago ekin zioten. Madariaga jaunak biltoki berria onetzi ta Barrena jaunak ikerpena egin ondoren.

ARRUE

Apaiz gazte langille onek, erritar artean itz egiteak eman zion poza azaldu, ta euskera aldez au edo ura esatea besteena berritzea besterik ez litzakela ta, "pelikula" labur batean bezelaxe bera ta gure maitasun gaia agertu nai izan zigun.

Maitaleak bere maitearen edertasuna apurka-apurka txetuta aztertuaz askoz ere atsegin aundiagoa nabaitu oi duan eran, jo batera ta jo bestera mitxeleta lorerik-lore bezela, hainbeste aldetatik entzuten zituan deiari ezin erantzunik bezela, errextasun aundiz eta euskera argiz jardun zitzaigun.

Zaarra da euskalduna, aginte aundia izana, aberatza, trebea. Zaarra, ¿nork ukatu? Aginteduna... ala zioten. Aberatza, naitaez bear. Trebea, non nai ikusi liteke.

Sinismen kontutan oker ibillia izango degu, bai noski (illargia agurtu oi zuten gure asabak); baña ¿nork ez digu esaten Sinismen Bakarrera erori ziranean lengo idazti zarrak erre zituztelako gugana idazti zarrak iritxi etzaigunik?

A! Baña euskaldunaren indarra, (¿nork menderatu du?), bere kemena (Amerika, Xabier, Loyola) bere lanerako grña (garia mendian, olak an-emenka).

Ta doai guzien gain, bai aundia, izkera arrigarri ori, euskera maitagarria sortu duan erriarena.

"Irakurri, azpeitiarrak, euskera asko irakurri. Gazteak ekin, zarrak zuzendu ta Euskalerria gure erria dala aitortuaz, eldu guziok bere ezaugarrikerik berexienari".

Amaika txalo entzun zuan Argia'ko zuzendari jatorrak.

EIZAGIRRE

Eguartean esandakoak berritu zituan. Euskaldunak Kortetara juatea bear-bearrekoa degula adieraziaz.

AITZOL

Azkoiti, Errexil, Zestua ta ingurutako gazteak ikusteak zemaion poza azaldu ondoren, izkerak erri bat mugatzen duala esan zигun.

Francis James'ek omen zion Asparren'en: "Ni prantzesa naiz eta prantzes erri batean nagon arren, estranjerin arkitzen det nire burua". Euskera'k esan erazitako egia.

Kataluny zear ibilli ta Euskalerrian txangotxo bat egin ondoren, madritar adikiskide batek onela itz egin omen zion bein Aitzol berari: "Euskalerria baziak. Euskera apurrik ez diat entzun. Izkeraz aztutzen dan erria amilbidean zio". Euskera ez entzuteak esan erazitako egia.

Aitzol sutzen da orduan eta "Euskalerrri aberatz eta erdeltzalea baiño txiroa naigo —dio— euskaltzalea bada".

Ta Barrena, Azpeitiar Euskaltzale taldeko lendakari jaunak, eskerrak eman eta euskeraren eskubide aldez Madrid'año jo bear degula bi itzetan agurtuaz amaitu ziran Euskaltzale-Biltoki berriaren zabalkunde saioak.

Amaia

Hemeroteka:

El Día, 1931-02-24.

KABERNIKOLAK

1931-KO ekainean egin ziren Espainiako hauteskunde orokorretara CVDE (Candidatura Vasca Defensora del Estatuto) aurkeztu zen Gipuzkoatik. EAJk eta Comución Integrista de Guipúzcoa (karlisten joera bateratuak) alderdiek osatutako koalizio horrek zabaldu zituen mezuen artean honakoa zegoen:

Ezkerrera botua ematen dun gizona ez da biotzetik euskalduna, baizikan mingañetik.

Badakigu hauteskunde kanpaina garaian esaten eta idazten diren askori ezin zaiela arreta handiegirik eman. Zorionez, ohikoa ez den sua eransten zaie adierazpenei eta harria ere, nora asko erreparatu gabe botatzen da sarri. Zaharra da joera hori lege.

Espainian Bigarren Errepublika nagusi jarri zenean ez dirudi abegi gozoa egingo zitzaionik Azkoiti-Azpeitietan, 1931ko udaberri hartan herri bietako udalak nola osatuta zeuden begiratzen bada behintzat. Hamasei zinegotzietatik hamahiru tradizionalistak ziren eta hiru jeltzale Azkoitian; Azpeitian, berriz, hamar katoliko monarkikoak ziren, hiru tradizionalistak eta beste hiru jeltzaleak.

Autonomia estatutuen aurreproiektuek markatu zuten Hego Euskal Herriko bizitza politikoa urte haietan. Munta berezia hartu zuen egitasmo bakoitzean nolako jarrera hartzen zen erlijio gaiaren inguruan, konfesionaltasunaren alde edo laikotasunaren alde egiten zen. Auzi hori erabakigarria gertatu zen eskuineko indarrek edo ezkerrekoak estatutua aldeztu zezaten, beti ere alderdi jeltzalea ezinbesteko osagai moduan ageri dela konbinazio eta balizko konponketa modu guztietan.

Ezin aipatu gabe utzi, ordea, jauntxokeriak, lehen ez ezik, 1890ean gizonezkoen sufragio unibertsala Espainian legeztatu zenetik izan zuen indarra. Udalen osaera esplikatze lagungarri delakoan dakargu hona. Azpeitiko hauteskunde

barrutian, salbuespenak salbu, ez zen hautagai aukerarik izaten bozketetan. 1907ko hauteskunde legearen 29. artikulua baliatzen zuten horrela jokatzeko. Delako artikulua *hautagai falta* (“abstención de candidatos”) hartzen zuen kontuan, eta horren arabera aukeratu behar zirenak baino hautagai gehiago ez bazegoen zerrendetan azaltzeko prest, aurkezten ziren guztiak atera ohi ziren hautatuak automatikoki.

Jauntxokeria edo kazikismoaren zerua izan ziren urte haiek, eta hauteskunde normalik ez zen izan 1931ko maiatzeko 8ko dekretuak indarrrik gabe utzi zuen arte zorioneko 29. artikulua. Zenbat kargu zeuden, hainbeste hautagai aurkezten ziren urte batean bai eta hurrengoan ere bai, sekula deskuidatu gabe. Diputazioak sustatutako amarrukeria salatu zuen Evaristo Bouzas *El País Vasco* egunkariko zuzendariak 1924an, eta jauntxokeriaren bihotz zein joko, eta Azpeitiko barrutia jo zuen.

Tradizio horri berea emanda, bestelako gorabeherak ekarri zituen hogeita hamarreko hamarkadak. Azpeitian 1931ko ekainaren 11an Gipuzkoako udalerrien batzarra egin zen Eusko Ikaskuntzak ondu zuen estatutuaren aurreproiektua eztabaidatzeko. Emendakin garrantzitsua eta polemikoa ezarri zitzaion proiektuari bilkura hartan, hain justu ere Vatikanoarekin hartu-eman zuzenak izateko eskumena ezartzen zuena.

Handik hiru egunera, Lizarran onartu zen babes zabalez eta festa giroan Lizarrako estatutu bezala ezagun dena. Hala ere, Azpeitiko emendakin batek, laugarren idazpuruko 15. atalak jaso zuen hark harrotu zuen hauts gehien eta zaildu zuen onarpena zabalagoa izan zedin. Horrexek eragin zuen, beste arrazoi batzuen artean, ezkerreko indarrek proiektuari babesa ukatzea.

Giroa leuntzen ez zuen lagunduko Madrilgo gobernuak maiatzaren erdi aldera Gasteizko apezpikua, Mateo Mujika jauna, elizako artzain kargua politika egiteko baliatzen zuelakoan, mugaz beste aldera joatera *gonbidatu* izanak. Bidali aurretxoan egina zion bisita gainera Urola bailarari. Guztizko harrera beroa jaso zuela dio hari emandako zigorra kentzeko eskatuz Azpeitiko udalak gobernuari igorri zion idatzi ofizialak. Artean behin-behinekoa zen Madrilgo gobernuak, eta egitekoak ziren hauteskundeek ezarriko zuten errepublikazaleen garaipenak zenbaterainoko oinarri sendoa zuen.

Zernahi eta ere, ez zen samurra izango errepublikaren alde kanpaina egiten agertzea orduko Azpeitia inguruan. Hauteskunde bezperetako Azpeitiko gerta-

eren karietara horrela idatzi zioten Pasaiaiko errepublikaren aldekoek Gobernazioko Ministeritzari:

Imposibilitados actuar candidatos, apoderados ni interventores en las elecciones en tan cavernicola región, es absurdo creer pureza sufragio, siendo verdadero héroe quien se atreva a votar candidatura de izquierda.

Izan ere, egun batzuk lehenago, herriko plazan mitina eman nahi izan zuten Conjunción Republicano-Socialista-ANV koalizioko lau hizlariak epelak hartuta alde egin zuten.

Garai hartan ere baziren jeltzale izan beharrik gabe ere *mingañetik* eta *biotzetik* euskaldun zirenak asko. Leiho honetara ekarri nahi izan ditugu Azpeitiko istiluak gai hartuta Joxe Mari Lopetegi kontratista irundarrak *Irún Republicano* aste-karirako jarri zituen sei bertsoak. Hauteskundeak 1931ko ekainaren 28an izan ziren, eta bertsook uztailaren 4ko alean ikusi zuten argia.

ASKATASUNAZ

*Zer buruzbide biyotz gabea,
zer anaitasun zitala,
zer gizontasun neurri gabea,
zer zentzu gabeko ergela;
zer gertatzen da Euskal Erriyan,
zer garabiltza onela,
zer itxuretan anai jatorrak,
zer pakez ezin gaudela,
zer esan nai du jarraikera onek,
zer, zentzu gabeak gerala.*

*Nun gertatu da onelakorik
nun jaunak, nun, Azpeitiyan,
jesuita ta erlijiyua
besterik ez dan tokiyan;
Askatasunaz gaudezelako*

*lau lagun aruntz joan giñan,
gure barrenge fede leyala
aitortutzero itz biyan,
ekin ziguten laueri millak
gutziz modu itsusiyan.*

*Gugandu ziran atzaparrakin
lepotik ito nayeana,
udazkenean nola enarak
alanbrearen gañean,
itz bat egiten utzi nai ezik
modurik okerrenean,
odolean eziñ irukirikan
miñ zutela barrenean,
beldur ziraden biurtutzeko
nonbait gure esanean.*

*Garate jauna Bergarakua
euskaldun jatorra berez,
euskalduna bai ezkerrekoa
apaizak ekusi nai ez;
eldu ziyoten zamarratikan
lau puska egin bearrez,
Santakruz zanen odol beretik
nazi dira nere ustez,
Aita Inaziyo sortu Erriyan
biyotz onekuak daudez.*

*Gomendio zan onen laguna
jaun on bat oñatearra,
otzikan gabe laja diyote
gizajoari bizkarra;
tira ta bultza autsi ziyoten
soñian zeukan zamarra,*

*ekustearren zeñen pizkorra
berez dan Azpeiti arra,
Askatasuna indartutzeko
ez dago kuadrilla txarra.*

*Milla baziran lau zatitzeko,
ez al da lotsa Euskalduna,
atze-erriyetan ai zer fama guk
iruki bear deguna;
au al da lege erlijiyuak
erakutsitzen dizuna,
modu orretan baldin badabill
maltzur zar biyotz astuna,
bide ortatik ez da etorko
Euzkadin Askatasuna.*

Bertsoen munduan Lopetegi dela uste dugu *nazi* hitza estreinakoz darabilena. Arreta emangarria da, gainera, hizlarietako bat Justo Garate izan zela, Euzko Abertzale Ekintza (ANV) alderdi abertzaleko buruzagia. Garatenaren ondoan Gomendioren izena dakar hurrengo bertsoak. Hau gestore lanetan aritzen Gipuzkoako diputazioan errepublika garaian eta 1936an, Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Herri Auzitegiko fiskal izendatu zuen, beste grado bateko, baina Ildefonso Gurrutxaga bezala.

Handik egun gutxira bozak bildu eta emaitza beldurgarria da: Azkoitian botoen % 99,63 bereganatu zituen CVDEk eta Azpeitian %98,93; CR-S-ANVren alde boza eman zuten *heroiak* hemeretzi izan ziren Azpeitian eta Azkoitian sei.

Espainian barrena, aldiz, errepublikaren nagusitasuna nabarmendu zen. Lizarrako estatutua atzera bota zuen Madrileko gobernuak, eta 1931ko Konstituzioarekin bat (Espainian emakumeari lehenbizikoz aitortu zitzaion bozkatzeko eskubidea) etorri zen aurreproiektua sustatu zuen agintetik. Estatu eredu laiko baten alde egin zen handik atzera. Horrek berandu gabe eskuineko indar katoliko eta foruzale nagusiek proiektuari bizkarra ematea eragin zuen, eta jeltzaleekin batera ezker errepublikanoaren eta sozialisten babesa jasotzea 1933an.

Herri batzuetan udal hauteskundeak egin ziren berriro 1933an, eta tartean ziren Azkoitia eta Azpeitia. Gauzak ez ziren askorik aldatu, baina zertxobait bai: Azkoitian lau zinegotzi katoliko zehaztugabe (“católicos indefinidos”), beste zortzi tradizionalista eta beste lau jeltzale atera ziren; Azpeitian zazpi katoliko zehaztugabe, bat tradizionalista eta beste zortzi jeltzale.

Bitartean, ezkerreko errepublika agintean dela, jesuiten ordena *desegin* zuen Espainiako gobernuak dekretuz 1932ko urtarrilaren 23an. Esan gabe doa ez zela biharamunean Azpeitiko kaleetan protesta manifestaldirik eta Madrilera igorritako udalaren kexu eta deitore agiririk eskas izango.

Ordura arte ezkerreko mugimendu antolatua harripean bezala egongo zen inguru hauetan, baina gobernuak sendotu ahala egituratzen hasi zen. Hala, 1931an Azkoitian, eta hurrengo urtean Azpeitian, zabalik izango du zeinek bere zentro errepublikanoa. Giroak leuntzera joko du nolabait, badirudi datozen urteetan lehentasun politikoa estatutua izango dela gurean, eta, hori bai!, edozein iraultza sozialaren arriskua ekiditea.

Hurrengo kanpainetan eta hurrengo hamarkadetan ez dira falta izan hemen aipatutakoen antzeko hitzak, eta are gogorragoak ere. Atzo *nazi* jo dituzten beraiek, bihar, edo berrogei urte barru, beste edozeini ahoko zulora *nazi!* hoska aurki genitzake. Arerio politikoen aurrean dena da libre. Eta hizkuntza bera ere narrastu eta lardastu egiten da zeharo.

Bibliografia:

ELOSEGI, Joxan: *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria*, Paper Hotsak, Soraluze, 2004.

GARMENDIA LARRAÑAGA, Joxe: *La enseñanza rural en Gipuzkoa. La labor de la Diputación y los ayuntamientos (1900-1950)*, EHUko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo, 2004.

RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II. República*, Publicaciones del Instituto Doctor Camino de Historia donostiarra, Donostia, 1994.

AINGERUAK ARMETAN

JESUITAK Loiola utzi duten ia bakoitzean sartu izan dira soldaduak etxe hutsuan. Garai batean, armada frantsesa. Agirre lehendakariaren gudariak faxistak Espainiako II. Errepublikaren kontra harrotu zirenean.

Izabako seme zen Jose Estornes Lasari esker dakigu nolakoak izan ziren lehen gerra egun haiek Loiolako kuartelean.

Loiolako kuartela (Azpeitia)

Abuztuaren 5ean heldu gara, Felipe Amutxategirekin, Loiolako santutegira, santutegiaz eta etxez jabetzera. Kaleko arropa daramat, traje marroi bat, eta ohikoa den legez, fusila autotik jaisten naizenean. Une hartan ezagun batzuk ari dira irteten, ohi zuten bezalaxe, Azpeititik mezatara Loiolara joanda. Zurtuta gelditu dira, ni ez naizela "horietakoa" uste baitzuten. Hauxe da lehen aldia pentsakeraz beste aldera pasatu den gure jendearekin topo egiten dudana. Hauxe da lehen aldia santutegian sartzen naizena. Elizara joan eta kanpaina hasi aurretik, aitortza egiten dut. Nire lagunek ere, gauza bera egiten dute. Gero, etxe barrenean ibili gara. Ordurako, zaintza egiten ari dira Azpeitiko eta Azkoitiko gudari batzuk.

Halaxe osatu zen Euzko Gudarostea. Jeltzaleak, santutegian jarri ziren. Euzko Abertzale Ekintzakoak, berriz, ondoko Hotel Loyolan. San Inazioren jaio-tetxea itxita edukitzea erabaki zen.

Batetik besterakoa, zoratzekoa da. Diesel motorrak jartzen dira argi-indarrerako, okindegia, garajeak, eibartarren esku dagoen armategia, gasolindegia... (...)

Inprimakiak enkargatzera moldiztegia joan ginenean Azpeitira, aurreko bi gerretan karlistek eginarazitako lanak ez zizkiotela artean ordaindu esan zigun gizonak, eta

hala erakutsi zizkigun ordaindu gabeko kontuak. Orduan, zertarako eztabaidatu diruaz? Halaxe da, oraingoan ere, kobratu gabe geratu baitzen.

Hunkigarria da boluntario talde bat iristen ikustea. Egun argiz bihurrikeriaren bat egitera doazen umeak bezain lotsati, gorpuzkeraz eta itxuraz elkarren anaia dirudite guztiak. Milrayas praka ordezkazeinek are etxe girokoago egiten dute dena. Mutil osasuntsuak, sendoak eta lasaiak, ia guztiak euskal tradizioaren baserri hauetatik etorriak, Europako askatasun eta demokraziarik zaharrenaren zutabe.

Urte batzuk beranduago, basilika inguruko baserritar idealizatu hauexek izango ditu gogoan Telesforo Monzonek erbesteko poemetan. Badu zerbait gurasotik ere. Agirreren gobernuko Barne kontseilaria izan zen Monzon.

TONTORRETAN IL ZIRAN KANTARI...

“Bigarren doñuz”

*Txalupak laga ta goldeak utzita,
Gaztedirik ederren,
Bide ta mendiz gau osoa ibillita,
Loiola'ra zetorren.
Errietako langille gazteekin
Egun-argiz alkartu,
Ta aurrean artuta txistu ta ikurrin,
Loiola ibarran sartu...!*

*Ara! Emen euskal gaztedia...
Zai ta gorde naian bere erria.
“Suak artu didala biotza
Ez zait beldurgarri eriotza.
Yatorriz gera bake zale,
Gudak atzeman gertu gabe,
Baiñan arrotzak datozela,
Amildu ditzagun goitik bera!”*

*Mendirik mendi guda soñua...
Euskoak zapaltzeko sortua!
Guk ari erantzun irrintziñez:
“Arrotzaren ankazpian ez!”
Eta izkillurik ez baitzuten,
Gudariak eskutsik irten...
Bizitza opaz Euzkadi’ri
Tontorretan il ziran kantari!*

Erriak:

*Dantza ta Guda mendi goietan...
Aupa mutillak! Aurrera!
Bakea baitegu biotzetan,
Ez degu iltzeko beldurra!
Euskalerra’ko mutil gazteak,
—Aingeru, naiz ta Gudari—
Gorroto gabe yausiak dira
Mendigoietan kantari!*

Garai hartan, eta baita gerora ere, asko azpimarratuko den kontua izango da, eta ez soilik jeltzaleen aldetik, eusko gudariak “gorrotorik gabeko gizonak” direla, “garbiak” CNTkoen, UGTkoen, eta oro har, milizianoen aldean. Errepublikaren alde agertu ez zen Jose Artetxek ere behin eta berriz markatzen du desberdintasuna. Katolikotasunak gertuagoko egiten ditu. Monzonek, ikusi dugu, aingeruekin konparatzen ditu bere mutilak. Ez da nolana egingako erkatzea. Gudariak Loiolan daude, ber-bertan dute San Inazioaren jaiotetxea. Eta Monzonek gogoan du Pascual Iturriagaren letra:

*Zure soldaduac
dira aingueruac,
Zure guidaria
da Jesus andia...*

Bada era honetako beste olerki bat ere, anonimoa, oraintsu Koldo Izagirrek

ezagutzera emana eta *Euzko Deya* aldizkariko paperen artean Arteako Abertzaletasunaren museoan urteetan lo egon dena. Duda izpirik gabe, Monzonena da hau ere.

Loiolan gaude berriz ere. Gerrako aurreneko asteak dira, eta artean erori gabeko Gipuzkoatik, jauntxo asko datorkio, milizianoen beldur, Monzoni Loiolara, laguntza eske. Denborak aurrera egingo du, ordea, eta gudariak frentean hiltzen hasiko dira. Faxisten babesean, abaro bila heldutako haiek ahaztu egin dira Loiolan ziren gudariak egindako mesedeez. Hau eta bere mutilen heriotzaren aurrean ezer ez sentitzea leporatzen die Monzonek eskergabeko handikiei.

Titulua, gazteleraz, aski adierazgarria da. Gudariak, aurreko poeman bezala, gizon baino, aingeru dira:

INGRATITUD

*Loyola jauregian
Euskal gudariak
Amaika andiki etxe aurrian
Urrutitik etorriak*

*Eskian omen datos
Ta es Aita Ināsiori
Belaunikaturik dagos
Otoitz abertzaliari*

*Batek naiko
Bere etxe saintzeko
Aingeru aietako pare bat gudari
Geienak dar-dar ta artian
Ango itzalpian lo toki*

*Sori aldatu
Egin onak astu
Ta atzoko aingeruak gaur zintzilikatu*

*¿Ta aien gorputzen aurrian
Ez al zerate ikaratu?*

Bibliografia:

ESTORNES, Jose: *Un gudari navarro en los frentes de Euskadi, Asturias, Cataluña, Auñamendi*, Donostia, 1979.

MONZON, TELESFORO: *Gudarien egiñak*, Gr. Moderne, Baiona, 1947.

Monzonen 8 inedito. www.armiarma.com/emailuak/mizka/monzon.htm

GERRA GUREAN

IA INORK aurre egin gabe sartu ziren Soltxaga koronelaren erreketek Azkoiti-Azpeitietan. Irailaren 20an ziren hemen, eta bistan da, Iruñetik atera zirenetik pasatu ziren bi hilabete haiek aski izan ziren bazter hauetan jende askoren bizi-modua mudatzeko. Gehienak poztu egin ziren, aldeko zituzten militar matxinatua. Beste askorentzat, urteetako hondamendiaren hasiera izan zen. Guk, zor-tea alde dugu. Egun haiek nola bizi izan ziren ezagutzeko, bertan izanikoen eskutik jakiteko modua baitugu. Batzuetan euskaraz, besteetan gazteleraz, dokumental bat egiteko adina material, bada.

Bost dira, Estornes Lasaren memoriak albo batera utzita, guk dakigunez, hilabete haiek eta zenbaitetan baita ondorengo urteak ere, bi herriotan zer izan ziren ikusteko balio diguten liburuak.

Azpeitian, Ediciones Gudarik 1964an erbestean plazaratutako Iñaki Azpiazu apaizaren *7 meses y 7 días en la España de Franco* liburuxka dugu alde batetik, eta Jose Artetxeren egunkari gisako *El abrazo de los muertos* ezaguna bestetik, gordean eduki eta 1970ean bere adiskide Unzurrunzagak Zarautzen argitara eman zuena. Bestalde, ezin bazter utzi, berriki Miel Anjel Elustondok Azpeitiko Uztarria aldizkarian elkarrizketatu duen Antonio Loinazen *Nire oroitzapenak* gogoeta liburua ere, oraingoz etxekoentzat eginiko edizio mugatuan errenditu dena.

Azkoitian gerra nola bizi izan zen jakiteko, berriz, hiru lekukotasun idatzi behintzat heldu dira gureganaino. Argitara ematen aurrena *Anai arteko borroka Azkoitian* izan zen, Simon Aranbarrik idatzi eta 1989an editatua. Liburuak badu Aranbarriren izkribuaz gain, oso eranskin baliotsua, Azkoitian urteetan apaiz egon zen Jose Izurategiren egunerokoa, gazteleraz idatzia. Gudarien bizimodu zer izan zen jasotzen duen bakarra, berriz, Iñaki Isasmendiren *Nire denboraldiko ibilerak* (2000) dugu.

Hiru gazteleraz, bi euskaraz. Hiru apaiz, idazle bat, bi gudari. Batzuk biktima, besteak irabazle. Bost lekukotasun, gerra eta gerraostea bizitzeko bost era. Dokumental ederra egin liteke utzi diguten materialarekin.

Azpeitian jarriko dugu kamera lehenbizi. Irailaren 20an, Iñaki Azpiazu herrian bertan zegoen. Igandea zen.

Gobernuaren agintearen azken uneak ziren. Isiltasuna eta ezinegona. CNTko berrogei afiliatu muino baten magalean jarri ziren, oso ondo ikusten nituen; ehunka katoliko zeuden elizan, Meza Santua entzuten.

Denbora tarte honetan azken aldiz, kaleetan barrena ibili nintzen. Nire moduan sotanaz jantzita zebiltzan jesuita batzuk agurtu nituen. Etxean sartu nintzen, gertatuko zenaren zain.

Goiz hartan bertan, hamar eta erdietan sartu zen matxinatuen lehen ibilgailu blindatua; inguruak aztertuko zituzten dozena bat erreketek zekartzan eskolta gisa. Geroxeago, armada sartu zen. Martxa militarrek jo ziren, kanpai hotsa nagusitu zen; oihuak eta gerra kantuak airean. Molaren tropen desfilea ikusi nuen.

Erreketek eta falangistak, goitik behera hornituta, ikurrak eta eskupularioak zermatzaten paparrean eta Jesusen Bihotzaren irudiak fusiletan zintzilik.

Garaille zebiltzan, aurretik begirada harroko buruzagiak eta gerrian pistolak zermatzaten kapilauak zituztela. Gerra kantuak eta elizakoak, "Viva Cristo Rey" oihuak Ama Birjinaren eta Hostiaren kontrako maldizioak nahastuz.

Neure adiskide bat ikusi nuen euren artean, apaizgaia zen.

Hurreratu eta galdetu nion:

—Zer dira hauek?

—Zer zabilta? —erantzun zidan—. Baina hemen gelditu zara?

—Eta zergatik ez? Elizaren dotrina sozialari jarraitzen dion demokrata kristau batek ezin al du hauen ondoan bizi ala?

—Ikusiko duzu, ikusiko duzu... hauen atzeko lerroa hilerria da —erantzun zidan.

Une horretatik atzera Francoren Espainiaren garai berrian geunden. Una, Grande y Libre.

Liburuan kontatzen dituenak, pasarte honetan bildurik daudela esan liteke: apaiz bat irabazle izango direnen gurutzetik ihesian. Hori izango baita Iñaki Azpiazuren bizitza: ihesa. Azpeitian etxez etxe aurrena, herrian bertan preso

gero. Hortik atzera, batetik besterako ibiliak, babes bila Gasteiztik Iruñera bika-
rioarenetik gotzaiarengana, apaiz faxistatzat pasatuz Burgostik Lapurdira.
Argentinara ondoren, hango euskal komunitatearen kapilautzara. Francoren
garaipenaren 25. urteurrena zela-eta, Sabino Egiak Caracastik eskatu eta
Azpiazuk Baionan grabatu eta gero idatzira pasatako lekukotasunak faxistek
herrian egindako bidegabekeriak salatzen ditu. Euskal apaizen kontra eraman
zen estrategian ematen du begia. Apaiz katoliko baten gogoetak dira, gertaerak
eta salaketak nahasirik.

Kamera Azkoitiko plazan dago orain. Irailaren 19a da. Herriko agintariak,
faxistak sartzeko gertu zeudela entzun, eta Juin Torreko kartzelan zeuden atxi-
lotuak askatzea erabaki zuten. Herriko karlista ezagunak ziren gatibu zeuden
gehienak. Kontalaria Simon Aranbarri da, umea garai hartan.

*Agorraren 20'gn eguneko egunsentian, guda-lekuetatik atzeraka ta iesika
zetorren CNT'ko miliziano talde aundi bat, baserri orretan gelditu zan. Denak, eren su-
izkilluekin.*

*Bestetik, goiz orretan, azkoitiar talde aundi bat, guda tresnarik gabe, banaka bana-
ka zalapartaka baserri alderutz zijoan.*

Igande goizean Juin Torre'tik ies egindako presoak ziran.

Geienak , Kuku-Erriko bidea, zergatik artu zuten?

*Itxura dagonez, nazional gudaroztearen aurrekaldean bultzaka zetozen napar
reketeekin lenbailen elkar ikusteko asmoz.*

*Eta azkoitiar taldeko gazteenak presaka ta bizkor abiatu ziran. Elkarrekin topo-
egitea, Larrume Txiki aldean izan zan.*

*Ortarako, Larrume Txiki'ko maldan gora zijoaztela, goiko muñoan, beste gizon
talde aundi bat agertu zitzairen.*

Zeintzuk ote dira? Guretarrak ote dira? Galdetzen zioten alkari.

Azkeneko metroak kezka izo zituzten.

*Bereala, CNT'ko taldea, aizemaille edo abanikoaren antzera, zirkulo aundi bat
egiñaz zabaldu zan.*

*Juin Torre'ko presoak berriz, azkenengo aldapatxoa, beetikan goruntz, zuzen igo
zuten.*

Lenbiziko taldearentzat atzera ies egitea, oso zaila zan.

Alde batetik eta bestetik, fusil tiroen barruan aurkitzen ziran.

Zazpiko talde aurrelariaren atzetik, bide tarte aundirik gabe zijoaztenak, ala olako usai txar bat, asiera asieratik artu omen zien.

Ez omen zitzaien, ez txapel gorririk, ez bandera gorri-oririk eta ez rekete jantzirik ikusten.

“Viva!” deadar bat ere, ez omen zitzaien entzuten.

Bestetik berriz, erri-gudariak... “Hermanos vascos, venid!”.

“Somos hermanos vuestros”! “Subid”!... esanaz ekin omen zien.

Lenengo zazpi gazteen atzetik zijoaztenak, zerbait konturatu zirenean, “Guretarrak ez dituk”...! “Reketeak ez dituk”...! “Milizianoak dituk”...!, esanaz, maldan beera korrika ekin omen zien.

Ondorengo gertaerak ezagunak dira oso, gazte hauexek izan baitira urteetan gerra martiri bakarrak Azkoitian. Antza denez, anarkistek Larrume Txikira lehenengo heldu ziren zazpi gazteak hartu, eta Loiolara jaitsita, Iraetara eraman zituzten, han zuhaitz baten ondoan fusilatzeke. Hurrengo egunean pasatu ziren Soltxagaren tropak handik.

Simon Aranbarrik honelako kontu asko dakartza, apaiz lanean ibili delarik batean eta bestean jasota, ordura arte inork ez bezala herriko jendearen izen, abizen eta gaitzizenak paperean ezarriz, nor zen bata, nork egin zuen hura eta nork bestea. Elkarrizketez-eta dramatizatua, datu jakingarri jantzia, gogoetuz hornitua, liburu interesgarria da, inondik ere Aranbarriena.

Faxistak herrira sartzen, eta mundua ihesi. Artetxek ere badu zer kontatu lehen ordu hauetaz:

Azkoitiko irteerak eskuetan pistolak zeramatzaten mutilek zituzten hartuak. Oinez itzuli nintzen, ezinezkoa zen automobil bat topatzea. Bidean, jende asko ihesi, aldean zeramanarekin bakarrik. Salbe ondoan, bide ertzeko Ama Birjinaren irudiaren ondoran, Don Julian Lojendiok tristuraz begiratzen zion jendearen ihesari:

—Baina nora doa jende hau, Artetxe, nora doa?

Azpeitiko errebalean koltxoiz eta gainerako gauza gutxi batzuekin betetako kotxe partikular batzuk zeuden. Ume batzuk irribarrez automobil baten barruan, ezusteko bidaia haren aurrean. Bien bitartean, etxeakoak presaka batean ari ziren, arropa fardelak biltzen. Karrera batean, adineko emakume batzuk, negarrez ari ziren:

—Au da ba gerrie, au da ba gerrie!

Plaza Nagusian udaltzaina bandoa irakurtzen ari zen. Militarrek ber-bertan zirela eta tren bereziak zeudela nahi zuten guztientzat. Edonon, ihesi zihoazen gizonak, emakumeak, mutilak eta neskek.

Hala atera ziren errepublikaren aldekoak Bizkaia alderantz, atzean etorkizuna ez beste guztia utzirik. Iñaki Isasmendik hogeita bi urte zituen, eta Loiolako komentuan eraturako Itxarkurdia bataloian zuen izena emanda. Orain kamera ez dago herrian, gudariak darama aldean. Irailak neguari utzi dio tokia. Araban dago gaztea, Legutioko frontean.

1936ko Gabon jaiak basamortu hartako zuloetan pasatu genituen. Tiro gutxi izan zen, bare zegoen inguru guztietan, baina hotz zen, bizikera gogorra suertatu zitzaigun. Honetara eta hartara, eta jateko aukera handiegirik ez genuen arren, tripa betetzen genuen behintzat. Egun guztietan gauza bertsuak genituen jateko, baina tira, eusten genion. Lagunarte ona genuen osatuta elkarrekin. Gabon egunean Bermeoko arrantzaleen eskutik etorri zitzaigun ezustekoa. Beren borondate onena erakutsiz, bisigua izan genuen jateko, beraiek harrapatu eta borondate onenez bidalia. Egun oroitzagarria benetan gu guztiontzat.

Negu hartan, baso hotz haietan pasa genituen egunak. Ondo gogoan ditut oraindik ere, hain ziren gogorrak. Baina ahal bezain animoso igaro genituen, gure ustez herriaren mesedetan ari ginen borrokan, egiten genuen guztia gure aberriaren alde egiten genuen, eta horretxek pizten gintuen.

Isasmendik, aurretik Atañok, Pujanak, Alkainek bezala, “deabruak ostutako urteak” gogora ekarri nahi dituen memoria liburu ederra osatu du, 36ko gerran amaitzen ez dena. Poliki kontaturik datoz Santoñan preso erori zireneko pasarteak eta ondorengoak: Paris ondoan amerikarrekin entrenatzen, muga mendietako bizikizunak, erresistentziaren ederra. Isasmendi, beti ondoan izan duen Xabier Larrañaga adiskidea bezala, “eginbehartarra” izan baita bere bizitza guztian, 36ko gerra hark baldintzatutako bizitzan.

Oso bestelakoak dira Jose Artetxeren *El abrazo de los muertos* eta Izurategiren egunerokoa.

Izurategi Aretxabaletakoa zen sortzez, baina Azkoitian zegoen apaiz gerra lehertu zenean. Bera zen elizako organoari notarik ederrenak ateratzeko ardu-

ra zuena. Egunerokoa, erdaraz, apunte gisa dago eratu. Telegrama da askotan, egunkari faxistetako izenburuak osatzen ari dela dirudi.

Kamera Azkoitira itzuli da. Apaiz bat ageri da, sotana beltza soinean.

Hilak 22. Gorriek Bergara bonbardatu dute. Biktimak.

Hilak 23. Goizeko hamaiketan, berriro ekin zaio Elgetako erasoari. Aita Otañorekin eta Manolorekin bazkalondoren igo naiz Elosura. Tiroketa eta bonbardeo ikaragarria. Otaño Elosun gelditu da. Hegazkin batek Antzuolan lur hartu du.

Hilak 24. Goizetik igo naiz Pako eta Irizarrekin. Ondo ikusten da. Ordubatak jo arte ez da tirorik entzuten. Ordubietan, Intxortaren kontrako eraso atze aldetik eta baita aurretik ere, Bergaratik. Ordubiak eta erdietan bandera jarri da Intxortako lehen gotorlekuan, Prietok esatera Napoleonen soldaduentzat ere harrezina zena!

Mendietan gora, soldadu espainolak ikusten ditugu. Bihotza erdiratuta, bazkariari utzi eta katalajeak hartuta, primeran ikusten dugu Espainiako bandera. Viva España!

Apaiz *voyeurra* ez da edonor. Orriz orri, gertaeren jarraipen zehatza egiten du, atzerriko egunkarien hitzak jasotzen ditu, herriko jendeari gertatutakoa kontatzen du, bere ahotsa gorde gabe. Iritzi emaile da, sutu egiten da, kezkatu. Fotograma txikiz osatutako film perbertsoa da Jose Izurategirena.

Ez dugu orain arte esan: gerraren gainean ezarritako isiltasuna zarta lezakeen material baliotsua dugu esku artean, aberatsa beste herri askorenaren aldean. Dokumental bat; ez dakigu, baina inolaz ere galtzea merezi ez duen altxorra bai.

Bibliografia:

AZPIAZU, Iñaki: *7 meses y 7 días en la España de Franco*, Ed. Gudari, 1964.

ARTECHE, Jose: *El abrazo de los muertos*, Itxaropena, Zarautz, 1970.

ARANBARRI, Simon: *Anai arteko borroka Azkoitian*, Egile-editore, Azkoitia, 1989.

ISASMENDI, Iñaki: *Nire denboraldiko ibilerak*, Azkoitiko udala, Azkoitia, 2000.

ARGIRIK EZ GAU LUZEAN

IRABAZLEEK ezarritako neurriak hizkuntzaren arlo guztietara heldu dira. Umiliazioari debekua eta zigorra erantsi zaizkio; Gernikan, euskarazko hitzak dituzten harriak kenarazi ditu alkateak hilerritik; gobernu zibiletan euskara aldizkarietan galarazten duten aginduak idazten dira; Zarautzen Patxi Unzurrunzaga editoreak Errepublika garaiko ikastoletarako argitaraturako *Sabin Euskalduna* gillotinatik pasatzera behartu dute guardia zibilek; eskoletan maisu-maistrek eraztuna darabilte euskaraz egiten duten umeak zigortzeko...

Gipuzkoa erdiko mendialdea toki hozpela da elizako agintarientzat, zigorherri egokia gerra aurrean euskalgintzan ibili direnak nola-hala errenditzeko. Lauzirika gotzain frankistak bidalita heldu zen Matxinbentara Koldobika Jauregi *Jaurtarkol*. Hiruzpalau urte egin zituen han, harik eta agindu berri batek Urrestillara eraman zuen arte. 1958ra arte egon zen bertan.

Aitzolek ez zeukan Jaurtarkol saltzeko. 1929an argitara eman zuen *Biozkadak* liburua hartu zuen Ariztimuñok aitzaki, besteak beste Lizardi, Lauaxeta eta Orixe poeta gisa ezagun egingo dituzten *Oleri Egunak* antolatzeko. Bedoñakoa berak irabazi zuen, 1935ean. Gainerakoek ere, estimatzen zuten. Ez zen edozein.

Matxinbentan eta Urrestillan egin zuen egonaldi luzean, idazleak ez zuen lehengo indarririk erakusterik izan, ordea. Non argitaratu ez, Jaurtarkolek ez zuen 1952ra arte olerkirik kaleratuko, eta argitaratu zuena, Ameriketan. Hitz lauz ere, oso gutxi. Artikuluren bat eta *Ipuiak*, 1924an *Argia*-n plazaratutakoekin bilduma egin eta ipuin bat edo beste aldatuta, 1953an *Kuliska Sorta*-n berrargitaratzea lortu zuena.

Zarauzko moja karmeldarretara joan zen urtean, 1958an kaleratu zioten herritar zuen Xenpelar bertsolariaz egindako lana, haren bertso bilduma bat. Esan gabe doa, Urrestillan zegoela prestatua.

Azkoitian, foralistak Euskalerriko Adiskideen Elkarte bultzatu nahian dabil-tza. Julio Urkijok, hautagai tradizionalistak, kanpaina egiten hemen dabilela aprobetxatuta, liburu tontorrek erosi zituen inguruotako baserrietan. Bilboko alkate eta Francoren ministro eta diplomatiko izan zen Jose Maria Areilza izan zuen Urkijok lagun. Nolabaiteko zirrikitua topatu nahian, agintaritza eroso sentitzeko moduko formuletara jo zen. Gipuzkoako gobernadore zibila gonbidatu zuten lehen batzarretara. Susmo txikienik egon ez zedin, estatutu berriak ere idatzi ziren:

Nuestro amor a España se complementa y perfecciona con un profundo cariño y respeto al País vascongado y lo de estrechar más los lazos de unión de las tres provincias, tal como figura en los Estatutos de 1765 como objetivo social, puede servirnos de motivación en la hora presente.

Azkenik, eta ez arazorik gabe, 1943ko ekainean egin ahal izan zen aurreneko saio akademikoa Azkoitiko San Juan bainuetxeko Peñaflorida aretoan. Asko izan ziren Elkarteak urte hauetan aurrera eramán ahal izan zituen ekinak: jauregiak zaharberritu ziren, historia ikerketak bultzatu, hitzaldiak eta omenaldiak antolatu (1947an Azkoitian bertan omendu zuten prentsa abertzaleak *Herr Urkijo* deitzen zuen Julio Urkijo). Ezer ere ez, baina, euskara eta euskaraz idatzitako ezer bultzatzeko. Hizkuntza tatxa zen artean.

Erabateko eremu soildua Bidasoaz hegoaldekoa. Azkoitiko Inazio Maria Manzisidor jesuitak *Otoitz Bidea* eman zuen argitara Bilbon 1948an. Patxi Unzurrunzagak Zarauzko inprentan askotan gezurretako lizentziaz-eta argitaratzen zituen elizako liburuak eta dotrina bakarren batzuk... Tartean, datarik gabe, baita Muxikaren *Pernando Amezketarra* ere, Karmelo Etxegarairen hitzaurreaz, 1927koaren berrargitalpen pirata. Editoreak berak egina!

Sasi arteko ibili honetan, bada egun seinlatu bat, ordea. 1948ko irailaren 9an gaude, Euskal Jaia Zarautzen. Unzurrunzaga, Espainiako Prentsa eta Propaganda zuzendari orokorra, Pedro Rocamora oporrak pasatzen herrian dagoela-eta, adiskide duen Jose Artetxerekin egina du hitzordua, Rocamorarengana joan eta Gipuzkoako zentsoreen gainetik pasatuta zuzenean liburu batzuen argitalpen baimena eskatzeko. Bietako inork espero ez zuela, baimena eman zien

Rocamorak. Hala atera ziren hurrengo urteetan tantaka Itxaropena moldiztegitik Bera-Mendizabalen *Euskal-erdal iztegia* (1948), Salvatore Mitxelenaren *Arantzazu euskal poema* (1949) eta 36ko uztailan kalera ateratzeko gertu zegoen Orixeren *Euskaldunak* (1950), zazpi lurraldeetako armarri eta guzti!

1949an, datu bitxi bat ezerez honen erdian. Azpeitian, Nekazari Alkarteak euskal antzerki lanen lehiaketa antolatzea lortu zuen. Sari nagusia Donostiako Deklamazio eskolan Altzagaren ondorengo zuzendari izan zen Maria Dolores Agirre errezildarrari eman zitzaion, *Aukeraren maukera, azkenian okerra* monologoarengatik.

Aldizkarien garaia da. Euskaraz eta erdaraz, *Gernika* da sortzen aurrena. 1945ean atera zen lehen zenbakia, Donibane Lohizunen, Rafael Pikabea zuela zuzendari. Real Sociedad Vascongada de Amigos del País-ek (B-tik V-ra aldatu behar izan zen izena gobernuak onartzea lortuko bazen) 1948an kaleratu zuen *Egan*, barne buletin gisa. Euskaraz Salvatore Mitxelena, Emeterio Arrese, Federiko Krutwig ariko dira, eta baita Jose Artetxe ere... erdaraz. Aldizkarietan, hartuko duen erresistentzia indarragatik, *Euzko-Gogoa* izango da, ordea, erreferentzia. Guatemalan ateratzen zen aldizkariak Jokin Zaitegi zuen buru. Aurreneko sei hilabeetan, Orixe izan zuen lagun. Hortik atzerakoan, Andima Ibinagabeitia. Kasualitateak zer diren, hirurak Loiolatik paseak ziren. Eta hirurak, arrazoi diferenteak tarteko, Konpainia utzitakoak.

1950-1955 tartean atera zen Guatemalan, gero, Zaitegi Iparraldera datorrelarik Donibane Lohizunen argitaratzeko 1955etik 1959ra. *Euzko-Gogoa*-n parte hartu zuten idazleen artean, badira hona ekartzea merezi duten bailarako bi idazle ere, biak gerra aurretik aski trebatuak zirenak.

Martin Oiartzabal (1892-1966) azpeitiarra zen sortzez, urteak egin bazituen ere Azkoitian jesuita. Gerra aurrean hainbat itzulpen labur (*Euskal Esnalea* aldizkarian daude Heine eta Mickiewiezenak) eta bi liburu argitaratu zituen: *Zerurako bidea* 1922an, Amorebietan, eta *Yesukristo gure Yaun eta Yainkoaren bizitza ta Berri Ona*, Pasaian, 1935ean.

Argentinan zegoela, Orixeren ezagutza egin zuen. Hala hasi ziren biak elkarrekin euskal gramatika bat argitaratzen *Euzko-Gogoa*-n, “O. ta O.” ezizenez, Orixe eta Oiartzabal, alegia. Ia bost urteko elkarlana izan zen, 1952ko irailetik 1957ko martxora bitartekoa. Ondorengo urteetan Ibinagabeitiaren aldizkarian kolaboratzen segitu zuen. Lanen bat edo beste aipatzearen, hor dira “Olabide

euskaldun berri” (1958) eta “Aostako legenduna” (1959), Joseph Maistre Savoiako idazle katolikoaren itzulpena. Euskal Herrira itzulita, Argentinan hasitako gramatika lanekin jarraituko dute Orixek eta Oiartzabalek. 1963an *El lenguaje vasco* eta *Lati izkuntzaren joskera* kaleratu zituzten Donostian.

Gillermo Larrañaga jesuita azkoitiarra (1905-1978) 1956tik atzera hasi zen *Euzko-Gogoa*-n parte hartzen. “A.” eta “Azkoiti” izenak erabiliko ditu bere idatziak sinatzeko. Denen artean, eta itzulpena den arren, *Milla ta bat gauetako ipuiak* du, beharbada, lanik ederrena. Gainerakoek, ez dute interes handirik. Aipa ditzagun hala ere “Venezuela’ko matxinadak amazortzigarren gizaldian”, Arturo Campionen *Lengua y Raza*-ren itzulpena edota Antxieta misiolariak idatzitako artikulua. Era berean, argitara eman gabe gelditu ziren liburu didaktiko batzuen egile ere izan zen Larrañaga: *Ludi-jakintza*, *Kristal-jakintza*, *Mineral-jakintza*. Bakoitzaren kopia banak egon behar du Euskaltzaindiko artxiboetan.

Herrikoez gain, Ameriketako erbestean, 1950ean eta Indart-Zuburu senar-emazteei olerki luze bat idazten ari dela, bada Azkoitiko Santa Kruzko elizaz oroitu denik:

Eliza ixila
Kartusi’koa Burgos’en,
Orobat ixil
Azkoiti’n Santi-Kurutzen:
Han geratu niz
Otoitz beitarik egiten.
Ez nuen uste
Txoko oberik ba ziten.

Jesuitetan egona zen Orixe Loiolan, eta handik ezagutuko zuen, noski, Santa Kruzko komentua. Ez da garai hartaz duen oldozpen bakarra. Artxunberri aizkolariari eginiko olerkian, berriz, hor da Loiola:

Iraurgi-ibarrean ire etxetik bertan
Loiola ageri dek: umetandik antxe
Otoi egin nuan. Ai nire Loiola!
Eneko aitaren etxe Deuna

Aldizkarietako idazle baino debozio liburu idazle izan zen Inazio Maria Manzidor azkoitiar jesuita (1907-1961). Venezuelan urte asko egina, bai gerra aurretik eta bai gerra ondoren liburuak idazteari utzi ez zion idazle erlijiosoa izan zen Manzidor: *Deustuko atezain Garate Jesu-laguna* (1936), *Otoitz-Bidea* (1948), *Jesukristoren bizitza* (1953), *Gure patroia aundia* (1956), *Santu bizitzak, egunean egunekoa* (1958-1962)... San Mateoren Ebanjelioaren eta Frai Luis Leongoaren olerkien itzultzaile, era bereko lan asko utzi zuen argitaratu gabe.

Manzidor da, beragatik esan direnak irakurrita, Azkoiti-Azpeitietako gerra-osteko euskal idazlerik onena. Gaiz eta generoz oso mugatua den arren, estiloak egiten du aipagarri. Manuel Lekuonak, *Gure patroia aundia*-z ari delarik, “*Liburu giarra. Retorika gutxikoa. Gauza asko ta itz gutxi dituan*” dela azpimarratzen du. Estiloaren gihar berak bultzatu zuen Jose Artetxe “euskararen Baroja” deitzera. Koldo Mitxelenak, berriz, San Inazioaren bizitzaren aldean, nahiago du *Santu bizitzak, egunean egunekoa*-n sumatzen den esku landuagoa: “*Izkuntzaren aldetik, ezin obeki dagokion gaia aukeratu du egilleak. Gertakariak kontatzen mutilla izan da beti (eztago Gure Patroia aundia-ri begiratu besterik) eta bizi eta argiro kontatzen duena euskeraz erraz, laster, malkarrik gabeko batean esaten du*”.

Bibliografia:

ARTECHE, Jose: *Un vasco en la postguerra*, Gran Enciclopedia Vasca, Donostia, 1977.

MITXELENA, Koldo: *Gure artean*, Alberdania, Irun, 2001.

ORIXE: *Idazlan guztiak*, I Sorkuntzazkoak, Etor-Eusko Jaurlaritza, Bilbo, 1991.

Euzko-Gogoa.

INDIANOAREN SEMEA

ILDEFONSO GURRUTXAGA XX. mendearen seme izan zen. Ikerketa historikoa era modernoan landu zituen azpeitiarrari historiaren gatibu izatea suertatu zitzaion, bere aldiko une erabakigarrietan egin zuen hautu politikoa egin zuelako. Historiak bere hondar eta hauts artean luzaroan ezkutatu duen figura izan da. Han eta hemen ageri da, garaikide diren askok aipatzen dute, oso ezaguna izandakoa da baina, gaur egun, haren arrastoari nekez jarrai dakioke. Esku ilun batek frogak ezabatu balitu bezala...

Euskal abertzaletasun jeltzaleak oro har zabar eta zeken jokatu du Lauaxetaren “*dana emon biar yako...*” hura beretzat hartu zuen belaunaldi oso batekin. Gogaide eta guraso politiko dituen asko eta asko ahaztu egin ditu. Horra Ildefonso Gurrutxaga, eta beste hainbeste eta hainbeste gurrutxaga.

Aurreko mendearen hasieran goi mailako ikasketak burutu zituen Deustuko unibertsitatean, Valladoliden eta Madrilen. Zuzenbidetzan doktore egin zen. Elizaren laguntasunik gabe maila horietara iristeko gazte argia ez ezik, diru aldetik ere ondo ibili beharra egongo zen, noski. Aita Jose Manuel, Argentinan merkatari lanetan urteak igaro ondoren, altxorra eginda itzuli zen Azpeitira.

Baina Gurrutxagaren gainean ari garela, dakiguna atalka, han eta hemen bildutako adabakiz josita bezala datorkigu. Hona ekarritakoak Maria Luisa San Miguelek egindako ikerlanari zor bazaizkio ere, nabaria da, eta tamaina bateraino etsigarria ere bai, beti usteka eta omenka jardun beharra, froga idatzi nahiakoaren faltaz, bailarako intelektual interesgarrietako bati buruz informazioa emateko.

Sarritan aipatu dira Ildefonso Gurrutxagaren artxiboak gertuko eta garaikide izan zituen askoren aldetik, ondare oparo moduan goratuz gainera. Baina arras-

to guztiak galdu egiten dira Loiolako eta josulagundiko baso itzaltsura inguratu orduko. Dirudenez, balizko altxor horren giltza Loiolako Ordenaren sotoetan egon liteke hautsak eta aitormen eza biltzen. Susmo sendo bat da.

Herrigintzan gazterik murgildu zen Ildefonso, 1926an, Primo de Riveraren diktadurapean zinegotzi jarri zuten, eta 1930ean, hogeita zortzi urte zituela EAJn afiliatu zen. Euskal Herriaren historia ezagutzea eta ezagutaraztea, euskal kultura suspertzea eta abertzaletasuna izan zituen gidari eta kezka eragile.

Gehiena, *Yakintza-n*, *RIEV-en*, *Euskal Erriaren Alde-n* idatzi zuen... Haren lanek badakarte historiari begiratzeko bestelako modu bat, modernoagoa eta osoagoa. Zientzilari zolia da, iturrietan oinarri hartu, gertaeren kausak eta garapena aztertu ondoren ondorioetara iristeko ausardia duena. Horren erakusgarri *La hidalguía y los Fueros de Guipúzcoa* edo *Las machinadas del año 1776 en Azpeitia (sus causas y desarrollo)* dira. Gertaeren kausa sozialetan sakontzen aitzindari da gurean, jauntxo ilustratuen zein elizaren jokabideak zorrotz eta hotz azaltzen ditu. Hirugarren lan bat besterik ez aipatzearren, ikustekoa da “Azkoitiko Zalduntxoak” ikertzeko aitzakia hartuta, XVIII. eta XIX. mendeetako euskal gizartearen zein argazki bizi ematen duen. Kamutsik gabeko begiak tinkatzen dizkio aztertu nahi duen aldiari. Lehen eta bigarren lerroko protagonistak, pertsonaia ortodoxoak (San Inazio edo Harispe marexala) eta heterodoxoak (Sabino Arana, Saint-Cyran edo Olabarria liberala) zuhur neurtzen ditu. Berariaz zazpi euskal herriei jarri zien arreta, nazio ikuspegi argiaz.

Ikertzailea, hala ere, ez dago bizitzea egokitu zaion historiaren gurpiletik libre. Militar matxinatuak Espainiako Errepublikaren aurka altxatu zirenean, 1936ko uztailean Gurrutxaga Azpeitiko gerra komisaritzako buru jarri zen. Gerrak iraun zuen bitartean kargu nabarmenak bete zituen Jaurjaritzaren aginduetara aurrena (Euzkadiko fiskal nagusi eta Arte Eder, Liburutegi eta Museotako Zuzendari Nagusi izan zen), eta Errepublikaren zerbitzura magistratu lanak egin zituen gero.

Gurrutxagak ez zuen asko idatzi euskaraz, egia da. Ez arrotza zitzaiolako edo epel zegokiolako ama hizkuntzari. 1927an, Euskaltzaleak elkarte sortu eta lasterrera sartuko da bertan. Hurrena, berriz, 1945ean, Ixaka Lopez Mendizabalek erakunde hori erbestean piztu zuenean Gurrutxaga lehendakari ere izan zuen. Barru-barrutik ari zen 1956an “*Euskaldunak bi gauza goigoienekoak ditugu: abenda*

ta izkuntza. Auek galdu eskero zertan burrukan ibilli gañuntzeko gauzak gorde naian!" zioenean. Mundu akademikoak, kazetaritza espezialduan bezala uni-bertsitatean, oso bazterreko eginkizuna eskaini izan dio euskarari. Lehen eta orain.

Hizkuntza kanonikoak gurean gaztelania, frantsesa eta ingelesa dira funtsean. Joera hori XX. mendeko lehen bi herenetan ia erabatekoa izan zen, eta Ildefonsok ere gisa bertsuari jokatu zuen. Zorioneko artxibo alde-randuak arrazoa kentzera ez datozen bitartean, esan daiteke euskaraz eman zuena prentsan atera zuela, batez ere erbestealdiko *Eusko Deya*-n eta *Tierra Vasca*-n.

ORAINGO GAZTEAK

Ain gazte ez geranen abertzaleentzat, oraingo abertzaleentzat, oraingo abertzale gazteek nola pentsatzen duten jakitea, polita ezezik jakin bearrekoa ta onuragarri zaigu. Emen, Buenos Aires'en abertzale eta ez abertzale gaztediarentzat, Euzko ixtori ikastaro labur bat antolatu degu ta au dala bide aiengana urreratu bear izan det, izke-ta asko eukiz beokin. Txukuna da gazte oien galderak eta pentsatzeko erak aztertzea; auetako batzuek ezjakiñetik sortutakoak dira, baña beste era batzuk aberkoi oldozme-na aldatzen dijoalako dira. Gazte batek esaten ziran, guk, zarrak garrantzi aundigia ematen giñola 1936'ko gudateari, galdua izan zan ezkeroz. Beste batek zion Españako Korteak, eskubiderik ez bazuten 1939'ko legea emateko Euzko-Fueroak ezeztatuz, orain ez zeukatela ere eskubiderik lege ura urratzeko; ta buru nasteri aundia zekarrela guk Madrid'eri eskatzen giñonean Fueroak indarberritu zetzala; orregatik onena lege ura zanik ez gogoratzea zala, xaxi-legekeritan ez sartzeko. Gazte geienak, Estatuto'arentzako zaletasun gutxikin nabaitzen ditut.

Denena ta toki guztietako gaitza izan ohi da, norbera toki baten lanean ekin arte, bertan ezer gutxi egin dala ustea. Gazteori ere olako zerbait getatzen zaie, aurreko gize-aldikoak egin dituzten lanak aztertzean. Egia esateko, gure gizealdia, 1936'koa ez da izan koldarra, olloak baño zurtasun gutxiago izan degu. Gure ondorengoak bide erre-zagoak izan ditzatela aberkoi eginkizunetan. Ta ardura eman dezaiogun gazteak pen-tsatzen duten erari.

(Tierra Vasca, 28.zenbakia, 1958ko urriaren 15ekoa, Buenos Aires)

Artu degu "Euzko-Gogoak" argitaratu duen azkeneko zenbakia, euskaltzaleentzat ain begikoa dan aldizkaria. Oraingo au Olabide Aitaren gorazarrez egiña da. Ondo merezia du Olabide zanak oroimen au, euskeraren alde egin zitun lanagatik, eta Euzko-Aberria maitatu zualako gutxik bezela. Bere biziaren onena eman zun ezertxo ere espero gabe beretzat, ta orregatik, azkeneko guda ondoren, erbestetu zan ta Toulousen il zan. Goralgarriago da josulaguna izan zalako, eta auen artean arri txuri bat izan zalako. Euskeldunak ez dakigu zer esan Iñaki Doneak irasi zun Lagundi one-taz, ain euskeldun gargutxikoa XVII eta XVIIIgarren gizaldietan oso poliki ekin zioten josulagunak Euskelerriren alde, lenengo Moret eta Henao ixorigilleakin, eta gero Larramendi aundia, Mendiburu eta Kardaberaz euskelzaleakin. Geroztik, juan dan gizaldian eta oraingoan, ezer gutxi egin dute. Beti España'ko gauzak goratzen, eta Euskelerrikoak baztartzen. Orregatik maite gendun Olabide Aita, ain gurea. Eta orain: josulagunak noiz ekin bear diote lanean benetan euskel gaietan, gure Aberriari dioten zor aundia ordaintzeko? Edo, uste dute Euskelerria dala zorra diotenak?

(Tierra Vasca, 34.zenbakia, 1959ko apirilaren 15ekoa; Buenos Aires)

Eginkizun askori lotu zitzaion, baina historiaren zurrunbiloak harrapatuta langintza horietako gehienak ez zaizkigu heldu, amaitu ez zituelako edo galdu egin direlako. Agirre lehendakariak eta Alderdi Jeltzaleak jarri zioten egitekoa franko. Kultura eta historia kontuetan Agirrek oso gertuko aholkulari izan zuen, eta hala erakusten du eduki zuten gutun truke oparoak.

Soldadu alemanek Frantzia hartu zutenean ihes egin behar izan zuen Donibane Lohizunetik Buenos Airesa, Marseillatik zehar. Ildefonso *Alsina* bapore ospetsuko egoiliar izan zen. Hamabost eguneko txangoa behar zuena, nazio-arteke zertzelada diplomatikoak eta politikoak tarteko, ia-ia hamabost hilabete-
ra joan zen. Casablancan eta Dakar-en eduki zituzten jarraitzeko baimenik gabe, eta horrek atzeratu zuen martxa. Asko ez ziren sekula iritsi. Senperrak pasatu zituztela ere badakigu: gosea, heriotzak, Casablancako kontzentrazio eremuetan egonaldia... Bidaide izan zituen *itsasaldi* hartan, besteak beste, Nestor Basterretxea, Telesforo Monzon eta Espainiako Errepublikako lehendakari Niceto Alcalá Zamora.

Aitak bezala Argentina jo zuen Ildefonsok. Honen ibilbidea, baina, ez da indianoarena izango, iheslariarena baizik. Erronkarik gabeko bizimodua izan zuen. *Eusko Deya*-ren erredakzioan behar egin zuen eta aldi batez Argentinako talde nazien jarraipena egiten ere ibili zen *ixpia* edo informante lanetan.

Agirrerren deiari adi, 1959an itzuli zen Euskal Herrira. Bien artean Euskal Herriko historia idazteko gogoia zuen lehendakariak. Ahaleginak ez zuen ageriko fruiturik eman, eta Martin Ugaldek heldu zion urte batzuk geroago Agirrerren egitasmoari.

Izaera irekia eta zabala aitortzen diote ezagutu zutenek, alderdikeria eta ortodoxietatik urrun ibili zen pertsona zela. Alderdiak parekoa ez bazuen ere, erbesteko Saski-Naski kultur elkarteko lehendakari izan zen, tartean EAE-ANVko, Izquierda Republicana-ko eta Alderdi Komunista inguruko hainbat kide lagun zituela. Beti zegoen iritzi trukerako gertu nahiz zaharrekin nahiz gaztee-kin, horren lekuko dira 1960 hamarkadan ETAko militanteekin izandako hartu-emanak.

Sabindar Batza-ko lehendakari zela, 1965ean Sabino Aranaren lan guztiak argitaratu ziren. Hitzaurre den-denetan Gurrutxagaren eskua dago.

Noizbait jakingo da gaur dakiguna baino gehiago Ildefonso Gurrutxagaren figurari buruz. Orduan neurtu ahal izango dira doitasunez azpeitiar ikerlariak egindakoak, ezjakintasunaren, ilunkeriaren eta zoritxarraren ganduak uxatuta-koan.

Bibliografia:

ALTUNA, Larraitz: "441 egun... Sekulako bidaia Frantziatik Argentinara", *Errefuxiatuak (UNHCR-ACNUR)* 122. zenbakia, 2004.

ALCALA ZAMORA, Niceto: *441 dias... Un viaje azaroso desde Francia a la Argentina*, Editorial Sopena Argentina, Buenos Aires, 1942.

GURRUTXAGA, Ildefonso: *La Hidalguía y los Fueros de Guipúzcoa*, Imprenta de R. Leizaola, Donostia, 1931.

GURRUTXAGA, Ildefonso: *Aprendamos nuestra historia* (Maria Luisa San Miguelen edizioa eta hitzaurrea), Saturrarán Argitaletxea, Donostia, 2002.

GURRUTXAGA, Ildefonso: *Reflexiones sobre mi país* (Maria Luisa San Miguelen edizioa eta hitzaurrea), Saturrarán Argitaletxea, Donostia, 2002.

HIZTEGI BAT, ISTORIO POLIT ETA GUZTI

KONTUA, polita da, eta erositako prezioan saldu beharrekoa. Badoa 1929 urrun hartan, Kolonbiako Andeetan barrena, jesuita bat Nariñoko departamentu buru den Pasto-tik “indioen herri batera”. Bideak nekaturik, hiru mila metro-tik gorako ekaitz ikaragarri batek beharturik, arbola baten azpian hartu du aterpe.

Bat-batean, enbor erori handi baten pean dagoen paper mutur bati eman dio begia. Harrak helduta, lur gainetik jaso eta irakurtzen hasi orduko, harri eta zur gelditu da. *Argia*, dio. Bai, hala da, Donostian argitaratzen zen *Argia* aldizkariaren ale baten azaleko orria zen, han, auskalo nola, milaka kilometro eginda Kolonbiako Andeetan jesuita euskaldunak esku artean zuena.

Gerora jakin zuen Plazido Mujika jesuitak Santa Kruz apaiza ibili izan ohi zela, urte batzuk lehenago, bide hartan bertan. Urolaldeko hainbat baserri zulo-tan aterpea eman omen zitzaion gerrillaria, liberalen kontrako sasi lanak utzi eta jesuita sartu zelarik, Ameriketara bidali zuten, ordurako 82 urte zeuzkala. Jamaikan ibili zen misiolari aurrena, Kolonbian gero. Larunbatero pasatzen omen zen handik bere zaldiaren gainean, San Ignacio herrixkara bidean, igandeetan itzultzeko, eta dirudienez, haietako joan-etorri batean utziko zuen, seguruenik, aldizkaria han. Istorioa biribiltzeko, egiaztatu ahal izan zuen Mujikak beste datu bat: Santa Kruz *Argia*-ren harpideduna zen, eta dirudienez, bi ale jasotzen omen zituen, bata Bilbotik eta Donostiatik bestea. Hala sortu omen zitzaion Plazido Mujikari hiztegia egiteko deia. Berak hala dio behintzat.

Gerokoa, askoz jakinagoa da. 1937an, etxera itzuli zelarik, lanean hastekotan zenean, zapuzaldi handia hartu zuen Mujikak. Azkue bera ari omen zen gaztelera-euskara hiztegia egiten. Eta hala etsi zuen. Tartean-tartean, berak

zituen hitz zerrendak ere bidali omen zizkion lekeitiarrari, egiten ari zen lan eskerga osa zezan. Dirudienez, lanak ez zuen aurrera egiten, ordea, eta Mujikak fitxak betetzen segitu zuen.

Azkue hil zelarik, eta honen hiztegi amaitugabea zuen Nazario Oleagak bulzatuta, indarrak bildu eta aurrera egitea erabaki zuen. Lehen idazketa egina zuenean, harpidetzak bilatzeari ekin zion. Berrehun eta berrogeita hamar peze-ta gero kalean laurhunean saltzekoa zenagatik. Askok hurbildu zitzaizkion. Azkenean, 1965ean atera zen moldiztegietatik Azkueren hiztegiaren ifrentzu zen “Diccionario castellano-vasco” hura.

Hiztegia, ikaragarria da egun ere. Ia bi mila orrialdeko lan erraldoia. Hau burutzeko, Mujikak berak aitortzen du, hemendik eta handik tira egin zuen, ordurarteko hiztegiak aztarkatu zituen (Lhanderena, Tournier-Lafitterena, Bera-Mendizabalena, Arbelaitzena, Azkuerena...), eliza liburuak erabili zituen (Kempisaren itzulpenak, Orixeren lanak), aldizkarietan agertutako materialaz baliatu zen, eta azkenik, bai jendeak bidalitako hitz zerrendak (Juan Iruretagoienak, Martin Oiartzabalek, Arantzazuko fraileek, Juan San Martinek...) eta bai Loiolan bertan jesuitek utzitakoak (Jesus Altunak, Juan Goikoetxeak, Salvador Barandiaranek...).

Mujikaren hiztegia ideologikoa da, inondik ere. Bere garaian, Azkueren hiztegia zahar samar gelditu zela iritzita, nolabaiteko eremua markatzea izan zen modernitatera heldu nahian zebilen gizarte hartan. Ez ordurako hainbat tokitan gero eta sarriago agertzen hasia zen batuko H hura bazter geratzen delako, bai-zik eta hiztegi-gileak berak nahita egiten diolako ihes edozein egokitze asmori. Esaten duena esan nahi du, eta kito. *Astagaiz*, Duvoisin kapitainari jaso seguru-erik, “menstruación” da, *urdanga-etxe* “burdel”, *bere burua lizundu* “masturbarse”, *erri-nasle* “rebelde”, *ezigaitz* “insumiso”, *alderdikeri* “apostasía”, *loikerian ari* “fornicar”... -keria atzizkiak, saldu egiten du hiztegi-gilea. Eta hala ere, zein hiztegi on, erabilgarri, aberats den Mujikarena!

Honetan, bada begiratu bat ematea merezi duen hiztegi txiki bat, simaurrez eta ontzurrez betea, zatarretik duena ederretik duena, Azkoiti-Azpeitietan ahaz-bidean ditugun zenbait hitz jasotzen dituena. Hau ere sasoi hartan Loiolako jesuiten etxean egin zen. *Loyola inguruan osatutako iztegitxo*a du izena Juan Goikoetxea jesuitak 1967ko *Euskera* aldizkari batean eman zuen hura. Bertan, berreskuratzea merezi duten hitz eta esamoldeen ondoan (*Ebro ta Parix nastu*;

prantxesez ari; sorgin orratz...), bazihoan mundu integrista baten hamaika hitz sarrera ageri dira. Aketza “ninfómanaren” ordaintzat ematen da, aje-umeak “hijo tarado” gisa, garbi ez balego ere, honako oharrarekin: “Paseando cierto día por un pueblo industrial guipuzcoano en compañía de un médico vizcaíno euskeldun, éste, observando el número bastante crecido de niños de aspecto raquitico, comentó: —Auek dira gure “aje-umeak”, ingelesak dioten “los hijos del sábado”, alkoolez ondo beteta sortuak”. Idiotak, alegia. Gaitza gurasoen portaera inmoralagatik bizi guztian gaixotasuna aldean eraman behar duten eriak.

Hau ere izan da Loiola, hitzen eta hiztegien ola handi bat. Larramendik munda zoratu zuten hitz berriak asmatuz Loiolatik. Loiolan bertan, ehunka urte geroago, hitzen kontrola zein inportantea izan den gogorarazteko, hor dira Mujika eta Goikoetxea. Eta hori lana da.

Lan asko. Egunean 12 ordu ta gehiago sartu izan ditut. Ta guretzat ez da batere erraza. Meza, ta brebiarioa irakurri, eguneroko otoitz guztiak. Gero askotan klaseak. Baina nik musika jarri ta egiten dut. Melomanoa naiz. Irratia jartzen dut, hola, isilik, eta lan egin. Nahi dezun arte.

Horrela hartu zituen *Oh! Euzkadi* aldizkarikoak 1981eko udazkenean. Ez zen elkarriketa zale, jazartua sentitzen zen, jendea omen zebilkion kontu eske garaile atera zen H hura zela eta ez zela... Garai hartan, 1965ean kaleratu zuen hiztegi eder hari buelta ematen ari zitzaion, euskara-gaztelera atera nahi zuen. Ezagutu dugu hori ere.

Loiolako bakardadean, Plazido Mujika Santa Kruz apaizaz oroitzen zen. Badugu kontatzen hasi eta amaitu ez dugun istorio bat. Laurogeitaka urterekin, Sarako Etxeberri bezalaxe, artean zaldi gainean ibiltzen zen Santa Cruz Kolonbiako mendietan misioetan. Ba omen zuen turuta zahar bat, herrira heltzen zenean indigenei deitzeko. Baina korneta horrek ez zuen ondo egon behar: “*con una corneta vieja que tengo, que está rajada y suena mal llamo a los indios que están en las chozas*”. Gutuna heldu da, ez dakigu nola Espainiako erregearen eskura, eta Alfonso XIII.ak galde: “Oraindik bizi al da hau?”. Esan diote misiolari dabilela Ameriketara, halako bizimodua daramala, eta erregeak: “Beno, ikus dezan ez dudala ezer bere kontra, gure aitaren kontra borrokatu bazen ere, korneta eder bat emango diot opari”. Tronpeta zilarrezkoa zen. Eta Plazido Mujika

itsasoz bestalde eraman zuena. Heldu zenerako, Santa Cruz hilda zegoen, ordea. Beranduegi.

Plazido Mujika Loiolan bertan hil zen. Gelan, 190 zapata kaja utzi zituen, han eta hemen ehizatutako hitzen 190 kaiola.

Bibliografia:

GOIKOETXEA, Juan: "Loiola inguruan osatutako iztegitxo", *Euskera* 1967.

MUJIKÁ, Plazido: "Un diccionario vasco" (hiztegiari gehigarria), Mensajero, Loiola, 1964.

MUXIKA, Plazido: "Berriz Santa Kruz apaiza!", *Egan* 3-4. zenbakia, 1956.

"Solasean: Plazido Mujika", *Oh! Euzkadi* 12. zenbakia, 1981 azaroa.

ZAURI BATEN HEGIAN

1971-KO irailaren 23an aurkitu zuten Donostiako bere idazmahaian, luma esku ondoan etzanda, gorpu Jose Artetxe. Hil ondoko prentsa agerkari askok Gipuzkoako idazle goren moduan agurtu zuten batean eta bestean. Hogei liburutik gora idatziak zituen eta milaka artikulu prentsan.

Haurtzaro laburra izan zuen Jose Artetxek (1906-1971) sasoi hartako ume gehienen antzera. Denbora luze edo labur egiten duena ez baita orduen eta egunen segida, bizi izandakoaren ezaugarriak baizik. Ikasteko dohainak eta gogoa izan arren, hamahiru urterekin lanean hasi zen, eta hortik atzera ikasi zuena bere ekinaren eta jakin grinaren eskolari zor izan zion. Hogeita bat urterekin ekin zion idazteari prentsan, erdaraz erabat. Baina *Zeruko Argia*-n astero zeukan zutabea.

Literatur zaletasuna bezala, oso gazterik erne zitzaion gizarte arazoei erantzuteko kezka. Etxetik karlismoaren eta integrismoaren sua zekarrenak aurki EAJ alderdira jo zuen. Idatzi, hitzaldi eta jarreretan abertzaletasunaren alde tinko egin zuen, kristautasunak, euskarak eta euskal kulturak, askatasunak, demokraziak eta gizarte arazoei galdatzen zioten neurriko erantzuna Alderdi Jeltzaleak eskainiko ziolakoan. Politikaren uretan leporaino sartuta, aurrera egin zuen Gipuzku Buru Batzako idazkari izateraino.

Irujo eta Lasarte diputatu jeltzaleek Errepublikako gobernuari azkar aldeztu bazitzaizkien ere, EAJ barruan izan ziren berandutu ziren erabakiak 1936ko uztail larri hartako erditik atzera. Gipuzkoan, Jose Artetxe eta Abelino Barriola burukide idazleak inondik ere ez zeuden Madrilgo gobernuarekin bat egiteko, eta militar altxatuekiko jarrera beragoa erakutsi zuten. Ez ziren bakarrak izan, jeltzaleen artean joera indartsua izatera iritsi zen-eta.

Gerrak eten zuen, beraz, Artetxeren barrua ere. Ipar Euskal Herrira ihes egin edo ez ibili ondoren, Azpeitian bertan herriko familia ezagun batek egunetan

ezkutuan eduki ondoren, bizirik utziko bazuten, frontera, *aurrera*, gerra egitera joatea beste aukerarik ez zioten eman. Eta joan egin zen. Errekete. Artetxeren erdi batek bestea azpiratuko zuen seguruenera, eta herrikide askok ez zioten hori barkatu.

Gerrako ibileren berri, *El abrazo de los muertos* egunerokoan eman zuen argitara 1970ean, hil aurreko urtean. Lan horixe izan zuen begiko kuttuna, hogeitaka urtez gordean eraman zuena barruak jaten. Sarritan esan izan zuen tiro bakarra bota gabe egin zuela gerra.

Bere erako zubi lana burutu nahi izango zuen ibai ilun handi batek zubiak oro arrastan eramanak zituenean, zubi lana erdara eta euskararen artean, iraganaren eta orainaren arteko zubigintza egin nahi izango zuen, zubiak jaso frankismoaren basamortuaren erdian... Gorago ikusi denez, Hegoaldeko gerra osteko lehen euskal liburuak Artetxek eta Patxi Unzurrunzagak Rocamorarekiko egingako arartekotzari zor zaizkio. Batzuek gisako lanak heroikotasunaren mugaraino igo zituzten bezala, beste batzuek kolaboratzailearen joko konplizetzat gaitzetsi zituzten. Figura eztabaidatua, polemika iturri izan ziren bai bere balizko erdua eta bai bere iritziak.

Kazetaritzaren maisutzat ere hartua izan da, aitzindari izan zelako periodismo modernoaren arauak aldarrikatzen eta ezartzen, *lead estilo* delakoa hemen hedatuz. Albistearen muina sarrerako lerroetan eman behar da labur, eta ondoren kontatu gorabehera nagusiak, beti ere, kontakizunaren arintasunaren eta notiziaren ulergarritasunaren mesedetan. Erraz irakurtzeko moduan idatzi behar zela uste zuen eta hori egiten saiatu zen.

Azken urteetan eztabaidaren muinean usu ageriko da San Inazioaren, Elkanoren, Legazpiren, Lope Agirreren eta Saint-Cyranen biografien egilea. Horrek esan nahi duenarekin. Zikindu egin zen euskal munduak zerabiltzan zurrunbilo mamitsuenetan, eta arrastoa utzi zuen garaiko kulturaren. Artikuluak, liburuen hitzaurreak, hitzaldiak... izan zuen non azaldu mundu ikuspegia. Euskara eta euskararen batasuna, euskal kultura belaunaldi gazteak eta berauen jokamoldeak, desegiteko arriskuan irudikatzen duen unibertso tinko bat, horiek ditu Artetxek gai hartu-hartuak.

Euskal kulturak iraultza giroa bizi zuen XX. mendeko 60ko hamarkada honddarrean eta 70eko hasieran: euskara batua, Arantzazu, artista plastikoen mugimendua, ETaren sorrera, kantagintza berria... Ematen zuen lehendik zekartzan

hezur zaharrek ezingo ziotela eutsi zetorren mundu berriari. Oinarri berriak ezarri behar ziren, diskurtsoa aldatu eta guztia hizkera modu berriz adierazi behar zen, nazio moderno bati dagokion hizkuntza estandarrean, euskara batuan.

Aldaketen gurditik tiraka ari zirenek bidea oztopatzen zuten enbor zaharretarik jo zuten Artetxe. Ondorengo hau zeresana eman zuen hark idatzitako artikuluetako bat da, hainbat astetan, aurretik eta ondoren, idatzitakoen beroan ulertzea komeni dena. Euskararen transmisioa, batasuna eta balore berriek, aldi bateko garbitasuna eta jatortasuna galtzea zekartelako kezkaekin idatzia. *Zeruko Argia*-k 1970ko otsailean atera zuen.

ARRIXKU BAT

Ez gaitezela engaiñatu. Gauza bat euskeraz egiña baldin badago, askori iruditzen zaio ondo dagola oso-osoan, dan-danean.

Eta ez da horrela, ezta gutxiagorik ere. Ori izan litekean engaiñurik aundiena liteke, batez ere gaur egunean.

Ez ditzagula geure buruak engaiñatu. Gure izkuntza garbia zala, izan zitekean garbiena eta orrelako kontuak joan ziran pikotara: Orain ez da orrelakorik gertatzen.

Euskaldunok ez daukagu neurririk. Neurririk ez degulako neurririk gabeko erria osatzen degu.

Dana edo batere ez. Orixe da gure ezaupiderik nabarmenena. Arazo guztietan erabiltzen deguna gaiñera. Gai guztietan. Orra egia, miña bada ere.

Kontuz, baiñan kontuz gero! Ez dezagula gaurko gure jokaerarekin euskerarenganako gorrotorik sortu erazi. Arrixku gogorrean gaude. Au esan bearra zegoan, eta ala bear eta nik esan.

Euskeraz zenbait idazki gaur irakurtzeak, bildurra sortu arazten dit. Euskerarenganako nazka ez ote duten sortu araziko...

Badakit onekin askoren nere kontrako aserrea bizitzen dedala. Ez zait batere inporta.

Ez dabilkit eskuan luma iñor zuritzeko, iñor gezurrez apaingoratzeko. Gauzak azaldu bear diranean, azaldu bearra dago.

Obligazio ori nire gain gelditzen bada, nik beteko det.

Nire itzaldietan askotan esana naiz gurasoeri. Gurasoek izan dezaketen engaiñurik aundiena, beren ideak semeari ezarriko dizkiotela pentsa al-izatea dala.

Garbiago esateko. Gurasoen ideak semeak ez dituztela beti segitzen, baizik oiturak bakarrik. Eta au ere ez aldi guztietan.

Ideatan aitak alde batetik eta semeak bestetik jotzen dutela askotan.

Auxe gertatzen ari da orain familietan. Danok ikusten deguna da. Ideatan gurasoak alde batetik eta semeak bestetik, eta zearo gaiñera.

Arritzeko kanbioak gaurkoak!

¿Oraingo euskaltzale guraso asko, seguru al-daude semeak beren bide berdiña segituko dutela biarko egunian?

Pentsatu al-izateko galdera jez al-da?

Jenerazio bakoitza bere bidetik dijoa. Bere bide bereziak urratzen ditu. Ez aurrekoak markatzen edo markatu nai dioten kaminoa.

Iñork ukatuko ez didana. Gaurko jenerazioak, saill aunditan, ez dijoaz gurasoen bidetik.

¿Gaurko zenbait eskritore estremistaren semeak, gurasoen bidetik jarraitu nai izango al-dute? ¿Ez al-dira gurasoez lotsatuko? ¿Ez al-dira nazkatuko?

Artetxeren iritziek ez zituzten gaizkitu gazteen gogo-barruak soilik. Artikulu honen arrazoiek, eta handik bi astera atera zuen “Tentazioa” izenburukoak honela mintzarazi zioten Koldo Mitxelenari *Egan*-en “Pro domo” izenekoan.

Hizkuntza bat, gurea nahiz inorena, ez da gizarteko mintzabide eta adierazpide besterik. Ona da, beraz, elkarrekin mintzatzeko eta elkarri gogoetak adierazteko delarik, mintzatzeko eta adierazteko balio duelako; horrexegatik beragatik da ona aizkora zorrotza, ebakitzeko sortua delarik, eta aizkora kamutsa, berriz, txarra. Gehi dezagun ez dela berez hizkuntza kamutsik, horrelako hutsik ageri baldin badu, zorrotz zezaketen adina zorrotzu ez dutenena dela soil-soilik errua, behiala Axularrek zioenez.

Bitartekoa da hizkuntza, ez ontzia (...)

Ez dela egia diozu “gauza bat euskeraz egiña baldin badago..., ondo dagola oso-osoan, dan-danean”. Ez, arraioa! Nor da horrelakorik uste duena? Erakutsiezadazu, mesedez, horrelakoren bat, bere izena eta itxura hemendik aurrera gogoan ondo gorde ditzadan.

Bada, ordea, diozun beste zerbait: “Ez dezagula gaurko gure jokaerarekin euskera-renganako gorrotorik sortu erazi. Arrisku gogorrean gaude. Au esan bearra zegoan, eta ala bear eta nik esan”.

Ez dakit zure arrazoibideaz ongi jabetu naizen eta, hartu dudan bezala eta hartu dudan neurrian, hemen zabaltzera noa. (...)

Arrazoibidea honela ikusten dut: a) zenbait (gazte edo) ari dira gure artean inon sor daitezkeen barrabaskeriak idazten; b) zenbait horiek euskaraz idazten dituzte barrabaskeriak; c) munduaren azken-fina hurbil ez badago, izango dira gazteagoren batzuk oraingoan ondorengo; d) gazteago horiek, beharbada eta Jaunak nahi badu, hobeak izango dira, hots, ez gurasoak bezain aldrebeskerietara emanak; e) gazteago horiek euskaraz jakingo dute, gurasoenak irakurtzeko lain, behintzat. Ergo, f) gazteago horiek gorroto izango dituzte gurasoak (hori gaitz erdi litzateke) eta, bidenabar, gorroto izango dute gurasoek erabili duten hizkuntza.

(...) Gazte horiek euskaldun hutsak izango dira ala (ez edo!) beste hizkuntzaren bat, ingurukorik edo ez hain ingurukorik, dakitenak, bereaz gainera. Bestela, oraingoek ez bezala, pentsatuko dutela segur da, ez hain segur zer-nolakoa izango den "bestelakotasun" hori. Nolanahi den, hor nonbait pilatuak dauden bonbak airean barrena bidaltzen hasten ez badira, inolako dudarik gabe esan dezakegu besterik ere jakin beharko dutela, euskaraz gainera. (...)

Zer aurkituko dute, batekoak eta bestekoak irakurtzeko gaitasuna eta gogoia dutelarik? Garbiak oro erdaraz, inongo erdaraz, idatziak eta lizunak oro euskaraz? Gogoeta zuzenak besteren hizkuntzan beti eta okerkeriak, berriz, gurean? Are gehiago. Likits eta gordinkeria ugariago aurkituko dute, ehuneko horrenbestean, euskaraz edozein erdaraz baino? Erantzunik gabe utziko dut galdera: zuk dakizulako zein den, nik dakidalako eta mundu zabal osoak dakielako, begien bistan baitago. Ez dute, beraz, gure hizkuntza hutsa higuinduko, hizkuntza guztiak izango dituzte higuin eta, beste biderik ez dutelarik, gogozko mutu bihurtuko dira, hain galgarri den mintzatzeko gaitasuna erdeinuz baztertuaz.

Jose Artetxe hil berritan idatzi ziren dolu idazkiak eta iritzi artikulua zenbait bilduta liburu bat eman zuen argitara Donosti Aurrezki Kutxak 1972an, *Canto a Joxe* goibururekin. Azken agurra egin nahi izan zioten ezagutu zuten hainbat eta hainbat zahar eta gaztek: Nemesio Etxanizek, Jon Etxaidek, Iñaki Eizmendi Basarri-k, Jose Inazio Telletxea Idigorasek, Sabin Muniategik, Luis Haranburu-Altunak, Salvador Garmendiak, *Eguzkizar*-ek, Leopoldo Etxeberriak... Gogaide zituen asko, lagunak batzuk eta adiskidetutako etsai izandakoren bat edo beste ere bai.

Berriro, baina, izan zen despedidarako hitz gogorragoak eman zituen esku-rik. Gabriel Arestiren ahotsa zurikeriatan asko epeldu gabe ageri da, *Azken Harria* lan postumoan. Hala ere, nahiago izan dugu hona ekarri, Arestik *Harrizko herri hau* liburuko eskuizkribuan zegoen testu beraren aldaera, orduan argitarara eman ez eta Joan Mari Torrealdaik 1986an ezagutzera eman zuena.

*PATER NOSTER TXIKIA,
EMATEN EZ DAUKUNA OGIA*

*Don José de Artecheren aita,
Linboan haizena;
barkatua izan bedi hire izena;
ez betorkigu hire erreinua (guk errepublika bat nahi baitugu);
egin bedi hire borondatea (eta ez hire semearena, ez Basarrirena, ez
[Lekuonarena, ez Labaienena], Linboan bezala Lurpean ere.*

*Gure eguneroko otarraina ez iezaguk gaur ere ken;
gure zorrik ez iezaguk paga-arazi, aberatsak ez ditezen aberatsago eta
[pobreok ez gaitezen pobreago,
eta Don José de Arteche heure semeari euskaraz ez eskribatzeko
[tentazioan erortzen utz iezok,
baina libra gaitzak dialekto mordoiloetatik,
zeren hireak baitira hire semearena, Basarrirena, Lekuonarena eta
[Labaienena.
Amen.*

Benetan, euskara batuarena bestelako gerra, baina gerra izan zen, ez 1936koa bezalakoa, noski. Odol isurtzerik ekarri ez zuen arren, euskal jendea zatitzeko adina izan zen hura ere, hamaika etxetan jatordu bat baino gehiago garrastu zuela alajaina.

Eta Artetxek postura hartu zuen berriro, eta zeukan plazatik goraki defenditu zuen. Azken urteetan, azken bietan behintzat, euskaraz baino ez zuen idatzirik argitaratu. Berak honela azaltzen zuen bere jarrera 1969ko abenduko *Zeruko Argia*-ko “Zeñekin” zutabean.

“Sasoi guztiak ez dira berdinak izaten eta erderazko artikulua eskribitzeari utzi egin nion era bat.

Gure erriari egi gordiñak esateko garaia esateko iritxi zala iruditu zitzaidan.

Ogeitamar urte nituanian bezelaxe ez negoen konforme. Gure-gurea dan erriari itzegiteko garaia iritxi zala pentsatu nuan. Aukera berriz, gure asteroko maite au.

Saiatzen naiz orain ere gauzak emendik esaten. Esan bearrekoak dira. Erderaz esango ez nituzkenak adierazten ditut euskeraz.

Batez ere gure erriaren erantzun-bear zentzuari, erresponsabilidadeari, ikuitu nai nioke.

Gehiago esaten ez ba ditut ez da nire kulpa. Eskritoreak bakarrik dakizki gaur eguneko eragozpenak. Eskritoreak berebiziko ekilibriyoak bear ditu egin. Komeriantiak alanbre gañian bezelaxe.

Bañan joan nadin arira. Bertsolariak bezela, nik ere artikulo onen ziriya aurren-aurrenetik daukat buruan. Eta oso garbi gañera.

Auxe da nire ziriya. Denbora guztiak ez dirala berdiñak, eta munduan beti izaten dirala kanbiyuak. Au alde batetik: Eta bestetik berriz beste auxe. Aldan modurik one-nean esan nai nuke. ¿Asmatuko al-det?

Euskaldunak iru gerratetan galdu dutenarekin apuntatu gerala. Pasiak pasa. Jainkoak iñundik ere ez dezala nai, baño, laugarren izkanbilla sortuko balitz, ¿zeñekin apuntatu bear degu? Berriz ere ¿galdu bear dutenarekin?”

Bibliografia:

ARESTI, Gabriel: *Obra guztiak*. Kriselu, Bilbo, 1976.

ARESTI, Gabriel: *Harrizko Herri Hau*, (Joan Mari Torrealdairen oharrak) Susa, Donostia, 1986.

ARTETXE, Joxe: *El abrazo de los muertos*, Donosti Aurrezki Kutxa, Donostia, 1970.

ARTETXE, Joxe: *Bidez bide*, Erein, Donostia, 1994.

ASKOREN ARTEAN: *Canto a Joxe*, Donosti Aurrezki Kutxa, Donostia, 1972.

MITXELENA, Koldo: *Gure artean*, Alberdania, Irun, 2001.

ZUBIMENDI, Jose Ramon; ATXAGA, Mikel: *Jose Artetxe (1906-1971)*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, (Bidegileak bilduma), Gasteiz, 2001.

Zeruko Argia, 1969, abenduak 28; 1970, otsailak 1.

INORAKOAK

LOIOLAN Euskaltzaindiak batzarra burutu zuen jesuiten babespean. 1964ko uda zen, orduan agertu ziren kezkek ez ziren kea izan. Gaia ere halakoxea zuten: *Euskarak irakurleak gehitzeaz*. Euskara literarioa nondik nora bideratzeari buruz hitz egin zen, euskara mintzatua nola piztu etxeetan, eskolan, irratian, elizan... Hala ere, gerraosteko seigarren batzar hori ez zen hartutako erabakien garrantziagatik historiara pasatu. Handik bi urtera, 1966an, Larramendiren heriotzaren bigarren mendeurrena bete zela-eta, hitzaldi sorta egin zen Loiolan, Euskaltzaindiak eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak lagunduta.

Gerraondoko luzearen ondotik hasi ziren euskaldungoaren gogo-bihotzak gora egiten. Mintzamolde berriak, burua altxatzeko garaiak ari ziren mamitzen. Bazetorren. Antolatzeke unea iritsia zen, erresistentzia eta frankotiratzaileen lanari kultur aktibismoa eta itxaropena gihartzeko egitasmoak jarraitu zitzaizkion. Galarazitako ametsak itsastear zeuden, euskaldunak grina biziz behar zuten modernitatearen ateak zabaltzea, munduan irakiten ari ziren lapikoetatik jaten emango zioten tresnez hornitzea. Horrek guztiak hizkuntza malgua eta txairoa eskura izatea esan nahi du, komunikabideak eta prentsa garatzea esan nahi du, literaturak sasoiko erronkei erantzutea eta etorkizunari begira jartzea esan nahi du.

Hogeigarren mendean, hirurogeiko hogeikadak irudikatzen du aldaketaren oldarra. Zenbat nobedade! Aldizkariak, argitaletxeak, Loiola Herri Irratia, bertsolarien txapelketa nagusia, Laberie eta euskal kantagintza, Enbata, Ricardo Arregiren kazetaritzaren berritzea eta alfabetatze-euskalduntzea, ikastolak, Arantzazu, ETA... *The sixties* dira.

Ezin da ahaztu horraino iristeko Nemesio Etxanizen lanak izan zuen munta, gerra gordin batek guztiz deserrotzea lortu ez zuen mundu bati lotura emateko. Orixek, Zaitegik, Jautarkolek, *Euzko-Gogoa*-k eta *Egan*-ek bide malkar hori sasia-

ren mende ez geratzea ekarri dute. “Katakunbetako belaunaldia” eta “Kontinuitateko generazioa” ere deitu izan zaie katebegi hori osatu zutenei.

Azpeitian ere izan zen sasoi hartan hiruzpalau urtez argitara eman zen parro- kiko orri bat, euskarazko artikulu pare bati leku egiten ziona hilerro, 1957an hasi- ta, *Olatz*. Bere itoan txikia, baina arnasa.

Zarata handirik gabe pasatu zirenak badira. Martin Itziar Agirre (Azkoitia, 1905-1978) idazle autodidakta izan da horietako bat. Gerran preso hartu zuten Bizkaian, Bilboko burdinazko uhalaren oinetan, Fikan. Gasteizera eraman espe- txe bihurtutako karmeldarren lekaidetxera, eta non suertatuko gatibu lotzea eta hilabete batzuk lehenago Lauaxeta egoiliar izan zuen ziega berean. Horrela kontatu zuen Lauaxetaren omenez 1974an Bilbon argitaratu zen *Olerkiak* libu- ruko sarreran:

Sartu ninduten gelan amalau-amabost gizon adiñeko zeuden, denak arabarrak, eta tartean laudiotar batzuek. Auek esan zidaten nola gela ontan Lauaxeta ta Plazet egon ziran. Baita erakutsi ere ormatik zintzilik zegon Ama Birjiña Karmengoa'ren lauki atzean, Lauaxeta'k, il aurreko orduetan idatzita utzi zuan, erderaz Ama Birjiñari zuzendutako amalaukoa. (...)

Lekaretxe aretatik ertenda, luzaro bazterrik bazter ibilli bearra izan nuanean, sarri samar erri-miñak jo oi ninduen. Lauaxeta zanak il aurrean Ama Birjiña'ri erderaz zuzendutako amalauko maitagarriak menperatu eziñik nenbillen beltzuratik ateratzen laguntzen ziran.

Lanbidez zapatagile zen Martinek bi liburu utzi ditu. Bata *Gure txoriak* (1966), Euskal Herriko ondare ornitologikoari buruzko saio osatua, Louis Dassance utzariztarrak 1923an argitara emandako *Eskual-Herriko hegaztinak eta xoriak* liburuan aurrekaria duena. Bestea, 1968an, *Larraundiko sendia* izeneko ele- berria.

Baroja batek irudika zezakeen Euskal Herriaren ikuskera neoforalista eta fol- klorikoagoa, tipismoaren ukituak edermindua euskaraz eman zutenak ere bazi- ren, ordea. Garai bateko “Azkoitiko Zalduntxoak” nolabait berritu nahirik edo, ezerezaren basamortuari posibilismoaren lerroetatik erantzun guran, 1959an bildu zen Azkoitiko San Juan bainuetxean, lau urte lehenago Pio Barojaren heriotzaren aitzakian elkartzen hasia zen “La Academia Errante” delakoa.

Horra bertaratu zirenen zerrenda: Alvaro del Valle Lersundi, Trino Uria, Jose Maria Busca Isusi, Koldo Mitxelena, Angel Jaka, Reyes Korkostegi, Jose Oregi, Martin Irizar, Jose Villar, Ignacio Zumalde, Jose Aranzadi eta Luis Peña Basurto. Ezin agertu izan zuten Federiko Zabala eta Julio Caro Baroja akademiakideek. Talde horrenak handik bi urtera egin zuen, Meliton Manzanos poli-ziaren amenazuen itzal beldurgarriak tarteko.

Ikusi dugunez baltzu horretan ageri da Trino Uria (1901-1972), Azkoitiko kronista eta argitara eman gabeko Omar Kayan, XI. mendeko pertsiar poetaren *Rubayat* eta Bibliako *Kantarik ederrena*-ren itzulpenen egilea.

1960tik atzera, izango da lehengo moldeei itsatsia jarraituko duenik, baina beste ahots bat, beste taju baten eske dator euskal herritar herabetua, bestelako hezurra eta mamia ditu preziso aitzina egingo badu. Hala ere, 1963an, oraindik alde handiz euskal liburugintzan zihardutenak elizgizonak ziren. Tendentzia hori, Ibon Sarasolak aztertu zuenez, ez zen aldatu 1972-1973ra arte.

Euskal idazleek Baionan 1964an eta Ermuan 1968an bilerak burutu zituzten hizkera literario modernoaren xerka. Ondoren, 1968ko urrian ekin zitzaion batasunaren aldarria zabaltzeari Arantzazuko biltzarretik.

Lehenago Loiolako Herri Irratia itxi zuen Fraga ministroaren prentsa legeak, zirrikitua ireki zion euskarazko produkzio idatziari 1966tik atzera. Aldizkariak eta argitaletxeak erruz ugaltu ziren. *Lur, Etor, Jakin, Auspoa, Gero, Kriselu...* argitaldarien loraldiko ale dira.

Juan San Martin eibartar idazlea izan zen *Uhin berri* bataiatu zuena, idazle berriak liburu batean bildu zituenean. 1969a zen. Igarri zuen zer zetorren.

Baina soziologiaren datuek eta eskuratutako fitxek aldenduko dituzte laineza txoroak itsumustuan. Euskal literaturako hogeita bost liburu eman ziren argitara 1963an, hogeita hamahiru 1965ean, berrogeita hamarreko galgara iritsi zen 1969an, eta 1975ean hirurogeiren bueltan zebilen produkzioa. Nondik begiratzen den aldea dago, zernahita ere, erronka handitarako ez zegoen euskaldungoa.

Sarasolaren *Euskal literatura numerotan*-i helduta azken datu bat, 1972-1973an euskal idazle sekularretan ia ehunetik laurogei batasunaren aldekoak ziren, apaiz eta elizgizonen artean, berriz, ehunetik berrogeita hamazazpi zeuden batuaren alde.

Eta artean euskal idazletzan eta kultur jardun bizian ari ziren bailarako abade eta elizgizonak tropela ziren.

Batasun hura pareko ez zutenen plaza eta gotorleku izan zen, aurrena *Arantzazu* aldizkariaren hileroko baserri gaietako gehigarri moduan hasi zen *Goiz Argi* agerkaria. 1960ko sortze beretik 1975era arte zuzendari lanetan Jose Antonio Garate (Azkoitia, 1914-2003) frantziskotarra ageri da. Gipuzkeraz idatzia Kardaberaz taldekoen txoko nagusi izan zen. *Anaitasuna*-rako ere idatzi zuen, eta *Arantzazu'ko Egutegia*-n kolaboratzaile izan zen Garate.

Anastasio Esnaola frantziskotarrak (Azpeitia, 1933) *Goiz Argi*-n ez ezik *Arantzazu*-n, *Jakin*-en eta Arantzazuko egutegirako idazten zuen. Bilboko Lore Jokoetan bere poesia lan bat saritu zuten 1950eko hamarkada hondarrean. 1973an, *Egan* aldizkarian poema sorta mardula argitaratu zioten. Gerora Mariano Errastiren *Eguzkilore* (2000) eta Ramon Maria del Valle-Inclan-en *Buhame argiak* (2001) liburuak euskaratu ditu.

Karmeldarrek ere eman diote ale bat baino gehiago idazletzari. Fidel Sarriegik (Azkoitia, 1920-1969) badu antzerki lan bat idatzia, *Etxerako nor?* (1965) eta *Oleri* aldizkarian parte hartzeaz gainera Santi Onaindiak poema bat jaso zuen *Milla Euskal Olerki Eder* antologian. Manuel Juaristik (Azkoitia, 1923) *Karmengo Amaren egutegia*-n idatzi izan du eta Aita Migel Mari izenpearekin sinatu ditu bere lanak *Karmel*, *Arantzazu*, *Zeruko Argia*, *Oleri* kazetetan, eta uste dugu Oscar Wilderen *Adiskide zintzoa* (1959ko urtarril-otsaileko *Euzko-Gogoa*) ipuinaren itzulpena ere berea dela, nahiz Migel Juaristi *Izarraitzepe* moduan sinatuta egon. Karmelo Zubizarreta (Azkoitia, 1927) *Karmel* aldizkariko zuzendari izana da eta *Naigabez* (1979) eleberriaren egile.

Gotzon Garate jesuita gazteak (Elgoibar, 1934), 1955ean Loiolan dagoela hasi zuen bere idazle ibilbide oparoa *Jesusen Biotzaren Deya*-n, *Euzko-Gogoa*-n, *Egan*-en eta *Zeruko Argia*-n. Iñaki Epelde josulagunak ere (Azkoitia, 1936-1976) *Jesusen Biotzaren Deya*, *Karmel*, *Jakin*, *Zeruko Argia* izan ditu besteren artean kolaborazioen hartzaile.

Anastasio Albisu apaizak (Lazkao, 1915- Azkoitia, 1997) antzerki asko idatzi zituen (*Sortzetik garbia*, 1954; *Ogi ta ardo*, *Eduardo*, 1956; *Garoa*, 1960; *Gartzi-Ximeno eta...*, 1975) eta narrazio liburuak ere bai (*Erreka zuloan*, 1973), beti ere herri hizkeratik edan eta ahozko eredura hurbiltzen den literatura egiteko joera erakusten zuela.

Pedro Irizar (Azkoitia, 1910- Madril 2004) ohorezko euskaltzainaren kasua berezia da. Bi urte zituela Madrilera aldatu zen bizitzera eta betiko joan zen

arren, ez zituen izan ez ama hizkuntza eta ez jaioterria saltzeko. Lanbidez ingeniari, ekonomiako irakasle unibertsitatean eta Espainiako Fabrica Nacional de Moneda y Timbre-ko goi kargu izan zen. Euskararen azterketak gaztetandik eragin zizkion barne kilikak, eta dialektologia alorra jorratu zuen sakon oso. Gurean *Euskera* Euskaltzaindiko aldizkarian eman zituen ezagutzera hainbat ikerketa.

Aurreko arotik bazetorren ere, haize berriak jo zuen *Zeruko Argia* astekaria. Antzeko prozesua gertatu zen *Anaitasuna*-rekin. Biek ala biek egin zuten lumaberritzera, nomina zabaltzera eta esku laikoetan lagatzera etxeko giltzak. Lehengo aireko idazleek segi zuten kolaboratzen —aipatu ditugu horietako batzuk—, baina euskal prentsaren banguardian kazetaritza eredu berri baten bila buru-belarri murgildu zen 70eko hamarkadarekin.

Egan-en-eta idatzitako Gurutz Ansola (Azpeitia, 1924) eta Patxi Altuna (Azpeitia, 1927) ageri dira *Zeruko Argia*-n artikulatuak sinatzen. Baita Imanol Elias (Azpeitia, 1936) eta Jose Luis Iriarte ere (Azpeitia, 1937; *Gure erri jokuak* liburua argitaratu zuen 1973an).

Gurutz Ansolak *Egan*-en zine eta antzerki kritikak egin zituen eta *Zeruko Argia*-n eta *Jakin*-en ohiko kolaboratzaile izan zen. Hitzaldiak eman eta saio asko idatzi ditu Euskal Herriko eta nazioarteko ekonomiari buruz (“Europako Alkartzea”, 1959; *Euskal Herriko ekonomiaz, 1955-1967*, 1971; *USA-ren agintaritza eta dolarraren ahulezia*, 1972).

Imanol Elias bailarako historiaren kronista eta ikertzaile, eta euskarazko antzerkiaren suspertzaile kementsua izan da (*Sendagai traketsa*, 1982; *Bi ahoko ezpata*, 1985; *Idazlearen Herioa*, 1985; *Urkiola*, 1986; *Zirt eta zart*, 1986; *Handitasun ametsak - Hiru morroiak*, 1987; *Bat, bi, hiru*, 1989). Ez dio muzin egin, hala ere, eleberri historikoa (*Amuko zubia*, 1988), ipuinak (*Arrozalore zuria*, 1991; *Mendizale zaharra*, 1991) eta olerkia lantzeari (*Egilearen egarriz*, Iruñeko 1969ko Lore Jokoetan saritua).

Zeruko Argia-ren hosto berritzean aurreko puntan ibili ziren Donato Unanue (Azpeitia, 1943) eta Gurutz Ansola. Kaleko arropaz etorriko da bi herriotako literatura handik atzera. Prentsa iritzi bilketa soiletik haratagora eramane nahi zen, erreportajeak eta kronikak nahi ziren bilakatu gihar nagusi astean asteko errotan. Besteak beste, euren luma eskaini zioten Rikardo Errazuk (Azkoitia, 1940), Leopoldo Etxeberriak (Azpeitia, 1941-1981), Jose Mari Iriondok

(Urrestilla, 1938; *Joxe Lizaso, nere aldiko kronika* biografia kaleratu zuen 2001ean) eta Pako Garmendiak (Azpeitia, 1946).

1980an *Argia* izena hartu zuen Hegoaldeko astekari hedatuenak, eta handik hamar urtera *Euskaldunon Egunkaria*-k iturburua mintegi hartantxe izan zuen. Harrezkero, *Berria*-k eta herrietako euskal prentsak ohiko bihurtu dute komunikazio esparru gero eta sendoagoa.

Alfabetatze-euskalduntzea aipatu dugu goian, eta komunikabideek, mass-mediek lehenago ez bezalako pisua izango dute jendearen kontzientzia hartze-ari begira. Geure txikira itzulita, Loiola Herri Irratiaren lana, Jose Mari Iriondoren, Imanol Eliasen, Patxi Altunaren, Karmelo Otaegiren (Azpeitia, 1932) eta gainerakoen ahotsean garrantzitsua izango da. Gogora ekarri nahi dugu hemen Enrike Zurutuza albaitero euskaltzaleak (Ataun, 1917), gerraosteko irratigintzan, La Voz de Guipúzcoa-ko berriketari lanetan, eta herri antzerkian euskara zabaltzeko egindako ahalegina ere (*Odol eskaintza* pasioaren eta Arakistainen *Etumetako basajauna* itzulpenaren egile da). Euskara zuzenaren hedapenean Donostia Herri Irratian Iñaki Zubizarretaren jarduna ere aipatzeko modukoa da.

Nahi gabe bezala, baina ez nahi gabe, Anjel Otaegi hil zuten balen hotsa dator urte haiekin akordatzearekin batera. Mugarri izan ziren tiro haiek, musika erlastu bat. 1975eko irail hark marka ezarri zion aldi bati, tragedia humanoaren orearekin sinboloa moldatu zuen. Literaturak jendeen ametsak ditu bere zorrorra biltzen, pertsonenak, herrienak. Anjel Otaegi nuarbetarra, geure historia galorrean ez ezik, literaturaren historian ere sartua da dagoneko. *Hamaika pauso* eleberrian Otaegiren oroitzapena bizi-bizirik dator. Ramon Saizarbitoriak ondu zuen. Eta gehiago ere badira.

Anjel Otaegi fusilatu eta egun gutxira eskuz esku bailara honetan eta haratago banatu ziren oroigarritzko orriek, argazki zoragarri baten azpian, sinatu gabeko poema hau zekarten. Bitoriano Gandiagaren *Hiru gizon bakarka*-tik hartu zuen eskuak asmatu zuen jendearen bihotzera nola heldu, gogoari nola erasan. Eta poema herriarena egiten da.

Bajuen diharra
bajuen beharra,
bajuen negarra,

*bajuan xehetzen da:
herri baju hau baju
hiltzen den bezala.
Baina ni bajuekin.
Bajuena delako
nire herriko lurra.*

Bibliografia:

ASKOREN ARTEAN: *Euskarazko prentsa eta Azpeitia*, Uztarria Azpeitiko Kultur Koordinadora, Azpeitia, 2004.

LAUAXETA, *Olerkiak*, Etor, Donostia, 1974 (Martin Itziarren sarrera).

SARASOLA, Ibon: *Euskal literatura numerotan*, Kriselu, Donostia, 1975.

SAN MARTIN, Juan: *Uhin Berri (1964-1969 bilduma)*, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones S.A., Donostia, 1969.

SAN MARTIN, Juan; BASAURI, Serafin: *Hegatsez (Itz-lauzko bilduma 1971)*, Itxaropena, Zarautz, 1971.

SAN MARTIN, Juan: "Azkoitiko idazle ikasiak", *Hoja del lunes de San Sebastián*, 1974-XI-11.

SAN MARTIN, Juan: *Gogoz. Gure herriko gauzak. Cosas de nuestro país*, Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, Donostia, 1978.

TORREALDAY, Joan Mari: *Euskal Idazleak, Gaur. Historia Social de la Lengua y Literatura Vascas*, Jakin, Donostia, 1977.

ASKOREN ARTEAN: *La Academia Errante. Los Caballeros de Azcoitia*, Auñamendi, Donostia, 1963.

www.armiarma.com.

POLIEDROA

ALDE asko duen zerbaiti deritzo poliedroa. Normalean ikasleei geometria irakasteko erabili izan diren egurrezko piezak izan ohi dira, tailerretako altzairu troko astunak, landutako harri bitxiak eta halakoak. Baina badira poliedroak diruditen pertsonak ere, hainbeste dira agerian dituzten aldeak. Nemesio Etxaniz apaiza izan zen horietako bat. Mendea azkenak ematen ari zela jaio zen, 1899an, Azkoitian.

Apaizak antzerkia idazten zuen, antzezlan asko, gero eliza inguruan zebiltzan gazteek taula gainean joka zitzaten. Aurreko antzerkiarekin erabat eten gabe, gizatasuna ez ezik gizaki modernoaren kezka eta arrangurak ere erakusten zituzten obrek. Batzuk, “Bizia zotzean” bezala, modernoak oso, teoria existenzialistetatik gertuko planteamenduan, baina egoera muturrera eraman gabe, zergatik eta gau erdian Don Nemesio apaiza agertzen zitzaiolako Etxaniz idazleari.

Apaizak ipuinak idazten zituen, baita gerra aurretik ere (“Arraldea”, 1923). Gerra ondoren, Donostian 1962tik atzera CATek antolatu ohi zituen lehiaketetara bidaltzen hasi zen. Mordoska bat guztira. Alde handia dago batetik bestera. Batzuetan, euskal mitologiak lotzen dio eskua idazleari; besteetan, libreago dabilenetan, hemendik eta handik probatu nahi du. Bide zabaltzen ari da. Gutunen teknika “Suge lana” ipuinean, nouveau roman-arena “Euria ari du”-n, gazteen irakurgai izan daitezten, “*sermoi kutsuak kendu naian euskerari*”.

Apaizak irratsaioak idazten zituen, baita irratiz emateko ipuinak ere. Elkarrizketaren bidez harrapatu nahi du entzulea, eta badaki nola egin, bixi. Askok du alde. Ondo daki herria nola mintzo den, Donostian bizi izanagatik ez du ahaztua jaioterriko hizkeraren zaina. Argitara ematen dituenen, oharra berriro ere:

Nere asmoa auetan, euskerari sakristau eta konbentu-usaia kentzekoa izan zen. Gazte-gaiak batez ere, sortu nai nituan nere lanetan. Prakadunak eta gonadunak, nairoa sermoi egiñak ditugu euskeraz. Ortik beti ugari izan du gure izkuntzak. Euskera kale-jabe egin nai ba-degu, gaztediari atsegin zaizkion gaiak arrotu bearko ditugu euskal lanetan.

Apaizak, horrexegatik, gazteak zituelako gogoan, kantu liburu bat idatzi zuen, *Kanta-kantari* (1951). Geroago, beste batzuk sortu zituen. Partitura eta guzti ematen ditu, letra alboan dutela. Batzuk, itzulpenak dira, beste batzuk moldaketak, asko, berak sortuak. Gazteak beti gogoan. Horra zergatik bildu zituen elkarren ondoan bertso doinuak eta habanerak, fox-trotak eta tangoak, rumbak eta pasodobleak. Noiz, eta artean trikitixari, honek pieza lotuak jotzeko zuen erraztasunagatik, elizgizon askok “inpernuko hauspoa” deitzen zion garaian. Eta hala hartu zuten gero, euskal kantagintza berriko abeslari askok apaiz sotanadun hura aita pontekotzat...

Apaizak, aranismoak hizkuntzaren inguruan hasieran bultzatutako teorieta-tik urruti (“hobe euskaldun erdaldundua euskara ikasi duen kanpotarra baino”), euskara ikasteko metodoa ere sortu zuen, CCC etxearekin, baita Zarauzko Itxaropenak 1950ean argitaratu zion euskaraz idazteko liburu hura ere: *Nola idatzi euskeraz?*

Apaizak eleberriak ere maite zituen. Andimak behin eta berriz xaxatzen zuen, Paristik aurrena eta Guatemalatik gero, idazteko eta idazteko bat. Bat ez, bi idatzi zituen, nahiz eta bera bizi zela bakarra eman argitara, *Ameriketan galduta*. Besteari, *Izotz-kandelak-i*, gogorregi zeritzon, autobiografikoa zelako alderdi askotan. 1963an idatzia izan arren, ez zen hil eta hamar urtera arte argitaratu, Iñaki Seguiolak prestatutako edizioan. Gogorretik zer duen? Unamunoren *San Manuel Bueno, martir-en* bezalatsu, apaiz baten fede zalantzak. Mugarri izan gabe, badu bere balioa, Don Ximon protagonistak Nemesiotik duenagatik.

Apaiza poeta zen, ordea, batez ere. Ez punta-puntakoa, baina ona, berak esatea maite zuen bezala, “*biotzak agindu erara*” idazten zuen neurrian. Baina eman diezaiozun txanda Etxanizen poesia ondo irakurri duen Koldo Izagirreri:

Egia da tresneria handirik gabeko poeta dugula, baina halako gardentasunez mintzo zaigu non lirika sentimental bat osatzen baitu nahiaren eta ezinaren, grinaren eta

lotsaren arteko pultsuan, eta, azken finez, gizakiaren eta Jainkoaren arteko ezin uler-tuan. Pako Sudupek ongi antzemana duen bezala, maitasun galduaren poeta dugu Nemesio Etxaniz, eta bere malkoak, inozoaren muga arriskutsu horretan badago ere, hunkitu egiten gaitu, frustrazioa molde dotoreetan ematen dakielako. Dohain garesti horren aldean ez zaizkit hain garrantzitsuak iruditzen Etxanizen erritmoa, hizkera atse-gina eta irudi landuak, gutxi bezala darabilzkien arren.

Apaizak gutunak ere idazten zituen. Lagunei, idazleei, arerioei. Euskaraz batzuei, hizkuntzaz, literaturaz, euskaltasunaz; gazteleraz besteei, Gipuzkoako gobernadore zibilar, pasaporte ukatuez, Aberri Egunaz, torturaz, sotanadun izateak ematen dion babesaz baliatuta. Ziri eta ausart. Pertsonaren bila beti.

Apaizak egunkari eta aldizkarietan idazten zuen. Gerra aurrean *El Día*-n, gerra ostean *Euzko-Gogo*-n, *Goiz Argi*-n eta *Zeruko Argia*-n. Edozein delarik gaia, estilo bizi-bizian: euskalgintzaz, gazteriaz, indarkeriaz... Herriko kontuak ahaztu gabe. Federico Felliniren *Amarcord* hartan bezala, gaztetako Azkoitian nonahi-ko euskal irakurleari irribarre bat ebasteko adinako pertsonaien galeria polita duela jakinda. Hala eman zituen 60ko hamarkadan Donostiako *Zeruko Argia* astekarian “Marrakatz”, “Pelix Bottoie”, “Kattue”, “Maltinpo eta Kaxilda”, “Lore ta Zezili”... Ez da kontaketa labur hauetan adina inor ausartu inoiz Azkoitiko euskara paperera gutxieneko duintasun batez ekartzen, bizitasunaren izenean.

Apaizak, esan dugu, Donostian bizi arren, oso gogoan izan baitzuen sorte-ria. Aipatu berri ditugun artikuluetan ez ezik, Azkoitiari eta inguruei buruzko aipamenak ere erraz aurki ditzake irakurleak lan askotan. Batez ere *Izotz-Kandelak*-en aurreneko partean, gaur egun irakurrita, zer galdu dugun jabetzeko balio diguna:

Ontan-artan, zortzi urteko mutiko pijua zegoen gure Ximon. Orduantxe sortu zitzaion beste eginbear nagusi bat: igari egiten ikastea. Eskolako lagunak, bospasei mutiko, asmo ortan bildu ziran egun batean. Eliza-aurreko zubitik beratxoago, ibaiak presa zuan. Andik zijoakion ura Bizkargiko prabikari.

Ubideari, ura zeraman kanalari, Aldapa esan oi zioten Azkoitian, eta tximist-indarra sortzeko makiña zeukan etxeari, Indar-etxea.

Eliza-aurrea oso aldatua dago lendik. La Salletarren eskolak eta Petripea bota zituzten aspaldi, ta aien ondoan zegoen Gamundi-ñeko etxea ere ondatu zuten. Etxe

onek baratze ormaz itxia zuen ibai-aldera. Etxea elizari begira zegoen kalez bestaldetik. Gamundi-ñekoak Duque de Granadaren diru-zaiak, administradoreak ziran. Auen seme gazteena Ximonen kuadrillakoa zan eta hamaika aldiz aien baratzean ibillia zan gure mutikoa.

Baratze onen eta Dukeko etxe beltzaren tartean bazan orduan ibairako Epelena izeneko bide bat. Andik jeisten zan mutiko-taldea presa-aldera. Au, prabika lanean ari zanean, legor egoten zan, eta ura Aldapatik zear prabikarako artzen zuten. Aldapa onek bazuan bere izena: Txingea. Presa igaro ta horma-gain batetik Txingera sartzen giñan igarira. Ura, geienez ere, leporaiño iristen zitzaien mutikoei, eta an zuten igarirako lenengo eskola.

Luzaroan egon liteke apaizak kontatzen digun Azkoitia zahar hartan gora eta behera, zokomira zoragarrian, dena ume begiz ikusten. Ondo zekien Etxanizek hori, bazihoan mundu baten azken arrastoak zirela, eta jaso beharra zegoela, Joxe Migel Barandiarani eta Justo Mokoroari laguntzen ibili zenean bezala. Horretan ere nahi zuen poliedroa zen gizonak, narratibitatearen kaltean bada ere.

Apaizak ez dakigu nondik ateratzen zuen astia elizarekikoak betetzeko. Dena egiteko zegoen garaian bizitzea suertatu zitzaion, eta dena ez bada ere, denetik egin zuen. “Bihotzak agindu erara”.

Bibliografia:

AROCENA, Eugenio: *Nemesio Etxaniz teatrozaleen gogoan*, Azpeitiko Udala, Azpeitia, 1998.

ECHANIZ, Nemesio: *Lur berri billa*, Izarra, Donostia, 1967.

ETXANIZ, Nemesio: *Izotz-kandelak* (Iñaki Seguirolaren edizioa), Elkar, 1992.

ETXANIZ, Nemesio: *Lan hautatuak*, Hiria, Donostia, 2000.

IZAGIRRE, Koldo: *Nemesio Etxaniz, XX. mendeko poesia kaierak*, Susa, Zarautz, 2002.

SUDUPE, Pako: *Nemesio Etxanizen biografia eta ideologia*, BBK Fundazioa, Bilbo, 1996.

AIZPURUTXOKO APAIZ KANTARIA

UROLAKO tren a geltokira heldu denean, gizon bakarra jaitzi da bertatik. Maleta bat dakar eskuan. Aurreneko aldia da Azkoitia eta Zumarraga arteko etxarte laiotzean gelditzen dena. Geltoki azpitik, errepede estua ibaiari lastanka. Ez da jenderik ikusten, ume batzuk baino ez jolasean.

—Kaixo! —diotse—. Hau Aizpurutxo da, ezta?

—Bai, halaxe da.

—Hona bidali naute. Apaiz berria naiz.

Halaxe heldu zen Julen Lekuona (Julian deitzen zioten orduan) Aizpurutxoko abade-etxera, umeek gidatuta.

—Oso maitea izan genuen hemen —oroitzen dira oraindik ere guztiak auzoan.

Aizpurutxora, iraultza ekarri zuen trenetik maleta bakarrarekin jaitzi zen apaiz gaztea. Kantatzea maite zuen, eta mezetan, kantatzen hasi ziren. Gitarrekin-eta, ordea. Frantsesez le Père Duval eta Soeur Sourire-eta aritzen ziren eran. Ordukoak ditu Caracasen Discos Gudari-k argitaratu zizkion bi disko haiek.

—Xabier Lete eta Lurdes Iriondo ere etorrita daude mezetan kantatzera.

Lagunak zituen, elkarrekin osatu zuten Ez Dok Amairu taldea 1966an. Aurreneko saio haietako batean, artean ez era ofizialean, taldea Hernanin taularatu zen. Otsailaren 9a zen. Bikondoa, Villar, Laboa, Kemen hirukoa, Biorri eta Izarti balleta izan zituen lagun. Trenez egin zuen bidea. Bidean, Zumarragatik Hernanira artean, kantatzeko poema bat idatzi zuen tren txartelaren atzealdean: “Hiltzaile bat bezela”.

Hiltzaile bat bezela hemen naramate,

Bi eskuak loturik mundutik aparte.

*Errurik ez dutala azaldu nahi nuke
Egia nahi dunantzat emana dut merke.*

*Egia esan eta, zigorrez erantzun,
Gure bizkar moretan diteke irakur.
Egia utzi eta hobeto da entzun
Munduak esandako zortzi milla gezur.*

*Nola nahi dala ere egirik ez utzi
Nahiz zigorrez laztandu zure gorputzari.
Gure eginkizuna eman munduari
Egiak gihartzen dun indar berri hori.*

Idazteko zaletasuna, seminariotik zetorkion. Ikasten zegoela, Priestley-ren *Ertzaina etxean* eta Tennessee Williams-en *Kristalezko zoota* antzerkiak euskaratu zituen. *Zeruko Argia*-n ere, sarri antzean idazten zuen; baita Donostiako egunkarietan ere.

Otsail hartan bertan, bigarren emanaldia Donostiako Victoria Eugenio. Taldeari Benito Lertxundi gehitu zaio. Aurkezle, Jarrai taldeko Arantxa Gurmendi eta Ramon Saizarbitoria. Jendez gainezka aretoa, "Eliza pobrea" abestu zuen aurreneko aldiz:

*Eliza pobrea, Eliza pobrea,
danontzat hobe.*

*Moztu kardenalen arropak,
Moztu torre luze zorrotzak,
Moztu obispo kotxe luzeak.*

*Kendu urre eta pitxiak,
Kendu kristau diferentziak,
Kendu ministro diru-zaleak.*

Non da estalpean jaioa?

Non da Gurutzera ihoa?
Non da Nazaret-go langilea?

Ager aski da Jaungoikoa,
Ager berarekin nahikoa,
Ager arpegi jatorra.

Iskanbila, ez zen nolana hikoia izan. Bidaniako Lorentzo Bereziartua obispoak, abisua: “Ala apaiz ala kantua, bietako bat aukeratu”. Biak aukeratu zituen, apaiz lanak itota *Baga, biga, higa* ikuskizunean parte hartzerik izan ez bazuen ere.

Urte oparoak ditu Aizpurutxokoak: “Ilargira noa” (1965), “Ez, ez dut nahi” (1966), “Martin Luther King” (1966), “Itsasoan urak handi dire” (1968)... Elizarekin guztiz hautsi nahi ez duen gazteriak gogoz kantatzen ditu Aizpurutxoko apaizaren letrak. Batzuk, “Aleluia”-k eta, sustraiak egingo dituzte: “Kanta dezagun danok/hau da egun alaia...”. Justizia sozialaren aldeko oihua sotiltasun formalarekin uztartzen asmatu zuelako, kantatzeko bai, baina poemak zirelako aukeratu zuen Juan San Martinek *Uhin Berri* poesia antologiarako.

Euskal Herrian lehen diskoa 1967an grabatu zuen, Bilbon, arazoak ekarriko dizkiona. Disketxea zuzentzen zuen Xabier Gereño idazleak baimena okerreko tokian eskatu, eta isuna Información y Turismo-tik. Baina dirurik ez ordaintzeko.

Aizpurutxon agertu zen Guardia Zibila, Azkoitiko Movimientoko buruak emandako enbargo aginduarekin.

—Besterik ez zuen, eta hala eraman zioten gitarra zahar hura.

Gitarra zaharra bahituagatik, berriarekin jarraitu zuen. Xabier Lete eta Antton Valverderek grabatutako *Bertso Zaharrak* bikoitzak gerra aurreko bertsolari asko berreskuratu zituen esnatzen hasia zen gizarte harentzat.

Franco hil baino hiru bat urte lehenago utzi zuen auzora heldu zeneko maletan sartu zuen Aizpurutxo.

Bibliografia:

SAN MARTIN, Juan: *Uhin Berri (1964-1969 bilduma)*, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones S.A., Donostia, 1969.

LEKUONA, Julen: *Hautsi ez dadin katea*, Egan bilduma (Sorkuntza-3), Donostia, 1999.

LEKUONA, Julen: *Itsasoan urak handi dire*, Egan, Donostia, 2004.

ARESTIREN LEIHOA

ELIZAREN eta erlijio ordenen gonapetik aldentzen eta, lotsati antzean aurrena, eta ausartago gero, bide propioa egin nahiko duten idazleak burua erakusten hasiko dira hogeigarren mendearen azken laurdenetik atzera.

Euskal kultura eta literatura laiko bihurtzeko malkarretan sartzea ekarri dute hizkuntzaren garapenak eta munduko iritzi-leihoak zabaltzeak: deskolonizatzeak, askapen mugimenduak, Vietnamek, Vatikanon II.ak... Estreinakoz 1970eko hamarkadaren hondarretan hasi eta hurrengoetan segi, literatura jarduera burujabe moduan bizi duten belaunaldiak sortu dira Azkoitia-Azpeitietan bata bestearen atzetik. Loratze betean da euskal literatura azken aldi honetan, edertasuna jendetasunaren mamiz beztitzeko lan zailari emana, literatura egitea beste helbururik gabe funtsean. Inor kristautu nahi izan gabe, inor zintzotzeko eta zentzatzeko xederik gabe. Idazletza ariera libre moduan, ez inongo elizaren ez inongo alderdiren morroi, mirabe izan gabe. Mendeak behar izan dira. Jendar-tearen, ekonomiaren eta pentsamenduaren gurpilek ezarri duten galga berria da. Kostatakoa.

Eskolatze orokorrak eta bizi maila goratzeak, eliz gizon-emakume izandako askoren laiketzarekin batera, jakituriaren monopolioa komentatu eta seminario-etatik ateratzeak kultura demokratizatzea ekarri zuen. Etorकिन seme-alaba euskaldunek bestelako Euskal Herri baten, bestelako bailara baten itxaropena ireki zuten. Modernoagoa, zabalagoa, humanoagoa.

Herriak, ordura arte ia ohartu gabe egin zuen moduan, handik atzera propio hartu zuen beretzat euskara eta euskal kultura suspertzeko egitekoa. Ikastolak, euskal prentsa, helduen euskalduntze eta alfabetatzea horren guztiaren erakusgarri dira.

Ikasi dugu, Nemesio Etxanizek 1950ean eman zuen argitara *Nola idatzi euskaraz?* eta CCC akademiarentzat euskara ikasteko metodoa landu zuen diskoe-

tan 1961an, irratsaioak egiten zituen. Patxi Altunak 1967an lehenengoz argitaratutako *Euskara, ire laguna* boom bat izan zen, mugarria ezarri zuen euskaraz ikasteko metodoetan. Berrikuntza handia zekarren euskararen didaktikan, euskara beretik abiatzen baitzen ikaste prozesua inongo erdararen makuluen beharrik gabe. Bost edizio egin ziren, bizkaierako bertsioa ere bai, eta lan horren arrakastak Patxi Altuna Loiola Herri Irratian euskara irakasten ere jarri zuen hainbat urtez.

Garai berri baterako paisaia itxuratzeko unea zen, modernizatzeko prestatu beharra zegoen euskaldunen herria. Uhin berria zetorreanean izan zuen zeren gainean hasi, zeri eragin aurrera.

Euskal Herri hartan zen herri Azkoitia. *Harrizko Herri Hau* 1970an eman zen inprentara, Arestik jarritako eskaintzan honela zetorren:

Liburu hau (eta orain arteko neure gainerako neke guztiak) euskaldun dirudunek izerdia eta bizi-modua zurrupatzen dieten euskaldun langileei eskaintzen diet; bereziki "ikastola" izeneko euskal eskoletan lan-kontraturik gabe eta lan-segurantzarik gabe gizonaren eskubideak euskara noble batez euskaldun haurrei irakasteagatik bere journal merkeak arriskuan jartzen dituzten maistrei (...).

Badu poema bat liburu horrek Arestik Azkoitira, Intxaustiko jauregira, egingadako bisita bat kari idatzi zuena. Han batu ziren Euskalerriko Adiskideen Elkarteak ekarrita zenbait pertsona, Xabier Munibek *Hordi Enganatu*a estreinatu zuen areto berberean. Eta Aresti da mintzo.

INTXAUSTIN

Gela honetan

eman zuten

lehenez

*"Hordi enganatu*a".

Gela honetan

entzuten dut

euskal musika

zaharra.

*Gela honetatik
ikusten dut
Euskal Herria*

*(haurrak dostatzen),
(andreak josten),*

*leiho honetatik.
Hala eta
guztiz ere
leihotik
ikusten dudan
herriarekin
egiten naiz
geratu.*

Egin dezagun euskal herri hura ikustera une batez guk ere. Jo dezagun Intxausti aurreko parkean jolasean zirenak Pako Sudupe, Juan Luis Zabala, Arantxa Aldalur eta Reme Larrañaga haurrak direla Arestiren begipean. Han dabil, pertsona heldu baten eskutik, Juan Karlos Merino umea ere. Gertu, Plaza Berrian, Felipe Juaristi mandatu bat egitera denda batean sartu dela eman dezagun, Jon Sudupe gaztea lagun batekin eztabaida bizian dela atarian.

Jaitsi gaitezen Urola ibaiaren ur uherretan behera eta ikustagun Jexux Arrizabalaga gurasoen etxetik irten eta Goiko Kanean behera. San Agustinpean zapoketan ari dira neska mutil batzuk, bertan da Joxin Iturrioz. Azpeitiko posta bulegoan Joxean Agirre urrun ikasten dabilen batek etxekoei idatzi dien gutuna topa dezakegu. Goiko Errotako ubidean islatzen den ortziak sorginduta bezala dauka Iñaki Segurola mutil koskorra.

Ibai Eder gaur baino garbiagoan gora ibilita, Landetan, Imanol Lazkano gizon gaztea ikus daiteke Bordatxo atarian langile batzuekin berriketan. Erreka ondotik aurrera joanda, Ramon Etxezarreta Urrestillako plazan dago eskolako liburuak eskuan, guardasola zabalik, eta Pako Aristi txikia euritatik gorde da. Aitor Arana artean Legazpian zen Urolako.

Ur asko dario Arestiren begiradari, herriarekin geratu baita eta denborak

dakarren urak Intxaustiko hartan jaiotzeko zeudenak jarri nahi dizkigu aurrez aurre. Xabier Aldai, Alaitz Olaizola, Xabier Gantzarain, Fernando Morillo, Xabier Borda Intxaustikotik begizatzen zen herriaren garapenetik datoz, lanean ari dira.

Handituz datoz literaturaren urak Azkoitian eta Azpeitian. Literatur aldizkariak erakusleioa eskaini izan diete zeinek bere aldiko idazleei: Azkoitiko *Txortan* 80ko hamarkadan, ondoren, hor dugu ale bakarreko *Buztanikara*, eta egun bizi-bizi ageri den *Literatuzta*. Bien bitartean poesia errezitaldiak eta literatura ikuskizunak normal bihurtu dira.

Hala ere, arretagarria da erreparatzea, hemengo zenbat eta zenbat idazlek jo duen kanpora bizitzera. Akaso Loiolaren itzalpean bizitzea itogarri gertatuko da, garai bateko lurrun astunak ez direlako suntsitu oraindik. Munduko euskal herriak eta beste herrietako munduak ezagutzea, berriz, beti izan da sormenaren hauspoarentzat ongarri.

Poeta izan zen Aresti, ez igarle eta profeta. “Azkoitiko Zalduntxoan” tertulia lekuan, senak esanda bezala, jakin izan zuen areto hartako kulturaren kutsu aristokratikoaren albotik, leiho hartara jiratu eta kaleak zekarren euskal kultura berria aldeztu. Estimatu diogu.

Bibliografia:

ARETI, Gabriel: *Harrizko Herri Hau*, (Joan Mari Torrealdairen oharrak) Susa, Donostia, 1986.

Aurkibide onomastikoa

Abadia, Antoine: 98, 134, 139-142

Abadia, Eñaut: 140

Abalia: 99

Adema, *Zaldubi*, Grazien: 135,
141-142, 144-145

Aginagalde, Bittor: 191

Agirre Juan Bautista: 64-65

Agirre, Jorge: 191

Agirre, Jose Antonio: 209-210,
232-233

Agirre, Joxean: 269

Agirre, *Lizardi*, Xabier: 177, 185,
191, 223

Agirre, Lope: 242

Agirre, Maria Dolores: 225

Agirre, Txomin: 65, 98, 133, 140

Aita Donostia: Donostia,
Jose Antonio de

Aitzol: Ariztimuño, Jose

Aizkibel, Jose Frantzisko: 42, 91-94

Akesolo, Lino: 99

Alcala Zamora, Niceto: 232

Aldai, Xabier: 270

Aldalur, Arantxa: 269

Aldalur, Jose Inazio: 99-100, 109

Aldasoro, Martin Antonio: 69

Alfonso XIII.a: 173, 189, 237

Alkain, Iñaki: 219

Alkain, *Udarregi*, Juan Jose: 140-141

Altuna Portu, Inazio Manuel: 41,
88-89, 91

Altuna, Jesus: 236

Altuna, Patxi: 37, 54, 105, 253-254,
268

Altzaga, Toribio: 223

Amutxategi, Felipe: 209

Ansola, Gurutz: 253

Antxieta: 226

Apalategi, Frantzisko: 104,
189-190

Arana, Aitor: 269

Arana, Jose Inazio: 42, 97-100, 103,
109, 139

Arana, Sabino: 97-98, 109, 111, 144,
173, 230, 233

Aranbarri, Simon: 215, 217-218

Aranda: 31

Aranzadi, Jose: 251

Arbelaitz: 236

Areilza, Jose Maria: 224

Areitio, Felix: 191

Aresti, Gabriel: 7, 179, 246, 267-270

Argarate, Raimundo: 191

Aristi, Pako: 269

- Ariztimuño, *Aitzol*, Jose: 191-192,
195-199, 223
- Armendariz, Joseph: 69
- Armesto, Ignacio: 33
- Arouet, *Voltaire*, Françoise Marie: 42
- Arregi, Bitor: 167
- Arregi, Rikardo: 249
- Arrese Beitia, Felipe: 98, 134-135,
140,145
- Arrese, Emeterio: 225
- Arriola, Manuel : 55
- Arrizabalaga, Jexux: 269
- Arrue, Frantziska Inazia: 133
- Arrue, Gregorio: 100, 103
- Arrue, Joseba: 197
- Artetxe, Inazio: 177
- Artetxe, Jose: 131, 211, 215, 218-219,
224-225, 227, 241-246
- Artxunberri: 226
- Arxu, Jean Baptiste: 65
- Arzak, Antonio: 98, 133
- Arzallus, Mariana: 15
- Astarloa, Pablo: 59, 98
- Astete, Gaspar: 35
- Ataño: Zapirain, Salvador
- Axular, Pedro: 27-28, 92, 244
- Azkue, Resurrección Maria: 66, 98,
139-140, 235-236
- Azkue, Segundo: 191
- Azpeitiko Santxo: Perez Alzega, Juan
- Azpiazu, Iñaki: 215-217
- Barandiaran, Joxe Migel: 260
- Barandiaran, Salvador: 236
- Baroja, Ignacio Ramon: 105
- Baroja, Pio: 145, 179, 227, 250
- Baroja, Serafin: 22
- Barrena, Polikarpo: 195, 197-198
- Barriola, Abelino: 144, 179, 241
- Barriola, Inazio Maria: 179
- Basabe, Kandido: 104
- Basarri: Eizmendi, Iñaki
- Basazabal, Bizente: 52
- Basterretxea, Nestor: 232
- Beatrice: 86
- Bengoetxea, *Kontxesi*, Maria
Conpección
- Beobide, Krispin: 100
- Bera-Mendizabal: 225, 236
- Bereziartua, Julian: 180
- Bereziartua, Lorentzo: 265
- Bermingham, Rikardo: 99
- Berrondo, Pedro: 19, 22, 88
- Bikondoa, Mikel: 263
- Bilbao, Jon: 98
- Bizkarrondo, *Bilintx*, Indalezio: 70,
85-86, 88
- Blasco Ibañez, Vicente: 159-162
- Boetto, Pedro: 189
- Bonaparte, Louis Lucien: 77, 97-98
- Borbon, Luis: 67
- Borda, Xabier: 270
- Bouzas, Evaristo: 202
- Buonarroti, Michelangelo: 184
- Busca Isusi, Jose Maria: 251
- Camões, Luis: 98
- Campion, Arturo: 98, 133-134,
145-146, 226
- Canovas del Castillo: 78

Carlos II.a: 32
 Carlos III.a: 31, 51, 77
 Carlos V.a: 78
 Carlos VII.a: 78, 103-104
 Caro Baroja, Julio: 251
 Carrion: 88
 Casal Otegi, Felipe: 141
 Cervantes, Miguel de: 19-22
 Clemente XIV.a: 32
 Clemente, Juan: 146
 Curros Enriquez, Manuel: 115-116
 D'Albret, Jean: 183
 Dante: 86
 Darrigol, Jean Pierre: 93
 Das Casas, Alvaro: 117
 Dassance, Louis: 250
 De Castro, Rosalia: 115
 Diaz de Rada, Eustaquio: 99
 Diosdado, Ramon: 91, 93
 Dogson, Edward Spencer: 139
 Don Carlos: Carlos VII.a
 Donostia, Jose Antonio: 105
 Dorronsoro, Joanito: 139, 150
 Duhalde, Martin: 93
 Duvergier de Haudanne,
 Saint-Cyran, Jean: 230, 242
 Duvoisin, Jean Pierre: 98-99, 103, 236
 Egañazpi: 135
 Egia, Joakin: 41, 46, 55, 91
 Egia, Sabino: 217
 Eguzkizar: 245
 Eizagirre, Jose: 195, 198
 Eizmendi, *Basari*, Iñaki: 245-246
 Eleizalde, Luis: 132
 Elias, Imanol: 25, 131, 253-254
 Elizegi, *Pello Errota*, Pedro: 140-141
 Elkano, Juan Sebastian: 242
 Ellakuria, Inazio: 193
 Elortza, Julian: 173
 Elosegi, Jesus: 72
 Elustondo, Miel Anjel: 215
 Enparan, Joakin: 55
 Epelde, Iñaki: 252
 Erkizia, Blas: 179
 Erkizia, Nikolasa: 85
 Errandonea: 191
 Errasti, Mariano: 252
 Errazu, Rikardo: 253
 Errementeriatar S.: 104
 Erroizenea, *Txabalategi*, Jose Joakin:
 77, 79, 81-82
 Escoda, Placid: 99
 Esnaola, Anastasio: 252
 Esopo: 63-64, 66, 91
 Estefania, Jose Maria: 190, 192
 Estornes Lasa, Jose: 209, 215
 Estrabon: 27
 Etxabe, Baltasar: 28
 Etxaide, Jon: 245
 Etxaniz, Nemesio: 245, 249, 257-259,
 267
 Etxeberri, Agustin: 28
 Etxeberri, *Sarakoa*, Joannes: 25-28,
 237
 Etxeberri, *Ziburukoa*, Joannes: 28,
 92
 Etxeberria, Leopoldo: 21, 131, 245,
 253

Etxeberria, Patxi: 192
Etxeberritxo: Zubizarreta, Juan Mari
Etxegarai, Bonifazio: 132
Etxegarai, Karmelo: 131-135
Etxepare, Jean: 115, 127, 161, 177,
183-185
Etxezarreta, Ramon: 269
Ezterripa: 33, 55
Fedro: 64, 66
Felipe II.a: 21
Felipe V.a: 32-33
Fellini, Federico: 259
Fernando Amezketarra: 133, 224
Fita, Fidel: 32
Fiter, Luis Ignacio: 104
Foronda, Balentin: 41
Fraga, Manuel: 251
Frai Luis Leongoa: 227
France, Anatole: 123
Franco, Francisco: 78, 215-217, 224,
265
Gandara, Sebastian: 35, 37
Gandiaga, Bitoriano: 254
Gantzarain, Xabier: 270
Garate Anaia: 227
Garate, Gotzon: 252
Garate, Jose Antonio: 252
Garate, Justo: 204-205
Garbizu, Tomas: 192
Garbo, Greta: 161
Garcia, Ramon: 109
Garfo: 165
Garmendia, Elixabete: 192
Garmendia, Gurutz: 165
Garmendia, Pako: 254
Garmendia, Salvador: 245
Gaztelumendi, Hilario: 191
Gerard: 165
Gereño, Xabier: 265
Gilbeau, Martin: 133
Goenaga, Iñaki: 191
Goenaga, Jose: 104, 191
Goietxe, Leonce: 65
Goikoetxea, Felipe: 191
Goikoetxea, Iñaki: 105
Goikoetxea, Juan: 191, 236-237
Gomendio, Jose Maria: 204-205
Gorosabel, Pablo: 109
Gorostizu, Antonio: 52
Granada de Egako dukea: 91
Gray, John: 66
Guridi, Jesus: 23
Gurmendi, Arantxa: 264
Gurrutxaga, Ildefonso: 51, 53, 131,
205, 229-233
Gurrutxaga, Jose Manuel: 229
Haranburu-Altuna, Luis: 245
Harispe, Jean Isidore: 79, 230
Harriet, Maurice: 27
Heine, Heinrich: 225
Henaio, Gabriel: 232
Henri IV.a: 27
Hoces de, Antonio: 32
Horazio: 27, 42
Hugo, Victor: 126, 183
Humboldt, Wilhelm von: 59, 125, 145
Ibaseta, Juan Bautista: 25
Ibero, Frantzisko: 54

Ibinagabeitia, Andima: 104, 190-191, 225, 258
Idiakez, Frantzisko Xabier: 31, 54-55
Idiakez, Pedro: 13-14
Inazio Loiolakoa: 11, 60, 66, 77-80, 97-98, 100, 103-106, 109-112, 115-116, 118, 120, 123-124, 127, 159-160, 183, 209, 211, 227, 230, 242
Intxauspe, Emmanuel: 98
Iparragirre, Jose Maria: 93, 98
Iparragirre, Juan Inazio: 71
Iraola, Bitoriano: 144
Iriarte, Jose Luis: 253
Iriondo, Jose Mari: 253-254
Iriondo, Lurdes: 263
Irizar, Martin: 251
Irizar, Pedro: 93, 252
Irujo, Manuel: 241
Iruretagoiena, Juan: 236
Isabel II.a: 78
Isasmendi, Iñaki: 215, 219
Isla, Jose Francisco de: 33, 42, 53
Issargarate, Maria: 25
Isusi, Esteban: 118
Iturrioz, Joxin: 269
Itziar, Martin: 250
Izagirre, Koldo: 118, 211, 258
Izarraitzpe: Juaristi, Migel
Iztueta, Juan Inazio: 69-74, 85, 105-106, 109
Izurategi, Jose: 215, 219-220
Jaka, Angel: 251
James, Francis: 198
Jauregi, Agustin: 78, 97-100, 103, 151
Jauregi, *Jautarkol*, Koldobika: 223, 249
Juaristi, Felipe: 269
Juaristi, *Izarraitzpe*, Migel: 252
Juaristi, Manuel: 252
Kaltzakorta, Xabier: 64
Kardaberaz, Agustin: 31, 33-35, 47, 56, 103, 232, 252
Kerexeta, Jaime: 104
King, Martin Luther: 265
Kontxesi: Bengoetxea, Maria Concepción
Korkostegi, Reyes: 251
Korta, Felix: 191
Korta, Frantzisko: 190-191
Krutwig, Federiko: 225
La Fontaine: 66
Labaien, Antonio Maria: 246
Labegerie, Mixel: 249
Laboa, Mikel: 263
Ladron de Guevara, Pablo: 128
Lapitz, Frantzisko: 103
Lardizabal, Frantzisko Inazio: 98
Larralde, Maddalen: 142
Larramendi, Manuel: 28, 31-37, 42, 47, 54, 94, 191, 232, 237, 249
Larrañaga, Gillermo: 191, 226
Larrañaga, Reme: 269
Larrañaga, Xabier: 219
Larrinaga, Jose : 150
Larrunbide, Pedro: 79
Lasarte, Jose Maria: 241
Lauaxeta: Urkiaga, Estepan

Laura: 86
Lauzirika, Javier: 223
Lazkano, Imanol: 269
Legazpi, Migel Lopez: 242
Leizarraga, Joannes: 92
Lekuona, Julen: 263
Lekuona, Manuel: 42, 227, 246
Lertxundi, Benito: 264
Lertxundi, Juan Manuel: 144
Lete, Xabier: 263, 265
Lhande, Pierre: 236
Lizardi: Agirre Xabier
Lizarraga: 78
Lizarralde, *Urkiologi*, Jose Manuel:
166
Lizaso, Joxe: 254
Lobiano, Isabel: 13
Loinaz, Antonio: 215
Lojendio, Julian: 218
Lopetegi, Joxe Mari: 203-205
Lopez Alen, Frantzisko: 133, 141
Lopez Mendizabal, Ixaka: 230
Lortia, Hernando: 15
Loti, Pierre: 123, 125-128, 161, 165
Louis-Lande, L: 125
Luzan, Ignacio: 42
Madariaga, Aingeru: 197
Maeztu, Ramiro: 145
Maistre, Joseph: 226
Manterola, Jose: 42, 98, 142
Manzanas, Meliton: 251
Manzisor, Inazio Maria: 104, 224,
227
Manzisor: 165
Mao Zedong: 192
Maragall, Joan: 190
Maria Cristina Habsburg-
Lorrenakoa: 150
Martinez, Pablo: 77, 100
Martzial: 27
Mayans, Gregorio: 33
Mayoral, Anatole: 151
Mendibil, Pablo: 74
Mendiburu, Sebastian: 34-37,
54-56, 232
Mendizabal, Jose Joakin: 31, 33
Mendizabal, Gabriel: 80
Menendez Valdes, Andres: 41
Menendez y Pelayo, Marcelino: 42,
131
Merino, Juan Karlos: 269
Mickiewicz, Adam: 225
Milia Lasturko: 63
Minnelli, Vicente: 161
Mistral, Federic: 190, 196
Mitzelena, Koldo: 33, 37, 42, 104,
227, 244, 251
Mitzelena, Salvatore: 225
Mogel, Bizenta: 63-66, 91
Mogel, Juan Antonio: 59, 63
Mogel, Juan Jose: 63
Mokoroa, Justo: 260
Mola, Emilio: 216
Montesquieu, Charles-Louis: 42
Monzon, Telesforo: 210-212, 232
Moret, Jose: 232
Morillo, Fernando: 270
Mugertza, Frantzisko: 104

Mujika, Gregorio: 105, 133
 Mujika, Mateo: 202
 Mujika, Plazido: 191, 235, 238
 Muniategi, Sabin: 245
 Munibe, Bitor: 66
 Munibe, Xabier Maria: 41, 53, 63,
 66, 91, 268
 Narrosko markesa: Egia, Joakin
 Neoburgeteko Mariana: 32
 O. ta O.: Ormaetxea, *Orixe*, Nikolas
 eta Oiartzabal, Martin: 225
 Oiartzabal, Martin: 225-226, 236
 Oihenart, Arnaut: 27-28, 92
 Olabarria: 230
 Olabide, Raimundo: 41, 104, 189-190,
 225, 232
 Olaizola, Alaitz: 270
 Oleaga, Nazario: 236
 Omar Kayan: 251
 Onaindia, Santi: 131-132, 191, 252
 Oregi, Jose: 251
 Ormaetxea, *Orixe*, Nikolas: 134, 189,
 223, 225-226, 236, 249
 Otaegi, Anjel: 254
 Otaegi, Karmelo: 254
 Otaño, Jose Bernardo: 140
 Otaño, Pedro Mari: 140
 Otaño, Nemesio: 220
 Otxoa, Santxa: 63
 Ovidio: 27
 Pascual Iturriaga, Agustin: 65,
 105-106, 109, 111, 211
 Pello Errota: Elizegi, Pedro
 Peña Basurto, Luis: 251
 Peñafloredako kondea: Munibe,
 Xabier Maria
 Perez Alzega, Juan: 21,
 Perez Casas, Bartolome: 23
 Petofi, Sandor: 190
 Petrarca: 86
 Petrirena, *Xenpelar*, Juan Frantzisko:
 223
 Pikabea, Rafael: 225
 Pimentel, Magdalena: 21
 Pio VII.a: 78
 Pizarro, Miguel: 79-80
 Platon: 27
 Plazet: 250
 Plinio: 27
 Pouvreau, Silvain: 28, 92
 Power, Tirone: 161
 Poza, Andres: 28
 Priestley, John Boynton: 264
 Prieto, Indalecio: 220
 Primo de Rivera, Miguel: 230
 Pujana, Basilio: 219
 Quetant: 46
 Recio, Bernardo: 33
 Rezola, Mikaela: 118
 Ribaneyra, Pedro de: 104
 Ricci, Lorenzo: 31
 Rocamora, Pedro: 224-225, 242
 Roquemaurel, Mateo: 27
 Saint-Cyran: Duvergier de Hauranne,
 Jean
 Saizarbitoria, Ramon: 254, 264
 Sakabi: 135
 Salaberri, Patxi: 141

Samaniego, Felix Maria: 41, 66
San Inazio: Inazio Loiolakoa
San Martin, Juan: 236, 251, 265
San Miguel, Maria Luisa: 229
Santa Kruz, Manuel Inazio: 235, 237
Santesteban, Juan Jose: 85
Sarasola, Ibon: 251
Sarobe, Frantzisko: 191
Sarriegi, Fidel: 252
Satrustegi, Jose Mari: 13-14
Sbarbi, Jose Maria: 28
Schiller, Friedrich: 191
Segurola, Iñaki: 258, 269
Segurola, *Uztarri*, Jose Maria: 100
Sokrates: 27
Soltxaga: 215, 218
Soroa, Marzelino: 22, 98
Stone, Sharon: 161
Sudupe, Jon: 269
Sudupe, Pako: 259, 269
Tapia, Joseba: 118
Tejeria, Jose Frantzisko: 150-152
Telletxea Idigoras, Jose Inazio: 13,
31-32, 34, 42, 245
Tomas Akinokoa: 64
Torrealdai, Joan Mari: 246
Tournier-Lafitte: 236
Txabalategi: Erroizenea, Jose Joakin
Udarregi: Alkain, Juan Jose
Ugalde, Martin: 233
Ulibarri, Jose Pablo: 92
Unamuno, Miguel: 144-146,
258
Unanue, Donato: 253
Unzurrunzaga, Patxi: 215, 223-224,
242
Uria, Juan Inazio: 131
Uria, Trino: 131, 251
Uriarte, Jose Antonio: 98
Urkiaga, *Lauaxeta*, Estepan: 190-191,
223, 229, 250
Urkijo, Julio: 25, 27-28, 42, 47,
224
Urkiologi: Lizarralde, Jose Manuel
Urko: 143
Urrutia, Ana: 14
Urrutia, Juan: 13
Urruzuno, Pedro Migel: 98
Urzelai, Julene: 117-118
Uztarri: Segurola, Jose Maria
Valentino, Rodolfo: 161
Valle Lersundi, Alvaro del: 251
Valle-Inclan, Ramon Maria del:
252
Valverde, Antton: 265
Vargas Ugarte, Ruben: 64
Verdaguer, Jacint: 190
Villahermosa: 41
Villar, Jose: 251
Villar, Jose Antonio: 263
Vinson, Julien: 99
Virgilio: 27, 43, 64
Voltaire: Arouet, Françoise Marie
Williams, Tenesse: 264
Xaho, Agosti: 134
Xenpelar: Petrirena, Juan Frantzisko
Zabala Arana, Felix: 106
Zabala, Antonio: 77, 82

Zabala, Federiko: 251
Zabala, Juan Luis: 269
Zabala, Mateo: 65
Zabala: 14
Zaitegi, Jokin: 190-191, 225, 249
Zaldubi: Adema, Grazien
Zapirain, *Ataño*, Salvador: 219
Zelaia, Manuel: 179
Zizeron: 42
Zola, Emile: 123, 161,
165
Zubiaga, Migel: 191
Zubimendi: 33
Zubizarreta, *Etxeberritxo*, Juan Mari:
150-151
Zubizarreta, Iñaki: 254
Zubizarreta, Karmelo: 152
Zugazaga, Felipe: 98

Uztarriaren liburuak

| | |
|---------------------------------|---|
| Joxe Takolo (biografia) | Enekoitz Esnaola, 2001 |
| Angel Otaegi (biografia) | Iban Arregi, 2001 |
| Imanol Elias (biografia) | Mailo Oiarzabal, 2002 |
| Patxi Altuna (biografia) | Josune Etxeberria, 2003 |
| Azpeitiko efemerideak | Imanol Elias, 2003 |
| Azpeitiko mendi gida | Lagun Onak M.B., Uztarria, 2004 |
| Euskarazko prentsa eta Azpeitia | Uztarria, 2004 |
| Loiolarik ez balitz | Iñigo Aranbarri, Jose Luis Otamendi, 2005 |



AZPEITIKO UDALA




Azkoitiko
Udala



berria

liburu honen babesleak



ISBN 84-609-5344-0

